

ARARTEKOAREN TXOSTENA  
EUSKO LEGEBILTZARRARI  
1992. URTEA

ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.  
Papel erreziklatua.  
I.S.B.N.: 84-87122-46-9 Liburu osoa  
L.G.: BI-1345-93



EUSKO LEGEBILTZARRARI  
TXOSTENA  
1992

**AURKIBIDEA**

<b>I. ATALA. ARARTEKOAREN AURKEZPENA .....</b>	<b>13</b>
<b>II. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK .....</b>	<b>19</b>
2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN ZERRENDATUAK .....	21
2.2. ARARTEKO ERAKUNDEA ETA KOMUNIKABIDEAK .....	30
2.3. 1992/1993rako BI LANKIDETZA BEKA BANATZEKO DEIALDIA .....	34
2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK .....	35
<b>III. ATALA. KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL .....</b>	<b>45</b>
3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA .....	47
A) Sarrera .....	47
B) Kexen aukeraketa .....	47
3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....	51
A) Sarrera .....	51
B) Kexen aukeraketa .....	52
3.3. HEZKUNTZA .....	56
A) Sarrera .....	56
B) Kexen aukeraketa .....	57
3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA .....	65
A) Sarrera .....	65
B) Kexen aukeraketa .....	66
3.5. OGASUNA .....	77
A) Sarrera .....	77
B) Kexen aukeraketa .....	78
3.6. HERRIZAINGOA .....	83
A) Sarrera .....	83
B) Kexen aukeraketa .....	84

3.7. JUSTIZIA .....	85
A) Sarrera.....	85
B) Kexen aukeraketa.....	86
3.8. INGURUGIROA .....	86
A) Sarrera.....	86
B) Kexen aukeraketa.....	88
3.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK.....	94
A) Sarrera.....	94
B) Kexen aukeraketa.....	95
3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA.....	98
A) Sarrera.....	98
B) Kexen aukeraketa.....	99
3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA.....	108
A) Sarrera.....	108
B) Kexen aukeraketa.....	109
3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA .....	111
A) Sarrera.....	111
B) Kexen aukeraketa.....	112
3.13. BESTE GESTIO BATZUK .....	123
A) Sarrera.....	123
B) Kexen aukeraketa.....	124
<b>IV. ATALA. ESTADISTIKA.....</b>	<b>125</b>
4.1. OHAR OROKORRAK.....	127
4.2. SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA .....	130
4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA.....	133
4.4. LURRALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA .....	140
4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA.....	142
4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA.....	146
4.7. HIRITARRARENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA.....	147
4.8. DIAGRAMAK.....	154
<b>V. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA .....</b>	<b>187</b>
5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK .....	190
A) Eusko Jaurlaritza .....	190

B) Foru Aldundiak .....	192
C) Udalak .....	194
D) Elkargoak .....	197
5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA <i>BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN</i> BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK.....	198
A) Eusko Jaurlaritza .....	198
B) Udalak .....	198
5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARREN, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK.....	201
A) Foru Aldundiak .....	201
B) Udalak .....	201
<b>VI. ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZEAZ</b> .....	203
A) Eusko Jaurlaritza .....	205
B) Foru Aldundiak .....	209
C) Udalak .....	210
<b>VII. ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK</b> .....	217
7.1. HAUTAKETA PROZEDURETAN ADMINISTRAZIOAREN ESPEDIENTEA IKUSTEKO AHALMENA. JARDUERA HORI EZ ONARTZEAK SOR DEZAKEEN DEFENTSA EZA.....	219
7.2. ADMINISTRAZIOAREN JAKINARAZPENA BABES JUDIZIAL ERAGINKORRA IZATEKO ESKUBIDEA BERMATZEARREN.....	224
7.3. ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA ETA BABESPEKO ZAHARBERRITZE GAIAN ZENBAIT ONURA FISKAL BERRIRO INDARRAN JARTZEAREN EGOKITASUNA .....	235
7.4. HONDAMEN-ADIERAZPENETAN ORDEZKO ETXEA JASOTZEKO ESKUBIDEA .....	237
7.5. EUSKAL AUTONOMI KOMUNITATEAN AGERIKO MEATEGI-LANETAN (HARROBIETAN) INGURUGIRO ETA GIZARTE MAILAKO INTERESAK ARAUBIDEZ BABESTU BEHARRA ...	249
<b>VIII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK</b> .....	265

I. ATALA

**ARARTEKOAREN AURKEZPENA**



*Zorigaiztokoak gu inguruko mendietatik  
haruntz begiak luzatzen ez badakigu.*

*Koldo Mitxelena*

1992. urte hau, Europa bateratuaren ataria dela jabeturik, elkarkidetzarako kultur aldi berria dugu helbide, batasunean tokian tokiko era desberdinak elkar harturik eta errespetaraziz; oroituz, mendebaldarrok antzinako grekoerromar ondarea dugula bazter ezinezko oinarri, aniztasunari zor zaion begiramenean, elkar aditzeko deia luzatuz ekin nahi diot Ararteko Erakundearen laugarren urtealdiko jardueren Txosten nagusiari.

Iraganari begira jarritz, egoki iruditu zitzaigun iaz, Espainian lehen aldiz egin zen argitalpenaren ale bat eredu harturik, Gayo-ren *La Instituta* (Gaii, *Institutionum*) faksimil erara plazaratzea, liburu hau Zuzenbide erromarrari buruzko lan gorena baita, mendebaldeko kultura osatu zuen legeriaren giltzari.

Gayok berak esaten digunez, "Zuzenbidea, legez eta usadioz hornituriko herri guztietan, alde batetik berena delarik, aldiz gizaki ororena da. Horregatik, herri bakoitzak beretzat emana, propioa da, eta zuzenbide zibila deritza, hiriaren zuzenbidea balitz bezala. Alabaina, arrazoi naturalak gizaki ororen artean sorturikoa, herri guztiek berdin betetzen dutena, jendeen zuzenbidea da, hots, nazio guztientzako zuzenbidea." Gaur egungo gizartearen egoeraz gogoeta egiteko bidea bederen emango ahal digu horrek.

Nekez geureganatuko ditugu ordea, adikortasuna eta aniztasunarekiko begiramenearen legeak, aurrez, beherenganako gutxiespena, talde edota pertsonenganakoa, zein bazterkeriaren zama gaineratik kentzen ez badugu. Eta, horri dagokionez, Ararteko naizen aldetik, auzietan bitartekari, ez liskar eragile, hizkuntz eskubideen auziari aurreiritzirik eta alderdikieririk gabe aurre egin nahi diot; horretarako euskal hirikideen harremanak elkarren errespetuan oinarritu beharra azpimarratu nahi dut, gizartea, zenbat eta anitzago, orduan eta aberatsago den ustetan.

Horregatik, oso egokiak iruditzen zaizkit, San Millán de la Cogolla-n, joan den urriaren 27an gaztelerari egindako omenaldian, Espainiako Erregeak, hizkuntza berez den ondarea goraiapatuz aditzera eman zuena: "ohoregarria da gure hizkuntzak agertu duen mundu zabalerako joera, eta horrek baztertu ez

baina onartu eta ahaleginik gabe baliatzen ditu gainerakoak, zeren kultur ondarearen osagai diren atal anitzak guztion aberastasuna baitira". Horrela mintzatu zen Erregea, argi eta garbi, gogoan balitu bezala Ziburuko Joanes Etcheberriek 1627ko bertso haietan esanak: "Erregeak behar ditu defendatu genteak, hizkuntza batekoak hain ungi nola bertzeak".

Ezaugarri hori ekarriko digu sortzear dagoen egitasmo europarrak, zeinetan hizkuntza gutxituen hiztunek, herrialdeen arteko bizi-harremanetarako, elebiez edo anitzez jardutera jarri beharko duten, ez ordea, eraginkortasuna gaizki ulerturik, murrizpen baterakorrei men egiten.

Ezinezkoa izango da Europa bateratua eraikitzea, artean hizkuntzarengatik piztutako liskarrak zentzuz gaintitu gabe bagaude. Horregatik, lehenengo ikasbidea, herrialdeek berezkoa duten aniztasuna onartu ondoren, inor iraindua gerta ez dadin, errespetu jarrerak ikasten ahalegintzean datza. Oker legoke euskalduna, mundu zabaleko harremanetan baliagarri bezain aberatsa den gaztelera gutxiestean, baita erdalduna ere, indarge dagoen euskara zapaltzean, nazioaz gainetik sortzear den European, elkar aditzea inoiz baino beharrezkoa den garaian. Une honetan tamalgarria litzaiyuke Otaño bertsolariak esandakoa gogoratzea, euskal foruak galdu zirelarik, Ameriketara etsipenez abiatu zenean, "Ez degu arrazoirik gutxi garelako".

Euskaldunok Legebiltzarrean onartu genuen azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrikoa denak, izan beharko du hizkuntzaren alorrean gure Autonomi Komunitatean euskaldunon bizi-harremanak ahalbideratuko dituen lege-esparrua.

Gorabehera hauen aurrean, ezinbestekoa zait, laguna nuen Ramón Piñeiro López zena gogoraziz, berak erakutsi zidana, "gizona, hizkuntza eta kultura, izate berekoak dira hirurak". Galiziar Hizkuntzaren Erret Akademiako sarrera hitzaldi gogoangarrian honela zehaztu zituen: "... a-forma natural da auto-realización humá señan esas unidades de convivencia que chamamos pobos. O "pobo" é a unidade natural de convivencia; a "cultura" é a súa forma i a "língua" é o seu vehículo. Os distintos pobos, as distintas culturas i as distintas línguas son as realidades concretas que corresponden á unidade ideal que nós chamamos Humanidade. A Humanidade realizase a través dos pobos, a través das culturas, a través das línguas. Ou seña, a través da pluralidade".

Haatik, 1992ko urtealdian ere, tamalez, xenofobia zantzuak eta arrotz den oro ezin eramana nabaritu dira, Machado poeta bikainak zioenaren antzera, ezezagun zaigun guztiarekiko mesprezua baino adierazten ez dutenak. Gurea bezalako herri batek, bere nortasun-bereizgarriak hain maite dituenak, sorterrria nahiz ohiturak uztera beharturik daudenen ezaugarriak ere errespetatu ditzaten nahi dut eta Aita Francisco de Vitoria euskaldun unibertsalaren aholkuak bere egin ditzaten: "Nazio guztiek gizalegez kontraktotzat daukate, inolako arrazoirik gabe, kanpokoak eta erromesak gaizki hartu eta tratatzea, eta, gizabidetsu eta atsegintzat, berriz, harrera ona egitea, baldin eta arrotzek herriari kalterik ekartzen ez badiote".

1992. urtea ez da izan ordea, antzinako egintza garaien gorazarrezko urtea soilik, edo Europatik hurbiltsuago izango garen etorkizun itxaropenekoa. Aitzitik, administrazio publikoen jarduna eguneroko bizimoduan gauzatu den urtealdia ere izan da, eta bertan, administraritza horiek hiritarrekin izan dituzten harremanen egunerokotasunean, ez da askotan, ez gorabeherarik ez legehausterik falta izan.

Horretaz azpimarratu beharrean nago 1992.eko urtealdian Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza deritzogun alorrek sorrarazi dituela hiritarren kexa gehienak. Horregatik, Administrazioaren jardunari eraginkortasuna emango dioten langintza eta kudeaketa metodo arrazoizkoak zorrotz ezarri behar dira. Era berean, administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinakuntza printzipioetan oinarriturik, euskal administraritza publikoen artean nabari diren disfunczioak saihestu beharra ikusten dugu, zeren administratuen eskubideen kalterako baitira.

Horrekin batera, hiritarrenaganako adeitasunari begira, agente publikoen jarrera aldatu behar delakoan gaude, eta administratuen eskubideen bermerrako dauden lege-bitartekoak zehatz erabil daitezzen gomendatzen dugu.

Bestalde, administrazio publikoekin izandako harremanei dagokienez, beti ez dira Erakunde honek nahi bezain atseginak izan, eta batzutan Arartekoaren lana biziki eragotzi dute elkarlanerako jarrera txarrek edota sarri suertatu diren atzerapenek, horren guztiaren berri Txosten honetan, dagokion atalean, ematen dugularik.

Errepara dezazuen eskatzen dizuet gomendio eta iradokizun orokorren atalean, zeren bertan, zeregin honetan jardunean emandako lau urteotan egin izan dugun bezala, azterketa zabalagoa eskatzen zuten zenbait gai aurkeztu baitira, kexak banaka bideratu ditugunean nabari agertu diren arazoez eta hutsuneek eragindakoak.

Legebiltzar Goikargudun honen lana zinez emankorra izan dadin, eta azken batean hiritarren laguntzarako balio dezan, gomendio eta iradokizunok arretaz azter ditzaten eskatzen diet agintariei, eta, egoki baderitzate, berorietan adierazitako hutsak zuzentzeko behar diren neurriak har ditzaten.

Azkenik, nere desioa da, 1992.go urtea ospakizunetara soilik mugatu ez baina, aniztasunari zor zaion itzalean oinarriturik, elkar adituz, aldi berriaren abiapuntu bailitzan gogora dezagun.

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE  
ARARTEKOA

II. ATALA

**ARARTEKOAREN  
JARDUERA NAGUSIAK**

Txostenaren atal honetan kexa-espedienteen biderapenarekin lotura zuzenik ez duten Ararteko Erakundearen jarduerak biltzen dira.

Ildo horretatik, Ararteko Erakundea jendaurrean ezagutzera emateari eta erakundearteko harremanei begira burutu diren jarduerak denborazko hurrenkeran zerrendatzen dira.

Era berean, komunikabideetan izandako partehartzeak adierazten dira, bai 1992an burutu diren ohiz kanpoko hainbat jarduera ere.

Azkenik, bereziki ofiziozko jarduerak azpimarratu nahi ditut. Arartekoak, bere egitekoak betetzen ditu, ez kexen bitartez alde batek hala eskatzen dionean bakarrik, baita egoera jakin batek Erakunde honen berehalako esku hartzea eskatzen duenean ere, horrela, ofiziozko jarduera burutuz.

Aurreko urteetan jarraitutako irizpideekin bat etorriz, ofiziozko jarduera batipat Euskadiko zahar-egoitzen egoerari buruzko ikerketa monografiko sakonari lotuko zaio.

## **2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN ZERRENDATUAK**

1992. urtean Erakundea jendaurrean ezagutzera emateko eta erakundearteko harremanak sendotzeko Arartekoak burutu zituen jardueren zerrenda, denborazko hurrenkeran eratu, aipatuko dugu atal honetan.

Arartekoaren mailako erakunde batek bere eginbeharrak ongi betetzeko, gizarte-sareari ederki uztartu behar zaio eta harremanbide arinak erdietsi behar ditu hala gizarteko talde eragileekin nola herri-agintaritzarekin. Erlaziozko jarduera hauez gain, Ararteko Erakundea, bere jardunbidean nagusi izan behar duen lankidetzaren printzipioan oinarrituz, maiz jartzen da harremanetan Estatuko gainontzeko parlamentu ordezkariarekin, eta nazioarteko hainbat elkar-gunetara joaten da Europako Ombudsmanekin batera bileretan parte hartzera.

Nabarmena da kongresu eta bilera hauen garrantzia, antzeko betekizunak dituzten erakundearen artean iritzi eta esperientziak alderatzeko aproposak baitira eta nork bere egitekoak hobeto burutzen laguntzen baitute.

Azkenik, aurreko urteetan hasitako esperientziei jarraibidea eman zaiela azpimarratu beharrean gaude, hala nola giza eskubideen alorrearekin zerikusirik duten beka deialdiari eta babes bereziaren premian dauden gizataldeen -esate baterako, edadetuak- eskubideak ezagutarazteari.

– **Urtarrilak 16.** Gasteiz. Arartekoa Bambi Ikastetxe Publikora joan zen ikuskaritza bisita egitera.

– **Urtarrilak 17.** Donostia. Arartekoaren Ondokoak Donostia Hiria literatur sarien erabakitze eta banaketa saioan parte hartu zuen.

– **Urtarrilak 18.** Donostia. Arartekoaren Ondokoak Donostiako Lurralde Entzutegian Epailletza Urtearen hasieraldian ekitaldian parte hartu zuen.

– **Urtarrilak 20.** Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako Juan María Atutxa Barne Sailburu jaunarekin bilera sail horren egoitzan.

– **Urtarrilak 21.** Gasteiz. Arartekoak San Vicente elizaren egoitza batean barrolatua zegoen Argeliako etorkin talde bat bisitatu zuen.

– **Urtarrilak 23.** Gasteiz. Carlos Totorica Ermuako Alkate jaunak Arartekoaren egoitza bisitatu zuen.

– **Urtarrilak 24.** Donostia. Lurralde Entzutegiko Luis Manuel Navajas Fiskal-Buru jaunarekin elkarrizketa.

– **Otsailak 3.** Donostia. Arartekoak Institutu Onkologikoa bisitatu zuen.

– **Otsailak 3.** Donostia. Antigu auzoan dagoen Gurutze Gorriaren Ospitalera ikuskaritza bisita.

– **Otsailak 3.** Donostia. Arartekoa Ibaeta auzoan dagoen Gipuzkoako Unibertsitate Kanpusera joan zen bertarako sarbideen egoera aztertzeraz.

– **Otsailak 5.** Donostia. Ondokoak Carlos Santamaria irakasle jauna Doktore "Honoris Causa" izendatu zuten ekitaldian parte hartu zuen.

– **Otsailak 5.** Gasteiz. Carlos Sainz de la Maza Lehendakartzaren Idazkari Sailburu jaunarekin bilera Ajuria Enea jauregian.

– **Otsailak 7.** Bartzelona. Estatu osoko legebiltzar goikargudunen ordezkarien bilera.

– **Otsailak 10.** Gasteiz. Lazkaoko Alkateak Erakundearen egoitza bisitatu zuen.

– **Otsailak 11.** Gasteiz. IVAP/HAEeko Josu Erkoreka Idazkari Nagusi jaunak Arartekoaren egoitza bisitatu zuen.

– **Otsailak 13.** Leioa. UPV/EHUko Alberto López Basaguren Idazkari Nagusi jaunarekin bilera.

– **Otsailak 13.** Bilbo. Arartekoak 1991ko Vasco Press Sariaren banaketan parte hartu zuen, informazio agentzia horrek antolatutako saioan.

– **Otsailak 14.** Gasteiz. Bilera Eusko Legebiltzarraren egoitzan ondorengoekin: Unai Artetxe jauna, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energiako Sailburuordea; M<sup>a</sup> Luisa Fuentes andrea, Industria Administrazioarako Zuzendaria; eta José Miguel Corres jauna, Zerbitzu Orokorren Zuzendaria.

– **Otsailak 17.** Bilbo. Arartekoa Deustuko Unibertsitateko Gradu Aretoan Juan Manuel Eguigaray, Herri Administrazio Publikoetarako Ministrari jaunak “Herri Arduralaritzen modernizazioa” gaiaz eman zuen hitzaldira joan zen.

– **Otsailak 19.** Gasteiz. José Antonio Rubalcaba, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordeko presidentea Arartekoarekin bildu zen honen egoitzan.

– **Otsailak 20.** Leioa. Arartekoak UPV/EHUko Gizarte Graduatu Sozialen Eskolan Ombudsman erakundeari buruzko hitzaldia eman zuen.

– **Otsailak 21.** Gasteiz. Justicia de Aragón Erakundeko Lugarteniente den Miguel Angel Aragüés jaunak Arartekoaren egoitza bisitatu zuen.

– **Otsailak 26.** Gasteiz. Celina Menaza, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteko presidente andreak, Arartekoari bere egoitzan administrazio publikoen erreformari buruz elkarte horrek dituen proposamenak jasotzen dituen txostena eskuratu zion.

– **Otsailak 27.** Gasteiz. Roberto San Ildefonso, Arabako Foru Aldundiko Ogasun Diputatu jaunak bilera bat egin zuen Ararteko jaunarekin, zergapekoen eskubideen defentsarako hiritarrei zerbitzu hobea emateko bi erakundeek elkarrekin lan egin dezaten.

– **Otsailak 27.** Gasteiz. Arartekoa Saharai Herriaren Laguntza Batzordeko bi ordezkariarekin elkarrizketatu zen. Ordezkar horiek txosten bat eman zioten, zeinetan jasotzen baita euskaldun batzuek Saharako

Mendebaldean desagertutako pertsonen alde lana egiteko hartu duten konpromezua.

– **Martxoak 4.** Gasteiz. OMIE Fundazioko (Osasun Mentalaren Ikerketarako Erakundea/Fundación Vasca para la Investigación en Salud Mental) ordezkariarekin bilera Eusko Legebiltzarrean.

– **Martxoak 5.** Madril. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak gonbidaturik, Arartekoak, Erreginak inauguratu zuen Ignazio Zuloaga pintorearen erakusketa antologikoa bisitatu zuen.

Arartekoak, Madrilen zegoela, Finlandiako enbaxada bisitatu zuen, bertako Eeva Kristina Forsman Enbaxadore andreak gonbidatuta.

– **Martxoak 23.** Gasteiz. Jose M<sup>a</sup> Agirre, EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundeko zuzendari jaunarekin bilera.

– **Martxoak 26.** Gasteiz. Arartekoak *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1991* aurkezten dio Joseba Leizaola, Legebiltzarreko Lehendakari jaunari.

– **Apirilak 4.** Donostia. Arartekoak “Manuel Lekuona Saria 1991” Bernardo Estornés Lasari eman zitzaion ekitaldian parte hartu zuen.

– **Apirilak 14.** Arartekoak Langraitzeko kartzelan ospatutako Udaberriko jaietan parte hartu zuen.

– **Apirilak 24.** Bilbo. Daniel Vega Baladrón, Bizkaiko Gobernari Zibil jaunarekin elkarrizketa.

– **Apirilak 27.** Gasteiz. Arartekoak, Arabako Diputatu Nagusiak gonbidatuta, San Prudentzio jaietako Erretretan parte hartu zuen.

– **Apirilak 29.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordean *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1991* aurkeztu zen.

– **Maiatzak 7.** Bilbo. Arartekoak Askatasuna, Berdintasuna eta Segurtasunari buruz Euskal Herriko Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak antolatutako Jardunaldien amaiera ekitaldian parte hartu zuen.

– **Maiatzak 11.** Donostia. Arartekoaren Ondokoak hitzaldi bat eman zuen Donostiako Zuzenbide Fakultatean Ombudsman erakundeaz.

– **Maiatzak 12.** Gasteiz. Arartekoa, Portugaleko Provedor de Justiça deritzanaren izenean, Txagorritxu eta Santiago Apostolua ospitaletara joan



zen, Gasteiz inguruan gertatutako errepide istripu larri baten ondorioz zaurituta gertatu ziren pertsonak, portugaldarrak gehienak, bisitatzena.

– **Maiatzak 14.** Donostia. Ondokoak Ombudsmanaren eginkizunei buruzko informazio hitzaldi bat eman zuen Zuzenbide Fakultatean.

– **Maiatzak 15.** Gasteiz. Legebiltzarreko osoko bilkuran *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1991* aurkeztu zen.

– **Maiatzak 20.** Gasteiz. Arartekoak COSERESeren (Sekularizatutako Erligiosoen Koordinadora) ordezkari batzuk errezibitu zituen.

– **Maiatzak 21.** Gasteiz. Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntzak argitaratutako *Cuaderno de Derecho* n<sup>o</sup> 7 aurkezten da Eusko Legebiltzarrean. Argitalpen horretan, Arartekoak Donostian eta Bilbon “Euskal Herriko lehen Ombudsmanaren hiru urteko esperientzia” gaiaz emandako bi hitzaldiak, eta Arartekoak gonbidatuta Jacob Söderman, Finlandiako Ombudsman jaunak lurralde honetara egin zuen bisitan Bilbon eman zuen hitzaldia jasotzen dira.

– **Maiatzak 22.** Bilbo. Europako Parlamentuko Segurtasun eta Atzerri Batzordeburuak, Enrique Barón jaunak Deustuko Unibertsitatean “Europaren eraikuntzan Europako Parlamentuak duen eginkizuna” gaiaz eman zuen hitzaldian izan zen Arartekoa.

– **Maiatzak 23.** Gasteiz. Arartekoak, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak gonbidatuta, Cecil Andrus, Idaho (EEBB) estatuko Gobernari jaunari egin zitzaion harrera ekitaldian parte hartu zuen.

– **Maiatzak 23.** Bilbo. Arartekoak, EEPSEFERen (Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarleen Federakuntza) V. Jardunaldien barruan antolatutako ekintzetan esku hartu zuen.

– **Maiatzak 25.** Gasteiz. Vienako Unibertsitateko Hans Mukarovsky filologo afrikanista jaunak Erakundearen eta Eusko Legebiltzarraren egoitzak bisitatu zituen.

– **Maiatzak 26.** Gasteiz. Arartekoak Sobietar Batasunera joan ziren Emigrante Espainiarren Elkarteko euskal delegazioa errezibitu zuen.

– **Maiatzak 28, 29 eta 30.** Madril. Espainiako Herri Defendatzaileak C.S.C.E.ren (Conferencia sobre la Seguridad y Cooperación en Europa-Europako Segurtasun eta Elkarlanerako Konferentzia) laguntzarekin antolatu-

tako Ombudsman Jardunaldiak egin ziren. Jardunaldi horien barruan, Espainiako Erregeaz gain beste agintari batzuek ere errezibitu zituzten Ombudsmanak, hala nola, Senatuko Presidenteak eta Madrileko Alkate jaunak.

– **Ekainak 3.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari *Eusko Legebiltzarrari Txostena, 1991* lanaren bigarren liburukia aurkeztu zitzaion, non jasotzen baita ospital psikiatrikoetako buru-gaisoen egoerari buruz egindako ofiziozko ikerketaren azterketa monografikoa.

– **Ekainak 24.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1991* lanaren bigarren liburukia aurkeztu zitzaion.

– **Ekainak 30.** Bilbo. Arartekoak, Bizkaiko Foru Aldundiko pleno aretorean José Angel Sánchez Asiain jauna Euskal Herriko Medikuntzaren Erret Akademiako Ohorezko Akademiko izendatzeko ekitaldian parte hartu zuen.

– **Ekainak 31.** Gasteiz. Antonio Ariz, Laudioko Alkate jaunak Erakundearen egoitza bisitatu zuen.

– **Uztailak 7.** Gasteiz. Jose Antonio Ardantza Eusko Jaurlaritzako Lehendakari jaunak Ajuria Enea jauregian eskainitako harrera.

– **Uztailak 7.** Gasteiz. Irungo Alkate jaunak Erakundearen egoitza bisitatu zuen.

– **Uztailak 14.** Gasteiz. Arartekoak, Jesus Loza Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Diputatu jaunarekin batera, La Esperanza klinikako elbarri fisiko larrien saila bisitatu zuen.

– **Uztailak 14.** Gasteiz. EEPSEFEko (Euskadiko Eri Psikikoen Senideen Federazioa) ordezkariekin bilera Eusko Legebiltzarraren egoitzan.

– **Uztailak 16.** Zaragoza. Aragoiko Justicia erakundearen egoitzan Ararteko Erakundearekin informatika arloan elkarlanean aritzeko protokoloa sinatu zen. Arartekoak, hiri horretan zegoelarik, Francisco de Goyari eskainitako erakusketa bisitatu zuen.

– **Uztailak 22.** Ezkio. Arartekoak, Beasain eta Zumarraga lotzen dituen errepideko lanen ondorioz eragindako baserriaren egoera ikuskatu zuen.

– **Uztailak 24.** Gernika. Arartekoak Aita Luis Villasante Euskaltzainburu ohia egindako omenaldian parte hartu zuen.

– **Uztailak 27.** Gasteiz. Arartekoak Laudioko Alkatea hartu zuen Erakundearen egoitzan.

– **Uztailak 28.** Arartekoak Errenteriako Alkatea errezibitu zuen.

– **Abuztuak 14.** Donostia. Ondokoak Donostiako Alkateak emandako harrera ekitaldian parte hartu zuen.

– **Irailak 1.** Donostia. Lehendakariak Miramar jauregian euskal lurraldeko agintariei eskainitako harreran esku hartu zuen.

– **Irailak 3.** Donostia. Ikuskaritza bisita Antiguoz auzoko osasun zentrura.

– **Irailak 3.** Gasteiz. Arartekoak Tokioko Unibertsitateko Suzuko Tamura irakasle andrea errezibitu zuen.

– **Irailak 6, 7 eta 8.** Gasteiz. Arartekoak gonbidatuta, Voralberg-eko (Austria) Ombudsmana, Nikolaus Schwäzler jaunak Euskal Herria bisitatu zuen. Besteak beste, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak eta Jaurlearitzako Lehendakariak errezibitu zuten.

– **Irailak 15.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusi kargua Eduardo Mancisidor jaunak hartu zueneko ekitaldia.

– **Irailak 18.** Idiazabal. Herri horretako biztanleek, udal polikiroldegia zehazki non kokatu eta eduki beharko lituzkeen ezaugarriak erabakitzeke burutu zuten partehartze esperientzia berria publikoki aurkeztu zen. Esperientzia hori “Núcleos de Intervención Participativa-Interbentzio Gune Partehartzaileak” (NIP-IGP) deitutako hiritarren partehartzeke eredu oinarritzen da. Era horretako lehen esperientziak Alemanian jarri ziren martxan, eta hau izan da Espainian egin den lehena. Aurkezpenean, Arartekoaz gain, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, herri agintariak eta gure komunitatean partehartze eredu hori bultzatu duen Donostiako Lege Soziologia Laborategiko zuzendaritzak esku hartu zuten. Erakunde honek bestalde, partehartze eredu hori ezagutzera eman eta gomendatzeko burutu zituen ekintzen berri zabala eman zuen *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1991n*.

– **Irailaren 23tik 27ra.** Santiago de Compostela. Herri Defendatzaileek urtero egin ohi dituzten bilerak direla eta, oraingoan Valedor do Pobok antolatuta, Galizako Komunitate Autonomoan Herri Defendatzaileen VII.

Jardunaldiak egin ziren. Lan saioetan, legebiltzar goikargudunek giza eskubideen defentsaren egoera aztertzen dute gai nagusi bezala, eta urteroko bilera horretarako hirugarren adinekoen eskubideen arazoa eztabaidatu zuten.

– **Irailak 29.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusiarekin bilera Arartekoaren egoitzan.

– **Irailak 30.** Gasteiz. OMICeko (Oficinas Municipales de Información al Consumidor/Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak) ordezkariekin bilera Eusko Legebiltzarrean.

– **Urriak 1.** Gasteiz. Barne Sailburuarekin bilera sail horren egoitzan.

– **Urriak 6.** Gasteiz. Arartekoak eta José Guimón Euskal Herriko Unibertsitateko Psikiatriako katedratiko jaunak, Erakundeak OMI Erekin (Fundación Vasca para la Investigación en Salud Mental/Osasun Mentalaren Ikerketarako Euskal Fundazioa) batera gure Autonomi Komunitateko ospital psikiatrikoetan dauden buru-gaisoen egoeraz egindako ikerketa lana aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarreko prentsa aretoan.

– **Urriak 7.** Leioa. Arartekoak Bizkaiko unibertsitate Kanpuseko areto nagusian UPV/EHUko ikasturtearen hasieraldian parte hartu zuen.

– **Urriak 8.** Donostia. Roman Sudupe Garraio eta Azpiegituretarako Foru Diputatu jaunarekin bilera.

– **Urriaren 11tik 14ra.** Viena. Ondokoak Ombudsmanaren Europako Institutuak antolatutako Ombudsmanaren V Nazioarteko Jardunaldietan esku hartu zuen. Lan saioetan, Europako legebiltzar goikargudunek giza eskubideak defendatzeko eta babesteko lan amankomunari dagozkien gaiak aztertu ziren. Egun horietan, herri horretako agintari nagusiek errezibitu zituzten.

– **Urriaren 15etik 20ra.** Salzburgo. Arartekoak Ombudsman eta Giza Eskubideen Babesari buruzko Mintegian parte hartu zuen. Ombudsmanaren V. Nazioarteko Jardunaldiak zirela medio, lan saio horiek Austriako Giza Eskubideen Institutuak eta Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuak antolatu zituzten Europako Kontseiluaren eta Austriako Ombudsmanaren Institutuzio Federalarekin batera.

– **Urriaren 21etik 22ra.** Londres. Arartekoak Britainia Handiko Parlamentua bisitatu zuen, eta Erakunde horretako dokumentu biltegirako latin eta gaztelarazko Gayoren *La Instituta* obraren lehen argitaraldiaren faksimiledizioa oparitu zuen.

– **Urriaren 23tik 24ra.** Andorra. Pirinioetako Lan Batzordeko Kultura Sailak antolaturik, Pirinioetako Populaketari buruzko I Sinposiuma egin zen; Arartekoak lan saio horien zuzendaritza lanak egin zituen eta Pirinioetako populaketaren ardatz historikoari buruzko txosten lana aurkeztu zuen.

– **Urriak 30.** Donostia. Arartekoak, UPV/EHUKo Gipuzkoako Kanpuseko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Prozesal Departamentuak antolatu zuen Kasazio Foral eta Erregionalari buruzko Mintegia inauguratu zuen.

– **Azaroaren 2 eta 3.** Madril. Carlos III Unibertsitateko Joaquín Ruiz-Giménez Katedrak “Herri Defendatzailea Europaren Batasunerako Hitzarmenean (Maastricht)” izeneko jardunaldietan egin ziren lan saioetan parte hartu zen.

– **Azaroak 5.** Gasteiz. Bilera SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentrua deritzan institutuko zuzendaritzarekin. Erakunde horrek, Arartekoa Autonomi Komunitateko adinekoen zentruetan bizi direnen egoeraz prestatzen ari den berarizko ikerketa monografikoan esku hartu zuen.

– **Azaroak 6 eta 7.** Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko egunkarietan 1992/93an Arartekoarekin batera lana egiteko lankidetza-beka deialdia argitaratu zen. Hil horretako 30ean epaimahai kalifikatzailea bildu ondoren, lehen proba, idatzizkoa, abenduaren 9an egin zen, eta bigarrena, ahozkoa, hil horren 17an.

– **Azaroak 12.** Gasteiz. Arartekoak Bizkaiko Ahalurrien Federakuntzako ordezkariak errezibitu zituen.

– **Azaroak 20.** Donostia. Arartekoaren Ondokoak Kriminologiako Euskal Institutuaren ikasturte hasierako ekitaldian parte hartu zuen.

– **Azaroak 25.** Bartzelona. Arartekoa Kataluniako Síndic de Greuges, Frederic Rahola I D’Espona zenaren hileta elizkizunetan izan zen.

– **Azaroak 27.** Bilbo. Arartekoak Josu Montalbán Bizkaiko Gizarte Ongizateko Foru Diputatuari Autonomi Komunitateko hirugarren adinekoen zentruetan dauden edadetuei buruzko ofiziozko ikerketa lana aurkeztu zion.

– **Abenduak 1 eta 2.** Erakundearen zuzendaritzak, Araba eta Gipuzkoako Gizarte Ongizateko Foru Diputatuak beraien egoitzetan bisitatu zituen, Arartekoak 1992. urtean berarizko jarduera nagusi gisa adinekoen zentroei buruz egin duen azterketa monografikoa aurkezteko.

– **Abenduak 4.** Wuppertal (Alemania). “Bergische Unibersität Wuppertal”en hiritarren partaidetzarako erodei buruzko lan saio zientifiko bat egin zen, eta bertan, aipatutako unibertsitateak gonbidatuta, Arartekoak ponentzia bat aurkeztu zuen: “Ombudsmana Euskal Herrian eta Interbentzio Gune Partehartzaileen eredia: pakebiderako beste bide bat”. Lan saioan Hans-Dietrich Genscher jaunak, Alemaniako Atzerri Ministro ohi eta Parlamentariak parte hartu zuen “Europa deszentralizatuaren helburua” gaiaz hitzeginaz. Beste pertsonaia batzuen artean, ondorengoek ere parte hartu zuten: Klaus Hansch, talde sozialdemokratako lehendakariorde eta parlamentari jaunak; Peter Dienel Wuppertaleko Unibertsitateko irakasle jaunak eta unibertsitateetako beste aditu batzuek.

– **Abenduak 9.** Gasteiz. Arartekoa Erakundearekin lankidetan jardutze-ko bi beken deialdiari zegokion idatzizko proba burutu zen Eusko Legebiltzarrean.

– **Abenduak 14.** Donostia. Erakundeak Justizi Jauregira egindako bisita. Bertan Lurralde Entzutegiko agintari gorenekin batzartu ziren.

– **Abenduak 15.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Presako Legegintza, Araudi eta Eraentza Batzordeari Ararteko Erakundearen 1993rako Aurrekontuen Aitzinegitasmoa aurkeztu zitzaion.

– **Abenduak 17.** Gasteiz. Arartekoa Erakundearekin lankidetzan jarduteko bi beken deialdiari zegokion ahozko proba egin zen Eusko Legebiltzarrean.

– **Abenduak 19.** Hondarribia. Arartekoak, herri horretako Juan Sebastian Elkano aterpe-etxean Ombudsmanaren zereginei buruzko hitzaldia eman zion Getxoko Institutuko BBBko ikasle talde bati.

## 2.2. ARARTEKO ERAKUNDEA ETA KOMUNIKABIDEAK

Joan den urtealdiko jarduera nagusien zerrendaren osagarri dator, jarraian, Arartekoak komunikabide saioetan izandako partehartzeen saila. Bertan sartu ditugu, Erakundeak antolatu dituen ohiz kapoko ekintza nagusien berri ematearren burututako saioak, eta baita, Arartekoari legeak ematen dizkion funtsezko betekizunen berri hiritarrek izan dezaten, zabalkunde-lan gisa eraturakoak ere.

Era berean, ondorengo bilduman agertuko dira, halaber, idatzizko komunikabideetan plazaratu diren hainbat idazlan; Arartekoak irakurleari gogoetarako eskaini dizkion iritzi artikulua dira, Erakunde honetan, hiritarren eskubideen babesari loturik lehenago aztertu diren gaiak lantzen dituztenak.

- **Urtarrilak 16.** Radio Euskadiko “Menuda mañana” irrati saioan Núcleos de Intervención Participativa/Interbentzio Gune Partehartzaileak (NIP/IGP) deitutako gizartearen partaidetzarako ereduari buruzko elkarrizketa.
- **Urtarrilak 24.** EFE Agentziari adierazpenak Gipuzkoako Ospitalera Arartekoak egin zuen bisitaz.
- **Urtarrilak 30.** Elkarrizketa Segura Irratian.
- *Ikastola aldizkariaren* urtarrileko zenbakian “Gazteek ez dituzte kezak aurkezten” artikulua argitaratu zen eta Arartekoak bertan adin txikikoen esku-bideei buruzko gaia aztertu zuen.
- **Otsailak 4.** TVEko “A debate” saiora gonbidatu zuten Arartekoa.
- **Otsailak 6.** Donostiako Cadena Ser irratiako “Hoy por hoy” irratsaioan parte hartu zuen.
- **Otsailak 27.** Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteak hiru hilean behin argitaratzen duen boletinerako elkarrizketa egin zioten Arartekoari Autonomi Komunitateko Administrazioarekin burutzen diren harremanetan hiritarren eskubideen babeserako gaiet buruz.
- **Martxoak 17.** Radio Euskadiko “Menuda mañana” irratsaioan telefono bidezko elkarrizketa.
- **Martxoak 18.** Donostiako Herri Irratiko “El quiosco de la Rosi” irratsaioan parte hartu zuen.
- **Martxoak 26.** *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1991*ren aurkezpena egin zela eta, Arartekoak komunikabide ugarian parte hartu zuen.
- **Apirilak 6.** Euskadi Irratiko “Goizean behin” irratsaioan elkarrizketa luzea egin zioten.
- **Apirilak 19.** ETBk Arartekoari “Palabra de Ley” saiorako egin zion elkarrizketa eskaini zuen.
- **Apirilak 23.** *Herria* astekariak “Iparraldean ere ez litzateke gaizki Ararteko bat” idazlana argitaratu zuen, Ararteko Erakundeak dituen eginkizunen berri ematen zuena.

– **Apirilak 29 eta 30.** Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean *Legebiltzarrari Txostena 1991* aurkeztu ondoren, Arartekoak partehartzeko ugari burutu zituen komunikabideetan.

– Kontsumo gaien alorreko berriak ematen dituen *Eroski* hilabetekariaren maiatzeko zenbakiak “La calidad del servicio administrativo es mejorable” artikuluan Arartekoari egindako elkarrizketa jaso zuen.

– **Maiatzak 3.** *Deia* egunkariak bere gehigarri bereziko orrialdeetan Arartekoari egindako elkarrizketa luzea argitaratu zuen.

– **Maiatzak 7.** Gasteizko Radio Nacionalerako elkarrizketa, Autonomi Komunitateko ospital psikiatrikoetan dauden gaisoen egoerari buruz egindako lan monografikoaz.

– **Maiatzak 11.** *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarian Arartekoaren Ondokoak idatzitako “Ombudsman y realidad social” iritzi artikulua argitaratu zen.

– **Maiatzak 19.** Gasteizko Cadena COPEk Arartekoari Erakundearen eskuetan dauden gai orokorreari buruz egindako elkarrizketa eskaini zuen.

– **Maiatzak 21.** *El Mundo del País Vasco* egunkarian Arartekoaren “La hora de la participación” iritzi artikulua argitaratu zen.

– *Ikastola aldizkaria* hilabetekariak maiatzeko zenbakian Arartekoaren “Gaurko umeak dira biharko gizartearen arduradun” lana argitaratu zuen.

– Getxoko *Galea* hilabetekariak Erakundearen jardunaren inguruko berriak jasotzen zituen artikulua argitaratu zuen.

– Bizkaiko Abokatuen Elkargoak Ararteko Erakundeak egindako “Arartekoa eta Justizia” artikulua argitaratu zuen.

– **Ekainak 4 eta 5.** Gasteiz Irratia eta Radio Euskadin elkarrizketak, Autonomi Komunitateko ospital psikiatrikoetan dauden gaisoen egoerari buruz egindako *Legebiltzarrari Txostena 1991*aren bigarren liburukiaren aurkezpenak eraginak.

– **Ekainak 14.** *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariak Arartekoaren “Atención a la asistencia psiquiátrica” artikulua argitaratu zuen.



– **Ekainak 15.** Donostiako Radio Nacionalen elkarrizketa Arartekoaren lanaren inguruko gai nagusiez.

– Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartearen hilabetekarian, ekaineko zenbakian, psikiatrikoen egoerari buruzko “Humanizar la psiquiatría” artikulua argitaratu zen.

– **Uztailak 16.** Arartekoak Aragoiko hainbat komunikabidetan parte hartu zuen Komunitate horretako El Justicia de Aragón erakundearekin informatika arloan elkarrekin lan egiteko izenpetu protokoloaren ondoren.

– **Uztailak 17.** *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariak, “El derecho al ambiente” izenburupean Arartekoaren “El derecho al ambiente como derecho de participación” artikulua laburpena argitaratu zuen. Artikulu hori hil horren 18an *El Diario Vascok* ere argitaratu zuen.

– **Irailak 7 eta 8.** Voralbergeko (Austria) Ombudsmanak Euskal Herrira egindako bisita zela medio, komunikabide ezberdinek eman zuten berria.

– **Irailak 28.** Arartekoak Antena 3 irratiako “Viva la gente de Vitoria” irrati saioan parte hartu zuen Galizian egin berriak ziren Herri Defendatzaileen jardunaldien ondoren.

– **Urriak 6.** Bilboko Onda Cero irratian Arartekoaren eginkizun eta jarduerari buruzko elkarrizketa.

– **Urriak 28.** Radio San Sebastianen elkarrizketa, Vienan egindako Ombudsmanaren V Konferentziaz.

– **Urriak 31.** Juan San Martin jaunaren biografiari buruzko elkarrizketa Euskadi Irratian.

– Hondarribia aldizkariaren urriko zenbakian “Itsas-kontsula Hondarribian” artikulua argitaratu zen, Itsasoko Epaile Kontsularen izaerari buruzkoa.

– **Azaroak 16.** Eibarko Onda Cero irratiako “Protagonistas locales” irratsaiorako elkarrizketa Arartekoaren zereginaz.

– **Azaroak 20.** *Deia* egunkariak Arartekoari egindako elkarrizketa batean oinarriturik “Los derechos de los ancianos” artikulua argitaratu zuen. Euskal Herrian adinekoentzat dauden zentruetan bizi diren aiton-amonen ego-

eraz Erakunde honek egindako azterketa monografikoan jasotako ideia nagusiak laburbiltzen zituena.

– **Abenduaren 4tik 10era.** Arartekoaren inguruko berriak eskaintzen dituzte Euskal Herriko komunikabide ezberdinek Wuppertaleko (Alemania) Unibertsitateak “Interbentzio Gune Partehartzaileak” deritzan partaidetza ereduari buruz antolatutako ikerketa saioaz.

– **Abenduak 14.** Arartekoak, Donostiako Entzutekira egindako bisitarren ondoren hiri horretako irriati kate ezberdinetan hitzegin zuen.

– **Abenduak 22.** Radio Rioja irratirako telefonoz egindako elkarrizketa.

– **Abenduak 22.** Arartekoari egindako elkarrizketa Gasteizko Cadena SER irriatiaren estudioetan.

– **Abenduak 30.** Loiolako Herri Irratiko estudioetan elkarrizketa luzea grabatu zioten, besteak beste, urteko balantzea egiteko.

– Hilabete horretan *Emakunde* aldizkariak Arartekoaren “Gaurko gogoia eta beharra” artikulua argitaratu zuen.

### 2.3. 1992/1993rako BI LANKIDETZA BEKA BANATZEKO DEIALDIA

Giza eskubideei edo/eta Ombudsmanari buruzko ikerketa eta heziketarako bi kolaborazio-beka emateko deialdia egin zen aurreko urtealdian.

Lehen esperientzia hori oso positiboa izan da, ez bakarrik hautagaiek aurkeztu proiektuak kalitate handikoak zirelako, adjudikatzaileak aukeratzeko lana zailduz, baizik eta batez ere adjudikatutako lanen azken emaitzengatik, hiritarren eskubideei buruz gaur-gaurko gaien azterketa zorrotza eskaintzen dutelako. “Ingurugiroarekiko eskubidearen babesia” eta “Etxebizitza publikoei buruzko lege-jaurpidea eta alor horretan burutzen diren jardunak” dira gai horietako batzuk.

Arartekoak horregatik, giza eskubideen azterketari buruzko bilduma argitaratzeko asmoa du eta aipaturiko bi lan horiez emango zaio hasiera. Horrela, urtero beka horietarako deialdia egiten jarraitzea erabaki da, hain garrantzitsuak diren gaien inguruko ikerketa monografikoak sustatzen lagunduko dutelako.

Horrela, 1992ko urriaren 20ko Arartekoaren Ebazpenaren bidez elkarlanean beka atera ziren graduatu ondokoentzat eta, dagokien hautaketa prozesuaren ondoren, 1992ko abenduaren 18ko Arartekoaren Ebazpenaren bidez adjudikatu ziren.

1992-1993 ikasturterako aukeratutako bi bekadunei izendatutako azterketa gaiak hauek dira:

- Adin gutxikoen eskubideen babesa.
- Giza eskubideak eta legez kanpoko inmigrazioa. Egoera irregularrean dauden etorkinen estatutu juridikoa giza eskubideen ikuspegitik.

Bi lan horiek oso sakonak dira eta gizarte mailan eragin handikoak; duela gutxi ospatu dugu Adin Gutxikoen Nazioarteko Eguna, eta horregatik haurren babesa sistematikoki aztertzea garrantzi handikoa iruditu zaigu; gaia nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik ikertzeaz gain, goreneko arauaren 39. artikuluan nola tratatzen den ere aztertuko da.

Bestalde, gure herrian azaldu diren jarrera xenofoboaren gaurkotetasun tamalgarria dela medio, atzerritarren eskubideen babeserako azterketa bat egitea guztiz arrazoizkoa eta komenigarria da.

## 2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK

Aurreko txostenetan esan den bezala, Arartekoak batez ere euskal hiritarrek aurkeztutako kekek ebazten ematen du denborarik luzeena, kexa horiek eragindako espedienteen bideratze-lanek ordu asko eskatzen dituztelako. Halere, Arartekoa sortzen eta arautzen duen 3/85 Legearen 17. artikulua dioenez, Arartekoak "bere berenezko bidez arau-contrako egoeraren bat ezagutu dezanean, bere arioz ekin ahal izango dio argipideketari."

Eta horregatik, oso garrantzizkotzat jotzen dira ofiziozko jarduerak, horien helburua, aurreko urtealdietako irizpideei jarraiki, eta langilego nahiz material mailan dauzkagun mugak kontuan hartuz, euskal hiritarren eskubideen babesa bermatzeko garrantzi berezia duen gaien azterketa monografiko zorrotzak egitea baita. Garbi dago, administrazio gai askori buruz egin daitezkeela ofiziozko ikerketak; halere, bereziki baldintza txarretan bizi diren kolektiboaren egoera sakonki aztertzeko irizpideari eusten diogu. Jakina den bezala, aurreko bi txosten monografikoei dagokienez, lehenengoa Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren atxiloteta zentruen egoerari eta atxilotuen eskubideei buruzkoa zen, eta bigarrenak, berriz, psikiatrikoak hartu zituen gaitzat; 1992-1993 urtealdi honetan, hain juxtu Adinekoen Nazioarteko Urtea ospatzen denean, hirugarren adinekoei eskaini diegu txosten berezi hori.

Hain garrantzitsua den gaiari ekiterakoan, funtsezkoa zen erabakitzea hirugarren adinekoei dagozkien anitz alderditatik zein aukeratuko zen aztergune, ikuspegi ezberdinetatik iker baitaiteke, eta gainera, edadetuen arazoak oso ugariak baitira.

Gaia behar bezala tratatzeko, lehenik zahar-etxeak ikuskatu behar zirela iritzi diogu, zentru horien kopurua nahiz kalitatea gutxitu egin diren eta egoitzetan bizi diren zaharren eskubideak errespetatzen diren aztertuz.

Ikerlan honetan, beraz, ez dira aztertuko zaharren bizierari zuzenean eragiten dioten gaiak, hala nola osasun zerbitzu edo Gizarte Segurantzazkoak, ez eta zahar-etxeetan bizi ez diren edadetuen egoera ere.

Aztertu nahi den errealitatea adimen-legez ezagutzera iristeko erabili den metodologia ondorengo ikerpide nagusietan oinarritu da.

Hasteko, alor horretan aurretik eginda zeuden ikerketak eta gai horri buruz dagoen dokumentazioa aztertu ziren.

Gainera, gai horretan adituak direnekin bilera egin zen. Bertan Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate sailetakako ordezkariak, zahar-etxeetako zuzendariak, Gurutze Gorria, Itxaropenaren Telefonoa, Caritas, Laugarren Adinekoentzako Laguntzarako Elkarteak, sendagile gerontologo bat eta Ararteko Erakundeko ordezkari bat bildu ziren; zuzendaritza eta koordinazio lanak Fundación SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentruak egin zituen, fundazio horrek eskaini baitzizkigu ofiziozko jarduera hau egiteko behar ziren teknikabideak.

Agiri-azterketaren eta adituen bilera horren bidez, egoeraren nondik norakoak zehaztu ahal izan dira eta egoera hori hobeto bideratzen lagundu digun gai-sailkapena egiteko aukera izan dugu.

Azter zitezkeen gaien artean ondorengoak zeuden: eskainitako plazak gutxitzea eta, ondorioz, hainbat aiton-amona kanpoan utzi beharra, gai horretan ahalmena duten administrazioen arteko koordinazio-bideak, egoitza publikoen egungo egoera edadetuen eskubideen ikuspegitik, intimitate eskubidea, zaharren duintasuna urra dezaketen jarduerak, egoitzetan sartzeko sistemak, egoitzaren antolaketari dagozkion erabakietan parte hartzea, eskubideak babesteko prozedura, zaharrei lege mailan eskubideak kentzea, erresidentzien finantziaketa eta zerbitzu alternatiboen sarea.

Dokumentuak aztertu eta adituen taldeak ateratako ondorioak ezagutu ondoren egin zen sailkapena, Autonomi Komunitateko zahar-etxeen egiazko egoerarekin erkatu behar zen.

Horretarako, Erakundeko ordezkariak eta SIIS Fundazioko teknikari lan-kideek zentru horietara egin behar zituzten bisitak prestatzerako orduan, alde aurretik konpondu beharreko bi arazo topatu genituen.

Batetik, ordurarte egindako ofiziozko jarduera monografikoetan ez bezala, kasu haietan ikertutako erakunde guztiak -atxiloketa zentru eta psikiatrikoak- bisitatu baitziren, Autonomi Komunitatean zahar-etxe asko daudenez, denetara bisita egitea erabat ezinezkoa zen.

Bestetik, egoitzen jabegoa oso mota ezberdinetakoa denez gero, izaera publikoa dutenak bakarrik bisitatu behar ote ziren zalantzan jartzen zen. Gai horri zegokionez, hauxe erabaki zen: ahalik eta ikerketarik fidagarriena lortzeraren, jabetasunaren gaia alde batera utziz egin behar zela bisitatuko ziren egoitzen sailkapena.

Bisitatu beharreko zentruak begira, lehen aipaturiko baldintzak ahaztu gabe, haietako batzuetara bakarrik joatea erabaki zen eta irizpide bikoitza erabili zen horretarako: alde batetik, erakunde-arriskugarritzat jo ditzakegunak, hots, bai aldagai objektiboak -gela/ohe kopurua erlazioa, eraikuntzaren antzina-

tasuna, e.a.-, bai adituen iritziak kontutan hartuz, aldez aurretik desegokiak ziruditen egoitzak bisitatu nahi ziren; eta bestetik, lurralde banaketarako irizpidea jarraitu zen, Euskal Herriko eskualdeetako egoitzen egoera ezagutzeko aukera emango ziguna.

Irizpide hori jarraiki, hauek dira aukeratutako egoitzak:

## ARABA

San Roke Zahar-etxea.

Laudio

Araba Klinika

Gasteiz

Aranako Egoitza

Gasteiz

San Prudentzio Egoitza

Gasteiz

## BIZKAIA

Fundación Bolívar Egoitza

Areatza

Abando Zentru Geriatrikoa

Bilbo

Bizkaiko Andra Mari Etxea S.L.

Bilbo

Bizi-Berria Geriatrikoa

Bilbo

Labayru Egoitza Geriatrikoa

Bilbo

Mi Casa Egoitza. Txiroen Arrebatxoak.

Bilbo

Revilla Egoitza

Bilbo

Erret Errukietxe Saindua  
Durango

Txurdinaga Egoitza  
Bilbo

Erret Errukietxe Saindua  
Durango

Bihotz-Alai Egoitza  
Gamiz-Fika

Leku-Eder  
Getxo

Sagrado Corazón Udal Egoitza  
Getxo

San Esteban E.A. Geriatrikoa  
Getxo

Leioako Egoitza  
Leioa

San Roke Egoitza  
Markina-Xemein

San Jose Etxe Alai Egoitza  
Mungia

Egoitza Nagusia E.A.  
Muskiz

San Juan Bataiatzailea Gloriotsua Ospitale Saindua  
Portugaleta

Juan Ellacuría de Larrauri Zaharrentzako Udal Egoitza  
Sestao

## GIPUZKOA

San Jose Egoitza  
Donostia

San Rafael Egoitza  
Donostia

Zorroaga Egoitza  
Donostia

San Lazaro Zaharren Egoitza  
Elgoibar

Santa Maria Magdalena Egoitza  
Hernani

San Juan eta Magdalena Ongintza Etxea eta Ospitala  
Segura

Aukera egin ondoren, Arartekoak eta Erakundeko ordezkariak egoitza horiek bisitatzeari eta berorietan bizi duten egoera aztertzeari ekin diote, egoitzak oso-osorik ikuskatuz eta zaharren baldintzak aztertuz. Gainera, egoitzetako zuzendari taldearekin bilera egiten da, txostena osatzeko behar diren datu objetibo batzuk jasotzearen, galdesorta bat eskuratzen zaielarik.

Era berean, egoitza horietako batzuen ikerketa kualitatiboa egiten dute SIIS Fundazioko kideek, esan bezala, lan monografiko hau osatzeko Erakundearekin batera lanean ari den talde teknikoa baita Fundazio hori.

Ikerketa horren helburua, egoitzetan bizi den jendearekin eta berorien arduradunekin harreman zuzena eta sakona edukiaz, bertako arazoak ezagutzea da; baina gure asmoa ez da gai guztiak zahar-etxe orotan zientifikoki aztertzea, hori txosten honen xedeaz bestelakoa delako, baizik eta egoitzetan bizi direnen eta horiek zaintzen dituztenen iritziak jasoz, gure egoitzak egiaz nolakoak diren ezagutzea.

Ofiziozko jarduera hau amaitzen denean, Legebiltzarrari txosten berezia aurkeztuko zaio laister.

Ikerketa horretaz gain, inork erreklamaziorik egin ez badu ere, interesgarria iruditu zaigun kasu batzuetan zenbait jarduera zehatz burutu izan dira.

Horrela, joan den urteko irizpideari jarraiki, lurralde historikoetako boletín ofizialetan eta Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratutako oposaketa eta lehiaketa iragarkiak ikuskatu dira legezkoak ote ziren egiaztatzeko.

Jarduera berezia arrazoi hauengatik burutzen da: alde batetik, aipatu kasuek pertsona askorengan eragina dutelako, eta bestetik, lehiatzaileak nekez

ausartzen direlako deialdi bateko baldintzen aurka egiten, erreklamatzek hau-  
taproben azken emaitzetan izan ditzakeen ondorio kaltegarrien beldur direla-  
ko.

Horrela, iazko kopuruarekin alderatuz, Zuzenbidezkoak ez zirelako  
Arartekoaren bitartekaritzaren premia izan duten deialdien kopurua gutxitu  
egin bada ere, azpimarragarria da Lasarte-Oriako Udalak lanpostu baterako  
egin zuen lehiaketa-oposaketa deialdian Arartekoak burututako jarduera; izan  
ere, oposaketan parte hartzeko baldintzen artean, hauxe eskatzen zen: “errol-  
dapan agiriaren bidez frogatu behar da, eskariak onartzeko epea amaitzen den  
arte, gutxienez urtebetez bizi izana Lasarte-Orian edo inguruko herri hauetako  
batean: Andoain, Hernani, Donostia, Urnieta, Usurbil.”

Ararteko honen ustez, Herri-administrazioan sartzeko hautaprobetan  
onartua izateko ezar zitezkeen baldintza bakarrak legeetan iragarritakoak  
ziren, hain zuzen ere otsailaren 7ko 315/64 Dekretuaren bidez onarturiko  
Estatuko Funtzionari Zibilen Legearen 30. artikuluan xedatuta daudenak.

Konstituzio Epaitegiak ere jarrera bera azaldu du 1.035/86 Epaiaren  
bidez, zeinetan hau esaten baitu: “Konstituzioak bermatzen du, erakunde  
publikoetako karguetara iristeko, baldintza eta eskakizun orokorrak eta abs-  
traktuak baizik ezin direla ezarri, alegia, ezin direla eskatu arauak xedatu ez  
dituzten baldintzak”; horrela interpretatzen da Espainiako Konstituzioaren  
23.2 artikulua, zeregin eta kargu publikoetara iristeko berdintasun printzipioa  
finkatzen duena.

Horregatik, deialdia bertan behera uztea eta berdintasun printzipioa haus-  
ten zuen baldintza kentzea eskatu zuen Erakunde honek.

Gomendio horri erantzunez Lasarte-Oriako Udalak hau jakinarazi zigon:

“..., atsegin handiz ematen dizut jakitera ezen 1992ko irailaren  
10ko plenoko akordioaz, Lasarte-Oriako Kultur Etxeko Zuzendari  
Gerentearen lanpostua Lehiaketa-Oposaketa librearen bidez kontra-  
tatzeko Oinarrien Plegua eraldatu egin zela.

Aipaturiko Plegu eraldatua, aurtengo irailaren 28ko 184 zenba-  
kiko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratua izan da, zenbait udale-  
rri jakinetako bizilagun izateari buruzko atalak eta merezimenduen  
fasean Lasarte-Oriako bizilagun izateari buruzkoak ezabatuak izan  
direlarik. Xehetasun hauek bere egunean baztertuak izan ziren izan-  
gaiei jakitera eman zaizkie, nolana ere Pleno hartan, gainera, aipa-  
turiko bazterketak eta zegozkien espedienteak baliogabetzak (sic) eta  
inolako ondoriogabetzat aldarrikatzea erabaki zelarik.”

Lasarte-Oriako Udalaren baiezkotzat erantzunaren aurrean, gure jarduera  
amaitu egin zen.

Beste gai batzuetan ere esku hartu behar izan da, gizartearen eragin handia  
zeukatenez, lehenbailehen ofiziozko jarduera burutzea eskatzen zutelako.

Horrela, adibidez, seme drogazalea zuelako antsiatzeko eta depresiozko  
gaisotasuna zuen emakume baten kasua ikusirik, gestioak egin behar izan



ziren, gaisoak bere burua eta semea hil nahi izan baitzituen. Emakumea Basurtoko ospitalean zegoen, Jadoko Espetxe Unitatean, baina hori ez zen bere gaisotasuna tratatzeko lekurik egokiena.

Erakunde honek egin zitzakeen gestioak burutu ondoren, jakinarazi zitzaizgun Basurtoko Ospitala ere iritzi berekoa zela eta gaisoa ospital horretako Eskurza pabilioira eraman zutela, beste gaiso psikiatrikoekin batera egon zedin; eta gure jarduera horrela amaitu zen.

Ararteko honek, komunikabideen bitartez Donostiako Antiguu auzoko osasun zentrua kokaturik dagoen eraikina egoera txarrean zegoela jakin zuean, ofiziozko beste jarduera bat burutu zuen.

Arartekoa zentru horretara joan zen eraikina ikuskatu eta salatutako gabeziak egiazkoak ziren ezagutzera eta, bertan eskaini behar ziren zerbitzuetarako eraikina desegokia zela ikusirik, lehenbailehen konponbidea aurkitzeko eskatu genion Osakidetzari. Erakunde autonomo horrek berehala erantzun zuen, azalpen hau emanez:

“Irailaren 22ko idatzian Donostiako Antiguu auzoko Osasun Zentruari buruz azaltzen duzuna, Osakidetzak lehentasuna eman zien gaien artean egon da 1991n bideratzen hasi zenetik.

Horri dagokionez, bi gestio mota egin dira, eta honako egoeran daude:

#### A) Behin-betiko konponbidea

Ondarretako zabalguneko C II-1 orubean eraiki beharreko edifizio batean kokatzea; horretarako, eraikitze-lanak egiteko tramiteak hasi dira, lehiaketa publiko bidez obrak izendatzeko iragarkia 92ko irailaren 3ko EHAA-n argitaratu ondoren.

Jasoko den eraikuntzan Osakidetzari behe solairuan 625 m<sup>2</sup> eta lehen solairuan 596 m<sup>2</sup> utziko zaizkio.

Obrak 1994. urteko amaierarako bukatuta egotea espero da, eta bertan lehen mailako asistentzia (medikuntza orokorra, pediatria, erizaintza) emango zaie Antiguu auzoko biztanleei, eta baita Añorga, Ibaeta, Igeldo eta Aietekoei ere.

#### B) Behin-behineko konponbidea

Zentru berria funtzionatzen hasi arte, eta egungo egoera hobetzeko premia jabeturik, oraingo zentruan biltzen diren jarduerak berehala antolatzeke aukera emango duen beste eraikuntza bat aurkitzeko gestioak burutzen ari gara.

Horretarako, ondoko hauekin jarri gara harremanetan:

1.- Gurutze Gorria. Gurutze Gorriak eskainitako aukeren artetik bideragarria jotzen zen bakarra Gurutze Gorriaren ospitaleko azalera jakin bat Osakidetzak erabili ahal izatea zen, eta horixe adierazi zuen Osasun Sailburuak 1991ko ekainean.

Geroago Gurutze Gorriak bere eskaintza aldatu egin zuen, eta halere erakunde horrekin harremanetan jarraitzen dugu akordio bate-ra iritsi asmoz.

2.- Partikularrak. Partikularrek eskainitako hiru lokal bisitatu eta aztertu dira, baina batek berak ere ez ditu beharrezko baldintzak eskaintzen.

3.- Donostiako Udala. Erakunde horrek emandako irtenbideak aztertu dira, eta guztien artetik bat bakarrik jo da bideragarritzat: jasotzen ari diren eraikuntza baten azpikaldeak erabiltzea.

4.- Auzo Elkarteak. Elkarteak aurrekoen antzeko konponbideak proposatu zituen, eta baita erabat baztertu den beste bat ere: "Azoka" birregokitzea.

Bide horretatik, 1994an behin-betiko osasun zentrua funtzionatzen hasi eta Osakidetzak gaur egungoa kokatzeko soluzio bideragarriren bat aurkitu arte aukera berriak aztertzen jarraituko du."

Gainera, Arartekoak jakin zuenez, Gurutze Gorriaren Ospitalak eta Osakidetzak aurreakordio bat sinatu zuten eta, horren arabera, Ondarretan Antiguoko Osasun Zentru berria kokatuko den eraikinaren obrak amaitu arte, ospital horrek Matia kalean daukan behe solairuko zazpi kontsulta-gela uzten zizkion Osakidetzari, bi urtetan Antiguoko osasun zentruaren behin-behineko egoitza izan zedin.

Egindako gestioak agorturik eta aztertutako arazoaren soluziobideak martxan zeudela ikusirik, espedientea artxibatu egin zen.

Ospital batean banakako tratamendua jasotzearen edo garraio publikoei buruzko arazo batzuen inguruan oso jarduera zehatzak burutzeaz gain, Araban mamografiak egiteko zegoen itxarote-zerrenden inguruan ere egin behar izan ditugu hainbat antola.

Erakunde honetan, gero kexa bilakatu ez ziren telefono dei batzuk jaso ziren, mamografiak egiteko atzerapenak salatzen zituztenak. Arartekoak, arazo horri buruzko informazioa eskatu zion Osakidetzari, eta hau izan zen erantzuna:

"1. Gaur egun, Arabako osasun alorrean, ondoko zerbitzu haue-tan egin daitezke mamografiak: Gasteizen, Txagorritxu ospitaleko Erradiologian, eta Arrasaten Deba Garaiko ospitalean.

2. 1992. urtearen amaieran Santiago Apostolua ospitalean mamografo berri bat jardunean aritzea espero da.

3. Esplorazio mamografikoa egiteko eskariak hiru multzotan sailkatzen dira:

I. Screening-a.

II. Diagnostikoa.

III. Larriak.

Larriak, eskatutako aste berean egiten dira, eta diagnostiko zain daudenak 2-3 hilabeteko atzerapenez, hau da, normalki onartzen den itzarote-eparean barruan.

4. Atzerapenik handiena screening eskariak jasan behar izaten dute, urtean, bi urtez edo hiru urtez behin egin beharreko errebisioei dagozkielako.

Horrelako probetan itxaron behar izaten den epea laburtu asmoz, Santiago Ospitaleko zerbitzua zabaltzeaz gain, lanorduetatik kanpo, ebakun-tzekin egiten den bezala, arratsaldeetan mamografiak egiteko programa bat osatzen ari gara.”

Erantzun horren aurrean, Arartekoak ez du itxi ofiziozko jarduera, Osakidetzak hartuko dituen neurriez arazoa konpontzen den ikusi arte.

1992ko urtealdian egindako ofiziozko jarduerari buruzko atal hau amaitu aurretik, mota bereko beste jarduera bat aipatu behar dugu. Arartekoaren iritziz, sujeta pasibo batzuei NUIZen 10/1991 Foru Arauean iragarritako haurtzaindegien gastuengatik kenketa ez onartzeak, Konstituzioak bermatutako berdintasun printzipioa urra zezakeen. Jarduera horri hasiera eman ondoren, arazo berberaren inguruko zenbait kexa aurkeztu ziren, eta horregatik, aipatu espedienteari erantsi zitzaizkion.

Foru arau horren 5. artikulua dioenez, haurtzaindegiei edo derrigorrezko ikasketak ematen dituzten ikastetxei ordaindutako kantitatetik %15 ken daiteke, baldin eta *bi ezkontideek* besteren kontura edo/eta enpresari, profesional edo artista gisa lan-irabaziak jasotzen badituzte.

Agindu hori ezartzeko orduan, kenketa bi ezkontidez osaturiko familiek bakarrik egin dezaketela deritzo Foru Ogasunak.

Horren ondorioz, kenketaren ezarpenetik kanpo geratzen dira alargunak, banatuak, seme-alabak dauzkaten aita edo ama ezkongabeak eta baita izatez ezkondata dauden eta seme-alabak dauzkatenak ere.

Ararteko honen iritziz, interpretazio hori diskriminatzailea da eta berdintasun printzipioa hausten du, Konstituzioaren alorreko jurisprudentziaren arabera, bereizketa hori egiteak ez baitauka zuribide objetibo eta arrazoizkorrik, orokorrean onartzen diren irizpide eta epaietatik urrun dagoelako, eta erabaki horiek onarturiko neurriaren helburuaren eta ondorioen arabera ezarri behar direlako.

Arabako Foru Ogasunak ez du gomendio hori onartzen eta, Konstituzio Epaitegiaren 1989ko otsailaren 20ko Epaian oinarrituz, hauxe argudiatzen du: baldintza jakin batzuk beteaz famili egoera berezi bat irizpidetzat hartuta,

zerga alorreko legegileak kenketa ezartzeak, ez duela hausten berdintasun printzipioa, eta horregatik Arartekoaren gomendioa betetzeari uko egiten diola.

Erakunde honen iritziz, ordea, 1991ko urtealdiko kenketak horrela ezartzeak berdintasun printzipioa hausten du, eta Arabako Foru Ogasunak Arartekoaren gomendioari entzungor egitean egoera diskriminatzailea bultzatzen du.

Halere, 1992ko NUIZ zergarako Foru Arauean sartu diren aldaketak direla medio, *ezkontideen* ordez *gurasoak* erabiltzen baita, Arartekoak uste du interpretazio murriztaile hori gainditu eta berdintasun printzipioari begira egokiagoa den ezarpena egingo dela.

III. ATALA

**KEXEN LABURPENA  
SAILEZ SAIL**

### 3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

#### A) Sarrera

Sail honetan, 1992an jasotako kexetatik 12 sartzen dira. Gure Autonomi Komunitateko administrazio ezberdinen artean dagoen kompetentzien banaketa dela medio, lehen produzio-sektoreari buruzko kexak foru aldundiei dagozkie, eta industria eta merkataritzarekin erlazionatutako kexak, aldiz, Gobernuari.

Jasotako kexa kopurua ikusita garbi dagoen bezala, 1992. urtean sail horrek ez du arazo gehiegirik planteatu, aurreko ekitaldian urraturiko bide berari jarraitu zaiolarik. Izan ere, nekazaritza, industria eta merkataritzari dagozkien kexak, guztien %2,2 baino ez dira.

Nekazaritzari buruzko kexen artean, lur sailak batzeko prozesuetan sortutako arazoak azpimarratu behar dira. Nagusiki, prozesu horietan Administrazioarekin ezadostasunak azaltzen dira, berriz izendatutako lur sailak tokian bertan mugatzerako orduan.

Industriaren azpisailari dagokionez, aurtan Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoarekin erlazionatutako salaketa bat aurkeztu da berriro ere. Era berean, Autonomia Lurraldeko industria bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren 3R Plan berezia izan da Erakunde honetan jasotako beste kexa baten arrazoia.

Azkenik, eta merkataritzari dagokionez, azpisail horretan kexa bat bakarrik sartu behar da, eskatu agiriak ezarritako epean ez aurkezteagatik negozio batean obrak egiteko laguntza batzuk ukatzeari dagokiona.

#### B) Kexen aukeraketa

*Okindegietan prentsa salgai edukitzeagatik eginiko salaketa (180/90 eta 357/91)*

Erakunde honetan jasotako idazki pare batean, Arabako bi prentsa-saltzaile elkartek aditzera eman zuten beraien kaltetan saltzen zirela aldizkari eta egunkariak Vitoria-Gasteizko okindegietan.

Azaldutako arazoa eta berari ezartzeak ziren arauak aztertu ondoren ikusi ahal izan zenez, arazo korapilatsu samarra zen legediaren ikuspegitik; izan ere, zegokion arauketan arautresna batek baino gehiagok, eta administrazio sail ezberdinen eskumenek zuten eragina.

Erakunde honek hainbat gestio egin zituen arazoan sartutako alderdi guztiekin, auziaren lege-irtenbiderik egokiena aurkitu asmoz. Ildo honetatik, Arartekoak auzi honi buruzko argibideak eskatu zizkien behin baino gehiagotan Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari; Gasteizko okindegietan egindako ikuskapenei buruzko aktak eta sail horiek guztiek egindako ohar batzuk ere jaso ziren.

Horrekin batera, harremanetan jarri ginen Gasteizko Udaleko zenbait arduradunekin, ogi salmentarako osasun arauak egiatan betearazteko Udalaren aldetik beharrezkoak ziren irizpideak finkatzearen, arau horiek ematen zituzten irizpideak ez zeudelako oso argi zehaztuta.

Beharrezkotzat jo ziren xehetasun guztiak bildu eta Erakunde honen legeholkularitzak arazoari buruzko azterketa egin eta gero, Arartekoak gomendio bana igorri zien auzi honekin ikustekoa zuten administrazio desberdinei, bai eta kexa aurkeztu zutenei ere. Gomendio horietan, alde batetik, auzi hartan parte hartzeko eskumena nori zegokion, eta zein arau hartu behar ziren kontutan adierazi zen. Bestetik, legeriaren ikuspegitik argudiatu zen auzia konpontzearen Udalak bazuela betearazte ahalmena eta, beraz, egiteratu egin behar zuela. Azkenik, okindegietan prentsagaiak saldu ahal izateko betebeharrekoak eta baldintzak zehaztu ziren. Gomendioarekin batera, administrazio ezberdinei oharterazi egin zitzairen bakoitzari bere alorrean zegokiona betearazi behar zutela.

Gomendio horri erantzunez Osasun Sailak Arartekoari igorritako ofizioan, gomendatutakoa betearazteko lehen urratsak jadanik emanak zirela adierazi zuen.

Gasteizko Udalak, bere aldetik, araudia gomendioan azaldutako moduan betearazteko gertu zegoela jakinarazi zion Arartekoari. Udalaren idazkiak haxe zioen hitzez hitz:

“Aipaturiko gomendioa betetzeak egungo egoera erabat aldatzea eskatzen duenez gero, Ordezko Zinegotzi-Taldea beharrezko elkarrizketak egiten hasi da, bai gai honekin zerikusirik duten alortako Elkarte ordezkariekin: ogileak, okinak, elikagaien gutxikako merkataritza, egunkari salmenta, Merkataritza eta Industri Bazkunde Ofiziala; baita dagokien Administrazioekin ere: Eusko Jaurlaritzako Osasun, Merkataritza eta Kontsumo Sailak. Elkarrizketa horien xedea da Elkarteek gomendioa bere osotasunean betetzea onar dezaten eta, bidenabar, Administrazioak irizpideak batera ditzaten, norik bere gain hartu beharreko betekizunak banatuz.”

Halaber, erantzun honekin batera, Gasteizko ogi eta janari denda guztiei zuzenduriko adierazpen-eredua bidali zuen Udalak.

Ofizio horiek jaso ondoren, amaitutzat eman ziren Erakunde honek egin beharrekoak, eta, horrenbestez, esandako kexa-espeditentak artxibatu egin ziren.

*Lerro elektrikoaren potentzia gehitzeko, argindarraren boltajea gehitzeko eskaria (221/91)*

Etxejabe komunitate bat ez zegoen ados Vitoriana de Electricidad, S.A. konpainiarekin elkarte horretako zerbitzuen lerro elektrikoaren potentzia aldatu beharraz.

Argindar entpresak eginiko ikuskapen batean ikusi zenez, komunitateak kontratatua zeukan potentzia (5 kW) egiaz kontsumitzen zuena baino txikiagoa zen (9,9 kW). Igogailuaren tresneria zaharraren ordeztu potentzia handiagokoa jarri zelako gertatzen zen hori, batez ere. Gauzak horrela, entpresak etxejabeei esan zien kontratatutako potentzia gehitu egin behar zela, benetako kontsumoaren arabera moldatzeko.

Etxejabeek hala onartu zuten, baina konpainiaren bulegoetara joan zirenean gehiketa hori burutzeraz, boltajea ere aldatu eta lehengo 220 boltioetatik 380 boltiotara aldatu behar zela jakinerazi zitzaizkien. Hau da, konpainiak baldintza bat jartzen zuen: potentzia aldatzeko boltajea ere aldatu egin behar zen; eta horregatik sortu ziren tirabirak, boltaje-aldaketak obra batzuk egin beharra, eta, ondorioz, gastu gehiago ere eragingo zituelako.

Argindar konpainiak, aldaketa horren beharra zurrizteko, aurreko lerroa berriztatu behar zela adierazten zuen, boltajea gehituz eta akats batzuk zuzenduz etorkizuneko beharrei begira; baina, era berean, trazaketa ere aldatu behar zela zioen, lehenago barruko patioetatik igarotzen zenez, konpainiak ez zuelako haietara zuzenean sartzerik. Asmo berriaren arabera, konpainiak konpromezua hartzen zuen kanpoko obrak egiteko, eta lerro berria etxe sarrera-raino eramateko, baina komunitatearen gain uzten zituen bai lotura, eta bai barruko instalazioa ere.

Erakunde honek kasu honi ezarri beharreko arauak aztertu ondoren, ikusi zuen argindar entpresak tentsioa eta lotunea erabakitzeko ahalmena duela, bai eta banaketa-sareen arau eta baldintza teknikoak proposatzeko ere; hortaz, potentzia gehitu behar zen teknikoki ezinezkoa zelako aurrekoa bere hartan uztea (2.949/1982 ED, urriaren 15ekoa; 1.725/1984 ED, uztailaren 18koa; eta 2.413/1973 D., irailaren 20koa). Era berean, entpresa hornitzailearen eta eskatzailearen arteko desadostasunak erabakitzeko ahalmena aitortzen zaio Administrazioari.

Azken honen arabera, Erakunde honek txosten bat eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailari. Honek, lekua aztertu ondoren egingdako txosten luze batean, adituzera eman zuen oraingo arautegia betetzen ez zuten elementu batzuk aldatu eta zenbait akats konpondu ere egin behar zirela, argindar entpresak adierazi bezala.



Horrekin guztiarekin jakin nahi zen konpainia hornitzaileak egin ote zezakeen eskatutako potentzia gehikuntza, 220 V-ko tentsio berberarekin, eta arauzko kalitate mugak bermatuz.

Industria Sailaren txostenaren arabera, hori egin zitekeen, baina horretarako baldintza bat bazegoen; alegia, komunitateak instalazioaren zenbait akats konpondu behar zituen, eta horrek hainbat gastu eta beste eragozpen batzuk eragingo zituen, halaberrez. Hortaz, komunitateari berari zegokion arazoa aztertu eta halako erabaki bat hartzea.

*Pertsona zaharrak bizi diren komunitate batean igogailua jarri nahi ez (764/91)*

Bilboko etxebizitza bateko zenbait auzotarrek Arartekoarengana jo zuten, haren bitartekotza eskatzeko; izan ere, etxejabe batzuek ez zuten beraien baimena eman nahi igogailua jartzeko, batzaz beste bizilagunen adina hirurogeita hamar urtetik gorakoa izan arren.

Erakunde honek erantzun zien tamalez ezin zuela ezer egin, etxeko nagusien eta errentarien arteko auzi zibila izanik hura, Arartekoaren lan-esparrutik kanpo geratzen zela.

Halaber, igogailu berria jartzea etxearen osakera aldarazten duen obra izanik, jabeen baimena behar duela jakinerazi zitzairen. Azken puntuari, auzi-agintariek eman zezaketen obrak egiteko baimena, kasuan gertatzen ziren zertzelada bereziak ikusirik, hau da, bizilagun gehienek adina ikusirik.

*Igogailuak kontrolatzeko aldian-aldiko ikuskapenak (195/92)*

Igogailu alorreko entrepresa batek bidalitako idazkian, etxejabe komunitate bati aditzera eman zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailak hura aukeratu zuela igogailuaren ikuskapen tekniko egiteko, haren segurtasuna neur zedin; idazki horretan, ikuskapenerako egun-orduak adierazteaz gain, ikuskapen horren gastuak komunitatearen kontu uzten zituztela esaten zen.

Etxejabeek ez zekiten garbi ikuskapena legezkoa zen ala ez, ez eta zergatik egin behar zen ere, mantenu kontratua zutelako baimendutako beste entrepresa batekin.

Hau ez zen Arartekoak jasotako era honetako lehen kexa, eta horrela, oraingoan ere argibideak eman zitzaizkien komunitate-kideei, igogailu alorrean, bai Estatuaren Administrazioan bai Autonomi Elkarteetan, igogailuen funtzionamenduaren segurtasuna ahalik eta gehien bermatzearen dauden arau ugariak.

Beraz, aditzera eman zitzairen igogailu bat martxan jartzeko alor horretako entrepresa batekin mantenu kontratua izenpetuta eduki behar dela; eta komunitateak bazuen, izan ere. Alabaina, ahalmena duen Administrazioak,

edota, bestela, bere ordez izendatzen duen entpresak, aldian-aldian kontrol ikuskapenak egin beharra du, Legeak behartuta; ikuskapen horiek mantenu-entrepresa bertan dela egin behar dira, eta aktaren kopia eman behar zaio, gainera. Betebehar hori ezartzen dutenak hauek dira: azaroaren 8ko 2.291/1985 Erret Dekretua; Industria Ministerioaren 1966-6-30 eta 1987-9-23ko Aginduak; eta Eusko Jaurlaritzaren 275/1986 Dekretua, azaroaren 25ekoa, eta 307/1988 Dekretua, abenduaren 1ekoa.

Auzokide komunitateak jasotako idazkia aldian-aldiko ikuskapen horri buruzkoa zen, eta ahalmena zuen Administrazioaren ordezkariak, hau da, Industria eta Energia Sailaren ordezkariak.

Ezartzekoa zen tarifari dagokionez, bestalde, sail horretxek onartu zuen 1990eko apirilaren 10eko agindu baten bidez; bertan, 13.000 pezetako tarifa finkatzen zen urte horretarako eta ohizko igogailuetarako, kopuru horri ondoko urteko Kontsumorako Prezioen Igoera eta %13ko BEZa erantsi behar zitzaizkiolarik.

Goian esandakoaren arabera, legeen barruan zeuden esandako idazki horretan iragartzen zen ikuskapena eta bertan eskatzen zen diru kopurua ere, eta hala adierazi zitzaien kexa bidaltzaileei.

Nolanahi ere, lehenagoko batean antzeko kexa bat izan genuelarik, Erakunde honek ikusi zuen idazki horiek jasotzen zituztenek oso erraz eduki zitzaizketela ikuskapenen zilegitasunari buruzko zalantzak, idazkietan ez zelako inolako legezko arauik aipatzen, haien sostengu gisa. Horregatik, Arartekoak gomendatu egin zion Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailari handiki aurrera arauzko ikuskapen eta kontrol entitateek auzokide komunitateei bidaliko zizkieten adierazpenetan, argi ager zedila zein arauetan oinarrituta zeuden.

Sail horrek onartu egin zuen gomendioa, joan den urteko Txostenean adierazi zen bezala, eta gaur egun jakinerazpenak modu horretan, hau da, hiritarrari beharrezko argibideak emanez egiten direla ziurtatu ahal izan da.

## 3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

### A) Sarrera

Azpimarragarria da 1992. urtean alor honetan aurkeztu diren kexen kopuruak izan duen beherapen nabaria. Guztira 10 erreklamazio jaso dira, aurkeztutako guztien %1,9; 1991n berriz %6 izan ziren.

Honela banatzen dira eragindako administrazioen arabera:

Eusko Jaurlaritza .....	4
Foru Aldundiak.....	2
Udalak.....	4

Kexen edukiari dagokionez, gehienak kultura arloarekin erlazionatuta daude (guztira 8), eta bereziki kirola, dirulaguntzak, bekak eta ondare historikoaren babesaren ingurukoak dira.

Elebitasunari buruzko kexak gutxitu egin dira, baina datu hori behar bezala ulertzeko, esan behar da alor honetan hertsiki elebitasunezkoak diren arazoak dagozkien kexak bakarrik biltzen direla, gai hori bere izaeratik beste alor batzuetan ere azaltzen delako, hala nola, Hezkuntzan, hizkuntza ereduaren hautaketari dagokionean eta Funtzio Publikoan, funtzionarien hizkuntz eskakizuna dela eta; egoera horietan, auzitan egon daitekeen arazoa, hizkuntz arazoa baino areago, hezkuntza edo funtzionaritza alorrekoa da. Nolanahi ere, euskarara itzuli gabeko administrazio inprimakien inguruko kexa kopurua jaitsi dela azpimarratu behar da, orain arte alor honetan aurkeztu ohi ziren erreklamazio gehienak gai horri zegozkiolako.

## B) Kexen aukeraketa

### *Euskara ikasteko testuak Braille sisteman (225/91)*

HABEren ikastetxe batean euskarazko ikastaroa egiten ari zen gazte itsu batek, testuak sistema arruntan idatzita zeudenez, ikasketak behar bezala jarraitzeko zailtasunak zeuzkan eta bere lurraldeko Itsuentzako Errekurtoetarako Zentruari (IEZ) testuak Braille sistemara itzultzeko eskatu zion.

Erakunde hau, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin harremanetan jarri zen, aipatu zentrua bere agindupekoa delako, eta esan ziguten, zentru horiek eskolaurre, OHO eta Ikasketa Ertainetako ikasleei lehentasuna ematen bazieten ere (IEZen sorrerarako irailaren 25eko 318/1984ko Dekretuan, eta 1984ko urriaren 10eko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ministerio-Aginduan finkatua geratzen den eran), IEZen bitartekoek aukera ematen zuten neurrian, unibertsitatetik eta beste zentru batzuetatik, hizkuntza eskola, eta abarretatik iristen zitzaizkien eskariak ere bideratzen zituztela.

Hain zuzen, erreklamatazaileak, IEZren laguntza izan zuen institutu batean ikasketak egin zituenean eta baita Unibertsitatean egon zenean ere, baina kasu honetan IEZk esan zuen eskariari ezin ziotela erantzun. Bestalde, aurretik antzeko eskariren bati erantzun zitzaion arren, transkribaketa haiek beste ordenagailu batek eginak ziren, eta orduan erabilitako programa eta oraingoa ez ziren bateragarriak, eta beraz ezin zen kopiarik egin.

Erakunde honek Hezkuntza Sailari esan zion, IEZk batxilergo zentruetan erabiltzen zen, eta beraz, artxiobotan eduki behar zuten euskarazko metodoren bat eskura ziezaiokeela erreklamatazaileari, erreproduzitzeko arazorik gabe. Horrela, metodo hori eta interesatuak HABEren erabiltzen duena berdina izan arren, azken finean hizkuntza bera ikasteko metodoa litzateke eta antzeko edukia duena, ikasleari ikasketekin jarraitzeko erraztasunak emanaz.

Sail horrek eskaria onartu zuen eta artxihoan zeuden Braille sistemara itzulitako metodoen artetik, erreklamatzailerean egoerari hobekien egokitzen zitzaiona aukeratu zuen. Metodoaren (testuak eta ariketak) kopia berri bat egin eta erreklamatzailerean esku jarri zen.

### *Kale eta ordutegiaren banaketa Irungo udal igerilekuan (621/91)*

Iruren bi igerilari klub izanik, kirol-egiturarik ez dagoenez gero, Udalak, udal-igerilekuko kaleak erabiltzeko banatu zituenean, nabarmenki Bidasoa Kirol Klubaren alde jokatzen zuen, Artaleku Klubaren kaltetan.

Azkeneko horren kexak ikusirik eta arazoari konponbidea aurkitu nahirik, bi klub horiek bakar batean batzea proposatu zuen Udalak.

Udalaren proposamenak, ordea, bi alderdi garrantzitsu ahazten zituen. Batetik, biltzar nagusiak hautaketa pertsonal, libre, zuzen eta isilpeko bidez presidentea eta, hala erabakiz gero, zuzendaritza batzordea izendatzeko ahalmenari uko egitea zekarren, Kultura Fisiko eta Kirolaren 5/1988 Legearen 28.2. artikuluan eta Kirol Klub eta Elkartearen 29/1989 Dekretuaren 16. artikuluan xedatzen den bezala. Bestetik, Artaleku klubeko preparatzailea tekniko gisa uztea zekarren. Horrela, proposamena ez zuen onartu klub horrek, eta orduan jo zuten Arartekora.

Erakunde honek planteatu zuen, orduan, udal igerilekuaren erabilerarako banaketak modu orekatuagoan eginaz bi klubekin jarraitzea, edo klub bakar bat sortzea, aurreko bien teknikoek helburu eta entrenamenduen programazio lanak elkar hartuta eginaz.

Udala, ordea, ez zegoen egindako banaketa aldatzeko prest, baldin eta horrek Bidasoa kirol klubaren premiak aldatzen bazituen; izan ere, Udalaren esanetan, bere ahalegina klub bat baino gehiagotan banatzeak, diru laguntza txikiagoa eta entrenamendu ordu gutxiago ekarriko zuenez, Bidasoa kirol klubaren jarraipena arrisku larrian jarriko zuen.

Horrela, 1991-92 ekitaldian Artaleku klubak 26 ordu zeuzkan bitartean, 1992-93an 30 dauzka, baina lehen baino okerrago banatuak, ordutegi honen ondorioz klubeko igerilariak oso ordu txarretan entrenatzera behartuak baitaude, beren adina kontutan izanik. Udalaren jarrera honek, argi eta garbi, Artaleku kluba piskanaka desagertzera eraman nahi zuen, Bidasoa Klubaren onurarako, honen "irauteko gutxienezko baldintzak" urtez urte gehitzen joango direla iragartzen baita.

Erakunde honek egindako gomendioa ez zela onartu ikusiaz, espedientea artxibatu egin zen eta kasu hau Legebiltzarrari azaldu beharreko urteko Txostenean sartuko zela jakinarazi zitzaion Udalari.

Elkarte pribatu batek kexa-idatzia aurkeztu zuen Erakunde honetan, Hondarribiko Udalak Jaizkibel mendiko iparraldean ibilgailuak sartzea debekatzeko hartu zuen erabakiaren aurka, eta baita Udalak mendi horretan akanpatzeko ezarri zituen mugen kontra ere. Era berean, kexa-idatziarekin batera, elkartearen jarrera argudiatzeko dokumentazio ugari ere eskuratu zigun.

Erakunde honetako lege-aholkularitzak agiri horiek eta kexagai zen arazoa aztertu ondoren, Arartekoak idatzi bat bidali zion erreklamazioa egin zuen elkarteari, Udalaren jarrerari zegozkion balorazio juridikoak azalduz.

Honela, Ararteko honek beti izan du ingurune naturala oso ahula dela, eta bere alde lan egin behar dutela bai aginte publikoek, bai hiritarrek ere, are gehiago gure inguruneak zehazki jasan behar duen populazio handia kontuan izanik. Era berean, ezin da onartu natur-inguru babestu edo babestugabeak gehiegikeriaz erabiltzea, etorkizunean bereoneratzeko lan garesti eta luzeak egitera behartuko gintuzketen kalteak ekar ditzakeelako, edo kalteak konponezinak izan daitezkeelako.

Funtsezko jarraibide honetan eta ingurugiroari buruzko gure legediaren oinarrian dagoen izpiritu babeslean bermaturik, Ararteko honen iritiz, Hondarribiko Udalak Jaizkibel mendiko pistak turismo ibilgailuentzat ixteko erabakia, Legearen arabera zateaz gain, zuzena ere bada. Bestalde, ez da ahaztu behar pista horiek basogintza eta abeltzaintza lanetarako eraiki zirela, eta beraz, motordun ibilgailuen ohizko erabilerarako prestaturik ez daudenez gero, haiek araugabeki erabiltzeak Jaizkibelgo ingurune naturalari kalteak ekar diezaizkiokeela.

Mendi horretan akanpatzeko ezarritako mugei dagokienez, Ararteko honek uste du Udalaren erabakiak ez duela Administrazio-agintekeriari erakutsi, erreklamazioa egindako elkarteak zioenaren aurka. Aitzitik, ez zen inondik ere ikusten aipatutako akanpalekuek, kanpin bezala homologatuak izateko beharrezko araudi autonomikoa errespetatzeko baldintzak betetzen zitzutenik, eta akanpatze librea debekaturik dago. Bestalde, zonan gutxienezko zerbitzu baldintzak betetzen dituzten kanpinak badaudenez, horiek aisiarako leku eskaintza egiteko aski zirela ikusten zen.

Kontutan hartu zen, orobat, proposatu akanpalekuetako erabiltzaileentzat ez zegoela inguruko kaletan salbamendu zerbitzurik, ez beste inolako segurtasun zerbitzurik jartzeko aukerarik ere, eta Administrazioa, hiritarren segurtasuna zaintzeko, paraje horiek bainuleku erabilerarako mugatzera beharturik zegoela, kalteei eta horien ondorioz sor zitezkeen ardurei aurre egiteko.

Azaldutako arrazoi guztiengatik eta, Udalaren administrazio-jarduera legezkoa izanik, haren jardun-moduan inolako araugabekeriari aurkitu ez zenez, Arartekoak bere eginbeharrekoak amaituta zeudela iritzi zuen, bai eta horrela bideratutako espedientea itxi eta artxibatzeko agindu ere.

Kexaduna hutsegiteengatiko epaiketa batean parte hartzera zihoanez gero, epailearen aurrean euskaraz hitzegiterik ba ote zegoen galdetu zuen.

Horri dagokionez, Aginte Judizialaren Lege Organikoak 231.2. artikuluan dio epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako gainontzeko funtzionarioek, gazteleraz gain Autonomi Komunitateko beste hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dutela, baldin eta alderdietakoren batek euskara ez dakielako kontrako jarrerarik azaltzen ez badu, bestela babesik eza gertatuko litzatekeelako.

Artikulu horren hirugarren atalean esaten da, gainera, alderdiek, horien ordezkariak eta zuzentzen dituztenek, eta baita lekuko eta perituek ere, justizia jarduerak burutzen diren lurraldeko hizkuntza ofiziala erabiltzerik izango dutela, bai ahozko nahiz idatzizko agerraldietan.

Azkenik, bosgarren atalean esaten da ahozko jardueretan, epaileak edo epaimahaiak, interpretari lanetarako erabiltzen den hizkuntza dakien edozein pertsona gaitu ahal izango duela, pertsona horri zin eginarazi edo bere hitza hartu ondoren.

Beraz, Erakunde honen ustez, epaiketetan euskara erabiltzeko eskubidea indarrean dauden xedapenetan nahiko babestua dago.

Interesatuari puntu horien berri eman ondoren espedientea artxibatu egin zen.

*Euskal Herriko Arraun Federazioaren zigor-espedientea (272/92)*

“Donibaneko Arraunlariak” arraun taldearen eskariz kexa-espedientea bideratu zen Ararteko Erakundean, Euskal Herriko Arraun Federazioko Zigor Batzordeak erakunde horretako arraunlari talde bat zigortzeko hartutako erabakiaren kontra.

Aipatutako erabakian, zigor-espedientea ireki eta instrukzio epailea eta idazkaria izendatzeko erabakia ez ezik, zigortu guztiei federazio eskubideak badaezpada bertan behera uzteko akordioa ere hartu zen. Gainera, kirol proba ofizial nahiz ez-ofizialetan parte hartzeko debeku zehatzarekin batera, Federazioaren idazkaritzan beren kirol lizentziak uzteko agindua eman zieten, guztia urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuko 17.1. artikuluan oinarrituz, zeinaren arabera arautzen baita kirol diziplinarako araudia.

Erakunde honen iritziz, eta arazoaren muinean sartu gabe, hartutako erabakiak aipatutako araudiko 5.1. artikuluan iragarritako zigorretako bat esan nahi zuen berez, eta espedientea ireki bazen, zigor hori gauzatzeko izan zen. Ikuspegi honetatik, Konstituzioko 24.2. artikuluan oinarrituz, ustezko errugabetasun eskubidea hautsi egin zen.

Horrela, eta Federazioak hartutako badaezpadako neurriak espedientatuei ekar liezaizkiekeen kalteak kontuan izanik, balorazio horiek ahalik eta azkarren jakinarazi zitzaizkion Kirol Diziplinarako Euskal Batzordeari, Euskal

Herriko kirol diziplinarako erakunde gorena baita berau, eta honek, interesatuek eta Arartekoak elkar hartuta planteatutako errekurtsioa onartzea erabaki zuen, eta bere ebazpena, beste batzuen artean, ondorengo puntuetan oinarritzen zuen:

“...zigor-espeditentearen ondorioz zigorra ezartzen bazaie, eta hori, arauetara egokitzeagatik maila ezberdinek onartzen badute, bere ezarpenak eraginak izango ditu, zigortutako kirolariari zigorrak iraungo duen eperako lizentzia kenduko zaiolako, honek bere taldearentzat izango dituen ondorio guztiekin. Baina, azpibatzaordeak bezain modu eraginkorrean aurreratzen badugu ebazpena, eta kirolariari lehiatzeko aukera kentzen bazaio eta azken ebazpena arinagoa bada edo libre uzten badu, lehiaketan desoreka gertatuko litzateke konpondu ezinezko galerekin, ondorioak izango bailituzke sailkapenetan eta abarretan.”

Kexaren auzia konpondutzat jo eta Kirol Diziplinarako Euskal Batzordeari bere laguntzagatik eskerrak eman ondoren, espeditentea artxibatu egin zen.

### 3.3. HEZKUNTZA

#### A) Sarrera

Sail honetan 70 kexa aurkeztu dira, hau da, guztien %13,2.

Aipatu erreklamazioak honela banatzen dira:

- Eusko Jaurlaritza .....	62
- Udalak.....	8

Irakaskuntza ez unibertsitarioa ematen duten ikastetxeetan ikasleak sartzeko prozedurari buruzko kexak aurten ere azaldu dira. Leku batzuetan neurri zuzentzaileak berandu jarri dituzte indarrean eta, ondorioz, ikasgeletan sartu duten ikasle kopuruak ikastetxearen beraren eskaintza gaindi egin du, horrek ere kexak sortarazi dituelarik.

LOGSE legean iragarritako antolaketa berria indarrean jartzeak eragin dituen aldaketa sakonak ere kexagai izan dira. Horrela gertatu da esate baterako musika-irakaskuntzaren alorrean: kontserbatorioak baldintza zorrotzagoetara egokitu behar izan dira eta ikasleei orain sarrera azterketa egiten zaie.

Ikastetxe batzuen egoera txarrak eragin ditu beste zenbait kexa. Kasuren batean, bitartekaritza lanak egitean, bateraezinak ziren jarrerekin topo egin du, eta jarrera horien azpian eraikuntzaren baldintza teknikoetatik haruntzago zeuden arrazoiak ikusi ziren; horien konponbidea paketsua izatea espero dugu.

Azkenik, B ereduan irakatsi behar duten irakasleen arauketa dela eta, idatzi batzuk jaso dira Erakunde honetan, sare publikoan B eredia hobetzeko gaur egungo arauak ezartzen dituzten mugak salatzen zituztenak. Euskal Eskola Publikoaren Legearen garapenak izan beharko luke urte hauetan hezkuntza ereduen ezarpenak izan dituen arazoak konpontzeko tresna egokia.

## B) Kexen aukeraketa

### *Euskarazko ikas-materiala eta testu elebidunak (80/91)*

Ikastegi publiko batean irakasten zuen maisu bat Arartekoaren aurrean kexu zen, Administraritzak banatutako material didaktiko jakin bat gazteleraz bakarrik egiten zelako.

Interesatuak bere idatzian zioenez, beste kasu batzuetan bezala, jasotako material didaktikoa euskaraz prestatu beharrean aurkitzen zen, eskolak B ereduan ematen zituelako.

Administraritzak ahaleginak egin arren, euskaraz osatutako material didaktiko gutxiago dagoelako ezberdintasunak sortzen dira oraindik eta, beraz, eskolak euskaraz ematen dituzten irakasleen ohizko jarduerari gehitu beharreko beste arazo bat da aurreko hori.

Arartekoak kexari arrazoizkoa zeritzenez gero, berori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari igorri zion, eta sail honek material didaktikoa euskaraz eskurago izateko neurriak hartzeko asmoa zuela erantzun zigun.

### *Nahiko leku ez zeukan eskola publiko baten kokapena eta hezkuntz ereduak (760/91)*

Bambi Ikastetxe Publikoak eskola-eraikuntzaren egoerari buruzko kexa aurkeztu zion Arartekoari.

Kexa jaso ondoren, Arartekoak eskolara bisita egin zuen, egoera lekuan bertan ezagutzeko, eta eskolako nahiz gurasoen elkarteko ordezkariekin elkarriketatu zen.

Bambi eskola gaur egungo eraikuntzara aldatu zenetik, 1985etik alegia, bere kokapena beti probisionala izan da, eta eraikuntzaren egoera txarra konpontzeko aukera ezberdinak behin eta berriz aztertu dira, alderdi guztiak ados egon direlako eskolako egoera txartzat jotzean.

Hori ikusirik, haurrak beste eskola batzuetan matrikulatzea, beste eskola publiko batzuek dauzkaten eraikuntzetara aldatzea eta gaur egungo leku berean beste eskola bat jasotzea izan dira aztertu diren irtenbide-aukerak. Azkenik, 1991. urtean beste eskola bat egitea erabaki eta horretarako baimena eman eta guzti egin zen, baina Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zuzendaritza aldatzean ikasketxe berria eraikitzeko lanak geldiarazi egin ziren.



Erakunde honek, bere aldetik, ikastetxeak zeukan eraikuntza nahikoa ez zela ikusirik, kexa arrazoizkoa zela ebatzi zuen eta halaxe jakinarazi zion Administrazioari, bai eta informazioa eskatu ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak esan zuen, eskolaurrean eta lehen mailetan matrikula kopuruak jaisten ari zirenez, ez zuela eraikuntza berria eraikitzeko premiarik ikusten, eta Bambi Ikastetxe Publikoa (D eredia), Gasteizko Santa Maria Ikastetxe Publikoa (A eredia) dagoen eraikin berean kokatzeko asmoa zutela. Bambi ikastetxerako Hezkuntza Sailak iragartzen zuen matrikula kopurua kontuan hartuz, ikasleak sar zitezkeen beste eskola horretako geletan. Soluzio horrek, ordea, obrak egitea eskatzen zuen, eta lekualdaketa, horrenbestez, 1993-1994 ikasturterarte atzeratu egin zen.

Bambi ikastetxearen arazoa zegokien alderdiek ez zuten onartzen irtenbide hori, zentru berean A eta D ereduak batera eduki beharra zekarrelako. Jarrera horren arrazoiak aztertzer pasatu gabe, ordea, Santa Maria ikastetxean A eredian matrikulak jaisten ari zirenez, Sailaren soluzioa onargarria gerta zitekeen.

Baina 1992-1993 ikasturterako matrikula egin zenean, Santa Maria ikastetxean A eredia sartu egin zen, eta horrek eragina izan zezakeen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aztertutako aukera onartu ala ez onartu erabakitzerakoan; izan ere, akordio bat lortu asmoz alderdi interesatuek egin zituzten elkarrizketetan, gaur egun Santa Maria ikastetxea dagoen lekuan Bambi ikastetxea bakarrik egongo zela esan zen. Hori ikusirik, Arartekoak berriro Administrazioa jo zuen Santa Maria ikastetxean matrikula irekitzeak irizpide aldaketa berekin zekarren jakiteko.

1992ko maiatzean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bidalitako erantzun-idatzian esaten zuen Santa Maria ikastetxean matrikula irekitzea ez zitziola hartutako erabakiari kontrajartzen; horretaz gain, eskola bakoitzean ez zuela eredu bat bakarrik eduki nahi aditzera eman zuen.

Horrela bada, eskolan ikaskide erdaldunekin egoteak euskara gutxiago erabiltzea esan nahi duen arren, hezkuntzaz arduratzen den sailak ez zion uko egiten A eta D ereduak elkarren ondoan edukitzeko jarrerari.

Hori bai, egia da normalean ikastetxe berean ez direla batera egoten A eta D ereduak, A eta B edo B eta D ereduak batera egoten diren bezala.

D ereduarekin lortu nahi diren helburuak iristeko modurik egokiena, ikastetxean eredu hori bakarrik edukitzea da. Hori egia izan arren, euskara ikasteko funtsezko eskubidea errespetatzen duten beste aukerak ezin dira baztertu, besterik gabe.

Ildo horretatik, Bambi ikastetxeari espazio arazoak konpontzeko eskaintako soluzioa ez da agian hoberena izango, baina irtenbidea baztertzeko, aukera horrek irizpide diskriminatzaile huts bati erantzun beharko lioke.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskaintako konponbideari dagokionez, une honetan Santa Maria ikastetxean obrak egiten ari dira, eta Bambi ikastetxeak gaur egun dauzkan kokapen arazoei erantzuteko behin-behineko egokitze neurriak jarri dira martxan.

Aurrekarien eta hemen azaldutako arrazoen arabera, Arartekoak ebatzi zuen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Bambi ikastetxearen espazio arazoei erantzuteko beharrezko neurriak hartu zituela eta ikasketxe berean A ereduokekin egon behararen aurka jotzeko bide guztiak agortuta zeudela.

Eta besterik gabe, espedientea ixtea eta Legebiltzarrarentzako Txosten honetan sartzea erabaki zen.

*Azterketari bati bere azterketaren kopia ukatu (765/91)*

Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko probetan parte hartu zuen pertsona batek, eman zioten kalifikazioarekin konforme ez zegoela eta, probetako bat berrikustea eskatu zuen. Aurrerago, berrikuspenarekin ere ados ez zegoelako, azterketaren kopia eskatu zuen, eta ukatu egin zioten.

Ararteko honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera idatzi zuen, esanaz Administrazio Prozeduraren Legeko 23. eta 63. artikuluen arabera, eskatzen zuen kopia eskuratu behar zitzaiola erreklamatzaileri.

Hezkuntza Sailaren iritziz, ordea, interesatuaren eskaria ez zen bidezkoa, berrikusteko prozedurak azterketariei behar bezalako bermeak eskaintzen zizkielako, eta bestetik, beren ustez azterketen jabetza sailari zegokiolako. Gainera, adierazten zenez, garbiki gainditu gabeko azterketariei azterketaren kopia eskuratzeak eztabaidak sorraraz zitzakeen.

Azterketak berrikusteko erabiltzen den prozedura egokia izan daiteke, baina interesatua ez da horregatik beti ados egoten berrikuspenaren edukiarekin. Eztabaida dagoen kasuan, azterketariari dagokio epaimahai kalifikatzaileak oker edo bidegabeki jokatu duela frogatzea, eta horretarako bere azterketa eduki beharko du. Horregatik, eskari hori ukatzeak defentsa gabeziako egoera sor dezake, behar bezala argudiatutako errekurtsio bat aurkezteko zailtasunak ekar ditzakeelako.

Bestalde, azterketaren jabetzaren kontrako erabilera hipotetiko batek ezin du zuritu berrikuspen kasu hauetan azterketa ikusteko aukera ukatzea, horrek ez duelarik galerazten etorkizunean gerta daitezkeen erabilera okerren kontra, gertatzen badira, dauden bitarteko legal guztiak erabiltzea.

Bide horretatik, Arartekoaren ustez, izaera instrumentala duen eskubidea da, eta ez hori bakarrik, gainera, dagozkion errekurtsioak aurkezteko aukera ere ematen du. Horrelako kasuetan, egindako azterketa eskuetan eduki gabe ezingo da adituaren txosten argigarririk aurkeztu.

Ikuspuntu honetatik, halako kasuetan gertatuko litzatekeen defentsa ezak, besterik gabe, nahikoa izan beharko luke interesatuaren eskaria betetzeko; defentsa gabeziak, bai eta horren ondorioz Administrazio Prozedurarako Legean jasotako eskubideek ere nahi horretarako ahalmena aitortzen dute.

Arazoi horiek berriro iritsarazi zitzaizkion Hezkuntza Sailari. Honek, ordea, ostera ukatu egin zuen eskaria.

*Hezkuntza alorreko arduradunen kompetentzien auziaren ondorioz ikasketxe bat eraikitzeke atzerapena (188/92)*

Leioa eta Getxoko biztanlegoa eskolaratzeko gero eta handiagoa zen eskariari erantzuteko, Leioan irakaskuntza ertainetarako zentru berri bat eraikitzea erabaki zen. Lanen hasiera, ordea, asko atzeratzen ari zen, eta ikasleen gurasoen elkarteak horregatik kexa-idatzia bidali zion Arartekoari.

Onartutako eraikuntza proiektua gauzatzeko ardura, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz gain, Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurugiro Sailak eta Leioa eta Getxoko Udalek ere bazeukaten.

Bizkaiko Foru Aldundia lurra egokitzeaz arduratuko zen. Bide horretatik, Aldundiko Gobernu Kontseiluak beharrezko akordioa hartu zuen.

Obren hasiera atzeratzen ari zela ikusirik, Arartekoak, irakaskuntzaren zerbitzu publikoaren ardura duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo zuen atzerapenaren arrazoiak azal diezazkion.

Jasotako informazioaren arabera, Hezkuntza Saila eraikitze-lanei ekiteko prest zegoen, baina horretarako ikastetxea kokatzeko lurra behar bezalako baldintzetan sail horren eskuetan jarri behar ziren. Bizkaiko Foru Aldundiak, ordea, lurra prestatu gabe zeukanez ezin ziren lanak hasi.

Arartekoak Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Sailera jo zuen, itxuraz lurra egokitzeke hartutako konpromezua betetzen ez zuelako. Sail horrek zioen, 1992ko irailean Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera, lurra egokitzeke betebeharra Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zegokiola.

Era horretan, hasieran Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu zuen zeregina, orain Eusko Jaurlaritzari egozten zitzaion, eta hori zen ikastetxe berria eraikitzeke atzerapenaren arrazoia.

Kasu honetan, partaide ziren administrazio bakoitzari zegozkion eginkizunak eta betebeharrak akordio ezberdinetan sailkatuta zeuden.

Halere, iragarritako jarduera-moduak ez zuen funtzionatu eta administrazio bakoitzak bere gain hartutako ardurak berriro antolatu behar izan ziren. Horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lurra egokitzeke ardura hartu zuen, ikastetxe berriaren eraikitze-lanak gehiago atzera ez zitezen.

Gai horretan administrazio ezberdinen arteko lankidetzak egokiaren premia ikusten zen, baterako jarduerak burutu behar diren kasu guztietan gertatu ohi den bezala. Betebeharren ardura hartzeko garaian aurrez dagoen elkarlanean gogoak, ordea, ez du ziurtatzen beti lan horien garapen egokia. Gaur egun dagoen ahalmen antolaketa korapilotsuak, askotan administrazio bat bestearekin lehian jartzen duenak, alor berean diharduten administrazioen arteko susmoak gainditu beharra dakar.

*Istripu eta gaisotasun luze batengatik ikastetxera normaltasunez joan ezin diren ikasleak (210/92)*

Ebakuntza baten ondorioz, 6 urteko ikasle bat ezin zen eskolara joan bi hankak igeltsatuta zeuzkalako. Ikaslearen aitaren iritziz, bere semeari ez zitzaizkion jartzen eskola mailako galerarik izan ez zezan behar zuen laguntzarako bitartekoak, eta horregatik jo zuen Erakunde honetara.

Azaldutako kexa aztertzeko, ikaslearen eskolaratzeari buruzko txostena eskatu zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Sailak bidalitako txostenaren arabera, ikaslearen eskolako irakaskuntza sailak jarraipen bat egina zuen, hezkuntzako ikuskatzaitzak positibotzat jo zuena. Era berean esaten zen, Hezkuntza Sailak ikaslearen eta bere eskolaren eskuetan jarria zeukala zegokion zonako Irakaslegoaren Biderapenerako Zentruaren laguntza.

Ikaslearen gurasoek, beren aldetik, Hezkuntza Ordezkaritzara jo zuten semeari etxean irakats diezaiotela eskatzeko. Ikaslea zentru publiko batean matrikulatua ez zegoenez, Administraritzak irakaslerik ezin zitzaiola izendatu esan zien.

Kasu honetan ikaslearen heziketaren jarraipena ontzat jo zen arren, Arartekoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo zuen irakaslerik zergatik ezin zitzaion izendatu jakin nahian, eta hori, ikaslea matrikulatuta zegoen eskolaren izaera pribatuagatik zen. Bada, kasu horietan eskaintzen zen laguntza ikasleen jatorrizko eskola motaren araberkoa zela esan nahi bazuen horrek, Arartekoak adierazi zuen, bere ustez, derrigorrezko ikasketa mailetan, istripu edo gaisotasunengatik eskola mailako galerarik ez izateko behar diren laguntzak jasotzeko eskubidea ikasle guztiei dagokiela, matrikulatuta dauden ikastetxea publikoa izan nahiz pribatua izan.

Aurreko azalpen orokorra egiteko beharra ikusi zuen Arartekoak, nahiz eta kexa sortarazi zuen ikasleari eskainitako laguntzaren balioztapena egokitatzat joa izan.

#### *Eskola baten eraikuntza lanak ez ordaintzeaz (296/92)*

Kexaduna Zaratamoko eskola publikoa birregokitzeko obrak egin zituen enpresaren ordezkari zen. Obra horiek egiteko eskaria Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren errekursoetarako Zuzendaritzak egin zion, eta herriaren eskolatzepremiagatik eta gurasoen Batzarraren presio eta erreklamazioengatik, obrak oso larritzat jo zirenez, ohizko administrazio prozedurak errespetatu gabe egin ziren.

1991ko irailaren erdi aldera, obrak amaitu eta proiektua eta ezarritako epeak behar bezala bete ondoren, aipatutako zuzendaritzak, eraikuntza enpresak eskatu arren, uko egin zion obrak ordaintzeari, hori egiteko prozedurazko eta presupostu mailako hainbat arazo zituela adieraziz.

Erakunde honek argibideak eskatu zizkion Hezkuntza Administrazioarako Sailburuordeari eta honek erantzun zion obra horiek 1992ko aurrekontuko inbertsio planaren barruan sartzen ahaleginduko zirela.

Alabaina, Ararteko honen ustez, Administrazioaren funtzionamendu oker batek sortutako ondorio negatiboak ezin zitzaizkion eraikuntza enpresari egotzi, honek hitz eman bezala bete baitzuen bere eginkizuna. Bestela, Administrazioa legez kanpo aberasten egon zitekeen, eta horregatik obrak berehala ordaintzea eskatu zitzaion, horiei zegozkien agiria eta likidazioa Sailari aurkeztuta baitzeuden.

Hezkuntza Administrazioarako Sailburuordeak bidalitako idatzi batean, aipatu gomendioa betetzeko behar ziren antolak egiten hasi zirela jakinarazi zuen.

*Lanbide eta enpresa jardueren etekinen balioespena, ikasteko beka emateari dagokionez (332/92)*

Unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka eskatu zuen pertsona batek aditzera eman zuen Hezkuntza Sailak, bere famili-unitatearen dirusarrerak zehaztean, NUIZ aitorpeneko etekin garbiei Lanbidearteko Gutxienezko Soldata (LGS) erantsi ziela, enpresa-jarduera baten emaitza izateagatik.

Horrela, deialdiko baldintzetan ezarritako mugak gainditu egiten zirenez gero, eskatutako laguntza ukatu egin zitzaion.

Honi dagokionez, 1991-92 ikasturterako ikasteko beka banatzeko deialdia egiten zuen 1991eko uztailaren 29ko Aginduaren 10. artikulua honako hau zioen:

“...Errendimendu horien barruan egongo dira ustiaketako titularrari atxikitako retribuzioan eta ustiaketa horretan diharduten titularraren familiakideenak, ezarritako diru-zenbatekoaz. Diru-zenbatekoa ezarrita ez badago, ustiaketako inoren konturako langileen retribuzioen batz-bestekoa eginez eta, horren ezean, (...) finkatuta dagoen lanbide arteko gutxienezko soldataz.”

Nolanahi ere, Erakunde honen iritiz, titularraren ordaina (eta, bere orde, LGS delakoa) NUIZ aitorpenean azaldutako etekinei erants dakieke baldin eta kontzeptu hori lehenago sartu bada etekinetatik kentzeko gastu moduan; izan ere, bestela, ez dauden etekinak egotziko lirateke. Eta hala eman zitzaion aditzera esandako sailari, horretarako egin zen gomendio batean.

Argudio hori onartu egin zen, eta beharrezko aginduak eman ziren hasieran ukatutako laguntza emateko. Hurrengo ikasturteei begira, irizpide hori erabiliko dela ziurtatuta dago, dagokion baldintzaren testuan *lehenago gastu bezala sartuta* esaldia tartekatuko baita.

*Hogeitabost urtetik gorakoentzat Unibertsitatean sartzeko proben balioespenean kurrikuluma ez balioztatzea (370/92)*

25 urtetik gorakoentzat Unibertsitatean sartzeko probetan parte hartu zuen eta gainditu gabe kalifikazioa izan zuen pertsona batek kexa aurkeztu zuen, bere ustez, egin zitzaion balorazioan kurrikuluma kontutan hartu ez zitzaiolako.

25 urtetik gorakoak Unibertsitatean sartzeari buruzko 1972ko maiatzaren 26ko Aginduak 3.1. artikuluan dioenez, hautagaien egokitasuna kurrikulumaren eta bi probaren arabera baloratuko da.

Aipatutako aginduan oinarriturik, txostena eskatu zitzaion Unibertsitateari kurrikuluma balioztatu ote zen jakiteko. Espedientea aztertu ondoren, Unibertsitateak ikusi zuen, hutsegite baten ondorioz ez zela interesatuaren kurrikuluma aztertu eta, beraz, aurreko kalifikazioa errebisatu, eta pertsona hori Unibertsitatean sartzeko gai jo zuten.

Berrazterketaren ondorioz gaitzat joa izan zeneko datak, ordea, ez zion uzten interesatuari 92-93 ikasturtean ikasketak egiten hasteko aukerarik. Eta hori horrela zen, Unibertsitatean sartzeko proben ondoren, horiek gainditzen dituztenek, egin nahi dituzten unibertsitate-ikasketak hasi aurretik, ikastaro bat egin behar izaten dutelako eta ordurako aipatu ikastaroa amaitua zelako; beraz, ezin zen sartu bere kurrikulumaren balorazioa behar bezala egin izan balitzaio tokatuko zitzaiokeen kurtsoan.

Arazo berri hau Euskal Herriko Unibertsitateari azaldu ondoren, honek erabaki zuen unibertsitatean sartzeko ikastaroa egiteko zeuden salbuespenen barruan sar zitekeela berea, eta ikastaroa egin ordez, lan bat egin zezakeela Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko Koordinatzaile Nagusiaren adierazpenei jarraiki.

Horrela, kexa sorrarazi zuen hutsegitea gertatu izan ez balitz bezala, unibertsitatean sartzeko gaitasunak ondorio berdinak izatea lortu zuen interesatuak.

*Jatorriz atzerritarrek diren ikasleei beka emateaz (535/92)*

Unibertsitatean ikasketak egiteko beka eta laguntzak emateko deialdian, bi ikasleren eskariak ez ziren onartu herriz espainiarrak ez zirelako. Interesatuak, jatorriz, alemanak ziren eta administratiboki, Autonomi Komunitate honetan bizi ziren.

Unibertsitatean ikasteko beka deialdian zehazten zenez, herriz espainiarra izan eta administratiboki Euskal Herriko Autonomi Komunitatean bizi beharra zegoen.

Halere, Espainia Europako Elkartean sartua dagoela kontutan izanik, gertaera horrek aurkeztutako kexari zegokionean izan zitzakeen ondorioak aztertzea beharrezkoa zen. Ildo honetatik, urriaren 15eko Kontseiluaren 1.612/68

Araudiak, Europako Elkartean langileek libreki mugitzeko daukaten ahalmenari buruzkoak, honako hau xedatzen du bere 12. artikuluan:

“Estatu kide bateko biztanle bat beste Estatu kide bateko lurraldean badago edo egon bada lanean, haren seme-alabak irakaskuntza orokorreko eta lanbide heziketako ikasketetan Estatu horretako jatorria daukatenen baldintza beretan onartuak izango dira, seme-alaba horiek bere Lurraldean bizi badira.

Estatu kideek, aipatutako ikasketak baldintza beretan jarraitzeko aukera emango dieten ekimenak sustatuko dituzte”.

Araudi horren arabera, eta Espainia Europako Elkartean sartua dagoela kontuan izanik, beharrezkoa dirudi ikasteko laguntzen arauetatik Estatu kideren bateko seme-alabaren bat kanpoan utz dezakeen edozein baldintza kentzea, esan bezala seme edo alaba hori Lurralde Autonomo honetan bizi bada.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendioa bidali zitzaion, herritasuna ez zedin izan Europako Elkarteko Estatu kideren bateko ikasleek egindako beka-eskaerak ukatzeko arrazoia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Arartekoaren iritziarekin bat eginaz, eskariak onartu egin zituen, bekak ematea ala ez deialdiko beste baldintzen baitan geratzen zelarik.

### *Musika ikasketen plan berria indarrean sartzea (586/92)*

Heziketa Sistemaren Berrantolaketarako urriaren 3ko 1/90-lege Organikoan iragarritako musika ikasketen Plan berria indarrean sartzeak, musika eskola batzuetan ikasleen eskariei erantzuteko orduan arazoak sortu zituen, eta ondorioz, kexa batzuk aurkeztu zitzaizkion Ararteko honi.

Aurreko ikasketa planean sartuta zeuden ikasleak, ikasturte honetarako plan berrira moldatzeko, gaitasun azterketa bat gainditu beharrean aurkitu ziren. Era berean ikusi zuten ezin zutela ikasketa horiek egiten jarraitu, gutxieneko maila lortu gabe egonez gero.

Musika ikasketen eraketa berriak, lanbide erabilerara bideratuak, ikasketa plan premiazkoagoen ondorioz ordurarte musika eskoletan zeuden antolaketa moduak aldatzea eskatzen zuen. Horrek, plaza gutxiago eskaintzea ekarri du, plazen eskaintza eskariei egokitu beharraren ondorioz.

Era berean, plan horrekin aurreko ikasketa egitasmoak piskanaka desgertzeko prozesuari ekin zaio. Ikasleek aurreko ikasketetan ikasgai kopuru jakin bat gainditu gabe baldin bazeukaten, 1992-1993 ikasturtetik ikasketa horiek desagertu egingo ziren uztailaren 14ko 986/1991 Erret Dekretuan iragarritako plan berria indarrean sartzearekin batera.

Legedi berrian, lanbide erabilerara zuzendutako irakaskuntzarekin batera, afizionatuak heitzeko ikasketa ez arautuak eratzen dira, eta horien premia

pedagogikoak ez dira hain premiazkoak. Beraz, heziketa helburu desberdinei erantzuten dieten bi musika irakaskuntza mota eratzen dira.

Bestalde, hasieran araututako musika ikasketetan sartzen ez diren ikasleak geroagoko batean sar daitezke, LOGSE legearen 40.2. artikuluan xedatzen den bezala, horretarako proba baten bidez beraien ezagutzak frogatu beharko dituztelarik.

Egokitzapen horren ondorioz, ikasleen gaitasun bereziak neurtzeko probak egin ziren.

Desagertzeraz zihozten ikasketak egiteko aurreko ikasturteetan onartutako ikasle kopuruan mugak ezarri izan balira, aurkeztutako hainbat kexari aurre egingo zitzaiekeen. Halere, maila horri dagokionez, kontuan izan behar da ikasketa berrietan plazak murrizteko neurriarekin batera, ikasketa ez arautuak egiteko matrikula-eskaintza ere egin zela kasu batzuetan.

Ikasketa berriak indarrean jartzeak sortutako arazoei garrantzirik kendu gabe, Arartekoaren iritziz, plan berria egiteratzeko musika eskolek hartutako neurriak legezkoak izan ziren. Arrazoi hori eta udal batzuek, esate baterako Vitoria-Gasteizkoak, ikasketa ez arautuak egiteko egin zuten eskaintza kontuan izanik, espedienteak artxibatzea erabaki zen.

### 3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

#### A) Sarrera

Alor honetan 87 kexa aurkeztu dira, hots, guztien %16,3. Kexa horiek zein administrazioari zegozkion ikusirik, honela bana ditzakegu:

- Eusko Jaurlaritza .....	60
- Foru Aldundiak.....	3
- Udalak.....	24

Funtzio publikoari dagozkion erreklamazioak honela banatzen dira azpisailen arabera:

- Osasun alorreko funtzio publikoa .....	31
- Irakaskuntz alorreko funtzio publikoa.....	6
- Oposaketak eta lehiaketak.....	30
- Diziiplina erregimena.....	3
- Ordainketa erregimena .....	6
- Beste batzuk .....	3

Administrazioaren antolakuntzari dagokionez, guztira 8 kexa jaso dira.



Funtzio publikoaren alorrean, lortutako emaitzekin ados ez zeuden lehia-tzaileei beren espedientea ikustea debekatzek kexa bat baino gehiago eragin du. Gainera, espedientea ikusteko eskubidea ukatzearekin batera, lorturiko emaitzen kontra aurkezten diren erreklamazioei erantzutean, normalean eska-era ukatzeko arrazoirik ez dela ematen erakusten dute salaketek.

Aldi baterako langileen hautaketarekin zerikusia duten kexa batzuek lanpostu zerrendaren garrantzia azpimarratzera eraman gaituzte. Postu bakoitze-ko baldintzetara egokitzeak izan beharko luke helburu nagusi, edozein proze-duk lanpostu zerrendetan azaltzen diren baldintzak bete behar dituela kontu-tan hartuz.

Osakidetzako lanpostu batzuen definizio formal ezak eragin ditu beste hainbat kexa. Autonomi Komunitate honetako Administrazioak INSALUDen transferentziak gauzatu baino lehen sortutako plaza horiek, hasieratik Administrazio Orokorreko postuen antzeko tratamendua izan zuten.

Lanpostu horiek titularrek beren lana egiten zuten osasun alorrari egoki-tzeko beharra ikusten zen, langile horiek finkatuta eduki zitzaketen eskubideei zor zaien errespetua galerazi gabe. Zenbait zentzugabekeriak, esate baterako plaza horietako batzuk Administrazio orokorreko sailean sartzeak, kolektibo hori zehaztu gabe dagoela adierazten dute, eta egoera horren behin-behineko-tasuna gehiegi luzatzen ari da.

Azkenik, irakasleei dagokienez, azaldutako zenbait kexari erantzutearren, 1993-1994 ikasturtean, lanpostuen zerrenda finkatu eta horiei dagozkien ira-kasleak izendatu ondoren egitea espero da maisu-maistrentzako traslado lehia-keta.

Administrazioaren antolakuntzari dagokion alorrean, aurreko txostenetan bezala azpimarratu behar da Administrazioaren isiltasun ukakorren gehiegiz-ko erabilerak kexa ugari sortarazi dituela. Espero dugu 1992ko azaroaren 27ko Administrazio Publikoen Lege-Jaurpiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako Lege berriak gai horri buruz ezartzen dituen baldintze-kin, jarduera gaitzesgarri hori murriztea. Bestalde, beste kexa-arrazoi bat, administrazioaren ebazpenak herritarrei jakinaraztean egiten diren hutsegiteek sorrerazten duten babes eza izan da.

## **B) Kexen aukeraketa**

*Udal akordioak, besteren aldeko eskubideak sortzen dituztenean, araugabeki bertan behera uzteaz (573/91)*

Hiritar batek Arartekoarengana jo zuen, gazteen informatzaile lanpostua aldi baterako betetzeko hautaketa-prozesuan eta kontratua egitean Bermeoko Udalak jarraitutako bidea salatzeke.

Interesatua, hautaketa prozesua gainditu ondoren, Gazteentzako Infor-mazio Teknikari izendatu zuten, baina Bermeoko Osasun eta Gizarte Ongiza-

terako Patronatoak akordio hori bertan behera utzi zuen, eta, ondorioz, erreklamatzaila lanik gabe geratu zen. Kaltetuak berraztertze errekurtsua ezarri zuen, baina Udalak ez zion erantzun.

Erreklamazio bat baino gehiagoren ondoren, Osasun eta Gizarte Ongizaterako Patronatoaren erantzuna iritsi zen, eta bertan esaten zen berraztertze errekurtsua onartu zela eta, beraz, hautatua izan zen hiritarra bere postuan lanean hasteko traba gaindituta zegoela.

Hala ere, bigarren lekuan geratu zen lehiatzailearen errekurtsu baten ondorioz, handik egun gutxi barru Bermeoko Udalak, legez finkatutako prozedurari jarraitu gabe, kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Kasu horietan, Administrazio Prozeduraren Legeko 110. artikulua dio Udalak alde aurretik kaltegarritasun adierazpena egin eta Auzitegi Nagusiaren aurrean akordioaren baliorik eza eskatu behar duela, baina Udalaren ekintza-eremuaz kanpo zegoen tramite hori saihestearren, Udalak, aritmetika hutsegite bat bailitzan planteatu zuen akordioaren errebisioa. Horren ondorioz, lanpostua eta kontratua, hautaketa prozesuan bigarren geratutakoari eman zitzaizkion, ez kexa aurkeztu zuenari.

Bien bitartean, Erakundeak jakin zuen kexadunak administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zuela Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren aurrean; gauzak horrela, Erakunde hau sortu eta arautzen duen 3/85 Legeko 13.1. artikuluan xedatutakoa betetz, honek bere lanak bertan behera utzi behar izan zituen eta hori jakinarazi zien bi parteei.

*Aldi baterako lanpostu ez kualifikatu baterako deialditik kanpo uztea (574/91, 58/92, 373/92)*

Gasteizko biztanle batzuen kexa-identziak jaso ziren Erakunde honetan, non salatzen baitzuten Gasteizko Udalaren aginduz 1991-1992ko aldi baterako lanpostu ez kualifikatu batzuetarako deialditik kanpo utzi zituztela, eta ustez, aipatutako deialdiko oinarrietan eskatzen ziren baldintzak betetzen zituztela.

Ildo honetatik, interesatuek esan ziguten probak egin ondoren beraien izenak onartutakoen zerrendatik kanpo utzi zituztela 8. baldintza ez zutela betetzen argudiatuz. Horrela zioen puntu horrek: "Hautagaiak ez dira onartuak izango beraien familia unitatean, bakoitzak hilean 50.000 pta. gordinetik gora irabazten baditu, ezta beraien familian hilean 200.000 pta. gordinetik gora irabazten badira edo beraien ezkontideak edo bizilagunak lanpostu finkoa badu".

Erreklamatzaileek, ordea, uste zuten beraien ezkontideen irabaziak aipatutako oinarri horretan sartzen zirela eta horregatik udaletxean erreklamazioa egin zuten, zegozkien frogak aurkeztuz; Udalak erantzuteko zeukan epea igaro arren, ez zuten horratik inolako erantzunik jaso.

Aipatutako udalarekin harremanetan jarri ondoren, esan ziguten erreklamatzailak deialditik kanpo uzteko arrazoia ezkontideen langile autonomo egoera izan zela.

Gasteizko Udalak zioenez, mota horretako lanpostuetarako deialdiak egoera ekonomiko larrian daudenen artean enplegua sustatzeko egiten dira, eta horregatik hautaketa irizpideak finkatu beharrean aurkitzen ziren neurri horien ezarpen eremua mugatzeko.

Ondorioz, deialdiaren baldintzetan familiaren irabaziak kontuan hartuz dirusarrera muga batzuk jarri ziren, eta baita lanpostu finkoa zuten ezkontideak zeukatenentzat ere.

Arartekoaren egitekoa Udalak legearen barruan jokatu zuen ala ez erabakitzea zen, eta zehazkiago, jokaera hori diskriminatzailea izan zen jakitea, deialditik lanpostu finkoa zeukatenen ezkontideak kanpoan utzi zituelako.

Alderdi horri dagokionez baieztatu dezakegu oinarrietako zortzigarren baldintzan ezarritako mugak finkatzeak ez zuela berdintasun printzipioa hausten, deialdiaren bidez lortu nahi zen helburuari egokitzen zitzaiolako.

Izan ere, Konstituzio Epaitegiaren doktrinak dio desberdintasunak justifikazio objektibo eta arrazoizkorik ez duen kasuan bakarrik hausten dela berdintasuna, eta kasu horretan, desberdintasuna helburuek eta horien ondorioek justifikatzen zuten, erabilitako bitartekoen eta lortu nahi zen helburuaren arteko oreka lortu behar baitzen.

Beraz, deialditik kanpo zortzigarren baldintzan iragarritako kasuetakoren baten barruan zeudenak bakarrik utz zitezkeen.

Ildo honetatik, langile autonomoak ziren ezkontideak zeukatenak probetatik kanpo uzteko erabakia legezkoa litzateke, baldin eta kasu hori oinarrietako zortzigarren baldintzaren arabera kanporatu beharrekoen artekoa izango balitz. Beraz, arazoa *lanpostu finkoa* kontzeptu juridiko zehazgabeari interpretazio juridikoa ematea litzateke.

Interpretazio hori deialdiaren xedeei begira egingo balitz, ikuspegi juridikotik zuzena litzateke pentsatzea hautagaiak kanpo uzteko arrazoia ez zela haren ezkontide edo bizilagunak inoren kontura edo bere kontura lan egitea, baizik eta lan-harreman juridikoa behin-behinekoa ez izatea, eta bai, ordea, finkoa eta mugagabea.

Interpretazio horrekin bat, langile autonomoak zortzigarren baldintzan, *lanpostu finkoa daukatenen* artean, sar zitezkeela pentsatzea zuzena litzateke.

Halere, Ararteko honen ustez, oinarri-arauetan langile autonomoak diren ezkontideak dituzten hautagaiak kanpoan geratzen zirela zehazki ez adieraztea, hautagaiarentzat nahasgarria gerta zitezkeen, deialdian sar zitezkeen ala ez jakiteko oinarrien interpretazio juridikoa egitera beharturik zeudelako.

Azaldutako arrazoiengatik, Erakunde honek Vitoria-Gasteizko Udalar gomendatu zion etorkizunean egingo ziren deialdietan salbuespen kasuak argi azal zitzaala.

*Bere zereginetatik izatez aparte uzteko neurrien aurrean funtzionari baten babesik eza (637/91)*

Arabako udal batean Administrazio orokorreko funtzionari tekniko zen hiritar bat Arartekoaren aurrean kezu zen, bere herriko udalak eta HAEE/IVAPek sinatutako hitzarmen baten ondoren egindako euskalduntze ikastaroak amaituta, Udalak bere funtzionari eskubideak seriozki kaltetzen zituzten berrantolaketa neurriak hartu zituelako, praktikan bere funtzionari zerbitzuak erabat baztertzen zirelako, eta inolako zereginik gabe eta zokoratuta zegoelako.

Arartekoak Alkatearengana jo zuen funtzionariak bizi zuen bazterketa egoera azaldu eta funtzionari haren eta itxuraz gobernu taldea ordezkatzeko zuen alkate-orde baten artean izandako elkarrizketei buruzko baieztapena eskatuz, elkarrizketa horietan esan omen zitzaizkion aurrerantzean Udalak ez zuela bere zerbitzurik beharko.

Alkateak erantzun zuen ez berak, ez udal gobernu taldeak ere ez zutela interesatuaren funtzionari karreran eragina zuen erabakirik hartu, horrek ez zuelarik galeratzen aurrerantzean, bere aginte-ahalmena erabiliz, udaletxea hobeto antolatzeko neurriak hartzea.

Denbora gutxi barru, hitzez antolaketa neurri ezberdinak onartu ziren eta interesatua zegokion alorreko Administrazio Zerbitzuen Buru kargutik kendu zuten; Hirigintzako Informazio Batzordearen bileretan ezin zuen parte hartu eta aurrerakoan Alkate-ordeak eskatutako txostenak egitera mugatu beharko zuen kexadunak.

Arartekoak Laudioko alkateari bidali zion idatzian adierazten zenez, toki-jaurpidea arautzen duen legediak Herri-administrazioa zuzentzeko eta administrazio zerbitzuak antolatzeko eta, beraz, zein funtzionari zein lanpostu bete behar duen erabakitze gaitasuna ematen dio Alkateari. Alabaina, gaitasun hori, beste guztiak bezala, ez da erabatekoa, agintearen diskrezionalitatea araubidearen beste xedapenek mugatzen baitute. Bestalde, Toki-Jaurpiderako Oinarrien Legearen Testu Bateratuak bere 169.1. a) artikuluan dio Administrazio orokorreko teknikariei dagokiela (eta hau da interesatuaren kasua, bera delako udaletxeko Administrazio orokorreko teknikari bakarra) goi mailako gestio, azterketa eta proposamenak egitea, eta goi mailako funtzionari tekniko bati ez bazaio lanik ematen, bere karguari dagozkion lanak kentzen bazaizkio, edo bere sailean bideratzen diren administrazio espedienteetan ezin badu proposamenik egin, orduan goian aipatutako araua ez da errespetatzen. Arartekoak esaten zuen, amaitzeko, antolaketari buruzko edozein xedapen edo akordio dagokion organoak idatziz onartu behar zuela, udalbatzarren lege-jaurpideak hori eskatzen duelako, eta kontrako kasuan neurri horrek eragindako funtzionaria babesik gabe geratuko litzatekeelako.

Alkateak, Arartekoak eskatutako informazioari erantzun zion eta, beste gauza batzuen artean, lehenago hitzez harturiko antolaketari buruzko erabakiak idatziz gauzatzen zituen Alkatearen dekretu bat onartu zutela zioen.

Ikerketak osatzeko, Hirigintzako Batzordeko idazkari berriari eskatu zitzaion argi zezala zenbat bilera egin zituen Hirigintza Batzordeak, zenbat gai tratatu ziren eta puntu horietako zenbatetan azaltzen ziren kexa aurkeztu zuen funtzionariak egindako txostenak.

Erantzun zigun esanaz, bi hilabetetan 94 puntu aztertu zirela informazio batzordeen gai-zerrenden barne, eta horietako hirutan bakarrik aztertu zirela administrazio orokorreko funtzionariak egindako txostenak.

Txosten horretan oinarrituz Arartekoak ebatzi zuen, eta horrela jakinarazi zion Alkateari, Udaleko Administrazio orokorreko azpieskala teknikoko funtzionaria izatez edozein administrazio zereginetatik baztertuta zegoela eta, noizbehinka txostenak prestatzen zituen arren, Administrazio orokorreko tekniko izanik egin zitzakeen gestio, azterketa eta proposamen lanak ez zitzaizkiola ia inoiz ere eskatzen. Horrek esan nahi zuen, inolako zigor-espediterik bideratu gabe, hutsegite larri edo oso larriren bat egin izan balu bezala zigortuta zeukatela egitez.

Arartekoak Alkateari egindako gomendioan esaten zion funtzionariak euskalduntze ikastaroak egiten hasi aurretik zeukan kategoriari zegozkion zereginetara itzuli behar zuela berehala, saileko administrazio zerbitzuetako buru izatera salbu, eta funtzionari bezala zegozkion eskubideak larriki kaltetzen zituen bazterketak lehenbailehen amaitu behar zuela.

Alkateak, Arartekoak bere gomendioa egiteko azaldu zizkion puntuak ukatu egin zituen eta, hortaz, ez zuen onartu gomendioa.

### *Lehiaketa-oposaketa espediente bat berandu erabaki (665/91)*

Lehendakaritza, Justizia eta Autonomia Garapenerako Sailburuaren 1990eko irailaren 27ko Aginduaren bidez antolatu zen lehiaketa-oposaketan parte hartu eta kalifikazio epaimahaiek argitaratutako behin-betiko zerrendetan azaltzen ziren pertsona batzuek Arartekoarengana jo zuten, espeditentea erabakitzeko zegoen atzerapenagatik.

Interesatuek beren kexan ziotenez, gertatu atzerapenak kalteak sortarazi zizkien. Horrela, karrerako funtzionari izendatuak izateko datak, maila sendotzeko bidean, hirurtekoen zorpidean, lekualdatzeko lehiaketetan parte hartzean eta abantaila sozialez baliatzeko aukeran eragiten zien. Denentzat berdinak ziren kalte horiei, lehiaketa gauditutakoei zegozkienak gehitu behar zitzaizkien, deialdia egin zuen administrazioarekin harremanik gabe zeudelako eta lana lortzeko egoeran jarrai zezaketelako.

1990eko abenduaren 28ko Aginduaren bidez deitutako meritu lehiaketa aurrez erabakitzeko premia izan zen, hori ere arrazoi ezberdinengatik atzeratua zegoena, interesatuek kexagai zuten atzerapenaren arrazoi nagusia.

Bi prozedurak ezinbestean elkarri lotuta zeudelako zegoen atzeratuta lehiaketa-oposaketa espeditentea, eta lekualdatzeen ebazpena zen lehenik konpondu beharrekoa. Horrela, lekualdatzeko lehiaketan emateke zeuden postuak

betetzeko lehiatzaileak izendatuz gero, lekualdatzeko lehiaketa erabakitzean, haiek agian mugitu behar izango zuten.

Horregatik, hutsik zeuden lanpostuak betetzeko tramiteak bizkortzeko beharrezko neurriak hartzea gomendatu zen. Era berean, lehiaketa-oposaketa probak gainditu eta Administrazioan lanean hasi gabe zeudenentzat behin-behineko konponbide bezala, hutsik egon zitezkeen lanpostuak aldi batez betetzeko lehentasunez izenda zitzatela proposatu zen. Alabaina, kontraesana sor zitezkeen konponbide honen eta denboraldi batez lan egiteko langile-hautaketa arautzen zuten irizpideen artean, 1990eko urriaren 30eko Aginte Batzordeak onartu zituenak. Erabakitzeke zegoen enplegu eskaintza osatzen zuten lanpostuen artean, batzuk ez zeuden derrigorrez lekualdatzeko lehiaketari lotuta. Puntu hau kontuan izanik, lanpostu hauetarako lehiaketa-oposaketa espedientearekin aurrera jarraitzea erabaki zuen Administrazioak. Horrela, azaldutako kexagaiak, hau da, atzerapenak eragindako kasu batzuen konponbidea aurreratu egin zen.

Arartekoaren ustez, horrela Administrazioak neurriak hartzen zituen, egindako gomendioa beteaz, erabaki gabe zeuden prozesuen ebazpena bizkortzeko.

Aurkeztutako kexa sorrerazi zuten atzerapenak zuritu gabe, sortutako arazoak Funtzio Publikoaren Legea onartzean hasitako normalizazio prozesuari loturik zeudela ikusi zen. Kexa hori, beraz, aipatu legea onartu ondoren egindako lehen lehiaketa-deialdiari zegokion.

Ararteko honen iritziz, kasu hau adibide bezala erabili beharko litzateke, etorkizunean lanpostu hutsak betetzeko prozedurak eraginkortasun eta bizkortasun printzipioetara hobeto egokitzeke beharrezko neurriak har daitezten.

### *Talde askorentzat irekita dauden lanpostuak betetzea. Merezimendu orokorren balioespena (10/92)*

Lehendakaritza, Justizia eta Autonomia Garapenerako Sailburuaren 1990eko abenduaren 28ko Aginduz deitutako lanpostuak betetzeko lehiaketan parte hartu zuen lehiatzaile batek kexa aurkeztu zuen, merezimendu orokorren sailean egindako balorazioari buruzkoa.

Lehiatzailearen lanari-sailean sartzeko eskatzen zirenez bestelako tituluen balioztatpena zen kexagaia.

Lanpostu zerrenda horietan biltzen diren lanpostuetako batzuk hainbat titulazio-taldetako funtzionarioek bete ditzaketenak dira.

Esandako 1990eko abenduaren 28ko Aginduan, hamargarren baldintzako a) zatiko 5. puntuan adierazitakoaren arabera, titulazio-talde askorentzat irekitako lanpostu baterako lehiatzen duenak puntu gehiago lor ditzake merezimendu orokorregatik, sarrera azterkertarako maila txikiagoko titulazioa eskatzen duen taldekoa izanez gero. Kasu hau ez da oso ohizkoa A eta B titulazio-taldeentzat irekitako lanpostuetan, baina askoz maizago gertatzen da C eta D taldeentzat irekitakoetan, ikasketen batz besteko maila kontutan har-

tzen bada. Hortaz, kasu askotan gertatzen da D taldeko funtzionarioek goimailako batxiler titulua edo balio berekoa ere izatea, hau da, C taldeko funtzionarioei eskatzen zaien berbera.

Deialdiaren balorazio-arauetan ez da aipatzen inolako lehenetasunezko baremurik lanpostuetarako maila txikiagoko titulazioa eskatzen zaien taldeen-tzat. Hala eta guztiz ere, horrela izan beharko luke deialdiko hamargarren baldintzako zati horretan esandakoa hitzez hitz hartuko balitz kontutan. Esandako lehiatzaileak horrexegatik aurkeztu zion bere kexa Arartekoari.

Azaldutako auzia berdintasun printzipioaren argitan aztertu zen, erreferentzia gisa hartutako egoerak (C taldeko lehiatzaileak eta D taldeko lehiatzaileak) gonbaraziorako puntu baliozkoak zirela ebatziz. Horrela, funtzionari batzuen eta besteen taldeak desberdinak diren arren, gonbaratzen dena haien funtzionari izatasuna da, eta hartan oinarrituz lehiaketan sartzen direnean, ezartzen zaizkien balorazio-irizpideetan ez du inolako garrantzirik zein talde-taldea diren.

Aipaturiko arauaren hitzez hitzeko aplikazioan desberdintasuna gertatzen dela egiaztatu ondoren (hamargarren baldintza, a) idazatia, 5. puntua), lortu nahi den helburua lortzeak bakarrik zuritu lezake desberdintasun hori. Baina ez genion inolako zuribiderik aurkitu. Are gehiago, bazirudien deialdiaren beraren nahi gabeko ondorio baten aurrean geundela.

Esandako guztiaren arabera, Arartekoak erabaki zuen berdintasun printzipioa urratu zela 1990eko abenduaren 28ko Aginduaren erabilpenean, eta gomendioa bidali zion Administrazioari agindu horretan jasotako baldintzak berdintasun printzipioari jarraiki aplika zitezen.

Administrazioaren iritziz, ordea, egindako balioespenak deialdiko baldintzetan zehaztutakoa betetzen zuen, eta, beraz, ez zegoen titulazioak neurtzeko beste modurik. Nolanahi ere, Arartekoa gomendio hori egitera bultzatu zuten arrazoiak ontzat hartuz, Administrazioak aditzera eman zuen prest zegoela geroztiko lanpostu-deialdietan gomendioa kontutan hartzeko.

Auzi honen inguruko egin beharreko guztiak amaitu eta gero, hartutako erabakiarekin Arartekoa ados ez zegoela adierazi ondoren, espedientea artxi-batu eta egindako biderapenen berri jakinerazi zitzaion kexadunari.

*Emakume langile bati lan baldintzak aldatu zizkioten bere zentrua hezkuntzako sare publikoan sartu zelako (28/92)*

Jakina denez, Gasteizko Hizkuntza Modernoen Institutua, Vital Kutzarena zena, erakunde horren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko akordio baten ondorioz Hizkuntza Eskola Ofizialean txertatua geratu zen.

Aipatutako hitzarmenean, langileen eskubide eta betebeharrak Administrazioak finkatuko zituela esan zen, eta irakasleei eskatzen zitzaizkien titulu baldintzak egokitzeko konpromezua hartu zen. Irakasle lanak burutzen

zituzten pertsona batzuek horretarako behar den titulurik ez zeukatelako agertu zuten lan baldintzak egokitzeko asmoa.

Integratze prozesuak kaltetutako emakume langile batek Arartekoarengana jo zuen bere langile eskubideak, horien artean soldatari zegozkionak, ez zirela errespetatu adieraziz. Kexadunak, lehenago irakasle lanak egiten zituenak, integrazioaren ondoren irakaskuntzaz bestelakoak egin behar zituelako gertatzen zen hori, kategoria jaisteak bere soldatan ere behe-rapena ekarri zuelarik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren txostenean esaten zen ordainketa maila berria, Saileko langileen konbenio kolektiboan bere lan kategoriarentzat iragarritakoa baino handiagoa zela. Erakunde honen ustez, ordea, hori ez zen kexaren arrazoa, beherapena langile horrek aurretik jasotzen zuen soldatari zegoziolako.

Lan kategoria titulazioari egokitu behar bazitzaion ere, horrek ez zuen esan nahi soldata jaitsi behar zenik. Horregatik, erreferentzia modura hartu zen kategoria zalantzan jarri gabe, Arartekoak uste zuen interesatuari ordetzkotza hartu aurretik ordaintzen zitzaion soldata eman behar zitzaiola, eta zentzu honetan gomendioa egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Egindako gomendioari erantzunez, Sail horrek bere ustez ez zeukala interesatuaren eskaria bete beharrik adierazi zuen, baina ez zituen azaldu ontzat ez emateko arrazoiak.

Erabaki horren aurrean, espedientea artxibatu eta Legebiltzarrari egin beharreko urteko Txosten honetan sartu zen.

#### *Administrazio bulego batean funtzionari baten izenean iristen ziren gutunak ireki (166/92)*

Funtzionari batek Arartekoarengana jo zuen, lan egiten zuen administrazio bulegora bere izenean iristen ziren gutunak ireki egiten zirela azaltzeko.

Langile horrek lehenagoko batean Administrazioari eskatu zion berari bidalitako gutunak bera aurrean zela irekitzeko.

Auzi honek zerikusia du Administrazio Prozeduraren Legeak ezartzen dituen erregistro administratiboen arauketarekin.

Esandako lege horrek dioenari jarraiki, erregistro administratibo horiek guztiz garrantzitsuak dira, erregistroan jasotako oharren arabera zehaztuta geratzen direlako administrazio-agirien aurkezpen egunak, kasu bakoitzerako horrek dituen ondorioekin. Agiri batek eragindako ondorioak erregistro administratibo batean inskribatzeari lotzeak esan nahi du ez gaudela antolakuntza mailako arau baten aurrean.

Gutunak funtzionari baten izenean agertzeak, aldiz, ez du galeratzen horiek administrazio-agiritzat eman behar izatea.

Beste alde batetik, kontutan hartu behar da oso ohizkoa dela bulegoetara bidaltzen diren idazki eta ofizioak funtzionari baten izenean agertzea. Ildo



horretatik, gutunak funtzionari jasotzaileen aurrean irekitzeko aukera planteia-  
tzerik egon badagoen arren, egia da neurri hori nekez har daitekeela Adminis-  
trazioaren antolakuntzaren barruan.

Hortaz, Arartekoaren iritziz, administrazio bulego batera zuzendutako  
gutunak irekitzea, haien ondorio administratiboak zehazteko helburua duen  
ekintza da eta, beraz, dagokion erregistroan sartzeko egiten denez gero, ez da  
inolako araugabekeriarik gertatzen Administrazioaren jardueran.

Aurrean esandakoa galerazi gabe, inoiz gerta daiteke administrazio bule-  
go batera funtzionari baten izenean bidalitako gutun batean dokumentu sindi-  
kalak egotea. Horrela baldin bada, eta argi adierazten bada hori gutun-azalean  
bertan, gutunak zuzenean helarazi behar zaizkio jasotzaileari, informazio sindi-  
kala jasotzeko eskubideari buruz Askatasun Sindikalaren Lege Organikoak  
adierazten duen bezala.

Ondorioz, Arartekoak erabaki zuen informazio sindikala jasotzeko eskubi-  
dea tartean dela izan ezik, administrazio bulego batera funtzionari baten izene-  
an iritsitako gutunak irekitzeak ez dakarrela inolako araugabekeriarik  
Administrazioaren aldetik.

#### *Espediente administratiboaren berri izateko eskubidea (305/92)*

Osakidetzak administrari kategoriako lanpostuak betetzeko egin zituen  
hautaprotetan parte hartutako pertsona batek Arartekoarengana jo zuen epai-  
mahaiaren jokaerarekin ados ez zegoela adierazteko.

Kexaduna ez zegoen konforme lortutako puntuazioarekin, eta proben  
zuzenketa ikustea eskatu zuen. Ikuskapenaren ondorenak ez zuen gogobete  
eta, hortaz, bere espedientea ere ikustea eskatu zuen, azterketari buruzko zen-  
bait xehetasun ezagutu nahi zituelako, haien artean zein erantzun hartu zizkio-  
ten ontzat.

Erantzunak zeintzuk ziren jakiteko eskariari ezetz esan ziotenez gero,  
kexa aurkeztu zuen, bai eta bertan galdetu ere zein ziren bost galderaren  
erantzun baliozkoak.

Arartekoaren iritziz, kexadunak egiten zuen informazio eskaria, berez hel-  
burua izan gabe, bitarteko eskubidea zen, haren bitartez kexadunak bere azter-  
ketaren balioespenaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsioa aurkezte-  
ko aukera baitzuen, baina horretarako berak eskatu erantzunak zeintzuk ziren  
jakin behar zuen. Ildo horretatik, eskatzaileari informazio hori eskura ziezaion  
gomendatu zion Arartekoak Osakidetzari.

Osakidetzak, aldiz, hautaprotetan epaimahaia eskari hori betetzeko behar-  
tuta ez zegoela eman zuen aditzera, baina, hala ere, erantzun baliozko horiek  
jakinerazi zizkion Arartekoari, bere idazkian zioen bezala, Erakunde honek  
merezi zuen errespetuagatik.

Geroago, erreklamatzailak berriz jo zuen Osakidetzara, oraingoan ondo  
zuzendutzat jotzen ez zuen azterketako galdera baliozko guztiak eskatzeko. Eta

eskari horri ezetz erantzun ziotenez gero, berriro eskatu zuen Arartekoaren laguntza.

Kexagai berbera izanik, Erakunde honek beste gomendio bat egin zuen, eta bertan adierazi epaimahaiek emandako puntuazioekin adostasunik ez dagoenean, hiritarrak bere interesen alde jokatzeko oinarritzko beharra izan daitekeela erantzun zuzenak zein diren jakin ahal izatea. Halaber, gomendioan esaten zenez, kalifikazio-epaimahaiek beren jardunean daukaten ahalmena dis-krezionala eta, nahikeria gertatzean ezik, derrigorrezko legekontrolik gabea izatea ez da lehiatzaileek eskatutako erantzunak ukatzeko arrazoia.

Deialdiko baldintzetan horrelakorik aurrikusia ez egotea ez da oztopoa pertsona horren eskaria ez betetzeko, eskari hori, Administrazio Prozeduraren Legearen 23. eta 26. artikuluen arabera, zilegizkoa baita.

Goian esandakoaren arabera, eta Herri-Administrazioaren jardueraren ardatz nagusi izan behar duen garbitasun printzipioari jarraituz, aurkeztutako kexa zentzuzkoa zela ebatzi zen.

Dena dela, egindako gomendioari ez zitzaion jaramonik egin, kalifikazio-epaimahaiaren erabakia ezezkoa zelako.

Ez zen Zuzenbidean oinarrituriko arrazoirik eman Arartekoaren gomendioa ez betetzeko, eta horregatik Osakidetzari jakinerazi zitzaion jarduera horren aipamena egingo zela Eusko Legebiltzarrari urtero egiten zaion Txostenean.

*Euskara hutsean argitaratutako egunkari batean publizitate ofiziala sartzea (491/92)*

Eusko Jaurlaritzaren publizitate ofiziala izendatzeko era izan zen Euskal Lurralde honetan euskara hutsean argitaratzen den egunkari batek Arartekoari kexa aurkezteko eduki zuen arrazoia.

Ezartzen ziren irizpideak aztertu ondoren, beroriek erabiliz publizitate ofiziala era objetiboan izenda zitekeela iritzi zion Arartekoak.

Halere, azaldutako kexaren aurrekari batzuek, lehenagoko jarduerak epaitzeko aukera ematen zuten, eta horrela ondorioztatu zen publizitatea izendatzeko orduan faktore batzuk ahaztu egiten zirela eta onura publikoetan parte hartzeko berdintasun printzipioari kalte egin ziezaiokeela.

Horregatik, Arartekoak gomendatu zuen komunikabideei orohar ezartzen zitzaizkien irizpideetan, egunkari bat euskara hutsean argitaratzeak zeuzkan berezitasunak kontutan eduki zitzatela. Etorkizunean egon zitezkeen publizitate banaketetan aintzat hartzeko egindako gomendio horren ondoren, Arartekoak espedientea itxi egin zuen.

Kexa-idatzia jaso zen Erakunde honetan, Hernaniko Udalak berraztertze errekurtsu bati espreski ez ziola erantzun salatzen zuena. Erreklamatzailleek behin eta berriz jo zuten Udal horretara aipatu errekurtsu administratiboari idatziz erantzun ziezaieten eskatzera.

Interesatuena eta Udalaren arteko auzia epailearen ebazpenaren baitan zegoela jakin ondoren, Ararteko honek Alkatearengana jo zuen gertatutako isiltasun administratiboaz hitzegitera, administrazio orok hiritarren eskariei idatziz erantzuteko daukan derrigortasunaz Erakunde honek behin eta berriz eman dituen iritziak gogoraraziz.

Hernaniko Udalak kasu honi buruz igorritako informazioan garbi ageri zen bi urte lehenagotik aurkeztutako errekurtsuohari nahita ez zitzaizola erantzunik eman, eta gainera, Udalbatzarrak ebazpen hori emateko zeukan borondate falta isladatzen zen. Horregatik guztiagatik, Arartekoa herri horretako Alkatearekin harremanetan jarri zen berriro, kasu honetan izandako portaera administratiboarekin Erakunde hau ados ez zegoela azalduz eta administraritzaren prozeduraren legedian xedatutakoa hausten zuela ezagutzera eman. Era berean, interesatuari eta Hernaniko Alkateari jakinarazi zitzaizkien Arartekoak Eusko Legebiltzarrari bidaliko ziola udal hutsegite honen salaketa, hura 1992an gertatutakoarekin osatutako urteko Txosten honetan jasoz.

*Hautaketa prozedurak. Elkarrizketa eta ariketaren irakurketa publikoa (671/92)*

Udal bateko lanpostu bat betetzeko deialdiaren baldintzetan hautaketarako prozesuan elkarrizketa egingo zela iragartzen zen. Hautaketa prozesuaren buru zen epaimahaiaren aurrean egindako ariketen irakurketa ere xedatzen zen. Deialdiko bi puntu horiei -elkarrizketa eta irakurketa- araugabekoak iritzi zien hautagai batek, eta horregatik jo zuen Arartekoarengana.

Aurkeztutako kexaren arrazoiak aztertu ondoren, erabaki zen langilegoa aukeratzeko prozedurei ezar lekiekeen araudiarekin bat zetozela baldintza horiek. Hortaz, kexaren arrazoirik ezaren berri eman zitzaion interesatuari.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, langilegoaren hautaketa prozedurak arautzerakoan, hautaketa sistema gisa elkarrizketak egiteko aukera iragartzen du (uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 25. artikulua) eta, beraz, baldintzek Legean iragarritako prozedura erabiltzen zuten.

Bestalde, sistema hori erabiltzea oso ohizkoa da, bere helburua hautagaien gaitasunak edo trebetasunak ezagutzeko baita, hitzezko adierazpen gaitasunak barne egon daitezkeelarik.

Hautagaiek agiriko saio batean beren ariketak irakurri beharra ez da lanarigoa hautatzeko erabiltzen den bide berri bat. Agiriko saioan ariketak irakurri beharrak hautaketa prozesuaren objetibotasuna bermatzen zuen. Horrela, Funtzio Publikoaren Legean defendatzen den publizitatea ez da ikusi behar

deialdiarekin eta emaitzekin bakarrik lotutako gauza bezala; alderantziz, lehiakideek Epaimahaiaren aurrean egindakoaren publizitate propioari ere badago. Irakurketa hori, esaten denaren ildotik beti egin beharko litzatekeena, ezin da, horratik, kasu guztietan egin.

Metodo hori bezala, beste batzuk ere badaude, esate baterako lehiakidearen izena ariketa orrien artetik kentzea. Sistema horiek erabiltzeko erabakia, ordea, probetarako deialdia egiten duen Administrazioaren erabakien pean dago. Esandakoaren adibidetzat Estatuko Administrazioaren alorrean 1985eko otsailaren 18ko Aginduan xedatzen den iragarpena har daiteke. Arau horretan esaten denez, Estatuko Administrazioan sartzeko hautaketa probetan egin beharreko idatzizko ariketetan, horiek epaimahaiaren aurrean irakurri ordez, epaimahaikideek berek zuzendu behar badituzte, ezin agertuko da egilearen nortasuna azaltzen duen daturik.

Aurreko arrazoen arabera, kexa artxibatu egin zen, eta Arartekoak interesatuari jakinarazi zion deialdiaren epaimahaiak araugabeki jokatzan zuen kasurako, bere aginduetara zegoela.

### 3.5. OGASUNA

#### A) Sarrera

Ogasun alorrari buruzko 46 kexa jaso dira, 1991n jasotakoan antzeko kopurua. Proporzionaliki, multzo nagusia NUIZi, hau da, Norbanakoan Urteko Irabaziekiko Zergari buruzkoa da eta, multzo horren barruan, errenta batzuk zerga horren pean sartzeari eta zergen kitapenak egiteko arazoei dagozkien erreklamazioak nagusitzen dira.

Udal zergen barruan, balio-gehikuntzen kontrako kexak dira nagusi, izan ere, zenbaitetan udalek merkatuko salneurri errealetatik urrun dauden indizeak ezarri dituzte balorazioak egitean; kasu horietan adituek beste balio-neurketa argigarri bat egiteko aukera planteatzen da.

Era berean, zerbitzu-egiterapenagatik eta herriak erabiltzeko diren espazioen aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren prezio publikoen kobratzarekin zerikusia duten kexa asko aurkeztu dira. Azpimarratzekoa da, zergen kostuak orokorrean arazo ugari sortzen duela, udal mailako legeek diotenez, beroriek gutxienez zerbitzuaren kostuaren adinakoak izan behar baitute.

Azkenik, aldizka kobratzen diren zergetarako norberari horien berri ez emateagatik herritarrek eginiko erreklamazioak aipatu behar dira, zergapekoak defentsarik gabe geratzen direlako. Gai horri buruzko gomendioa egin du Arartekoak, eta txosten honetan dagokion atalean zehaztuta dator.

Eragindako administrazioen arabera, honela sailkatzen dira jasotako kexak:

- Eusko Jaurlaritza .....	3
- Foru Aldundiak.....	26
- Udalak.....	17

## B) Kexen aukeraketa

*Eraikuntza, Obra eta Instalazioengatikoko Zergaren oinarri zergagarria finkatzea (559/91)*

Bilboko industri eraikin baten jabeen elkarteak, hango igogailua eta jasogailua konpontzeko obrak egin zituen. Obra zibilaren presupostua, Arkitekto Euskal Nafarren Kolegioak behar bezala sinatua, 2.178.620 pezetakoa zen, ezarri beharreko aparailuak salbu, horiek 7 milioi pezeta kostatu baitziren. Bilboko Udalak, Obren Lizentziaren eta Eraikuntza, Obra eta Instalazioengatikoko Zergaren likidazioa egin zuenean, bi kopuruak batera hartu zituen, 9.216.500 pezeta beraz.

Horri dagokionez, bai foru arauak eta bai dagokion ordenantza fiskalak diote, zergaren oinarri zergagarria *eraikitzearen, instalazioen edo obraren kostu errealari eta efektiboari ezarriko zaiela*.

Auziak, *kostu erreal eta efektiboa* kontzeptua interpretatzerakoan sorzen dira. Horrela, Udalaren iritziz, igogailuak eta jasogailuak, beste materialen pareko helburua dute eta oinarri zergagarrian sartu behar dira.

Auzokideen iritziz, ordea, oinarri zergagarria Arkitektoen Kolegioak sinatutako presupostuari ezarri behar zaio, eta hor ez da sartzen aparailuen kostua.

Erakundearen iritzia jabekideen komunitatearekin bat zetorren, jarritako makinak kanpoan utzi behar zirela irizten baitzion, Epaitegi Gorenak obren lizentziarengatikoko zergari dagozkion epai batzuetan esandakoaren bide beretik; epai horien artean aipatzekoak dira 1980ko apirilaren 19koa (Ar. 1.357) eta 1982ko maiatzaren 10ekoa (Ar. 2.763), Toki-Ogasunei buruzko Legearen aurrekoak izan arren, eztabaidatutako arazoa argitzeko orduan baliagarriak gerta daitezkeenak.

Horrela, azkenekoak aintzakotzat hartzeko bigarren puntuan hau dio:

“...horren arabera, instalazio mekanikoen kostuari, obra horien ondorioz lurrean kokatuko denari, ezin zaio zergarik ezarri, eta beraz, dagokion kantitatea ezin da arielaren oinarrian sartu”.

Adibide gisa, Madrileko Udalaren ordenantza fiskalaren 5.2. artikulua, oinarri zergagarria eraikuntza, obra edo instalazioen kostu erreal eta efektiboari ezarri behar zaiola esan ondoren, hau argitzen du:

“Kostu erreal eta efektiboak, egindako obra unitateen aurrekontua esan nahi du, kontratistaren etekina barruan sartuz eta profesionalen ordainsariak nahiz jarri diren tresnen kostua kanpoan utziz”.

Hori egiteko aholkua eman arren, Bilboko Udalak ez zuen behar adinako arrazoirik aurkitu aholkua betetzeko, eta horregatik jakinarazi zitzaion gai hau Legebiltzarrari aurkeztu beharreko Urteko Txostenean sartuko zela; ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

*Zergapekoak adierazitako bere azken bizilekura bidalitako jakinerazpenaren balioa (592/91)*

Kexa-aurkezleak 1983an Bilboko bere ohizko etxebizitza saldu egin zuen, Zaragozara joan zelako bizitzera. 1989ko maiatzean, hiri hartako etxebizitza berrian premiabidezko probidentzia baten jakinerazpena jaso zuen, 1979ko ekitaldiari zegokion Norbanakoen Urteko Irabaziekiko Zergaren berri ematen zuena.

Hilabete berean, berraztertze errekurtsioa ezarri zuen, borondatezko ordainketa-eparearen barruan kitapena egin zezan arauzko jakinerazpena egin ez zitzaiolako, baina ez zioten onartu.

Eskuratu zitzaigun dokumentazioaren arabera, Foru Ogasunaren jakinerazpen zerbitzuak, jasotzaileari igorritako eskariak itzultzen zirela ikusirik, hura ordurako ez baitzen helbide hartan bizi, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen deia.

Horri dagokionez Zergetarako Lege Orokorrek hauxe dio bere 45.2. artikuluan:

“Sujetu pasibo batek etxebizitza aldatzen duenean, zergen ardurara duen administraritzari jakinarazi behar dio, horretarako aitorten berezia eginaz”.

Horrela, interesatuak adierazitako azken etxebizitzan egindako jakinerazpenak baliozkoak dira ondorio guztietarako, eta interesatua bertan ez badago, bidezko da probintziako Aldizkari ofizialean ediktoak argitaratzea.

Bada, premiabidezko probidentziaren kontra zergapekoak ezarritako arrazoia, hau da, kitapenaren arauzko jakinerazpenik ez jaso izana, ez zen bidezkoa.

Beraz, indarrean dagoen legedia errespetatu zela ikusirik, Ararteko honek espedientea itxi egin zuen.

Erreklamatzailleak eta bere ezkontideak ezkontz-hitzarmena izenpetu zuten, bereziki beraien irabazizko elkarteak likidatu eta desegiteko asmoz.

Beste erabaki batzuen artean, hiri honetako etxebizitza bat osorik eta berak bakarrik erabiltzeko eskubidea eman zitzaion emazteari.

Urtebete geroago, higiezin horren gainean zegoen hipoteka indargabetzeko eskritura egin zuen.

Arabako Foru Aldundiak, ordea, Dokumentatutako Ekintza Juridikoengatikako Zergaren likidazioa senarrari bidali zion, eta horrek ezarritako berraztertze errekurtsioa ez zen onartua izan.

Honi dagokionez, mailegu hipotekarioaren lehen titular gisa senarra azaltzen zen arren, hipoteka emazteak eskatuta indargabetu zen, eta horren onura emazteak jaso zuen, zamarik gabe aurkitu zenean higiezinaren jabetza eskuz aldatu zuelako, eta hori, senar ohiaren partaidetzarik gabe gauzatu zuen aurrerago.

Ildo honetatik, Arabako Foru Aldundiko Ondareen Eskualdaketan eta Dokumentatutako Ekintza Juridikoengatikako Zerga Sailari gomendioa luzatu eta, erakunde horrek erakutsitako arrazoiak aztertu ondoren, egin nahi zen likidazioa bertan behera utzi zen, hipotekaturiko etxebizitzaren jabe zen emazte-ohiaren izenean beste kitapen bat eginaz.

*Lurren Balioaren Gehikuntzagatikako Udal Zergaren balorazio indizeak. "Iuris tantum" ustezko legezkotasuna (189/92)*

Erreklamatzailleek 1988. urtean etxebizitza berria erosi zuten Gasteizen.

Udalak zegozkion kitapenak ezarri zizkion Lurren Balioaren Gehikuntzagatikako Udal Zergaren arabera, 1986an eraikitzaileak lurra erosi zituenetik 1988an etxebizitzak egin ziren arte izandako gehikuntza ezarri.

Ondorioz ordaindu beharreko kopurua, kasu batzuetan oso handia izan zen, azken kuotak hasierakoekin erkatuz %1.000 gehitu baitziren.

Gertakari hori, batez ere epe horren haseran, hots, 1986an, lurren balioa neurtzeko erabili ziren udal-indizeek eragin zuten, Udalak 1976 urterako onartuak zeuzkanak baitziren, eta hauek aldatu gabe iraun baitzuten Gasteizen 1988an jabego-araubide berria ezarri zen arte.

Horri dagokionez, esan behar da lurren salmentarako balio arruntaren indizea dela udal balorazioen indizeen gainetik nagusitzen dena, eta hori *iuris tantum* da, hots, aurkako probaren bidez suntsi daitekeena.

Horrela, 1991ko otsailaren 15eko Epaitegi Gorenaren Epaiak (Ar. 1.115) adierazten duen eran:

“...objetuaren balio zehatza eta erreala finkatzeko ezintasunaren aurrean, eta beraz, balorazio ezberdinen arteko kontraesana dela

medio, zantzuen araberako balioen ustezko egiazkotasunaren balio-gabetzea gertatu da, eta ondorioz, adituaren balio-neurketa argigarria egitea dagokio”.

Hori aintzat hartuz, Arartekoak Vitoria-Gasteizko Udalari gomendatu zion perituak balio-neurketa argigarria egin zezan, baina Udalak ez zuen onartu, kexa sorrerazi zuen espedientea Arabako Erakunde Juridiko Administrati-boaren aurrean erreklamazio ekonomiko-administrati-boan errekurritua izan zela eta erakunde horrek emango zuen epaiari atxikiko zitzaiola adieraziz.

Egindako gomendioa ez zela bete ahaztu gabe, espedientea artxibatu eta Eusko Legebiltzarrarentzako Txostenean sartu zen.

### *Galdakaoko musika eskolako prezio publikoen igoera (190/92)*

1991ko azaroaren 26an, Udal Musika Eskolan irakaskuntza zerbitzuen truke kobratuko ziren prezio publiko berriak onartu zituen Galdakaoko Udalbatzarraren Osoko Bilkurak. Prezio berri horiek, 1992ko urtarrilaren 1ean jarriko ziren indarrean, hau da, ikasturtearen erdian, eta aurreko urteko prezioekin konparatuz, gai batzuen prezio-igoera %300ekoa izango zen.

Ikasleen guraso elkarteko talde batek horren aurkako iritziaren agertu eta gero, apirilaren hasieran, erdi mailako tresnetan hilean 4.000 pezetako behe-rapena eta oinarrizko tresnetan 1.000 pezetakoa eskaini zuen Udalak. Proposamen hau ez zen onartu, guraso batzuen ustez, igoerak Kontsumorako Prezioen Indizeak izandakoaren parekoa izan behar zuelako gehienez ere.

Maiatzaren 6an, Udalaren eta Erakunde honen ordezkarien artean izandako bilera baten ondoren, eskaintza hori hobetu egin zen: 4.400 pezetako beherapena erdi mailakoetan eta 1.700ekoa oinarrizkoetan.

Neurri horrekin batera, ordainketa mailakaturik egiteko aukera eman zen: erdia ekainaren 10a baino lehen, eta gainontzeko erdia uztailaren 10a baino lehen.

Azkenik, Udalak ikaslerik gehienei bekak eskaintzeko konpromezua har zezan lortu zen.

Konpromezu horren xehetasunak gurasoen elkarteari jakinarazi eta zen-bait ohar egin ostean, batzarrak proposamena onartzea erabaki zuen eta, beraz, kexaren gaia konpondu zelakoan, espedientea itxi egin zen.

### *Obrak egiteko Udal baimenaren gaineko zergatik hobaria (204/92)*

Erreklamazioa Basauriko biztanle batek egin zuen, esanaz Eusko Jaurlaritzaren Hirigintzako Lurralde Ordezkaritzetan etxebizitzak dirulaguntza publikoekin birregokitzeko banatu ziren informazio inprimaketan, onura fiska-



len artean obrak egiteko udal baimenaren zergatik %90eko hobaria lortzea sartzen zela.

Espedientea tramitatu eta birregokitze-lanetarako laguntza izendatu ondoren, erreklamatzailerak zergari zegokion hobaria eskatu zion Basauriko Udalarari, baina Toki Ogasunen 5/89 Foru Arauaren 3. xedapen gehigarria oinarri hartuz, ukatu egin zioten, haren arabera 1989ko abenduaren 31 geroztik, toki zergetan orokorki nahiz bereziki finkatutako onura fiskal guztiak bertan behera utzi baitziren.

Horrela, nahi gabe izan bazen ere, eskaria egin zuen pertsona huts egitera eraman zuten, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailearen 19ko 26/1984 Legearen 8. artikuluan iragartzen diren kasuetako bat gertatu zelarik. Artikulu horren arabera, kontsumitzaile edo erabiltzaileek eskaini zaien zerbitzuaren edukia eta bermeak betetzea eska dezakete, nahiz eta eskubide hori egindako kontratuan edo jasotako agirian zehazki adierazia ez egon.

Halere, laguntza horiek sustapenerako pentsatuak zeudenez eta eskari inprimakietan hutsegite batengatik nahi gabe sartu zirenez, ez zen bidezkotzat jo horren erantzukizuna Hirigintza Sailari leporatzea.

### *Enplegua Sustatzeko Fondoetatik jasotako dirua: NUIZi atxekitzea (288/92)*

Erreklamatzailerak Altzairu Berezien alorreko Enplegua Sustatzeko Fondoan laguntza jasotzen zuten, eta Gipuzkoako Foru Ogasunak laguntza horiek osorik NUIZ barruan sartu behar zirela zioen.

Epaitegi batzuek, ordea, aurkako iritzia azaldu dute, esanaz Enplegua Sustatzeko Fondoetatik jasotzen dena, lan harreman batean oinarritua badago ere, ez dagoela horren pean bakarrik, Estatuaren eginkizuna delako langabezia dagoen langilearen egoera ekonomikoa arintzea.

Horrela, lanpostua galtzeagatik emandako kalteordain osagarria denez gero, ez litzateke Errentaren gaineko Zergaren zergagarrien barruan sartu behar.

Arrazoi horiek zergak biltzen dituen Administrazioari jakinarazi ondoren, horrek onartu zuen langileari lanik gabe geratu ondoren Fondoak ematen diren dirutik zati bat ez dela zergagarria, lan-kontratua iraungi zenean enpresak emandako kalteordainari dagokiona hain zuzen, zeren kalteordainaren kopurua langileak aldiz aurretik eman baitzion Fondoari bertan satzerakoan, baldin eta Langileen Estatutuak bidegabeko egozpen kasuetarako ezartzen dituen mugak gainditzen ez baditu, eta iraungi gabeko zergaldiei badagokie.

Horrela, interesatuek, Fondoak banatzen dieten diruaren banaketa jasotzen duen agiria aurkeztuz Foru Ogasunari eskaria egin beharke diete dirua itzul diezaieten.

Erreklamatzailerak akordioaren berri eman ondoren, espedientea itxi egin zen.

Bastidako udalerrian lurak zeuzkaten pertsona batzuek beren desadostasuna azaldu zuten Erakunde honetan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarekin batera, lurak zaintzeaz arduratzen ziren udal funtzionariaren gastuei aurre egiteko, Nekazal Zaintzarengatik Zerga ere ordaindu behar zutelako.

Erreklamatzailen kexak bi alderdi zituen: alde batetik, zerbitzua mantendu behar ote zen zalantzan jartzen zuten, beren ustez, zaindarien kostua ordaindu behar zutenei ez zielako inolako onurarik ekartzen. Bestetik, lortzen zituzten abantailak kontuan izanik, zerga gehiegizkoa zela zioten.

Bastidako Udalak bestalde, lurren jabeen artean zerbitzu horrek zeukan harrera finkatzeko galdesorta bat eratu zuten, erroldan dauden 835 zergapekoen artean 74k erantzun zutena.

Partaidetza portzentaia horren garrantzia baloratzen hasi gabe, beren iritzia azaldu zutenen ezinegona eta aurkako jarrera ia erabatekoa zen.

Horrela, zergapekoen egonezin nabariak gain, Toki-Jaurpiderako Oinarrien Legearen 26. artikuluan ezinbestekotzat jotzen diren gutxienezko prestazio zerbitzuen barruan ez zegoela ikusirik, Erakunde honek, Bastidako Udalak zerga horiek ezartzeko daukan burujabetasunarekiko errespetu osoz, hauxe proposatu zion udal horri: zerbitzuari beste tankera bat eman ziezaiola eta lurren jabeek nahi bazuten bil zitezela bere babesera, horrela zerga prezio publiko bihurtuz eta zerbitzuaz baliatzea berariz eskatzen zutenei bakarrik kobratuz.

### 3.6. HERRIZAINGOA

#### A) Sarrera

1992. urtean Herrizaingo Sailari dagozkion 27 kexa bideratu dira guztira, egindako erreklamazioen %5,1. Aurreko ekitaldietan bezala, sail horretako salaketa gehienak, espediente guztietatik %85 baino gehiago hain zuzen, Bidezaingo azpisailari dagozkio.

Kexa bakoitzak eragindako Administrazioari bagagozkio, esan daiteke sail horretan aurkeztutako 27 erreklamazioetatik 15ek udalekin izandako arazoekin zuten zerikusia eta beste 12 Gobernuaren Herrizaingo Sailaren jardunari zegozkien. Foru aldundiek gai horietan kompetentziarik ez daukatenez, ez da egon erakunde horiekiko kexarik.

Bidezaingoari dagozkion erreklamazioen artean, ibilgailu batek arauen bat hausten duenean gidaria identifikatzeko arazoan ingurukoak azpimarratu behar dira. Kasu horietan, okerra egindako ibilgailuaren jabeak Administrazioari jakinerazi behar dio ustez araua hautsi zen unean nor zen ibilgailua gidatzen ari zen pertsona.

Bidezaingoaren barruan beste kexa multzo garrantzitsu batek, gure autonomi Komunitateko hiri handietan indarrean dauden garraio eta aparkamenduari buruzko udal ordenantzekin du zerikusia. Horien artean, arau horiek eragindako zonetan tokiko biztanleei aparkatzeko aukera ematen dien txartel berezia eskuratzeko arazoak dira aipagarriak, ordenantzak egiteko orduan biztanle askoren egoera ezberdinak aintzat hartu ez direlako.

Azkenik, Bidezaingo Sailaren zigorren berri ematerakoan ustez egindako hutsegiteen inguruko kexa espediente batzuk ere bideratu dira Erakunde honetan.

Herri-Bakearen azpisailari dagokionez, 1992an 4 kexa jaso ziren, udaltzaingoek eta Ertzaintzak kasu zehatz batzuetan izandako jokaera kritikatzeko zutenak.

## B) Kexen aukeraketa

*Elbarriei ibilgailuak aparkatzeko txartelaren balioa aitortzeaz (550/91)*

Pertsona elbarri batek arazoak izan zituen, urriaren 17ko 236/1989 Dekretu bidez Eusko Jaurlaritzak elbarri fisikoentzat sortutako aparkatzeko txartela eduki arren, legez Autonomi Komunitateko udalerrri guztietan balio duena, txartelaren balioa aitortu ez ziotelako.

Bizkaiko udalerrri batzuetan sortu ziren arazoak, udaltzainek, gaizki ulertzeengatik, arau erregulatzailerak ez ezagutzeengatik edo horrekin ados ez egoteagatik txartela aintzat hartzen ez zutelako, eta horren ondorioz zenbaitetan isunak ere jarri zizkioten. Ararteko erakunde honetan, hain zuzen, beste espediente bat bideratu zen arrazoi berberengatik.

Gure Erakundea eragindako udalekin harremanetan jarri zen, txartel horrek euskal udalerrri guztietan zuen balioaren berri emateko. Aipatutako dekretua, udal horietako batek errekurrituta dago, baina horrek ere adierazi zuen txartelaren balioa onartuko zuela aurkako ebazpen judizialik ez zegoen bitartean.

Aipatutako udalerrietako Udaltzaingoak ez zekien txartel hori zegoenik, eta arau erregulatzailerak ere ez zuen ezagutzen. Arartekoaren idatzia jaso ondoren, udaltzain burua Erakunde honekin harremanetan jarri zen dekretuaren kopia bat eskatzeko, eta kopia bidali zitzaion.

Bideratzen zen espedienteari dagokionez, egindako gestioen berri kexadunari eman ondoren, itxi eta artxibatu egin zen.

Jatorri alemaneko Bilboko hiritar batek Erakunde honetara jo zuen kexa idatzi baten bidez, non adierazten baitzuen aipatutako hiriburuko Udalak ukatu egin ziola egoiliarrentzako TAO txartel berezia, bere etxebizitzatik gertueneko aldean ibilgailua aparkatzeko beharrezko zuena. Kexadunak zioen bezala, atzerriko matrikuladun ibilgailu bat zeukalako ezin zituen bete aipatutako txartela eskuratzeko Bilboko Trafiko eta Aparkalekuetarako Ordenantzak ezartzen zituen baldintza guztiak.

Beharrezko informazioa eskuratu eta kexagai zen kasua Erakunde honetako lege-aholkularitzak aztertu ondoren, interesatuari jakinarazi zitzaion atzerriko ibilgailuen jabe guztiak Estatuan bizitzen jarri eta sei hilabetera ibilgailuak homologatzeko agindua bete beharra daukatela. Erreklamatzailerak hiru urtetik gora zeramatzanez Bilbon bizitzen, garbi zegoen aipatutako homologazioa egina, eta ondorioz ibilgailuak matrikula espainiarra eduki behar zuela, horren ondoren baldintza berdinetan TAO zonan bizi direnentzat aparkatzeko txartel berezia eskuratzeko moduan egon zitekeelarik.

Era berean ikusi zen, ordea, ibilgailuen homologaziorako sei hilabeteko epea gainditu ez duten eta TAO ordenantzak eragindako zonan bizi diren atzerriko ibilgailuen jabeen kasua, idatzirik zegoen moduagatik, ez zegoela araeuan jasota. Horrela, eta bideragarritasun juridikoa argudio ezberdinen bitartez justifikatuz, Ararteko honek gomendioa luzatu zion Bilboko Udalari Hiriko Trafiko eta Aparkalekuetarako Ordenantza alda zezan, atzerriko ibilgailuen jabeek, aipatutako ordenantzan iragarritako egoiliar txartel berezia lortu nahi duten kasuan, homologaziorako finkatutako sei hilabeteko epe legala agortu gabe egonda, beste hiritarren baldintza berdinak eduki ditzaten.

Azkenik, Bilboko Udalak, azaldutako argudioekin erabat ados zegoela esanaz erantzun zion Ararteko honi, eta Erakunde honek adierazitako moduan Ordenantza aldatzeko borondatea azaldu zuen.

### **3.7. JUSTIZIA**

#### **A) Sarrera**

1991ko Txostenean luze eta zabal azaldu zen bezala, oro har Justiziaren Administrazioetat jotzen den guztiaren inguruan planteatutako kexak sartzen dira atal honetan, baina hori bai, kexa horiek Administrazioaren beraren funtzioei buruzkoak izan behar dute, eta sekula ez justiziaren funtzio propioei buruzkoak. Era berean, Autonomi Komunitateko Administrazioak justizia gaietan izan dituen jardueren aurka planteatu diren kexak ere sartzen dira bertan.

Puntu horiek argitu ondoren, aurreko urteetan bezala, alor honetan Autonomi Komunitateko Administrazioaren jardunaren kontra bidalitako kexak gutxi izan direla ikusten da -bakarra- justizia prozesuen tramitazio atze-

rapenekin eta interesatuek salatutako beste funtzionamendu okerrekin konparatzen baditugu. Kasu horietan, Arartekoak Fiskalgoari bidaltzen dizkio, eta horrek bere txostena eman ondoren, berori kexa-aurkezleari igortzen dio, Legebiltzarrarentzako Txostenean sartzeaz gain.

Hau da eragindako administrazioen araberrako banaketa:

- Autonomi Komunitateko Administrazioaren justizia jardueri buruzko kexak.....	1
- Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuei buruzko kexak....	14

## B) Kexen aukeraketa

### *Atzerapena auzi baten biderapenean (688/92)*

Beste auto gidari baten erruz gertatutako errepide istripuaren ondorioz, auzi laburtu batean murgildua zegoen kexaduna, eta espediente horri 1989ko urtarrilaren 29an eman zitzaion hasiera.

1992ko azaroan, ia lau urte geroago, erreklamatzailerak Arartekoarengana jo zuen artean epairik ez zela eman salatzeko. Donostiako Lurralde Auzitegiko Herri-salataritzari informazioa eskatu ondoren, jakin genuen fiskalak hiru egun bakarrik pasatu zituela gertatua kalifikatzeko, eta geroztik izandako atzerapena auzian parte hartu behar zuten alderdiei zegokiela.

Horrela, salaketa partikularrak urte bete behar izan zuen prozedura itzulitzeko, eta defentsak, ahozko epaibidea ireki ondoren, ez zuen itzuli beste bederatz hilabete igaro arte.

Gure informazio eskariari erantzuteko unean, zegokion zigor-epailaritzako epaitegian zegoen prozedura, ahozko epaiketa eguna finkatu zain.

Azkenik, egindako gestioen berri interesatuari eman ondoren, eta Erakunde honek bere jarduera-aukera guztiak agortuta, espediente artxibatu egin zen.

## 3.8. INGURUGIROA

### A) Sarrera

1991ko ekitaldiari zegokion Txostenean adierazi zen bezala, Ingurugiro saila, Hirigintza eta Etxebizitza alorretik kanpo, izaera berezia daukan sail gisa osatu zen. Aldaketa hori egiteko egon ziren arrazoien artean aipa daitezke, alde batetik, gai horren inguruko kexak gehitzea, eta bestetik, gizartearen ingurugiroarekiko kezka areagotzea, Arartekoak ere bere egiten duena, hain zuzen.

1992ko urtealdian 62 kexa jaso dira, Erakunde honetan hartutako guztien %11,7, eta eragindako administrazioen araberrako sailkapena hau da:

- Eusko Jaurjaritza .....	3
- Udalak.....	59

Edukiei dagokienez, bideratutako erreklamazioak honela sailkatzen dira:

- Hiriko jarduera sailkatuak .....	53
- Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk.....	9

Hiriko jarduera sailkatuei dagokienez, aurrean ere esan behar dugu eredu berdinar erantzuten dietela, hau da, jarduera horietatik gertu bizi direnek lokaletatik eratorritako zarata, ke eta usainek sorturiko gogaipenak salatzen dituzte. Gogaipen horiek lokalak, pub, taberna, dantzaleku eta antzeko ostalaritza egoitzek eragiten dituzte, auto gordelekuak eragindako gogaipenak salatzen dituzten kexetan egon den gorakada ere nabaria izan delarik.

Salaketa gehienetan adierazten denez, indarrean dagoen araudiak zaraten kontrako isolamendua eskatzen duten baldintzak betetzen ez direlako sortzen dira gogaipenak. Kasu askotan, soinu-gabete-sistemarik eduki ez arren, indar handiko musika ekipoak erabiltzeko baimena ematen zaie eragozpenak sortzen dituzten lokalei.

Gai horri dagokionez azpimarratzekoa da, "Red ciudadana contra el ruido" deituak zaraten kontrako egindako aldarrikapena jaso genuela Erakunde honetan. 15.000 sinadura jasotzen zituen agiri hau, hiritarrek arazo honen aurrean duten kezka adierazpen garbia da.

Era berean nabaria da, orohar, biztanleek jarduera sailkatuen kontrako salaketak egitera Erakunde honetara jotzen dutenerako, aspertuta daudela gogaipenak denbora luzez jasan behar izanagatik, eta piska bat etsituta ere bai, udal agintariek jaramonik egiten ez dietelako eta arazo horiek konpontzeko neurri zehatzik hartzen ez dutelako.

Halere, aurrean udal batzuek eskaini diguten laguntza beste urteetako baino handiagoa izan da eta hori garbi ikusten da jarraian azaltzen den kexa-zerrendan, Erakunde honek eginiko gomendioak zenbaitetan onartu egin baitira.

Azkenik, ingurugiroarekin zerikusia duten beste arazo batzuei dagokienez, harrobietako zaratek, hautsak, eta abarrek sortutako kutsadurak eragindako kexak daude; era berean argizko iragarkiak gaizki kokatuta egoteagatik ere aurkeztu dizkigute kexak, argi asko eman eta etxebizitzetatik gertu egotean biztanleei gogaipenak sortzen dizkietelako.

## B) **Kexen aukeraketa**

### *Tolosako kirol elkarte batek eragindako zaratak eta keak (186/89)*

Tolosako biztanle batek Erakunde honi bidalitako kexa idazkian salatzen zuen hiri hartako Udalak ez zuela ezer egiten, kexadunaren etxeko behekaldean kokaturiko «Sociedad Club de Remo Emendik» izeneko kirol elkarteak eragiten eta kexa-bidaltzaileak bere etxean jasaten zituen zarata, usain eta ke ugarien aurrean.

Erakunde honek egin beharreko gestioei ekitean jakin ahal izan zen kirol elkarte horrek ez zuela jarduteko behar zuen baimena, jardunean egon arren. Auzokideek salatu ondoren, legezatzeko eginbeharrekoak egiten hasiak ziren, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak epez kanpokotzat eman behar izan zuen espedientea, kirol elkartearen ordezkariak ez zuelako eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

Ararteko honek, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak ere, zenbait gomendio egin zizkioten Tolosako Udaleko Alkateari, aipatutako elkartearen egoitza itxi zedin, legez kanpo ari zelako jardunean, eta gainera egoitzaren inguruan bizi ziren auzokideei kalteak eragiten zizkielako, Udalaren berariz aipatu gabeko baimenarekin.

Halaber, gomendioan esaten zen Auzitegi Gorenak anitz epai-erabakitan Zuzenbidearen araberkotzat jo izan duela udal agintariek legez kanpoko jardunak ixtea, zuhertasun neurri moduan, jardun horiek Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegian ezarritakoaren arabera legezatu arte.

Tolosako Udaleko Alkateak ez zuen ontzat hartu Ararteko honen gomendioa, eta, gauzak horrela, gure ahalmenean zeuden eginbeharreko guztiak amaitu ondoren, espedientea itxi eta artxibatu zela jakinerazi zitzaion kexadunari.

### *Dantzaleku batek eragindako zaratengatik gogaipenak (594/91)*

Erakunde honetan jaso zen kexa-idatzi baten bidez, Vitoria-Gasteizko auzokide batzuek beren etxepean zegoen dantzaleku batek sorrarazten zituen zaratengatik gogaipenak salatu zituen.

Kexadunek ziotenez, gogaipenak 1982an hasi ziren, indarrean zegoen araudian ezarritako mugen gaineratik jartzen zuten musika, etxebizitzetan entzuten hasi zirelako.

Era berean, interesatuek bidalitako idatzian esaten zen Vitoria-Gasteizko Udalak diru-zigorak ezartzen zizkiola dantzalekuari, baina jabeak, beste gastu bat gehiago bailiren ordaintzen zituela, edo denboraldi baterako dantzalekua itxiarazten ziotenean, neurri zuzentzaileak jarriko zituela aginduz lortzen zuela berriro zabaltzea, baina neurri zuzentzaileak jarrita ere, ez zituela zaraten araua

errespetatzea lortzen; beraz, horrek esan nahi zuen hartzen ziren neurriak ez zirela nahikoa, edo ezarri ondoren berriro kendu egiten zirela.

Ararteko honek beharrezko gestioei ekin zien, Vitoria-Gasteizko Udalari gai horri buruzko informazioa eskatuz. Udalak bidali zigun txostenean zehatzmehatz adierazten ziren jarduera martxan jarri zenetik aipatutako dantzalekuari ezarritako neurri guztiak.

Aipatu txostenean Udalak esaten zuen lokalaren jabeari eskatutako neurri zuzentzaile guztiak bete zirela eta, beraz, 1990. urtetik indarrean dagoen Zaratei buruzko Udal Ordenantzak soinuen isolamendurako ezartzen dituen baldintzak betetzen zirela. Hala ere, zaratek sortutako asperraldia instalazioen gehiegizko erabileraren ondorio zirela zioen (musika, bezero gehiegi edo oso zaratsuak, eta abar).

Horrela, gogaipeanek sorrarazten zituzten jarrerren kontra, zigor txikiak edo handiak ezarri besterik ez zuen egin ordurarte Udalak, eta horretarako, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian iragarritako zigor aukerez baliatu ohi zen.

1990. urtean udal ordenantza indarrean jarri zenetik, guztira 150.000 pezetara iristen ziren zazpi isun eta 15 eguneko itxialdiak ezarri zitzaizkion dantzaleku horri. Udaleko Ingurugiro Saila ordea, baimendutako mugak behin eta berriz hausten zirela kontuan izanik, beste neurri batzuk aztertzen ari zen, era horretako jardueretan gero eta sarriago gertatzen den arazoa behin-betiko konponbidean jarri asmoz.

Horregatik guztiagatik, Udalaren jokaera indarrean zegoen legeadiaren araberakoa izan zela aintzat hartuz, Ararteko honek espedientea itxi egin zuen.

#### *Isilpeko jarduera batek eragindako zaratak eta Udalaren axolagabekeria arazo horren aurrean (649/91)*

Erakunde honetan Bergarako biztanle baten kexa-idatzia jaso zen, bere etxepean zegoen kafetegi baten jardunak eragiten zituen zarategatik gogaipeanek ez ezik, 1989. urteaz geroztik jasaten ari zen arazo horren aurrean Bergarako Udalak azaldutako axolagabekeria ere salatzen zuena.

Bergarako Udalari gai horri buruzko informazioa eskatu eta jaso ondoren haxe jakin izan genuen: aipatu jarduera beharrezko udal baimenik gabe zegoen martxan eta, espedientean jasota agertzen zenez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro eta Obra Hidraulikoetarako Sailak behin baino gehiagotan luzatu zizkion Udalari errekerimenduak, kafetegiaren jabeari lokala berehala legeztatu edo bestela itxi egingo ziotela agintzeko eskatuz.

Bergarako Udalak jarduera-baimena aurkez zezan eskatu zion jabeari. Horretarako eman zion epea igaro eta gero, jabeak ez zuen beharrezko proiektua aurkeztu, eta horren aurrean Udalak ez zuen inolako neurrik hartu.

Ondorioz, berme-neurri gisa, lokala berehala itxiaraz zezala gomendatu zion Arartekoak Udalari, jarduera isilpekoa zelako eta adierazitako epean bai-



mena eskatu ez zuelako; eta kafetegi jabearen kontra zigor-espeditentea ireki zezala ere gomendatu zion, jarduera berehala legeztatzeko eskatuz.

Bergarako Udalak ez zuen Arartekoak lokala legeztatzen zen bitartean jarduera ixteko eta zigor espeditentea irekitzeko egindako gomendioa onartu.

Alabaina, legalizazio tramiteak hasi zituztenez gero, Ararteko honek amaitutzat jo zituen bere egitekoak eta, lokalaren jabeak beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ondoren, epe motzean kexagai zen arazoa konponduko zelakoan, espeditentea itxi eta artxibatu egin zuen.

*Kafetegi batek eragindako zaratek sortutako gogaipenei buruz (651/91)*

Bergarako biztanle bat bere etxe azpiko kafetegiak sortzen zituen zaratek eragindako asperraldiagatik kexu zen.

lido honetatik, kexa-bidaltzaileak bere idatzian zioen hamar urte zeramatzala Bergarako Udalarari salaketak aurkezten, baina ez zuela ezer ere lortu. Denbora horretan etxeko leihoak aldatu behar izan zituen, baina halere gogaipenak jasaten zituen.

Erakunde honek egindako ikerketen bidez ikusi zenez, udal-batzarrak jarduera-lizentziak baimendutako soinu maila baino askoz handiagoa eragiten zela ikusirik, behin baino gehiagotan eskatu zion kafetegiaren jabeari lokala zaraten aurkako sistemaz horni zezan, baina horretarako ezarritako epeak amaitu ondoren, ezer egin gabe jarraitzen zuen.

Arartekoak Bergarako Alkateari esan zion kasu honetan Udala zela ahalmenduna, indarrean dagoen legedia bete araziz, ostalaritza jarduera eta inguruko etxeetako bizitza lasaia bateragarriak gerta zitezten ziurtatzeko.

Alkateak, bere aldetik, jakinarazi zigun Udalaren Aginte Batzordeak kafetegiaren jabeari lizentzia erretiratzeko eta, beraz, lokala soinu-gabetu arte berau itxi arazteko erabakia hartu zuela eta Udaltzaingoa sarrerako ate bikoitza zigilatu egin zuela.

Honen guztiaren berri interesatuari eman ondoren, eta Administrazioaren jarrera legezkoa izan zela ikusirik, espeditente honen egin-beharrekoak amaitutzat jo ziren.

*Kafetegi batek sortutako zarata, ke eta usainak (127/92)*

Ermuako biztanle baten kexa idatzia jaso genuen Erakunde honetan, bere etxe azpian zegoen kafetegiak sortutako zarata, ke eta usainek eragiten zituzten gogaipenak salatzen zituena.

Ermuako Udalarari eskatu genion jardueraren espeditentearen kopia bidal diezagula, biztanleen kexen aurrean Udalak hartutako neurriak ezagutu eta aipatutako jarduerak Udalaren baimenik ba ote zuen jakin asmoz.

Udalak bidalitako espedientean ikus zitekeenez, kafetegi jabeak inguruko etxebizitzetako biztanleei kalte egiten zieten ke eta usainak zuzentzeko beharrezko neurriak hartuta zeuzkan.

Bestalde, lokala zaraten aurkako sistemaz hornitzeko neurriak har zitzan, Udalak jabeari errekerimendu bat baino gehiago bidali zizkiola jakin genuen, lokalaren isolamendu akustikoa ez baitzitzaion indarrean zegoen araudiari egokitzen. Udala, ordea, ez zen jarritako baldintzak betearazteaz arduratu eta lokalak lehen bezala ziharduen, etengabeko gogaienak sortuz, eta gainera, toki-erakundearen berariz aipatu gabeko baimenaz.

Horri zegokionez, Ermuako Alkateak esan zigun zatengatik gogaienak ez zirela ohizkoak, noizbehinka lokalean ezkontzak ospatzen zirenean bakarrik sortzen zirela eta, Udalak lokalaren jabea bankete horiek ez onartzera behartzen bazuen, sortutako kalte ekonomikoek jatetxea ixtera eramango zutela.

Arartekoaren iritziz, haatik, egindako neurketek garbi erakutsi zuten, zaratek indarrean zeuden hirigintza arauak baimendutako muga erabat gainditzuten zuten, eta Ermuako Udala kafetegia biztanleei gogaienik sortuko ez zien eran funtzionaraztera beharturik zegoen; eta udal horrek ez zeukan ahalmenik indarrean zegoen legedia betetzen ez zuen kafetegiaren jarduna baimentzeko.

Horrela bada, azaldutako arrazoien arabera, Erakunde honek hauxe gomendatu zion Ermuako Udalari: Alkatearen dekretuz, eska ziezaiola lokalaren jabeari gehienez hilabeteko epean soinugabetzeko egitasmoa aurkez zezan, Eusko Jaurlaritzak sailkatutako jarduerak erregulatzeko arau teknikoari buruzko 171/85 Dekretuari jarraiki, eta esan ziezaiola, orobat, emandako epean agindua betetzen ez bazuen, jarduera baimena behin-betiko kendu egingo ziotela.

Ermuako Udalak gomendioa onartu ondoren, Arartekoak espedientea artxibatu egin zuen.

*“Pollos Riko, sabrosos hasta el piko” erretegia ixteko Udalak emandako agindua (225/92)*

Bilboko auzo bateko merkatariak Arartekoari azaldu zion Udalak itxi egin ziola oilaskoak erretzeko udal lonja batean zeukan lekua. Ixteko arrazoia, keak eta gasak ateratzeko sistematik ez edukitzea izan zen, airea araztailu elektronikoen bidez iragazteko eta gasentzat usainen kontrako ikatz aktibodun iragazlea jartzeko bere proposamena Udalak onartu ez ziolako.

Arartekoak Bilboko Udalari informazioa eskatu zion eta honek jakinarazi zion erreklamatazailak lokala erosi zuenean ez zuela oilaskoak erretzeko baimenik, haiek saltzekoa baizik; beraz, ez zuela saltokia erretegi bihurtzeko udalbaimenik eta, ondorioz, lizentzian, eta udalak erretegia ixteko udal-agindua aurreko arrazoietan oinarrituta zegoen.

Horrez gainera, udal horren esanetan, Eusko Jaurlaritzaren 171/85 Dekretuaren lehenengo eta laugarren atalen arabera, tankera horretako jar-

dueretan nahitaez jarri behar da keak eta usainak ateratzeko tximinia. Baina soluzio hori ezinezkoa zen, lonjaren gaina, berori barne hartzen zuen eraikineko bizilagun-taldeak patio gisa erabiltzen zuelako, eta bizilagunek ez zutelako tximinia jartzeko baimenik ematen.

Ikerketaren ondorioa azaldu ondoren, Bilboko Udalak ixte-aginduan ez zela arauz kontrako jokabiderik ikusten aditzera eman genion kexadunari.

*Antzerki-kafetegi baten funtzionamenduak sortutako zaratek eragindako gogaipenak (262/92)*

Eibarko auzo bateko biztanle talde batek, antzerki-kafetegi baten jardunak sortutako zaratek eragindako gogaipenak salatu zizkion Arartekoari.

Kexadunek ziotenez, urte asko zeramatzatzen arazo hau Eibarko Udalari salatzen eta, honek lokalaren jabeari zigor bat baino gehiago ezarri zion arren, jabeak Udalak ezarritako baldintzak urratzen eta, beraz, jarduera baimenean ezarritako zarata mailen muga behin eta berriz hausten jarraitzen zuen.

Kaltetuek kexarekin batera igorri zuten txosten zabal batean adierazten zen zeintzuk ziren udal zerbitzu teknikoek egindako zarata-neurketa ugarien emaitzak, eta guztietan ikusten zen onartutako zarata mailaren oso gainetik zegoela.

Espedientean jasota zeuden aurreko gertakizunak ikusirik, Ararteko honek gomendioa egin zion Eibarko Udalari, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiko 38. artikuluan iragarritakoaren arabera, Alkatezaren dekretu bidez hilabeteko azken epe bat eman ziezaiola lokalaren jabeari, hura zaraten kontrako sistemaz horni zezan, eta jakinarazteko, agindua betetzen ez bazuen, lokala behin-behingo itxi egingo zitzaioela.

Ondoren, Eibarko Udalak jakinarazi zigun Aginte Batzordeak lokalaren jabeari jarduera lizentzia bi hilabeterako kentzea erabaki zuela eta, interesatua-  
ren helbidea ezagutzen ez zutenek, hari erabakiaren berri ematerik izan ez zutelako, ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela eta lokala Udaltzaingoak zigilatu zuela.

Era berean, Udalak esan zigun lokalaren jabeak zegokion soinugabetze-plana aurkeztu zuela, eta lanak egiteko beharrezko baimena emateko bidean zegoela.

Ararteko honek bere aldetik, kexaren gaia konponduta zegoelakoan, Eibarko Udalak hartutako akordioa interesatuei jakinarazi zien.

*Aire zabaleko dantzaldi batek sortutako zaratek eragindako gogai-  
penak (274/92)*

Errenteriako biztanle batek kexa-idatzia aurkeztu zuen Erakunde honetan, herri horretako udal igerilekuan antolatzen ziren dantzaldiek sortutako zaratek eragiten zituzten gogai-  
penak salatzeko.

Ildo honetatik, kexadunak zioenez, igerilekuko taberna arduradunek larunbatetan eta jai bezperetan gaueko hamabietatik goizeko hirurak edo laurak arte dantzaldiak antolatzeko baimena zeukaten.

Alde horretan bizi direnei atsedena galerazten zieten aipatutako dantzaldiek, eta horregatik salaketa bat baino gehiago aurkeztuak zituzten Errenteriako Udalean, baina erantzunik jaso gabe zeudenez, udara bazetorrela eta, Erakunde honetan egin zuten salaketa, Udalarekin tartekaritza lanak egin genitzan.

Erakunde honek Errenteriako Udalari bidali zion salaketa, eta Kiroletarako Udal Patronatoak bere aldetik jakinarazi zigun, egoera aztertu ondoren, aipatu taberna arduradunei dantzaldiak bertan behera uzteko agindua eman zitzaie.

Arartekoak, Udalak hartutako erabakia interesatuari jakinarazi eta espediente itxi eta artxibatu egin zen.

*Dantzaleku batean antolatutako kontzertuen zaratek sortutako gogai-  
penak (383/92)*

Gasteizko dantzaleku baten funtzionamenduak eragindako araugabeke-  
riak salatzen zituzten kexa idatzi batzuk jaso ziren Erakunde.

Kexadunek eskuratutako dokumentazio ugaria arretaz aztertu ondoren, Erakunde honetako lege-aholkularitzak ikusi zuen bazirela zenbait urte eragin-  
dako biztanleek Gasteizko Udaletxean salaketak aurkezten zituztela aipatu dantzalekutik ateratzen ziren zaraten kontra, eta lokalaren soinu isolamendua egokia zela frogatu arren, gogai-  
penak, lokalean zuzenean eskaintzen ziren kontzertuek sortzen zituztela.

Arartekoak, lokalaren jabeek kontzertu horiek ospatzeko beharrezko udal baimenik ba ote zeukaten galde egin zion Gasteizko Udalari.

Erantzun zitzaigunez, lokalaren jabeak zuzeneko musika emanaldirik ez ospatzeko konpromezua espreski hartua bazeukan ere, emanaldiek bere har-  
tan jarraitzen zuten, zarategatik gogaitaldiak sortaraziz.

Ondorioz, udal teknikari zerbitzuek azaldu dugun egoeran ezarrita zeuden mugak gainditzen zirela frogatu ondoren, eta gainera behin eta berriro gaindi-  
tu ere, Gasteizko Udalak dantzalekuko jabeari dantzalekua 15 egunez ixtera behartzen zuen zigorra ezarri zion, eta baita lokalean zuzeneko musika ema-  
naldiak eta kontzertuak ospatzeko debekua ere; horrekin batera, agindua betetzen ez bazuen zigortua izango zela ohartarazi zitzaion jabeari.

Kexa eragin zuen arazoa konponduz jo ondoren, hartutako erabakia interesatuei jakinarazi zitzaien.

*Dantzaleku bati zaraten maila behin eta berriz gainditzeagatik ezarritako zigorra (587/92)*

Gasteizko dantzaleku baten jabeak zioenez, hiri horretako Udalak zigorra ezarri zion gehiegizkotzat jotako zaratengatik.

Kexadunaren auzokoez egindako salaketaren aurrean, Udalaren teknikari zerbitzuek zaraten neurketa egin zuten bere lokalean, eta 30 dB-A maila lortu zuten, hau da, zaratak 2 dezibeliotan gainditzten zuen baimendutako maila, eta horregatik lokala 10 egunez ixteko zigorra ezarri zitzaion.

Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri eta Erakunde honetako legegaholkularitzak kexa sorrarazi zuen arazoa aztertu ondoren, jakin zen 1992ko hasieran lokala ireki zenetik bere jabeak zigor bat baino gehiago ezarri zitzaio- la arrazoi beragatik eta, lokalaren isolamendua egokia zela frogatu arren, gogaipenak dantzalekuko musika maila desegokiak eragin zitzaizkela.

Horregatik, 1990eko otsailaren 16an Gasteizko Udalak onartutako Zarata eta Dardaren Emisio eta Errezeptziorako Udal Ordenantza Erregulatzailaren 54. artikuluan iragarritakoaren arabera, hutsegitea oso larria zen hamabi hilabeteko epean behin eta berriz egin zuelako, eta horregatik erabaki zuen Udalak lehen aipatutako zigorra ezartzea.

Erakunde honek, bada, Udalaren jokaera indarrean dagoen legediaren arabera izan zela iritziz, espedientea itxi egin zuen.

### 3.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

#### A) Sarrera

Sail honetan 31 kexa aurkeztu dira, guztien %5,8 beraz. Eragindako administrazioen arabera banaketa hau da:

- Eusko Jaurlaritza .....	5
- Foru Aldundiak.....	9
- Udalak.....	17

Edukien arabera, horrela bana daitezke jasotako erreklamazioak:

- Herrilanak .....	12
- Garraioak .....	7
- Udal zerbitzuak.....	12

Sail horren barruan jaso diren kexa gehienak herrilanak egiteko orduan sortutako arazoen ondorioei buruzkoak dira, obrak burutzean sortzen diren kalteak salatzen baitituzte hiritarrek; beste kasu batzuetan, kaltetutako hiritarrek praktikan besteak bezalaxe ezar daitezkeen alternatibak aurkezten dituzte, baina esan behar da erreklamatzailerik gehienetan proposatzen dituzten aldaketak teknikoak izaten direla, eta beraz, Administrazioaren ahalmen diskrezionalaren esku geratzen direla.

Garraioen alorrean Eusko Trenbideak tren konpainia izan da oraingoa ere kexa gehien eragin dituen, batzuetan erreklamatzailerik ustez konpainiak eskaintzen dituen zerbitzuak onak ez direlako, eta beste batzuetan, berriz, erabiltzaileei, bide berdina egiten duten autobusetan, esate baterako, ibiltzeko mugak ezartzen zaizkielako.

Azkenik, udal zerbitzuen alorrean jasotako kexen artean, hauek dira sarrien egiten diren salaketak: edateko ur hornidura falta, etxebizitzetako gas nahiz argiteri instalazioan akatsak eta, azkenik, herri saneamenduan gabeziak salatzen dituztenak.

## B) Kexen aukeraketa

*Itsas-lur ondare publikoan emakida erregimenean eraikitako etxebizitza sail baten arazoak (403/90)*

Ramon Iribarren kaleko edo Lehen Iterlimen Itsas-xokoa izenez ere ezaguna den lekuko etxejabeen komunitate batek eskuartean zeukan arazo baten berri eman zion Erakunde honi, hirigintza lanak amaitu gabe baitzeuden. Interesatuek ziotenez, itsas-maldaren ezponda ez zuen horma euskarri batek babesten, eta horregatik etengabe lurjausien arriskupean zeuden; herriko argiak egoera txarrean zeuden; auzokoek estolderia zerga ordaintzen zuten, baina aldi berean putzu beltzak garbitzeko zerbitzua beraiek kontratatu behar zuten; Udalak ez zituen hirigintza obrak bere gain hartu nahi, eta auzokoek ibilgailuak herri bidetik sartu eta ateratzeagatik zerga berezia ordaindu behar zuten.

Azaldutako arazoen konplexutasunagatik, Arartekoak argibideak eskatu zizkion Hondarribiko Udalari eta *in situ* ikuskapen bisita egin zuen, aldi berean Erakundearen lege-aholkularitzak kexagai guztien azterketa juridiko zehatza egin zuelarik.

Interesatuek informazio osagarria eman ondoren, Arartekoak bere ebazpena eman zuen, gai batzuk, hala nola itsas-lur ondare publikoari zegozkionak, bere ahalmenetik kanpo zeudela esanaz, gai horietan eskuduna Estatuko Administrazioa delako.

Ebazpenean esaten zen, orobat, salerosketako eskritura publikoen eta 1976ko Lurraren Legearen 62.3. artikulua arabera, etxebizitza jabeak emakidatik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztien elementu amankomunetan daukaten partaidetzaren arabera ordezkatzeko direla. Era berean,

Hondarribiko Udalak hirigintza lanak egiteko zeukan derrigortasuna zalantzan jartzen zen, hain zuzen ondare publikoko itsas-lurra delako.

Bestalde, aprobetxamendu bereziko emakida arautzen duen ministerio-aginduan esaten da ur beltzak ateratzeko isurbide bat beren kontura eraikitzea behartuak daudela emakidariak, eta bestalde, Erakunde honek ez du inola ere jakin Udalak saneamendurako hodi nagusia eraikitzeko konpromezua hartu ote zuen, jabeek adierazten zuten eran. Bien bitartean, Udalak, Construcciones y Contratas S.A. enpresak eskaintzen zuen zerbitzuaren bidez, putzu beltzen garbiketa bere gain hartu zuen.

Azkenik, urbanizazio pribatutik bide publikora ibilgailuak pasatzeko prezio publikoa ez zezala kobratu gomendatu zitzaion Udalari, kale hori Udalarena izan ordez, Higer Farorako errepidearena eta, hortaz, Eusko Jaurlaritzarena izanik, kitapen hori zuzena ez zelako.

*Biztanle talde batek saihebideta beste leku batetik egiteko aurkeztutako proposamenaz eta Administrazioaren diskrezionalitateaz (242/91)*

Alegiako biztanle talde batek Arartekoarengana jo zuen, Alegiako saihebidetaren proiektu ofizialaren kontra aurkeztu zuten alternatiba Gipuzkoako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailak ez zuela onartu esanaz, proposamen berriak abantaila nabariak zituen arren: zarata gutxiago, segurtasun handiagoa, eta hori guztia presupostu kostu berarekin.

Ararteko honek foru sailean informazioa jaso ondoren, kexadunei jakinarazi zien, bi trazaketak, bai beraiena, bai Foru Aldundiak eta Alegiako Udalak defenditutakoa ere, bidezkoak zirela eta, bigarren hau, ez zegoela derrigorrez bete beharreko arauen kontra. Alabaina, saihebidetaren trazatua finkatzea Foru Aldundiari eta Udalari dagokie, eta horiek trazatu ofizialaren aldeko iritzia emana zuten.

Bestalde, adierazi genion saihebidetaren trazaketa finkatzeko eta onartzeko prozeduran Erakunde honek ez zuela inolako araugabekeriarik ikusten eta, hirigintza eta errepide ikuspegitik, irizpide arrazoizko eta zentzuzkoei erantzuten ziela, ezaugarri horietxek zituzten beste trazaketa batzuk ere bazeuden arren.

*Arketa kokatzeko eta hodi baten iraganbide-zorrerako desjabetzapena; ordezkotrazaketaren proposamena (65/92)*

Erandioko biztanle batek bere kezka azaldu zion Arartekoari Bilbo Handiko Ur eta Saneamendu Partzuergoa bere baserri ondoko lur batzuk desjabetzeko biderapenak egiten ari zelako; lur horietatik saneamendurako hodi bat pasarazi nahi zen eta arketa bat jarri, eta trazaketa aldatzeko eskatu zuen,

hodia orubearen bazter batetik pasa zedin, kalteak horrela txikiagoak izango zirelako.

Arartekoak, argibide gehiago emateko eta interesatzen zitzaion ordezko trazaketa planu batean adierazteko eskatu zion kexadunari, Ur eta Sanemandu Partzuergoarengana jo ahal izateko.

Kexa-aurkezleak adierazi zuenaren arabera, Partzuergoak ordurako onartu zuen bere eskaria, eta hodiaren trazaketa berak nahi zuen eran planifikatu zen. Halere, uholdeen kasuan arketak sorraraz zitzakeen kalteez kezkatuta zegoen, uholdeak sarri gertatzen direlako zona horretan.

Orubea, errepide, errekatxo eta gertuko beste eraikuntza batzuen tartean zegoela eta, beraz, arketa beste puntu batera aldatzeko aukerarik ez zegoela ikusi zen; horren ondorioz, Uren Partzuergoak onartutako trazaketa berriak arrazoizkoa zirudien. Era berean, arketaren funtzioaren eta egitura motaren berri eman zitzaion, esanaz bere erabilera noizbehinkakoa dela, zerbitzuan ikuskapena egin beharra dagoenean edo matxura egonez gero erabiltzen dela, eta orubean uholdeak gertatu arren, horrek ez duela inolako eraginik izango.

*Errepide berri baten ondoko jabego pribatu batean izandako lurjau-  
siak (141/92)*

Sodupetik Okondorako BI-5041 errepidearen ondoko orube baten jabea den bilbotar batek kexa idazkia bidali zion Erakunde honi. Igorlearen esanetan, Bizkaiko Foru Aldundiak errepide hori zabaldu eta hobetzeko lanak egin zituen, bere jabegoan, errepidearekin mugan zegoen aldea kolokan geratu zen, eta euriaren ondorioz lurjausiak ere gertatu ziren. Era berean, kexadunak lehena go jo omen zuen Aldundira, babes-harresi bat eraiki zedila eskatzeko, baina zegoen foru sailak ukatu egin omen zion.

Kexadunak bidalitako idatzizko eta irudizko agiriak aztertu ondoren, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailera jo zuen, azaldutako arazoari buruz Administrazioak nolako irizpidea hartuko zuen jakiteko asmoz.

Azkenik, Aldundiak erantzun gisa bidali zuen agiri eta irudizko txosten batean ondoko irtenbidea proposatzen zen: alegia, zabaldutako errepidearekin mugan zegoen lursaileko metro bateko luzerako zati baten jabetza kentzea, 45 gradutako ezponda jarritz, lurjausiak galerazteko eta,aldi berean, orubeari itxitura egokia emateko.

Proposamen hori kexadunari helarazi zitzaion, bai eta gomendatu ere harremanetan jar zedila foru sail horrekin, proposamen horren mamia bideratu ahal izateko; horrenbestez, Arartekoaren ardurapeko eginbeharrekoak amaitutzat eman ziren.



Plentziako biztanle baten kexa idatzia jaso zen Erakunde honetan, Eusko Trenbideak konpainiako bi trenen arteko transbordoan egitean eta euriteen ondorioz trenbidean gertatutako uholdeengatik istripua izan zuela adierazten zuena. Era berean, erreklamatuak aipatutako konpainiarengana jo zuen istripuarengatik jasandako kalteen ordain eske; ezetza eman zioten eta erreklamazioa Uren Partzuergoari egin ziezaiola gomendatu.

Beharrezko informazioa Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilanak Sailari eskatu zitzaionean, gai honi buruz Arartekoa gestioak egiten hasi zela ikustean, eragindako konpainiak kalteordaina eskatzeko espedientea ireki zuen, interesatuari horretarako agiri zehatzak eskatuz.

Beraz, arazoa juridikoki ondo bideratuta zegoela ikusirik, kexa espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

### **3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA**

#### **A) Sarrera**

Biztanleentzat, osasun laguntza gauzarik baliotsuenetakoa da, eta horren adierazgarri dira zerbitzu hori jasotzeko eskubidearekin erlazionatutako kexak. Laguntza horren edukaren izaerak berak oztokatzen du muga bat jartzea, hiritarren eta osasun zerbitzu publikoen artean irizpide kontrajarriak sortzen direlarik.

Biztanle guztientzat berdina izango diren gutxienezko premiak asetzeko zerbitzu orokorra eskaintzea eta, aldi berean, hiritar bakoitzak bere osasuna zaintzeko nahi duen atentzio osoa lortzea ez da gauza erraza.

Osakidetzak gastuak ez ordaindu nahi izateagatik aurkeztu diren kexak ez dagozkio osasun zerbitzu publikoak eskaini behar duen laguntzaren mugari bakarrik, gai hori askotan eztabaidatu den arren. Horrela, aurkezturiko kexa batzuk, aurretik bidezko baimena ez edukitzeagatik gastuak itzultzera ukatzeari buruzkoak izan dira. Horiek aztertu ondoren, Arartekoak ebatzi du zenbait kasutan aurretik horretarako baimena eskatzeagatik itzuli badira gastuak, baimen hori eskatu ez eta, beraz, eduki gabe asistentzia mota bera jasotzean ere itzuli beharko lirartekeela gastuak.

Aurretik baimendutako gastuak itzultzeko atzerapenek aurten ere kexak eragin dituzte. Kexa horietako batzuk, ebakuntza egiteko kreditu pertsonala eskatu eta gero, diru hori kobratu ezinik zebiltzan pertsonak aurkeztu dituzte.

Alor honetan 82 kexa aurkeztu dira, guztien %15,5.

Aipatutako erreklamazioak honela banatzen dira azpisailen arabera:

- Eusko Jaurlaritza .....	56
- Foru Aldundiak.....	12
- Udalak.....	15

## B) **Kexen aukeraketa**

*Sendagilearen ustezko zabarkeria, hezurretako metastasia antzematean (134/90)*

Sendagilearen ustezko zabarkeria salatu zion Erakunde honi 46 urteko emakume batek; haren esanetan, Osakidetzaren osasun zerbitzuetan urtebete eta erdiko tratamendua egin ondoren bularraldeko min handiak zituelako, hezurretako metastasiak aurkitu zizkioten, eta hain aurreratuta aurkitu ere, non ez baitzegoen inolako sendabiderik. Gaisoa handik hamabost hilabetera hil zen, eta senarrak jarraitu zuen kexarekin.

Aurkikuntza egin baino hiru urte lehenago, erakunde pribatu batean, titi bat kendu zioten gaisoari tumore galgarria zuelako, baina ondoren ez zioten inolako tratamendu lagungaririk ezarri. Ondoko urtean, arrazoi berberagatik beste titia ere kendu zioten, Osakidetzaren osasun zentru batean, oraingo honetan. Geroztiko kontrolek, bestalde, emaitza normalak izan zituzten.

Esandako aurrekin hauetaz gainera, kexaduna tratamendu psikiatrikoan ere egon zen, bai eta barneratuta ere, nortasun histeriko-depresiboa antzeman ziotelako; era berean, hainbat arazo ere izan zituen, bai senitartekoekin, bai bere baitakoak.

Kexadunak zioenaren arabera, oinazeak zituela esan zienean, Osakidetzako sendagileek haien jatorri fisikoa ukatu eta psikiatria zerbitzura eta oinaze-unitatera bidali zuten; horrela, emakumearen beraren esanetan, jokabide horrek bere gaisotasunari aurrera egiten lagundu zion, eta horrexegatik berandu antzeman zioten esandako metastasia.

Gauzak horrela, Erakunde honek egin beharrekoak egin zituen salatutako gertakariak argitzeko; hona hemen gure ikerketaren nondik norakoak:

Lehen-lehenik, kexadunak emandako dokumentazio guztia aztertu genuen eta txosten bat prestatu, gertakariak denboraren arabera sailkatuz. Ondoren, Osakidetzara jo genuen, aurreko argibideak osatzeko. Lortutako xehetasunekin gonbaraziozko azterketa orokorra paratu eta beste txostena idatzi zen. Azkenik, guzti-guztia medikuntza alorreko aditu baten esku utzi zen, Osakidetzaz kanpokoa izanik, iritzi neutrala eman zezakeelako, kexadunari emandako sendabidearen zuzentasunaz eta egokitasunaz.

Egindako ikerketen bidez ziurtatu ahal izan zen Osakidetzak gaiso honi emandako sendabidea, bere aurrekinak kontutan harturik, bikoitza izan zela: alde batetik, bularraldean metastasiak sortzen ote zitzaizkion antzemateko kontrola egin zioten, etengabe adierazten zituen oinaze haien zergatia argitzearen. Bestalde, laguntza psikiatrikoa ere eman zitzaion.

Esandako lehen puntuari dagokionez, hamazazpi hilabetetan honako proba arradiologiko hauek egin zitzaizkion: lau gammagrafia, oihartzun magnetiko bat, X izpi proba bat, eta eskaner proba bat; horrenbestez, minbizia ote zuelako susmoak ezeztatu egin ziren. Horregatik, lehen aipaturiko aurrekin psikikoak kontutan izanik, sendagileek laguntza psikiatrikoa eta oinazeen tratamendua aholkatu zituzten, eta, hala, bada, gaisoa Bizkaiko ospital bateko oinaze-unitatera bidali ondoren, hamaika aldiz tratatu zuten bost hilabetetan.

Proba horien ostean egindako eskaner batek, ordea, metastasia bazegoela antzeman zuen, bai eta hala baieztatu ere baieztatu zuen geroagoko gammagrafia batek. Orduantxe ekin ahal izan zitzaion sendabide onkologiko bati, lehenago egitea ez zelako inola ere gomendagarria. Gaisotasuna ezin onera egiteko moduan zegoela kontutan harturik, sendagileek lesioak tratatu eta laguntza psikologikoa ematera zuzendu zituzten beren ahaleginak, tratamendu erasokorrekin, gaisoa sendatu ez, baina haren bizi-kalitatea gaizkitu egingo zutelako.

Azkenik, kexadunak eta Osakidetzak berak emandako datuekin Erakunde honek egin zuen txosten zabala, eta espedientearen dokumentazio guztia osasun-erakunde horretaz kanpoko sendagile bati eman zitzaion, epai zezan; beronek, ikerketa zehatza egin ondoren, egokitzen jo zituen, bai gaisoari egindako tratamendua, bai probak ere.

Egin zuen txostenean adierazten zen gaisotasunaren bilakabideagatik beragatik ez zela antzeman metastasiari egozteko moduko zeinurik; eta kasu honetan, beste hainbat aldiz gertatzen den bezala, zaila zela metastasia aurkitzea eta, hortaz, baita diagnostikatzea ere gaisotasuna sendatuezina zen punturaino iritsi ez zen bitartean, eta hori, horretarako teknika egokiak erabili zirelarik. Amaitzeko, txostenean aditzera ematen zen sendagileek beste era batera jokatu arren, ez gaisotasunaren bilakaera, ez bere ondorioa ere ez zirela galaraziko, eta, beraz, gertatutakoaren errua ezin zitzaizela akats teknikoei edo sendagileen interpretazioari egotzi.

Hori guztia ikusirik, Erakunde honek kasu honetan sendagileen zaborberria gertatu zela baztertu, eta halaxe jakinerazi zion gaisoaren senarrari bidalita-ko ebazpen batean.

### *Sare publikoan errehabilitazio tratamendua jaso ondoren Osakidetzak gastuak ordaintzeari uko egitea (343/90)*

Ebakuntza baten ondoren, paraplejiko geratu zen 19 urteko gazte baten espediente bideratu zen Erakunde honetan. Ebakuntzaren ondorioak ikusi ostean egindako ikerketetan ezin izan zen frogatu sendagileen okerrik gertatu zen. Kasu honen berezitasunak kontuan izanik, Arartekoak informazioa eskatu zion Osakidetzari ospitalen batean gaisoak errehabilitazio tratamendua jarraitzeko aukeraz, eta hark, erantzun gisa, sare publikoko zentru espezializatuen zerrenda eskuratu zion, "aurrerantzean beste ezer egin baino lehen" gazteak aipatu zentruetara jo zezakeela adieraziz.

Ez Osakidetzaren zerbitzu espezializatueta, ez osasun ikuskaritzan ere ez zioten tratamendurik eskaintzen sare publikoan, kasua konponbiderik gabekotzat jotzen zelako. Familiak, ordea, normala den bezala, gazteari hobekuntzarik ekarriko zion edozein bide aurkitu nahian, sor zitezkeen aukeren bila jarraitu zuen. Horrela, jakin zen sare pribatuan bazegoela Valladolideko sendagile bat, era horretako kasuak nolabaiteko arrakastaz tratatzen ari zena. Familiak hain zuzen, sendagile horrek tratatutako gaiso batekin hitzegin zuen, zeinek egindako aurrerapenen berri eman zien.

Sendagileak gaztea aztertu zuen, eta makuluekin oinez ibiltzeko moduan jartzeko itxaropena azaldu zien. Horretarako, bi hilabeteko errehabilitazio tratamendu trinkoa proposatu zuen, eta lehen fase horren emaitzen arabera erabakiko zela tratamenduarekin jarraitu ala ez.

Gaztea eta bere familia tratamendua hasteko prest zeuden eta, Osakidetzari aukera hori azaldu ziotenean, erakunde horrek uko egin zion gastuak ordaintzeari, beste aukerarik eskaini gabe.

Gaisoak berriro Arartekora jo zuen eta Erakunde honek bere iritzia azaldu zuen, alegia, tratamendu horren arrakastaz aurrez ezer ezin esan bazen ere, familiarekin hitzegindako beste gaisoak errehabilitazioarekin lortu zuena ezin zela ahaztu.

Horregatik, Ararteko honek gaisoaren egoera fisikoa hobetu zezakeen edozein ahalegin egin behar zela esan zion Osakidetzari, eta sare pribatuak eskaintutako tratamendu-aukera kontuan izan zezala, hura zelako ordurarte tratamendurako proposamen positiboa egin zuen bakarra. Osakidetzak ez zituen arrazoi horiek onartu eta berriro ezezkoa eman zion gastuak ordaintzeko eskerari.

Arartekoak, gazte horren kasuaren berezitasuna kontuan izanik, Osakidetzari arazoa berriro azter zezala eskatu zion. Erakunde horri bidalitako idatzian esaten zen, osasun asistentzia erabateko eskubide bezala aitortzea galazten duten mugak onartzuz, Epaitegi Gorenak, epai askotan gehitu duela "osasun publikoari eska dakiokela gure mugen barruan, osasun sare pribatua barne dela, eskain daitezkeen zerbitzurik onena ematea" (90-11-22 -Ar. 8.598- eta 90-12-27 -Ar. 9.845-), beste askoren artean. Era berean adierazten zitzaion gaisoak Osakidetzari behin baino gehiagotan eskatu ziola sare publikoan tratamendua emateko, eta Osakidetzako zentru publikoetan, osasun ikuskaritza barne, ezetza eman eta beste batera bidali ez zutelako hartu zuela zentru pribatura joateko erabakia (EG 88-11-4 -Ar. 8.527-).

Osakidetzak berean jarraitu zuen eta horretarako eman zituen arrazoiak hauek izan ziren: ezin zituela aipatutako gastuak bere gain hartu, sare publikoan behar bezala tratatua izan ezinik, zentru pribatuak eskaintzen zituen garantiak egiazkoak zirela frogatzen ez bazen. Halaber, berriz ere zentru publikoetara jo zezala zioen.

Kasuaren aurrekariak ikusirik, Arartekoak erabaki horrekin konforme ez zegoela azaldu zuen. Baina bere jarduera aukerak agorturik, Legebiltzararentzako Txosten honetan kasua sartzea eta Erakunde hau sortu eta arautzen

duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 32. artikuluan xedatutakoaren bide-tik, kasua Legebiltzarrak aztertzeko uztea erabaki zuen.

*Zentru pribatu batean egindako ebakuntzaren gastuak Osakidetzak ordaindu nahi ez (469/90)*

Bizkaiko 12 urteko mutiko baten gurasoak etorri ziren Erakunde honetara; haurrak oin ekino-baro neurologikoak edukitzeagatik, oinez hasteko adinetik arazo larriak eduki zituen. Sare publikoan emaitza onik gabe urte luzez tratatua izan ondoren, zentru pribatu batean ebakuntza egin eta arazoa betiko konpondu zioten. Ebakuntzak sortutako gastuak ordaintzeko eskaria egin zioten Osakidetzari, eta horrek, Arartekoaren iritziaurrean, diru hori ez ordaintzea erabaki du azkenik. Gauzak horrela gertatu ziren:

Haurra oinez hasi zenean gurasoek ibiltzeko zailtasun handia zeukala ikusi zuten, eta horrela, hiru urte zituela osasun zentruko sendagile traumatologoak aztertu zuen. Hilabete batzuk geroago berriro jo zuten anbulatoriora, baina sendagileak haurrak ez zeukala inolako oker fisikorik esan zien.

Arazoak, ordea, bere hartan zirauen eta, osasun ikuskaritzaren gomendioari jarraituz, haurra Gorlizko ospitalera eraman zuten eta han hiru hilabete pasatu zituen. Bost urte zituela, beste hiru hilabetez egon zen zentru berean, eta orduan egin zioten lehen ebakuntza. Urte bete geroago arazoa berriz azaldu zen, eta era larriagoan gainera, baina sendagileak, mutikoak 16 urte izan arte, hots, hazkuntza prozesua ia amaitua egon arte itxarotea komeni zela esan zuen.

Kasua berriz osasun ikuskariarekin eztabaidatu ondoren, gaisoa Bilboko Basurtoko ospitalean aztertu zuen beste espezialista batek, eta horrek garrantiarik eskaintzen ez zuen ebakuntza egitea proposatu zien; gurasoek, lehen gertaturikoa ikusirik, ez zuten proposamena onartu.

Haurrak bederatzi urte bete baino lehentxeago, arazoa beste oinean ere sentitu zuen, oinez ibiltzeko zailtasunak gehituz. Horren aurrean, gurasoek soluzioa aurkitu nahirik, semea ospital pribatu bateko kontsultara eraman zuten eta han ebakuntza baten bidez arazoa konpontzeko garantiak eman zizkieten.

Gurasoek, proposamen horren berri eman zieten osasun ikuskariari eta Basurtoko ospitaleko sendagileari, eta azken honek haurra zentru pribatura eramatea proposatzen zuen txostena egin zuen, zentrua artean Osakidetzaren itunepeko zentrua zelarik. Aitak, txostenaren kopia eta Osakidetzaren kargura mutikoa zentru pribatu batean sartzeko baimen-eskaria aurkeztu zituen osasun ikuskaritzan. Osakidetzak sekula ez zion idatzi horri erantzun, baina ikuskariak hitzez baimena eman zuen, fakturak ordaindu eta gero, dirua mutikoaren aitari itzuliko zitzaioala adieraziz.

Horrela, haurrari -ordurako bederatzi urte zituen- ebakuntza egin zioten zentru pribatuan eta ondo jarri zen. Bi urte geroago, ezkerreko oineko ebakuntza egin zioten eta arazoa erabat betiko desagertu zitzaion.

Osasun ikuskariak agindutakoa beteaz, lehen ebakuntzaren ondoren, gastuak ordaintzeko eskatu zion Osakidetzari. Erakunde horrek ia hiru urte geroago ezetza eman zion. Era berean, aurkeztutako erreklamazioa ere ukatu egin zuen, administrazio bidea agortuz.

Erakunde honek arreta handiz aztertu zuen gaia eta baita aurkezturiko dokumentazioa ere, eta oharpen batzuk egin zizkion Osakidetzari, gastuak itzultzeko ezetza berriz azter zezan eskatzeko zituen arrazoiak azalduz. Osakidetzak ez zituen argudioak onartu eta ezezko erantzuna berretsi zuen. Geroztik, gai honi buruzko gutun ugari bidali dizkiote elkarri bi erakundeek eta hitzeko harremanak ere izan dituzte.

Arartekoak erreklamatzailaren aldeko jarrerari eutsi dio, arrazoi hauetan oinarrituz:

Haurra sare pribatura eramateko erabakia, sare publikoko sendagileen tratamenduak sei urtetan jarraitu ondoren hartu zen; urte haietan guztietan, haurraren hazkuntza prozesua ia amaitua egon arte hamar bat urte itxaron behar zela izan zen gurasoek jaso zuten proposamen bakarra, eta deformazioak aurrera egiten zuen, ordurako bi oinetara hedatua zelarik. Proposamen hau onartezina zen, are gehiago Estatuko mugen barruan arazo horrentzat berehalako eta garantia guztiak eskaintzen zituen soluzioa bazegoelako, gero frogatu zen bezala.

Osasun zentru pribatuan sartzeko erabakia ez zen izan, beraz, interesatuaren aukerakoa, baizik sare publikoan arazoa konpontzeko ahaleginak agortu eta gero, Osakidetzako sendagile espezialista batek gomendatu, osasun ikuskaritzan ezagutarazi eta hitzez onartu (erakunde horrek sekula ukatu ez duena) eta Osakidetzari idatziz jakinarazi ondoren hartua. Esan behar da gainera, gauza horiek guztiak gertatu zirenean, zentru pribatu horrek hitzarmena zeukala Osakidetzarekin, eta gaisoa bertan sartzeko aukerak neurri handi batean errazten zituela egoera horrek.

Horren ondorioz, Erakunde honek uste zuen arrazoirik gabe ukatzen zitzaiola laguntza, gastuak itzultzeko orduan, eta hori azaroaren 16ko 2.766/1976 Dekretuko 18. artikuluan, irailaren 14ko 2.575/1973 Dekretuak aldatutakoan jasota dago. Horrela, justizi epaitegien epai ugari bermatzen dituzte aurreko arrazoiak (EG, 88-11-4, Ar. 8.527 eta Ar. 9.845; LEZ, 85-2-28 eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusia, 90-6-3, besteren artean).

Osakidetzak bere aldetik esan du erakunde horrek ez zuela asistentziarik ukatu, sare publikoko sendagileek proposatutako tratamendua (kontserbadorrea, gaisoaren hazkuntza fasea amaitutakoan ebakuntza egitearen aldekoa) ez zela okerra izan. Haurra zentru pribatura eramateko erabakia borondatezkoa eta familiak berak bakarrik hartua izan zela ere adierazi du. Horrela, beste arrazoirik eman gabe, eta Arartekoak azaldutako epaien erreferentzia ugariak ahaztuz, erakunde horrek bere garaian emandako ezetzari eutsi zion.

Arartekoak, puntu horretara iritsita, Erakunde hau sortzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 32. artikuluan xedatua beteaz, gertatuaren berri Eusko Legebiltzarrari ematea erabaki zuen, erakunde horrek azter dezan.

*Antolakuntza arazoak hirugarren adinekoen zentru batean (571/91)*

Bizkaiko hirugarren adineko zentru bateko (erretiratuen etxea) bazkideen batzordeak Erakunde honetara jo zuen, antolaketa arazo ezberdinengatik bertan zeuden ezinegonak adieraziz. Bereziki, zuzendaritza lanak egiten zituen pertsonaren jarrera eta beste arazo batzuk -ordezkarien hautaketa eta horien bidez kotasuna- konpontzeko balioko zuten estatutu berriak edukitzeko premia aipatzen zuten. Zentrua INSERSOrena izandakoa zen eta gaur egun, trasferentzien ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailaren eskuetan dago.

Foru sail horrekin harremanetan jarri ondoren, hau esan zitzaigun: une horretan Sailaren eskuetan zeuden mota horretako zentru guztiak berriz definitzea planteatzen ari zirela, eta horren barruan estatutuak eta bazkideekin zerikusia zeukatena gaiak ere sartzen zirela. Horretarako maila ezberdinak aztertzen ari zirela zioten, besteak beste, zentruak zegozkien udalei transferitzea. Bigarren fasean, zentruko zuzendaritzarekin eta bazkideen ordezkariekin bilera bat iragartzen zen, arazoa konpontzeko akordioa lortzeko bidean.

Arartekoa, bere aldetik, egindako gestioen berri erreklamatzailaiei eman, eta berrantolaketa planaren garapenari buruzko argibide berrien zain geratu zen.

Prozesua atzeratzen ari zenez, eragindako sailarengana jo zuen berriro Erakundeak, eta bertan esan ziguten Administaritza ere alor hori berrantolatzeko premiaz oso ongi jabetzen zen arren, hirugarren adinekoentzat giza-zerbitzuen plana martxan jartzeko beste faktore batzuk ere kontuan izan behar zirela, eta egitasmo hori arau autonomikoarekin bat gauzatu ahal izatea oso konplexua zela. Jasotako txostenean esaten zen, bestalde, zentruaren egoera ezin zela bakarria balitz bezala tratatu, alderantziz, testuinguru zabalago batean hartu behar zela, non erretiratuaren etxe ez gain hirugarren adinekoentzat beste hainbat zentro ere sartu behar ziren, hala nola egunezko zentruak eta beste giza zerbitzu batzuk, bai udalerrian bai eskualdean zegoen sarea osatzen zutenak ere, eta guzti horrek berrantolaketa gero eta korapilatsuago bihurtzen zutela.

Erakunde honek txostena osatu eta kexadunei bidali zien, eta aldi berean, eragindako Administrazioari jakinarazi zion espedientearen behin-behineko ondorioak atera eta iragarritako berrantolaketa planaren jarraipena egingo zuela.

*Eskolaurreko ikastetxe bateko patioaren garbitasun egoera txarra (647/91)*

Bizkaiko eskolaurreko ikastetxe bateko zuzendariak, irakasleen klaustroaren izenean, ikasleek jolaserako erabiltzen zuten patioak zeuzkan garbitasun arazoak azaldu zizkion Arartekoari.

Ikastetxea aterpe batzuen gainean dago eta, bai ikasleek atsedean garaian, bai ikastetxeakoak ez diren beste ume eta gazte batzuek eskola orduetatik kanpo, erabiltzen dituzte aterpeak jolaserako. Erabilera horren ondorioz, zikin-keriak eta gernu usainak garbitasun arazo handia sortzen zuten, eta arazoa are larriagoa zen, han egunero jolas egiten zuten ikastetxeako haurrak 3, 4 eta 5 urtekoak zirelako.

Irakasleek behin eta berriz salatu zioten egoera hori eskola zaintzeaz arduratu behar zuen herriko Udalari, bai eta espazio hori maizago garbitzeko eta sarri desinfektatzeko eskatu ere.

Udaleko garbitasun zerbitzuak zona hori gehiagotan garbitzen hasi baziren ere, irakasleen ustez neurri hura ez zen nahikoa, eta ikasleak edozein arriskutatik libratzeko espazio hori sarri desinfekta zedin eskatu zuten.

Udalak, bere aldetik, Erakunde honi aditzera eman zionez, ez zuen egoki jotzen desinfektatzea, ekar zitzakeen arazoengatik, baina astean behin patioa urez garbitzeko konpromezua hartu zuen.

Ikastetxeako zuzendaritzak, ordea, denbora luzea igaro baino lehen, berriro jo zuen Erakunde honetara, patioa urez zirritzatzeko agindua ez zela betetzen esanaz; Udalak ukatu egin zuen salaketa hori.

Azkenik, garbiketaz arduratzen zen enpresaren bidez jakin zen ura patioaren bazter guztietan botatzeko arazoak egon zirela, baina horiek gainditu ondoren, enpresak Udalak hartutako konpromezua behar bezala beteaz ekin ziola patioa garbitzeari.

*Onuradunari ez dagokion lurralde batean kokaturiko lanbide ikastegi batean onartua izatea (757/91)*

Bizkaiko pertsona elbarri batek Laudioko (Araba) lanbide ikastegi batean sartzea eskatu zuen. Bere eskaria ez zuten onartu eta horregatik jo zuen Arartekoarengana.

Ez zen ikusi gai honetan ahaldua zen sailak, hots, Arabako Foru Aldundiak, eskaria ukatzean araugabeki jokatu zuenik, gai honetan bere betebeharrak bere lurraldeko historikoko biztanleei bakarrik baitagozkie.

Eragindako pertsona hori, sartzea eskatu zuen lanbide ikastegitik oso gertu dagoen herri batean bizi zen, eta hau beste lurralde batean bazegoen ere, zegokionera mugitzeko bide luzea egin behar zuen. Era berean, eskola-ikasketak egin zituen ikasketa berezietarako zentrua eta artean sarrera debekatu zion lanbide-ikastegia herri berean zeuden.

Aipatutako puntuak kontuan izanik, zentzuzkoa zirudien interesatuari Laudioko zentruan sartzeko aukera ematea, berak hala eskatu ere eskatu baitzuen.

Lanbide ikastegiak sortzeko moduak lurralde historiko bakoitzaren premiei erantzuten diela kontuan izanik, beste lurralde bateko pertsonak onartzeko aurrez jakin beharko litzateke lurralde ezberdin horretako zenbat pertsona egon litezkeen bere eraginpeko zonaren barruan ondoko urteetan. Puntu hau



aurrez azaldu beharra zegoen, lurralde bakoitzaren premien arabera egiten den programazioak, beste lurralde batzuetatik etor daitezkeen eskari guztiak sistematikoki onartzea galera izan da.

Gai honetan ardura daukaten pertsona ezberdinekin zenbait harreman izan ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaikoak izan arren Laudioko lanbide ikastegiaren eraginpean egon daitezkeen zonetarako iragarpenak bidali zituzten Arabako Foru Aldundiari.

Arabako Foru Aldundiak hasieran atzera botatuko eskaria aztertu zuen berriro, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako iragarpenen eta interesatuaren baldintzen arabera, eskaria onartzea erabaki zuen.

Planteatutako arazoa konpontzeko bi foru aldundiek egin zuten elkarlanaren fruitu gisa, antzeko egoeran aurkitzen ziren beste bi pertsona ere onartzea lortu zen.

### *Sendagile espezialista aukeratzeko eskubidea (207/92)*

Basauriko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegotik hiri horretako biztanle batek aurkeztutako erreklamazioa bidali zitzaion Arartekoari, zeinetan esaten baitzen sendagile espezialista aukeratzeko eskubidea ez zitzaizela errespetatu.

Interesatuak sendagile traumatologo batengana sarri joan beharra zeukan eta zerbitzu hori Basauriko osasun zentruko sendagile baten bidez eskaintzen zitzaion. Gaisoak, ordea, sendagile horrek ematen zion tratuarekin konforme ez zegoelako zentruko osasun ikuskaritzara jo zuen espezialista aldaketa eskatzera, osasun zentru berean zegoen beste osagile traumatologoarengana joan ahal izango zuela pentsatuz.

Osasun ikuskaritzan esan zioten ezin zela aldaketarik egin, beste sendagile horrek kupoa beteta zeukalako. Bestalde, zentrutik kanpoko Osakidetzako beste espezialistatik ere ez zitzaion izendatu eta, aldiz, sare pribatura joan zitekeela esan zioten.

Erakunde honen ustez, jokaera horrek ez zion bermatzen interesatuari sendagile espezialista aukeratzeko zeukan eskubidea, Osasun eta Kontsumo Sailaren 1990eko urtarrilaren 25eko Aginduan aitortuta dagoena. Ondorioz, Osakidetzako zuzendaritzarekin gestioak hasi ziren eta, erreklamatzailaren eskubidea aitortu ondoren, Basauritik gertu dagoen Galdakaoko ospitaleko Kanpo Kontsulten Zerbitzura joateko aukera eman zitzaion, bertako sendagile traumatologo batek trata zezan.

Erreklamatzailari eman behar zituen pausuak jakinarazi ostean, espedientea itxi egin zen.

*Bi aldiz ebakuntza aurreko probak egin arren, ebakuntza egiteko itxaroldi luzea (314/92)*

Pertsona bati ebakuntza zaila egin zioten Osakidetzaren zentru batean; belarrian zeukan tumorera kendu zioten, eta horretarako kraneotomia egin edo buruhezurra zulatu behar izan zioten. Horren ondorioz, gaisoari aurpegiaren alde batean paralisia geratu zitzaion.

Ondorengo tratamenduan, begia harrapatzen hasi zitzaion paralisi hori zuzentzeko, beste ebakuntza bat egitea proposatu zioten. Hortaz, ebakuntza aurreko probak egin zizkieten, baina ezarritako epean ez zioten ebakuntzarik egin. Horregatik, berriro probak egin behar izan zizkieten, baina gomendio hura egin ziotenetik hiru hilabete pasatu ziren arren, oraingoan ere ez zioten ebakuntza egin ez eta ebakuntzarako egunik jarri ere, eta, beraz, probek berriro balioa galdu zuten.

Ebakuntza egiteko premia eta egin behar zituen proben berri eman ziotenetik hamaika hilabete igaro arren, gaisoak ez zekien noiz operatuko zuten. Atzerapenaren arrazoi gisa, Zirujia Plastiko Saileko kirolfanoak okupatzeko zegoen itxarote zerranda luzea ematen zioten. Egoera horren aurrean, Arartekoarengana jo zuten.

Osakidetzarekin harremanetan jarri ondoren, ospitalak erantzun zigun zerbitzu horretan onkologiako zirujia egiteko jende asko zegoela zain, eta zirujia mota horri ematen zitzaiola lehentasuna beste zirujia zuzentzaile edo konpontzaile batzuen aurretik, gaiso onkologikoen egoera larriagoa zelako.

Halere, kexaduna berehala zitzatu zuten egiteko zegoen ebakuntza programatzeko. Kontsulta horren ondoren, epe jakin batean ebakuntza egiteko aurre probak egingo zizkietela erabaki zen. Era berean, gaisoari jarri behar zitzaion protesi berezia eskatu zen eta aipatu zentruko ebakuntza programazioan sartuta geratu zen kexaduna.

*Osasun sare pribatuan laguntza jasotzeagatik egindako gastuak kobratzeko atzerapena (360/92, 579/92)*

Sare pribatuan osasun laguntza jaso ondoren Osakidetzak gastuak itzultzeko izan duen atzerapenari buruzko hainbat espediente bideratu dira Erakunde honetan. Oraingoan bi kasu azpimarratu nahi ditugu, antzekoak baitira; Osakidetzaren baimenaz zentru pribatu batean osasun laguntza jaso ondoren, gastuak Osakidetzaren kontu izango zirela aurrez onartu zelarik, honek ez zizkien itzultzen zor zizkien diru-kopuruak.

Lehen kasuari dagokionez, Osakidetzako sendagileek oftalmologiako ebakuntza berezi bat egin behar ziotela esan zioten gaisoari eta, horren ezaugarriak zirela eta, Kataluniako zentru pribatu batera bidali zuten. Horretarako, sendagileen txostenarekin batera, beharrezko baimena eman zioten; baimen horrek berekin zekarren Osakidetzak ebakuntza-gastuak itzultzea, gaisoak ordaindutako fakturak aurkeztu ondoren.

Gastuak 500.000 pezetatik gorakoak izan ziren, eta interesatuak horri aurre egiteko mailegua eskatu behar izan zuen; kopurua ordaindu ondoren, dirua itzultzeko eskaria egin zion Osakidetzari.

Itxuraz administrazio tramite hutsa zen arren, eskaria egin zuenetik hainbat hilabete igaro eta dirua jaso gabe jarraitzen zuenez gero, Erakunde honetara jo zuen.

Arartekoak, gestio batzuen ondoren, antza erretenituta zegoen espediente mugitzea eta prozesuak bere bideari jarraitzea lortu zuen. Azkenik, interesatuak jaso zuen zor zitzaion dirua.

Bigarren espediente itxarote zerrenda luze batean zegoen gaiso baten eskariz ireki zen. Antza, ezin zuten arrazoizko epean atenditu, eta bere egoeran ezin zuen luzarago itxaron. Arrazoi horregatik, beren zentruetan edo itunepekoetan tratamendua ezartzeko arazoaren aurrean, Osakidetzak sare pribatura jotzeko baimena eman zion.

Gastuak ordaindu (154.000 pta.) eta Osakidetzari dirua itzultzeko eskaria egin ondoren ez ziotela ordaintzen ikusirik, Arartekoaren bitartekaritza eskatu zuen, eta antolak egin ostean, eskatutako kopurua itzuli zioten.

Bigarren kasu horren aurrean, Arartekoak gomendatu zion Osakidetzari, sare pribatura joateko baimena ematen dien gaisoei itzuli beharreko diru tramiteak ahalik eta eperik laburrenean ebatzi ditzala.

### 3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

#### A) Sarrera

Lana eta Gizarte Segurantzza sailari buruzko kexak, autoenplegua, kontratazioa eta heziketa sustatzeko Administrazioak izandako jarreraren kontrakoak izan dira funtsean. Laguntzak jasotzeko deialdietan eskatzaileek beharrezko prozedura baldintza batzuk ez betetzeari buruzkoak azpimarratu behar dira.

Gizarte Segurantzari dagokionez, egunero kontsulta ugari egin dizkigute pentsioak kobratzeaz, afiliazioaz, alta eta bajei buruz, e.a., nahiz eta, jakina denez, Arartekoak ez daukan ahalmenik alor horretan.

Eragindako administrazioen arabera, honela banatzen dira jasotako kexak:

- Eusko Jaurlaritza ..... 7

## B) **Kexen aukeraketa**

*Ertzain baten gorputz-ahalmenaren gutxitzea eta bigarren jarduera (528/91)*

Lan istripu baten ondorioz, ertzain baten gorputz-ahalmena gutxitu egin zen eta ohizko lanak egin ezinik geratu zen. Bajan egon ondoren, lanera itzuli eta Erakundeen Unitatera bidali zuten behin-behingo.

Interesatuak kexa aurkeztu zion Arartekoari, bere jardun berrian aritu beharrak zekazkion baldintzekin ados ez zegoela adieraziz.

Kexadunak jardun berrian bete behar zuen ordutegia, lan baldintzen akordioan oinarritzko izaerarekin finkatua zeukana ez bezalakoa zen. Alabaina, Herrizaingo Sailaren iritziz, ordutegi ezberdin hori ez zen akordio erregulatzaileraren aurkakoa, bertan jasotzen delako orokorrak ez diren lan egutegiaren aukera. Era berean esaten zen, ordutegi horrekin bete beharreko zerbitzuko ordutegiei eta kaltetutakoaren egoera fisikoari erantzuten zitzaie.

Kasu hau eta antzeko beste zenbait erabat konpontzeko, "bigaren jarduera" araupetu egin behar zen, jarduera hori baita, beste langile batzuentzat ez ezik, lanean ari direla gorputz-ahalmenaren gutxitzea izan dezaketen ertzaintentzat ere aurrikusitakoa. Egoera hau arautu gabe dagoenez gero, behin-behineko soluzioak ezarri behar izaten dira, eta horiek ezartzean noizpehinka arazoak sortzen dira.

Horrela, Arartekoak eta eragindako alderdiek elkar hartuz denen gogoko irtenbidea bilatzeari ekin zioten, interesatuaren egoerari juxtuen egokituko litzaiokeena, nahiz eta irtenbide hori beti bat ez etorri bigarren jarduerarekin, berau arautu gabe dagoelako; horren ondoren, interesatua ordurarte betetzen ari zen egutegiaren aldaketa planteatu zuen Herrizaingo Sailak.

Interesatua konforme azaldu zen egindako proposamenarekin eta Erakunde honek Herrizaingo Sailari adostasunaren berri eman zion, bai eta adierazi ere behin-behineko konponbide bezala hartu behar zela, bigarren jarduera arautzearen ondorioz egin zitekeen egokitapena galerazi gabe.

*Herri funtzionari bati lanpostua aldatzea (36/92)*

Gaisotasunagatik bajan denbora luzea pasatu ondoren lanera itzuli zenean, berea ez zen zerbitzu batean kategoria txikiagoko lanpostua eman ziotelako, eta horrek soldatan zuen eraginagatik kexatu egin zen herri funtzionari bat.

Interesatuak, suhiltzaileen alorrean bere jabetzako lanpostua zeukanak, moto istripua izan zuen egun batean, kaskorik gabe eta lan orduetatik kanpo zihoala, eta ondorioz hemeretzi hilabete eman zituen bajan.

Alta lortu zuenean, sendagileen txostenek zioten arrasto fisiko eta psikirokoak geratu zitzaizkiola, eta horregatik, Udalaren sendagile zerbitzuak jakina-

razi zuen, interesatua, berak hala nahi bazuen ere, berriz Suhiltzaileen Zerbitzura itzultzea ez zela komenigarria, suhiltzaile lanak baldintza bereziak eskatzen dituelako. Horrek, elbarritasun iraunkor ez-osoan esan nahi zuen, eta interesatuak, horregatik, Udalak istripuetarako kontratatuta zeukan polizaren bidez guru etxe batetik kalteordaina kobratuta zeukan.

Gauzak horrela, etxezain postu batean jarri zuten, eta hor egokitze arazoak zeuzkan. Plus fijoarekin jarraitzen zuen, baina arriskugarritasun-nekegarritasun-toxizitate plusa ez zitzaion ordaintzen, eta ezta ere istripua baino lehen jasotzen zuen igandeetan lana egiteagatik plusa, postu berrian ez zegokiolarako. Horregatik, erreklamazioa egin zuen, eta Funtzio Publikoaren Argibide Batzordeak ikusi ondoren, bilera horretan Langileen Komitea interesatuak lehenago zeukan suhiltzaile lanera itzultzeko zeukan nahiaren alde azaldu zen.

Enpresako Sendagile Zerbitzuaren txostena aurkakoa zenez, beste sendagile batzuen iritzia jasotzea erabaki zen, eta zehazki, interesatuari Osakidetza-  
ren ospital batean proba berriak egin zitzala proposatzea. Hori guztia egin ondoren, txostenak zioen interesatua ezin zela jarri arrisku egoeretan, hala nola goiera handietan, eta abarretan.

Udalak, suhiltzaileek egoera horietan askotan lana egin behar dutela kontuan izanik, Suhiltzaileen Zerbitzuan bai sartu zuen, baina laguntza zereginak burutzeko.

Berriro, lanera egokitzeko arazoak azaldu ziren, eta beraz, kategoriaz erabat aldatzea proposatu zitzaion, etxezain postura itzul zedila ondorio guztiekin, eta Suhiltzaileen Zerbitzuan borondatezko ezedentzia eska zezala. Aldaketarekin, Mupal eta Elkarkidetzari ordaintzen zitzaionaren oinarria ez zen aldatzen. Proposamena aztertu ondoren, interesatuak aldaketa eskaria sinatu zuen, eta gaur egun Udaletxeko kontserje postuan dago.

Kasu honetan gertatu den bezala, postuari dagozkion lanak behar bezala egiteko gaitasun fisikoen murrizketagatik lanpostuz aldatu beharra, Udaletxe horretako langileen lan baldintzak arautzen dituen eta indarrean dagoen konbenio erregulatuarekin jasota dago. Baina konbenio horren arabera, bigarren lanak ez dauka lehenengoaren ordainketa maila errespetatu beharrik, eta beraz, erreklamatuak zentzu honetan egindako eskaria ezin zen defenditu.

Aurreko puntuak aintzat harturik, Arartekoaren iritzia hau izan zen: suhiltzaile lanak burutzeko interesatuak zeuzkan arazoei buruz sendagileen txostenek ziotena ikusirik, Udalak hartutako erabakia ezin zela kaltetutakoaren nahiaren pean geratu, eta lanpostua aldatzeko borondatea ezin zela funtsezko bezala hartu Administrazioaren jokaera finkatzeko orduan.

Horregatik guztiagatik, Udalaren jokaeran alderdikierarik ez zela izan iritzion Arartekoak, eta aurreko guztia erreklamatuak jakinarazi ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

*Lana eta ikasketak tartekatzen dituzten Heziketa Programetan parte hartzeko dirulaguntzak (174/92)*

Kaltetuek, Santurtziko Lanbide Eskolako ikasleek, lana eta ikasketak tartekatzen dituen heziketa programan parte hartu zuten. Programa horretarako deia Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak egiten du urte urte, lanbide heziketako eta unibertsitate zentruetako ikasleei lana ikasketekin tartekatuz lan munduan esperientzia praktikoa eskaintzeko helburuz.

Ikasleek horretarako 792 praktika ordu sartu zituzten, eta beste 416 ordu programa sozio-laboralari zegozkienak; orobat, laguntzak jasotzeko beste baldintzak ere bete zituzten.

Ikastetxe horretako zuzendariak laguntza jasotzeko eskaria aurkeztu zutenean, ordea, Sailak erantzun zion ezin ziotela ordaindu aurrekontua erabat agortuta zegoelako, Heziketarako Zuzendaritzak Arartekoari baieztatu zion bezala.

Ilido horretatik, eta deialdian xedatutakoarekin adostasunean, laguntzek muga bat daukatela esan behar da, eta muga hori aurrekontuena bera da; era berean azpimarratu behar da ez dela dirurik ordaintzen praktika horiek egiteagatik eta praktikak egiteko enpresek nahiz ikasleek egin behar dituzten gastuak baizik ez direla ordaintzen.

Beraz, Erakunde honek bere iritziz legea ez zela hautsi jakinarazi zuen eta, bestalde, bere nahigabea azaldu zuen ikasleei gero bete ezin ziren ilusioak piztu zizkietelako.

### 3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

#### A) Sarrera

Alor honetan 82 kexa jaso dira, alegia, Erakunde honetan aurkeztutako guztien %15,5.

Eragindako administrazioen arabera sailkatuz, hona hemen banaketa:

- Eusko Jaurlaritza .....	21
- Foru Adundiak.....	3
- Udalak.....	51

Aurreko urteekin konparatuz, alor honetan kexak gutxitu egin dira, bai guztizko kopuruari, bai portzentaiei begira. Alabaina, murrizketa hori Hirigintzan gertatu da, ez Etxebizitzan, azken honek gora egin baitu 1991ko datuekin alderatuz.

Kexen edukari dagokionez, azpisailen arabera honela banatzen dira:

- Hirigintza.....	38
- Etxebizitza .....	44

Hirigintzan, kexa gehienetan hirigintza diziplinaren inguruko arazoak aipatu dira salaketetan, nagusiki udal baimenik gabe obrak egitea eta baldintza horiek ez betetzea salatzen dutenak; etxebizitzak hondamendizat jo ondoren, beren etxe bakarra galtzen duten familien egoerak eragindako kexak ere ugarriak izan dira.

Sarritan, taldeek edo auzo elkarteek jotzen dute Arartekoarengana hirigintza antolaketari, ejekuzio unitate edo zatizko egitamuen diseinuari, edo zona zehatz batean baimendutako edo onartutako erabilerei buruzko gaietan udalarekin ados ez daudela azaltzeko. Kexa horiek zerikusi handiagoa eduki ohi dute egokitasunarekin lege izaerarekin baino, eta Arartekoak halakoetan dagokion Toki administrazioarekin hitzegiteko bere bitartekaritza eskaintzen du, eta onartzen bazaio, normalean ados ez dauden bi alderdiak elkarri hurbiltzeko puntuak bilatzen saiatzen da, beti errespetuz eta herritar multzoaren interes orokorren ikuspegia zainduz.

Etxebizitzaren azpisailean, biztanleek etxebizitza soziala lortzeko egiten duten eskari zabala eta daukaten kezka bizia isladatu da kexetan. Sarritan, babes ofizialeko etxebizitzaren kalitatea zalantzan jartzen da edo eraikuntza akatsak salatzen dira; Administrazioak kreditu erakundeekin egindako hitzarmenen bidez etxebizitza erosteko ematen diren laguntzak lortzeko, biztanleek dituzten eskubideei buruzko kasuak ere bideratu dira.

## B) Kexen aukeraketa

*Administrazioak sustatutako etxebizitzaren izendapen prozesuan kontrol handiagoaren premia (506/90)*

Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak sinatutako hitzarmen baten bidez eraiki zen bi etxe blokez osatutako sail batean, babes ofizialeko etxebizitza eskatu zuen pertsona batek, eta etxebizitza horiek banatzean jarraitutako prozesuarekin konforme ez zegoenez, kexa aurkeztu zuen Erakunde honetan.

Etxe horiek eraikitzea eta sustatzea enpresa pribatu baten esku utzi zen eta, hitzarmenean finkatutako baldintzek ziotenez, enpresa horrek jasoko zituen eskariak eta agiriak eta berak osatuko zuen onartutako behin-behineko zerrenda, deialdiaren baldintzetan finkatutako baremoaren arabera lortutako puntuetan oinarrituz. Etxebizitzaren banaketari zegokionez, banaketa aipatu sailaren lurralde ordezkartzan egindako zozketaren bidez egingo zela adierazten zen hitzarmenean, kontutan hartuko zelarik familiakideen kopurua etxebizitzaren azalerari egokitzea.

Erreklamatazaileak zioen, eskaria egiteko orduan etxebizitza horiek lortzeko eskatzen ziren baldintzak ez zitzaizkiola behar bezala azaldu, eta beharrezko agiri guztiak ez zizkiotela eskatu. Horren ondorioz, onartutakoen behin-behinekoko zerrendan sartu zuten eta puntuaketa onarekin gainera, okerra zen arren, zegokiona baina handiagoa zelako.

Era berean, enpresa sustatzaileak etxebizitza lortzeko itxaropen handiak piztu zizkion, are gehiago, etxebizitzetako bat une hartan bertan aukeratzea eskaini zion, baldintzetan finkatutako familiako kideen eta azaleraren arteko erlazioa ahaztuaz. Horrela, erreklamatazaileak pentsatu zuen eraikitzen ari ziren etxe blokeetako batean aukeratu zuen etxebizitza eman ziotela.

Prozedurak zegokion sailean aurrera jarraitzen zuen, eta aurreko zerrendan izendatutako puntuazioak errebisatu eta aurkezturiko erreklamazioak ebatzi ondoren, banaketan etxebizitza jasotakoen behin-betiko zerrenda osatu zuen, oraingoan ere puntuaketen arabera.

Une hartan eskari batzuetan, horien artean kexadunarenean, puntuazio okerrak zeudela konturatu zen Saila eta zuzendu egin zituen, beste puntuazio bat emanaz, oraingoan zuzena, eta horrek zerrendan hurrenkera aldatzea zekarren. Erreklamatazaileak errekurtsioa aurkeztu zuen, baina ez zioten onartu.

Kexaduna zerrendan zeukan postuagatik etxebizitzarik gabe geratu zen eta horrek kalte morala ekarri zion. Erakunde honek frogatu zuen egindako puntuazio berria zuzena zela, oinarrietako baldintzekin bat zetorrelako, eta bestalde, prozeduran erreklamatazaileak salatutako hutsegiteak egin zirela; baina hutsegite horien erruduna enpresa sustatzailea zen eta ez Saila, horrek aurkitutako okerrak zuzendu eta hitzarmen-oinarrietan xedatutakoa bete baitzuen. Orobat, enpresa sustatzaileak eskaria egiten zutenei aurrez eskatu zien 9.500 pezetako kopurua itzul ziezaien antolak egin zituen, horretarako, parte hartzen zuten administrazioen eskariz, estatutuak aldatu behar izan zituelarik.

Kasua aztertu ondoren ikusi zen oker horiek ez zutela aldatzen etxebizitzak izendatzeko behin-betiko zerrenda, eta erreklamatazailea kanpoan geratu zen. Erakunde honek, ordea, bidezko jo zuen aipatu sailari gomendioa bidaltzea, hauxe esanez: aurrerantzean etxebizitzak sustatzeko programetan baremazioa egiteko modua enpresei zehazteko eta horien betekizuna ikuskatzeko ahaleginak egin zitzala, baldintza orrietan esaten zena osorik bete zedin eta horrela kexa honen antzekoei aurre egiteko.

#### *Ustez hondamenditzat jo zuten etxe baten jabego-kentzea (596/90)*

Herritar bat kexu agertu zen Arartekoan, bere etxebizitzaren erdi zatiezi-na desjabetzeko Bilboko Udalak zerabilen prozedura arauz kanpokoa izan zitekeelako. Jabego-kentzearen onura, zona haren hirigintzagarapenerako sortu zen jarduera unitatearen Ordezkateta Batzordeak izango zuen.

Arartekoak informazioa eskatu zion Bilboko Udalari, eta hark emandako erantzunean Udalak balioztapen espedientean etxea hondamenditzat joa zeu-



kala ikusi zen; hortaz, jurisprudenziaren arabera, hondamen egoeran daudela iritzitako eraikinek ez daukate baliorik jabego-kentzeak burutzerakoan.

Ikerketak egitean, ordea, hondamen-egoeraren adierazpenik ez zegoela ohartu ginen eta, beraz, bidezko balioa finkatzerakoan, desjabetzeko ondasun gisa, lurraz gainera eraikina ere kontuan hartu beharra zegoela bere antzinatasuna eta kontserbazio egoera ahaztu gabe.

Arartekoak horrela azaldu zion Udalari, bai eta interesatuari ere, bere defentsa ahalik eta ongien presta zezan, bidezko balioari buruz Nahitaezko Jabego-kentzeko Lurralde Auzitegiak emango zuen epaiaren aurrean; era berean, gai horietan aditua den norbaiten aholkularitza, batipat arkitekto bate-na, hartzea komeni zitzaiola esan zion.

### *Nekazariei auzolurrak banatu ondoren herrikoen artean sortutako istiluak (154/91)*

Arkaiako Administrazio Batzarreko biztanle batek Erakunde honetara jo zuen, herriko biztanleen artean auzo-ondasunak banatzean, berak ere baldintza guztiak betetzen zituen arren, kanpoan utzi zutela azalduz.

Administrazio Batzarrak Arartekoaren informazio eskariari erantzun zionaren arabera, aipatutako biztanleari bi baldintza jarri zitzaizkion: bide publikoan zeukan egur pila bat kentzeko eta zaborrak hirigunetik gutxienez 200 metrora botatzeko; baina ez zituen bete.

Arartekoak gomendatu zion Administrazio Batzarrari erreklamazioa egiten zuen biztanleari auzo-ondasunak ustiatzeko baimena eman ziezaiola, bere aitaren etxeari eta ez bereari zegozkion baldintzak ezarri gabe. Administrazio Batzarraren erantzuna izan zen, San Migel eta Kanposantua deituriko auzolurrak ustiatzeko baimena ematen ziotela, zerga ordaindu eta egurra erretiratzeko baldintzarekin.

Arazoa ez zen berehalakoan amaitu, biztanle horrek bigarren aldiz jo baitzuen Erakundera, ondorengoa azalduz: beste biztanle batek, jubilatutako zelako, esleitutako lurra ustiatzeari utzi zion; jubilatutako hori Arkaiako beste biztanleekin batera baltsan lur haien jabe zen, lur, mendi eta larre horien erregimen propioaren arabera. Orduan, berak lur horietaz baliatzea eskatu zuen arren, gainontzeko biztanleen artean banatu zituzten, Kontzejuko gehiengoaren botuen bidez bera kanpoan utzi zutelarik.

Arartekoak gomendioa egin zion Arkaiako biztanleen Kontzeju Irekiari, berriro bildu zedin eta berdintasunaren printzipioa errespetatuz eta biztanle nekazarien artean desberdintasunak sortu gabe, berriro lurren banaketa egin zezala eskatuz; izan ere, 1927ko lur horien zuzeneko jabegoaren salerosketa eskrituretatik berdintasun-irizpide hori ondorioztatzen zen eta, beraz, nahitaezkoa zen baldintza hori betetzea eta Kontzeju Irekiak ezin zuen ezer erabaki bozketa bidez.

Arkaiako Kontzeju Irekiak, ordea, Arartekoaren gomendioa aztertzeko egindako bileran, ez zuen gomendioa onartu, aditzera emanez, gehiengoaren

erabakiz ez bazen, ez zeukatela beste biztanle bat onartu beharrik eta momentuz ez zutela onartuko, baina bai oraingo banaketa epea amaitzean.

Arartekoak horrela jakinarazi zion kexa-aurkezleari, bai eta adierazi ere ezin zuela beste ezer egin Arkaiako Kontzeju Irekiari egindako gomendioa, agindua ez izanda, ez bazuten betetzen.

*Lur sailen kontzentrazioarako espedientean esleitutako orubeen neurketarekin desadostasuna (549/91)*

Arabako Foru Aldundiak Zuiako Markinan egindako nekazal orubeetako lur sailen kontzentrazioaren emaitzak zalantzan jartzen zituzten bi herritarrek. Bestalde, bakoitzari egokitu zitzaion lur azalera zela eta, hiritarrek beraiek neurtu ondoren, ohartu ziren Administaritzak aurrez esleipen-orriaren bidez jakinarazitako azalera baino 167 m<sup>2</sup> gutxiago zituztela beraiei banatutako bi orubeek.

Arartekoak, Nekazaritzako Diputatuarengana jo zuen arazoa azaltzeko eta, horrek, hutsegite bat egon zela eta birplanteaketa bat egin behar zela aitortu zuen, izendapen orrietan azaltzen zenari zegokion egiazko azalera eduki zezaten.

Bi herritarrek berriro Arartekoarengana jo zuten, zuzenketaren ondoren ostera lurak oker banatu zirela adierazteko. Orubeak berriz neurtu zituzten eta ikusi, batek 288 m<sup>2</sup> gutxiago zeuzkala eta besteak 171 m<sup>2</sup> gutxiago, eta eskatu zuten bi orubeak banatzen zituen mugarria behar bezala kokatu arte mugi zezatela eta esleipen-orrietan agertzen zen azalerarekiko 116 m<sup>2</sup>-ko galera aitortu zedila.

Kexa hori Nekazaritzarako Foru Sailari igorri genion eta hark hauxe erantzun zigun: herritar horiek plano egiterakoan ez zituzten orubeen mugak behar bezala hartu, erreferentzia bezala orubeetako mugarriak hartu zituztelako, eta horiek, iristeko moduko zonetako leku berezietan bakarrik kokatuta zeuden. Alabaina, egiazko mugak jarraituz, Aldundiak ikusi zuen osatutako orube berriek %2ko hutsegitea baino handiagoa ez zeukatela, eta hori 1973ko Nekazal Erreforma eta Garapenerako Legeko 221. artikulua onartzen du; hutsegitea handiagoa bada, interesatuek erreklamazioak egin ditzakete perituen ebazpenarekin batera. Erakunde honek interesatuei puntu honen berri eman ostean, espedientea amaitutzat jo zuen.

*Obrak egiteko baimena legez kanpo ematea (576/91)*

Erakunde honetan Zarauzko biztanle baten kexa idatzia jaso genuen, non salatzen baitzuen herri horretako Udalak arraindegia jartzeko lanak egiteko baimena eman zuela, nahiz eta lokalak beharrezko ziren azalera-baldintzak ez bete. Zarauzko Planeamendurako Arau Subsidiarioen Hirigintza Ordenantza-

ren 60.2. artikuluan gutxienez 25 m<sup>2</sup> behar direla esaten den bitartean, aipatutako lokalak 23 m<sup>2</sup> besterik ez zeuzkan.

Zarauzko Udalarekin harremanetan jarri ondoren, honek esan zigun egia zela lokalak ez zuela betetzen azalerari buruzko gutxienezko baldintza, baina Udalaren Zerbitzu Teknikoek egin zuten aldeko txostenean oinarrituta eman zutela lanak egiteko baimena. Zerbitzu teknikoek txostenean esaten zen gutxienezko azalerari buruz Planeamendurako Arau Subsidiarioetan ezarritako portzentaian aldea %8 zen kasuan, eta horixe zen gutxienezko 25 metro karratu horietarako falta zen portzentaia, ez zela hausten herritarren interes orokorrekiko errespetua, hori izanik beti ere interes partikularren gainetik gailendu behar zena. Era berean, Udalaren esanetan, baimena ez emateak partikular baten interesei kalte egingo lieke, orduan lokalak ez zuelako inolako baliorik izango eta bertan ezin eratuko zelako beste inolako jarduerarik. Azkenik, aipatu txostenak zioen beste zenbaitetan ere, arazo fisiko edo egiturazkoak gorabehera, lokalak irekitzeko obrak egiteko baimena eman izan dela, eta lokal horiek orain auzitan zegoenaren antzeko egoeran zeudela.

Arartekoak, bere aldetik, oharpen batzuk egin zizkion aipatutako udalari, adieraziz Lurraren Legean xedatutakoaren ildotik, norbanakoak nahiz Administrazioa lege horretan eta bere arabera onartutako plan, hirigintza jarduerarako programa, xehetasun estudio, proiektu, arau eta ordenantzetan xedatzen zena betetzera beharturik zeudela. Hau da, arau horiek ez dituzte partikularrek bakarrik bete behar, baita Administrazioak ere, eta kasu honetan Zarauzko Udalak, berak osatu, idatzi eta bideratu baitzuen arau subsidiarioen aipatutako hirigintza ordenantza, 60. artikulua barne.

Horregatik, hirigintza araudiaren 60.2. artikulua betetzen ez zenez, kontrako txosten teknikoa osatu behar zen eta, ondorioz, Alkatezak jarduera eta lanetarako baimena ukatu egin behar zuen.

Bestalde, Ararteko honek ez zuen ulertzen udal teknikarien txostenean zergatik jotzen ziren parekotzat 23 m<sup>2</sup>-ko lonja partikular batean arraindegia irekitzea eta herritarren interes orokorrak. Zarauzko Udalak arau subsidiarioak egiterakoan zehaztu zituen interes horiek, bizitzeko ez ziren lokalen azalera erabilgarriak gutxienez 25 m<sup>2</sup>-koa izan behar zuela esanez. Beraz, hortik aurrera lonjen gutxienezko azalerari buruz herritarrek zer interes zuten berrinterpretatzea bigarren mailako gaia litzateke, eta horretarako Zarauzko Udalbatzarrak indarrean zegoen araudia aldatzeko akordio berri bat hartu beharko luke eta udal-teknikariak arauetatik haruntzago dauden interpretazioak egiteko ahalmenik ez luteke sekula eduki beharko.

Azkenik, Zarauzko Udalari administrazio eskubidearen printzipio bat gogorarazi genion, alegia, legezkontrako aurrekariak ez dutela behartze-indarrik, eta beraz, udal teknikariaren txostenean ez zegoela horiek aipatu beharrik.

Horregatik guztiagatik, Ararteko honek gomendatu zion Udalari azalera erabilgarria 25 m<sup>2</sup> azpitik zeukaten lokaletan jarduteko baimen-eskariei ezetza eman ziezaiela Arau Subsidiarioak aldatzen ez zituzten bitartean eta, beraz, arraindegi hori ezartzeko baimena ere uka zezala.

Zarauzko Udalak bidali zigun idatzizko erantzunean esaten zuen arau subsidiarioak aldatuko zituela, baina arraindegia jartzeko baimena ukatzeari zegokionez, horretarako Udalaren akordioa berritu behar zela eta tramite hori arau subsidiarioak aldatzeko tramite-epaia baino luzeagoa izango zela; halaber, esaten zuen errekurtsio bidean baieztatutako udal-baimena zeukanari eta bertan ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ari zenari, aurrez espedientea ireki gabe, arraindegi jardueraren garapena debekatzea, ustez egindako hutsegitea baino legez kontrako ekintza larriagoa izango litzatekeela.

Ararteko honek, hori guztia jakinik, ebazpen hau egin eta aditzera eman zion Zarauzko Udalari: baimenaren ofiziosko berrazterketa espedientea arau subsidiarioak aldatzeko espedientea baino luzeagoa izango bazen ere, egia zela, orobat, Udal horrek, Administrazioarekiko Auzi-Jurisdizioa arautzen duen Legearen 122. artikuluan xedatzen denean babesturik, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiari jarduerarako baimena bertan behera uztea eska ziezaiokeela, edo lokalean obrak amaitu ez ziren kasuan, udalak obrak bertan behera uzteko agindua eman zezakeela 1976ko Lurraren legeko 186. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

*Hirilurren mugaketan administrazioak duen diskrezionalitateaz (748/91)*

Gaunako biztanle batek Erakunde honetara jo eta aditzera eman zuen 3.000 m<sup>2</sup> inguruko bere lur-zati bat Gaunako hiriguneko hirilur mugaketatik kanpo geratu zela, nahiz eta Arau Subsidiarioen erredakzio taldearen eta lurraren mugaketa egin zuenaren ustez, Lurraren Legeko 78. artikuluan xedatutakoaren ildotik, lur-zatiak hirigunean sartzeko baldintzak bete.

Arartekoak, Iruraitz-Gaunako Udalari eta Arabako Foru Aldundiaren Toki Erakunde eta Hirigintza Harremanetarako Sailari informazioa eskatu zion, bai eta aditzera eman ere, jurisprudentziak behin eta berriz adierazten duen eran, Lurraren Legeko 78. artikulua, hirilurrak bete behar dituen baldintzak finkatzeak nahitanahiezko eskubide araua esan nahi duela, eta beraz Gaunako lurzati hori Iruraitz-Gaunako arau subsidiarioetan hirilurren artean sailkatu behar ko litzatekeela.

Interesatuak, Erakundeko aholkularien gomendioak jarraituz, Foru Aldundiaren Toki Erakunde eta Hirigintza Harremanetarako Foru Diputatuak, Arau Subsidiarioak behin-betiko onartzeko hartutako ebazpenaren kontra gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen. Azkenik, Arabako Foru Aldundiak, Erakunde honek adierazitakoarekin bat etorritik, gora jotzeko errekurtsioa ontzat eman eta arau subsidiarioak aldatzea erabaki zuen, Gaunako lur-zati eztabaidatua hirilurren artean sailkatuz.

*Udal zerbitzuek etxebizitzak edateko uraz hornitu beharra (768/91)*

Bermeoko biztanle batek Arartekoarengana jo zuen, hango Udalak, etxebizitzak edateko uraz hornitzen dituen hodian hartunea egitea debekatu ziola eta, ondorioz, etxean urik ez zeukalako. Itxuraz, indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioetan bere etxebizitza antolamendutik kanpo utzita zegoelako ematen zion ezezkoa Bermeoko Udalak.

Arartekoa Udal horrekin harremanetan jarri zen, Toki Jaurpiderako Oinarrien Legeak dioenaren arabera, edateko ur hornidura udal guztiak eskaini behar duten gutxienezko zerbitzua dela esanaz, eta etxebizitza bat antolamendutik kanpo egoteak ez duela esan nahi gutxienezko zerbitzu hori eman behar ez zaionik.

Udalak, aldiz, erantzun zuen eraikuntzari buruzko gaizki ulertzea egon zela, ur hornidura aldamenean dagoen etxabola baterako zela ulertu zutelako, eta beraz, gaizki ulertzea argitu ondoren, interesatuari bere etxerako ur hornidura emateko arazorik ez zegoela; hortaz, Arartekoaren gomendioa onarturik, espedientea itxi egin zen.

*Udal etxebizitzetan gertatutako kalteen aurrean Administrazioak azaldutako utzikeria (70/92)*

Bilboko Udalak udal etxebizitza batzuek jasaten zituzten kalteen aurrean azaldutako utzikeria salatu zion bertako biztanle batek Erakunde honi.

Interesatuaren esanetan, aipatutako etxebizitzaren elementu amankomunak (fatxadak, sarrerako eskilarak) gero eta hondatuago zeuden, eta horiei itoki- nek, hezetasunak, eta abarrek eragindako arazoak gehitu behar zitzaizkien.

Erreklamatazaileak jakinarazi zigun, orobat, Bizkaiko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko lurralde ordezkari jaunaren ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ondoren, bere eskaria onartua izan zela Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren aginduz eta, horregatik, etxebizitzaren sustatzaileari eraikuntza egokitu eta garbitzeko beharrezko obrak egin zitzala agindu zitzaiola.

Bizkaiko Etxebizitzarako Lurralde Ordezkaritzak obrak egin zitzaizkien Vivendas Municipales de Bilbaori ezarritako 30 eguneko epea amaitu eta gero, lanak artean egin gabe zeuden.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren aginduz, eskatutako lanak egiteari berehala ekin ziezaiola gomendatu zion Ararteko honek Vivendas Municipales de Bilbaori.

Vivendas Municipales de Bilbaok hitzez-hitz onartu zuen Erakunde honek egindako gomendioa eta aipatutako lanak egiteari heldu zion.

*Udalak auzune baten hirigintza-antolaketa zehazteko duen ahalmena eta auzokide talde batek aurkeztutako alternatibak (104/92).*

Eskoriatzako auzune bateko auzokide taldeak Arartekoarengana jo zuen, arau subsidiarioen aldaketa batekin ados ez zegoela adierazteko, aldaketa horrek kalte egiten zielako, haien ustez, beren bizi-inguruari.

Auzotarren esanetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako hirigune-aldaketak ez zituen hobetzen herriko antolaketa eta hornikuntza, lokal publiko eta landareguneetarako azalera gutxitu egiten zuelako.

Espedientea bideratzean legea ez zela bete ere adierazten zuten, beren iritziz, landareguneetarako azalera gutxitu ahal izateko Estatu Kontseiluak alde zuzenik bere ebazpena eman behar duelako. Azkenik, berraztertze eskea aurkeztu arren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren legeak ezarritako epeak igaro ondoren, administrazioa isiltasunean babestuz inolako erantzunik ez zutela jaso salatzen zuten.

Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitektura Diputatuari argibideak eskatu ondoren, Arartekoak aditzera eman zien kexa-aurkezleei ez zuela inolako araugabekeria administratiborik antzeman; izan ere, landaregune eta zabalto-kiak arau subsidiarioen aldaketarekin gutxitzen baziren ere, ordainez azalera gehitu egin zen Hidalga Jauregia erostean egin zen lehenagoko hirigintza-ekintza baten bidez, azken kontuan aldatu gabe geratzen baitzen landaregune eta zabalto-kietarako azaleraren portzentaia.

Estatu Kontseiluak ebazpena eman beharra zela eta ez zela, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzarako 4/1990 Legearen 28. artikulua araberara, aldeko ebazpen horren ordez Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzarako Batzordearena eman behar dela erantzun zitzaizkien.

Orobat, auzokide horiei aditzera eman zitzaizkien Eskoriatzako 1-11 eta 1-12 guneeetarako proposatutako ordezkotako antolaketa oro har ezaugarri ego-kiak edo, baita Udalak aukeratutakoak baino hobekiak ere bazituela, baina hirigintza-antolaketa alorrean badagoela diskrezionalitate abiaburu bat, antolaketak aukera desberdinen artean behar bezala zuzentzeko zentzu eta koherentzia irizpide batzuen arabera erabakiak direnak hautatzen uzten duena.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak berraztertze eskea ebatzi zuenez gero, auzokideen eskaria ez onartzeko erabakia hartu bazuten ere, eta hartara administrazio isiltasunik ez zegoenez gero, espedientea artxibatu egin zen.

### *Beharrezko udal baimenik gabe obrak egitea (215/92)*

Gasteizko auzokide elkarte batek salatu zuen beren etxepean makailua prestatu eta gezatzeko lokala birregokitzeko obrak egiten ari zirela udalaren baimenik gabe eta, finkatu nahi zen jarduerak beraiei eragingo ziela kontuan izanik, ez zirela beren iritzia eskatu.

Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri ondoren horixe frogatu zen: aipatutako lokalean berritze-lanak egiten ari zirela jarduera eta lanetarako udal

baimenik gabe. Horregatik, Alkatzetza dekreto bidez eraikuntza jabe berriztatze lanak bertan behera uzteko agindua eman zitzaion, Udaltzaingoa-  
ren gerarazte aktaren indarrez gauzatu zena.

Geroago, lokala birregokitzeko lanak egiteko baimena eman zen, sailka-  
tutako jardueren kalifikaziorako udal ponentzia teknikoak hartutako akordioa-  
ren arabera eta burutu nahi zen jarduerari zegozkion neurri zuzentzaileak fin-  
katu ondoren.

Jarduerak legezkoetzeko indarrean dagoen araudian finkatzen diren neu-  
riak Udalak betearazi zituela kontuan izanik, Arartekoak espedientea itxi egin  
zuen.

### *Otxarkoagan etxebizitzak legearen aurka hartuta zeuzkatena kanpo- ratzearen kontra (238/92)*

Otxarkoagako familia elkarte batek kexa idatzia aurkeztu zuen Erakunde  
honetan, Viviendas Municipales de Bilbao herri erakunde autonomoak urte  
hasieran Bilboko auzo horretako etxebizitza batzuk utziarazi zituztelako eta  
horrekin konforme ez zeudelako.

Erreklamatuzaileek ziotenez, kaltetuen arteko zenbait biztanle ez zeuden  
ezarritako errenta ordaintzeko moduan, eta beste kasu batzutan, etxeetatik  
atera arazitako biztanleak denbora luzez hutsik zeudenetan bizi ziren.

Arazoi horiek aztertu ondoren, Arartekoak Bilboko Alkatearengana jo  
zuen informazio eske. Udalak, Viviendas Municipales de Bilbao erakundearen  
txostena bidali zion Erakunde honi, etxebizitza sozialei buruzko udal politika  
eta Administrazioak kasu zehatz honetan jarraitutako bidea azaltzen zuena.

Lasotako informazioan adierazten zenez, etxebizitzak utzi arazteko pauso-  
ak, etxe premian egon eta legez eskaria egiten duten pertsonak daudela ikus-  
tean hasten dira eta, pisuak legez kontra hartuta zeuden bitartean, kasu asko-  
tan legez kontra hartuta zeuzkatena egoeran edo okerragoan egon arren,  
sekula etxerik ez zutela lortuko ikusi zuten.

Legez kanpoko etxehartzaileek azaldutako argudioei dagokionez,  
Viviendas Municipales de Bilbao erakundeak hauxe zioen: errentarik handiena  
eta txikiena 10.800 eta 993 pezeta artean zeudela eta edozein pertsona tal-  
dek ordaintzeko modukoak zirela, Udalaren Gizarte Ongizate Alorrean horre-  
tarako eska daitezkeen laguntzak lortzeko aukera izateaz gain.

Etxebizitzek hutsik denbora luzea zeramatelako argudioari dagokionez,  
udal arduradunek aditzera eman zuten egoera hori, bizilagunen baten kontra  
hustuketa tramiteak hasteko premiak eta epaileak dagokion epaia eman arte  
itxaron beharrak eragiten zutela, hain zuzen.

Udalak emandako arazoak aztertu ondoren, Arartekoak honek interesatu-  
ei jakinarazi zien horiekin bat zetorrela, eta gehitu zien, berdintasun printzi-  
pioa zehatz-mehatz errespetatzeko, etxebizitza bat lortu nahi duten hiritar guz-  
tiek eskaria egiteko bide bera jarraitu behar dutela. Era berean, etxebizitzak  
okupatzeko legez kontrako bidea erabiltzeak ez duela inolara ere frogatzen

horrela dihardutenen premia ekonomikoa edo soziala handiagoa denik. Aitzitik, ezarritako prozedurak, etxebizitzak emateko arrazoi horien aurretiko balorazioa iragartzen du, eta beraz, prozedurak berdintasun printzipioa bermatzen du, eta Arartekoa hori defenditzera beharturik dago.

Arrazoi horiek guztiak interesatuei helarazi ondoren, bideratutako keza espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*Barne erreformarako plan berezi baten antolamendua eta aprobetxamenduak finkatzeko, Arartekoak Udalaren eta auzokide elkartearen artean egindako bitartekaritza lanak (297/92)*

Errenteriako Oiarso auzokide elkarteak Arartekoaren laguntza eskatu zuen, Kanpa Patxiku deritzan eta gaur egun eraiki gabe dagoen parajeen Udalak etxebizitzak eta garajeak eraikitzeke hirigintza jarduera egitasmoa onartzearekin ados ez zeudelako.

UI-14/09aren Barne Erreformarako Plan Bereziak bere barne hartzen zituen egitasmo batzuekin ez zeuden ados auzokideak, ondorengo puntuei zegokienean:

- Bide berri bat eraikitzea, trazaketa parte batean zazpi metroko goiera izango zuena.
- Kanposantu ondoan aparkalekuetarako dauden espazioak kentzea.
- Dagoeneko biztanlez oso beteta dagoen auzo batean etxebizitza gehiago pilatzea.
- Auzoa espazio libre garrantzitsuak eratzeko aukerarik gabe geratzea.
- Amona baten baserria erauzi izana.

Arartekoak auzotar elkarteak planteatutako puntuei buruzko argibideak eskatu zizkion Udalari eta Arartekoak kexari buruzko iritzia eman arte plan bereziari buruzko edozein ebazpen bertan behera utz zezala erregutu zion, bere iritzia eman aurreko lanak ahalik eta azkarren burutuko zituela aginduz.

Eskatutako dokumentazioa bidali zion Alkateak Arartekoari eta gainera egoitza honetara etorri zen gaiari buruzko Udalaren iritzia azaltzera. Bestalde, auzokide elkarteko ordezkariekin bilerak egin ziren eta Erakundeko ordezkariak Errenteriara joan ziren auzitan zegoen parajea eta inguruak ezagutzera.

Errenteriako Udalak, bere aldetik, Barne Erreformarako Plan Bereziaren onarpenari eusten zion, zeinen arabera Kanpa Patxikun 54 etxebizitza eraiki-ko baitziren bi zona ezberdinetan eta lurrazpiko 309 garaje plaza, garajeen eta lur sobrantaren gainerako azalera zuzkiduretarako utziko zelarik.

Biztanleen ustez, ordea, plan bereziak hartzen zuen eremu osoa kiroletarako eta parkeetarako zona bihurtzea komeni zen, Errenteriako biztanlez gainezka zegoen hirigunearen zuzkidurak hobetzeko balioko zuelarik.



Auzokideekin egindako bileretan, Udalak eraiki gabeko zatiaren, lurrazpiko garajeen gaineko azaleraren tratamenduaren eta etxeen lerroketaren diseinuan parte hartzeko aukera eskaini zien auzokideei.

Hilabete luzez bi parteen arteko elkar ulertu ezina eta gaiaren konplexutasuna ikusirik, Arartekoak proposatu zuen Errenteriako Udaletxean bilera egin zedila eta bi parteek onar zezaketen konponbidea lortzeko bitartekaritza lanak egingo zituela berak. Horretarako jarreretan malgutasuna eskatzen zuen; bate-tik, auzo elkarteak Kanpa Patxikun etxebizitzak eta garajeak egiteko aukera bazegoela onar zezala, eta bestetik, Udalak, irabaziak emango zizkion aprobe-txamenduan mozketaren batzuk onartzeko jarrera har zezala.

Bi parteak azkenik Udaletxean bildu ziren eta Arartekoa ere bertan izan zen aholkulari batekin. Eztabaida luze baten ondoren gutxienezko puntu bat-zuk zehaztu ziren, ondoren Oiarso auzo elkartearen batzarrak eta Udalbatza-rrak onetsi behar zituztenak. Arartekoak adostutako proposamena jasotzen zuen bilera akta egin zuen, bi parteek eta, akordioaren bermatzaile gisa, Erakundeak sinatu zutena.

Azkenik, atseginez jaso genuen auzokide elkarteak eta Udalbatzarrak plan berezia aldatzen zuen hirigintza konbenioa aldatzeko proposamena onartu zutelako berria, eta horrela, Udalaren eta auzoko biztanle parte baten artean gehiegizko liskarrak sortarazi zituen auzia konponduta geratu zen.

### *Etxebizitza birregokitzeko dirulaguntzari buruz (514/92)*

Bilboko biztanle batek, Erakunde honen aurrean ondorengo gertakariak salatu zituen: Bizkaiko Hirigintza eta Etxebizitza Saileko Lurralde Arduraduna-ren ebazpenez, mailegu kualifikatu bat izendatu zitzaion bere etxebizitza birre-gokitzeko, baina birregokitze-lanak amaitu, eta aipatutako ordezkari-tan nahiz mailegua eman zion kreditu kutxan beharrezko agiriak aurkeztu ondoren, ez zioten eman ebazpenean agindutako dirulaguntza.

Erakunde honek beharrezko gestioak hasi ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailak txostena eskuratu zigan, zeinetan adierazten baitziren erreklamatazaileak eskatu dirulaguntza jasotzeko gertatu zen atzerape-naren arrazoiak. Horrela, jakinarazi zitzaigunez, kexadunak mailegua eskatu zion erakundeak ez zuen sinatu Eusko Jaurlaritzarekin Dirubidezko Lankide-tzarako Hitzarmena 1991ko ekitaldian etxebizitza gaietan babesteko ekintzak burutzeko.

Ondorioz, ikusi genuen Administrazioak indarrean dagoen legediaren arabera jokatu zuela kasu honetan, eta banketxea bera izan zitekeela kexaduna nahastu zuena mailegua emateko tramiteak egiteko orduan, banketxe horrek bere garaian interesatuari jakinarazi behar baitzion ez zeukala sinaturik Eusko Jaurlaritzarekin Dirubidezko Lankidetzarako Hitzarmena.

Kexadunak arazoa erakunde pribatu batekin zuenez gero, Ararteko honek jakinarazi zion ez zeukala aipatu gaia aztertzerik, Erakunde hau sortu

eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legean ezarritakoaren indarrez, eta espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*Etxebizitza sozialak esleitzeko indarrean dauden familiaren irabazi gordinari buruzko moduluak (675/92)*

Erakunde honetan Bilboko biztanle batek bidalitako kexa idatzia jaso genuen, etxebizitza sozial baten esleipenerako eskaria ez zitzaiola onartu salatzen zuena. Eskaria ez onartzeko emandako erantzunean esan ziotenez, eskatutako gutxienezkoaren azpitik zeuden irabazi gordin haztatuetara ez zen iristen, hau da, familiaren urteko irabazi haztatuek ez zuten gainditzen 1,8 aldiz lanbidearteko gutxienezko soldata Etxebizitza Sozialen Dirubide-Neurriei eta Lege-Jaurpideari buruzko ekainaren 19ko 167/90 Dekretuaren 27. a) artikuluan, eta Herri Sustapeneko Babes Ofiziala duten Etxebizitzien Adjudikaziorako 1988ko maiatzaren 6ko Aginduan iragartzen den eran.

Bide horretatik, famili-irabazien haztaketari zegokionez, bere kalkulak egin zituela zioen interesatuak, eta ezarritako gutxienezkoaren gainetik zeudela uste zuen.

Erreklamatzailleak eskuratutako datuak kontuan izanik, Erakunde honetako lege-aholkularitzak, famili-irabazien haztaketarako indarrean dagoen lege araudia ezarri, 167/90 Dekretuko 27. c) artikuluan xedatutako gutxienezkoa ez zuela gainditzen frogatu zuen. Kexadunak bere kalkulak egiterakoan koefiziente ponderatzailea ahaztu zuen, eta koefiziente hori horrela kalkulatu da: modulu gutxiago duen Estatuko Area Geografiko Homogeneoaren eta babes-jarduera edukitzeko gai den etxebizitza kokatzen den herriari dagokion moduluen arteko portzentaiaren erlazioa atera behar da, Euskal Herriko Autonomi Komunitatean indarrean dagoen aipatutako arauaren 28.2. artikuluan jasotzen den eran.

Erreklamatzaileri, berak egindako kalkulu hutsegitearen berri eman ondoren, espedientearen tramiteak amaitutzat jo ziren.

### 3.13. **BESTE GESTIO BATZUK**

#### A) **Sarrera**

Gaiarengatik orain arte aurkeztu ditugun ohizko sailetan sartu ezin diren kexak biltzen dira atal honetan. 1992. urtean, atal honetan sar daitezkeen 51 kexa, erreklamazio edo eskari jaso dira, Arartekoari aurkeztu zaizkion guztien %6,51.

Atal honi dagozkion espedienteen biderapena, Erakunde hau arautzen duen legean iragarritako jarduera-eremu zehatzetik kanpo egon da batzuetan, eta halere, aipatutako Legeak Arartekoarentzat finkatzen dituen helburuei

errespetu osoa izan zaie. Sarritan, administrazio organoen aurrean bitartekaritzak lanak edo maila ezberdinetako gestioak eginaz lortu da herritarren eskubiak babestea eta zaintzea, kasu zehatz bakoitzean berdintasuna lortzeko irizpideari jarraiki. Nolanahi ere, Arartekoaren jardun aukera guztiak agortzen direnean, hiritarrari beti azaltzen zaio zein bide jarrai dezakeen.

Sail honetan sartutako kexek azaldutako gaiak erabat ezberdinak izanik, ez dago espediente multzo adierazgarri bat bil dezakeen gai zehatzik. Halere, atal honetan sartzen ditugun erreklamazioen multzo bat Gizarte Segurantzatik pentsioak edo beste laguntza batzuk kobartzeko arazoena da. Bestalde, zenbait taldek, adibidez elbarri fisiko edo psikikoek, gizartean egiaz integratzeko dauzkaten arazoei dagokie beste kexa multzo adierazgarri bat.

Azkenik, sail honetan "gerratearen haurrak", hots, 1937an Sobiet Batasunera joan eta azken urte hauetan Euskal Herrira itzuli direnen arazoak jasotzen dira, gabezia eta gizarte nahiz lege mailako zailtasunak aurkitzean, batzuetan Arartekoarengana jo dutelako.

## B) Kexen aukeraketa

*Ordainketa-aginduan kontu korronte zenbakia gaizki transkribatzearen ondorioz, behin-behineko lanerako ezintasunagatik subsidioa kobartzeko arazoak (21/92)*

Bizkaiko nekazari bat bajaran zegoen, eta Gizarte Segurantzatik behin-behineko lanerako ezintasunagatik subsidioa zegokionez gero, hilero aurrezki kutxa baten bidez jasotzen zuen.

Interesatua ohartu zen 1991ko abendua amaitzean ez ziotela dirua sartu ohizko kontuan, eta ondorengo lau hilabeteetan beste horrenbeste gertatu zitzaien.

Kexaduna Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren bulegoetara joan zen gertatutakoa argitu asmoz eta, gestio ugariaren ondoren, esan zioten INSSen ordainketa aginduan azaltzen zen kontu korronte zenbakia transkribatzerakoan Administrazioak oker pasatu zuela, eta ordainketak ondorioz beste pertsona baten kontuan egin zirela.

Hutsegitea argitu eta gero ere, ordea, arazoa ez zen konpondu langileak hitzez eta idatziz gestio ugari egin arren, eta 1992ko urtarrilean baja-aldia amaitu eta lanera itzuli zenean, artean jaso gabe zegoen zor zitzaion dirua. Arrazoi horrek eraginda jo zuen interesatuak Arartekoarengana.

Erakunde hau sortu eta arautzen duen legeak dioenez, INSS Arartekoaren jarduera eremutik kanpo geratzen bada ere, azaldutako arazoa itxuraz sinplea zelako eta hiritarrari ahalik eta agudoen erantzuteko gogoz, Bizkaian INSSek daukan ordezkartzan gestio batzuk egin ziren. Horrela, 1992ko otsailaren bukaeran langileak zor zitzaion dirua, 228.731 pezeta guztira, jasotzea lortu zuen.

IV. ATALA

**ESTATISTIKA**

#### 4.1. OHAR OROKORRAK

1992. urtean zehar guztira 3.605 idatzi eta agiriri eman zaie sarrera Ararteko Erakunde honetan; denbora berean, egoitza honetatik 3.229 ofizio eta idatzi igorri dira.

Aurreko urtealdian egon ziren sarrera eta irteerekin konparatuz, jasotako idatzien kopurua igo egin da, arinki izan bada ere, %11,2ko igoera izan baitu, eta igorri diren txostenen kopurua, berriz, 1991koaren oso antzekoa izan da, Erakundetik atera den idatzi kopuruak soil-soilik %0,1eko jaitsiera izan baitu.

Erakundeak jardunean lau urte bete ondoren, jasotako gutun eta txostenen kopuruak gora egiteak esan nahi du denbora igaro ahala gizarteak gero eta hobeto ezagutzen duela Ararteko Erakundea. Igoera hori azken ekitaldian txikiagoa izan da, eta hori Erakundearen arian espero zen mailara iristen ari garelako gertatzen da, zalantzarik gabe datozen urteetan funtzionamendua- ren goi mailara iritsiko garelarik.

Irteeren portzentaia, berriz, 1991koaren paretsukoa izan dela esan dugu, eta hori Erakundearen jardunbidean eskuratu den esperientziagatik gertatu da, esperientzia horri esker lana hobeto antolatzeko bide berriak erabili baitira, hiritarrari zerbitzu hobea eskaini asmoz.

	1992	1991. urtearekiko gehikuntza
Sarrerak	3.605	11,2%
Irteerak	3.229	0,9%

Hilean batuz beste 269 idatzi atera dira Erakundetik, eta sartu direnak, aldiz, 308 izan dira. Ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, sarrerak eta irteerak modu orekatuan banatzen dira hamabi hilabeteetan, garrantzizko gorabeherarik gabe; halere, normala den bezala, udaran eta batez ere abuztuan Erakundearen jarduera gutxitu egin da, urte sasoi horretan lasaitasun giroan murgildu ohi direlako norbanakoak nahiz administrazioak.

<b>Hilabetea</b>	<b>Sarrerak</b>	<b>Irteerak</b>
Urtarrila	333	321
Otsaila	295	230
Martxoa	288	253
Apirila	224	234
Maiatza	242	271
Ekaina	403	308
Uztaila	320	254
Abuztua	132	166
Iraila	282	258
Urria	317	314
Azaroa	385	291
Abendua	384	329
1992. urtea	3.605	3.229

(Ikus 1. diagrama 154. orrialdean)

### **Jasotako kexak**

1992ko ekitaldian 783 kexa jaso ditu Arartekoak, banaka edo taldeka aurkezturik. Kopuru hori 1991. urtean zehar aurkezturiko erreklamazio sorta baino handixeagoa da. Halaz guztiz, gogoan izan behar dugu 1991. urtealdian batera aurkeztu zirela gai berari zegozkion 57 kexa eta, hortaz, 1992an azaldutako gaiak egiaz %7,9an ugaritu direla.

	<b>1990</b>	<b>1991</b>	<b>1992</b>
GUZTIRA	1159*	769*	783

(Ikus 2. diagrama 155. orrialdean)

(\*769 kexetatik 57 Getxo udalerrian hiri-zerga igo zelako sortu zen arazolari buruzkoak izan ziren; gai horregatik 1990ean ere 545 kexa aurkeztu ziren eta, banaka bideratu ziren arren, estatistika datuak prestatzerakoan kexa bakartzat hartu ziren).

## Onartu ez diren kexak

1992an 783 kexa horien artean, batzuk Erakunde hau sortu eta arautzen duen 3/85 Legeak bere 21. artikuluan xedatutakoaren arabera baztertu egin behar izan dira, nagusiki gai pribatuei zegozkielako, epai-erabakiaren zain edo behin-betiko epaia emanda zegoelako, edo salaketa egiten zuenak bidezko interesik ez zuelako.

Onartu ez diren kexei dagokien atalean, aurtengo datuak iazkoen paretsukoak dira. Lehenago esan dugun bezala, kasu gehienak partikularren arteko auziak dira, beroriekin Administrazio bakar batek ere zerikusirik ez dutenak. Bestalde, kexa ugari epaituak izan diren edo epaibidean dauden kasuei buruzkoak izan dira, eta baita Arartekoaren ahalmenetik kanpo geratzen diren gaiiei dagokienak ere.

106 kexa baztertu izanak ez du esan nahi, onartzeko azterketa egin ondoren, berorien biderapena alde batera utzi denik. Alderantziz, Erakunde honek beti agortu nahi izan ditu bere eskuetan zeuden aukera guztiak, Legeak finkatzen dion jarduera eremuaren barruan kasu bakoitzean burutu ditzakeen ekintza guztiak aurrera eramanez. Nolanahi ere, azaldutako kasuaren arabera Arartekoak ezin badu ezer egin, interesatuari beti esaten zaio bere erreklamazioa zenbateraino den bideragarria eta kasu bakoitzean zein bide komeni zaion jarraitzea.

## Onartu ez diren kexak eta horretarako arrazoiak

---

- Pertsona pribatuen arteko arazoak .....	26
- Auzibidera eramandako kexak .....	26
- Urtebete baino gehiago igaro izana .....	3
- Aurretiaz kexabide administratiborik aurkeztu gabekoak .....	9
- Erakundearen eskumenetik kanpokoak .....	26
- Bidezko interesik eza .....	6
- Beste zenbait .....	10
<hr/>	
- Guztira .....	106

---

(Ikus 3. eta 4. diagramak 156. eta 157. orrialdeetan)

## Herri Defendatzaileari igorritako kexak

1992ko ekitaldian Arartekoak Herri Defendatzaileari bidalitako kexen kopurua igo egin da, 70tik 95era pasatuz. Kexa bakoitzean azaltzen den pun-

tua lehen aldiz aztertzean, auzitan jartzen den gaia Estatuko Herri Defendatzailearen jarduera eremuari dagokiola ikusten denean, Arartekoak, Erakunde hau sortu eta arautzen duen Legearen 21.2. e) artikuluan xedatutakoa betez, interesatuari jakinarazten dio bere kexa aurrerantzean Estatuko erakundeak bideratuko duela, eta Defendatzaileari igortzen diogu. Hori guztia, bi erakunde kide hauen arteko harremanetan elkarlanaren aldeko jarrerari esker egiten da.

- Herri Defendatzaileari igorritako kexak..... 95

### **Bestelako gestioak eragin dituzten kexak**

Azkenik, bestelako gestioak eragin dituzten arren, zenbait erreklamazio eta eskaera ez dira euskal Administrazio publikoaren kontrako berezko kexatzat jo; izan ere, egiaz ez zuten Administrazioaren baitako araugabekeria salatzten. Halere, Erakundearen izpiritu eta helburuei jarraiki, bidezko iritzi zaio gestio horiek egiteari eta, beste erreklamazio espedienteekin egin ohi den bezala, azaldutako kasua bideratu beharra egon da.

Bestelako gestioei dagokien atalak ere ez du izan aldaketarik 1992ko kopuruari dagokionean. Nabaria denez, hiritarrek gai oso ezberdinei buruz egiten dituzten eskariak eta salaketak sartzen dira atal horretan. Halere, eta puntu honetan 1936ko Espainiako gerra zibilaz geroztik Sobiet Batasuna zenean bizi ziren eta Euskal Herrira itzuli diren hiritarrek aurkeztutako kexa eta eskari sail garrantzitsu bat azpimarra dezakegu.

- Bestelako gestioak eragin dituzten kexak ..... 51

## **4.2. SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA**

Arartekoak 1992an jaso dituen kexek eragin dituzten alorren arabera aztertzen baditugu, aurten ere 1991ko urtealdian salaketa gehien jaso zituzten hiru alorrak nagusitzen direla ikusten dugu. Orobat, azpimarratu behar da, ordea, 1991n Hirigintza eta Etxebizitza alorrari zegozkiola administratuek aurkeztutako kexa gehienak, eta 1992an, aldiz, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza alorrak kendu diola lehen postua.

Hala da bai, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza gaiaren inguruko kexak izugarri gehitu dira, 1991n baino 21 gehiago aurkeztu baitira aurten, kexen portzentaia osoa ia hiru puntutan igoaraziz. Dena den, espediente kopuruarengatik gehien eragindako alorrean aldaketa gertatu den arren, azpimarratu behar da gehien eragindako alorren pisua iaz baino orekatuagoa izan dela aurten.



1991ko eta 1992ko estatistikak alorrez alor konparatuz, kexa-gorakadarik handiena Osasunak eta Hezkuntzak izan dutela ikus dezakegu, eta, horiek eta Ingurugiroak izan dute portzentai igoerarik adierazgarriena. Alorrak azpisailetan banatzen dituzten taulak aztertzen baditugu, osasun alorrean egon den erreklamazio ugaltzea Osasunari eta Gizarte Ongizateari buruzko kexek eragin dutela ikusten da; Ingurugiro alorrean, berriz, Sailkaturiko Hiri Ekintzen azpisailean kokatzen da igoera nagusiki. Azkenik, gorakadei dagokienez azpimarratu behar dugu, Hirigintza eta Etxebizitza alorrean kexen kopuruak jaitsi bada ere, 1992an etxebizitzei dagozkien kopuruak gora egiten jarraitu duela.

Beste muturrean, guztizko kexa kopuruari begira, 1992an beherakadarik handiena izan duten alorrak Barne saila eta Kultura eta Elebitasuna izan dira. Herrizaingoari dagozkion kexek behera egin dute trafiko zigorrei buruzko erreklamazio gutxiago egin direlako, eta Kultura eta Elebitasunari dagokienez, berriz, hizkuntza arazoekin zerikusia duten kexen beherakada nabaria izan da. Hirigintza eta Nekazaritza azpisailek ere beherakada azpimarragarria izan dute.

Azkenik, esan dezagun Ogasunak, Herrilanak eta Zerbitzuak, Justiziak, bai eta Lana eta Gizarte Segurantzak ere aurreko urteko portzentaien antzekoak ematen dituztela oraingoan ere. Honi guztiari gehitzen badiogu beste ataletan ez dela aldaketa nabaririk egon, kexen alorrez alorreko banaketaren taula piskanaka sendotzen ari dela ikusten da.

	Zenbat kexa jaso	%
F.P. eta Adm. Antol.	87	16,3
Hirg. eta Etxeb.	82	15,5
Osasuna eta Giz. Ong.	82	15,5
Hezkuntza	70	13,2
Ingurugiroa	62	11,7
Ogasuna	46	8,7
Herrilan eta Zerb.	31	5,8
Herrizaingoa	27	5,1
Justizia	15	2,8
Nek. Ind. Merk. eta Tur.	12	2,2
Kult. eta Elebit.	10	1,9
Lana eta Giz. Segur.	7	1,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>531</b>	<b>100</b>

(Ikus 5. diagrama 158. orrialdean)

## Kexak azpisailen arabera

- Funtzio Publikoa eta Adm. Antolakuntza.....	87
- Funtzio Publikoa .....	79
- Administrazioaren Antolakuntza .....	8
- Hirigintza eta Etxebizitza .....	82
- Hirigintza .....	38
- Etxebizitza .....	44
- Osasuna eta Gizarte Ongizatea .....	82
- Osasuna .....	57
- Gizarte Ongizatea.....	25
- Hezkuntza .....	70
- Ikastegia aukeratzeko eskubidea.....	3
- Irakaskuntzaren programazio orokorra .....	31
- Eskoletako instalazioak .....	8
- Bekak eta ikasteko laguntzak.....	9
- Eskola-garraioa .....	3
- Bestelakoak .....	16
- Ingurugiroa .....	62
- Sailkaturiko Hiri-ekintzak .....	53
- Ingurugiroari eragiten dioten beste gorabehera batzuk ..	9
- Ogasuna .....	46
- Toki Ogasuna .....	17
- Foru Ogasuna .....	26
- E.J. Ogasuna .....	3
- Herrilanak eta Zerbitzuak .....	31
- Herrilanak .....	12
- Garraioak .....	7
- Udal zerbitzuak .....	12
- Herrizaingoa .....	27
- Bidezaingoa .....	23

- Herri-Bakea .....	4
- Justizia .....	15
- Administrazio autonomikoak justizi alorrean burutu dituen ekintzei buruzko keak .....	1
- Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuei buruzko keak .....	14
- Kultura eta Elebitasuna .....	10
- Kultura .....	8
- Elebitasuna .....	2
- Lana eta Gizarte Segurantza .....	7
- Lana .....	4
- Gizarte Segurantza .....	3

#### 4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA

##### **Euskal Herriko Autonomi Komunitateko Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuen kontrako keak**

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 9.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Euskal Autonomi Komunitateko Justizi Administrazioaren jardunari dagozkion keak, kasu bakoitzean gaia ikertzeko edo ebazteko ahalmena duen organuari igortzen zaizkio. Jakina, Arartekoaren jarduera eraginkorra eskatzen badute ere, ez dira Euskal Herriko Autonomi Komunitateko herri-administrazioen aurka bidaltzen diren keak bezalakoak, bestelako aginte-eremuko jardunari eragiten baitiote.

Ildo honetatik, kexa bakoitzean azaldutako gaia aztertu ondoren, onartua izateko baldintzak betetzen dituela erizten bazaio, Herri-Salataritzari helarazten zaio, edo bestela, Agintaritza Judizialaren Batzorde Nagusiari, jardute-sail horiek erreklamazioaren jatorria iker dezaten eta aurkeztutako arazoei nahiz beroriei ezar dakizkiekeen neurrien berri Arartekoari eman diezaioten.

Informazio hori jaso ostean, gaiari buruzko nahikoa argibide ematen dituela baderitza Arartekoak, bukatutzat jotzen dira jarduerak eta horixe jakinarazten zaio kexadunari.

1992ko 12 hilabeteetan zehar, gure Autonomi Komunitateko Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuen jardunari buruzko 14 kexa bideratu dira arestian aipatu moduan.

- Euskal Herriko Autonomi Komunitateko Justizi Administrazioaren Administrazio zerbitzuen kontrako keak .....	14
---	----

Ararteko honek onartutako eta Euskal Herriko edozein administrazioen jarduera eremuari dagozkion kexen barruan, ikus daiteke ia erreklamazioen erdiak Autonomi Komunitate osorako Administrazioaren ekintza edo hutsegi-teen kontrakoak izan direla, hamar kexatetik lau udalei dagozkiela eta hamaretik bat hiru lurralde historikoetako foru administrazioei.

	Zenbat	%
- Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa	239	46,2
- Toki Administrazioa	216	41,8
- Foru Administrazioa	62	12
	531	100

(Ikus 6. diagrama 159. orrialdean)

Aurreko urteetako joera kontuan hartuta, udalen kontrako kexen portzentaiak etengabe gora egiten duela ikus daiteke, 1990ko %32tik, %41,8ra igo baita 1992an. Halere, azken urte honetan egon den gorakada aurreko ekitaldikoa baino zertxobait txikiagoa izan da.

Foru administrazioei dagozkien kexak gutxitu egin direla esan behar da, eta beherakada hori ez dagokio kexen portzentaiari bakarrik, baita guztizko kopuruari ere.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren jarduerarekin zerikusirik duten kexek egin dute gora, eta hori atal honetan sartzen diren kexa guztien portzentaian ere isladatzen da. Kontuan hartzen badugu 1991. urtean Autonomi Komunitate osorako Administrazioari zegozkion kexek 10 puntu galdu zituztela aurreko urtearen aldean, 1992an izandako ia hiru puntuko gorakada txikiak ez du harrigarria gertatu behar.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da, Erakundearen lehen bi urteetan ez bezala, 1992an Eusko Jaurlaritzaren kontra aurkeztu diren kexen kopuruaren pare dagoela udalei eragiten dieten kexen portzentaia. Foru aldundiei dagozkien kexen kopurua, berriz, aurreko bi sailetatik asko urruntzen da, eta horrela, seguraski epe ez oso luzean errepikatuko diren ezaugarrien aurrean geun- deke.

### **Foru administrazioen kontra aurkezturiko kexak**

Hiru lurralde historikoetako foru administrazioen kontra 1992an aurkeztutako kexak aurreko urtean bezalatsu banatzen dira, eta aldundi bakoitzari

dagozkion kexen portzentaietan aldaketa txikiak bakarrik gertatu dira. Horrela, gehien eragindako foru administrazioa berriro Bizkaikoa izan da, atal honetako bost erreklamaziotatik bi haren kontrakoak izan baitira. Eta hori, egia esan, nahiko normala da, Autonomi Komunitatean biztanle gehien dituen lurraldea delako Bizkaia.

Bestalde, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru administrazioen kontra aurkeztutako kexen proportzioa bi lurraldeetan dagoen biztanlegoaren arabera paretsua bada ere, azpimarratzekoa da Arabako kasuan bertako Foru Aldundiaren aurka aurkeztutako kexa kopurua erabat neurritz kanpoko delako, hein handi batean eta dudarik gabe, Arartekoaren egoitza Gasteizen dagoelako. Horrela, Bizkaian eta Gipuzkoan Arartekoarengana 46.000 biztanletatik batek jotzen duen bitartean, Araban 12.000 biztanletatik batek aurkezten du kexa, hots, ia laukoiztu egiten da lurralde horretan erreklamatzailerako kopurua.

### Kexak foru aldundien arabera

	Zenbat	%
Araba	22	35,5
Bizkaia	25	40,3
Gipuzkoa	15	24,2
GUZTIRA	62	100

(Ikus 7. diagrama 160. orrialdean)

### Toki-administrazioen aurkako kexak

Toki-administrazioen kontra 1992an aurkeztutako kexei begira, Autonomi Komunitateko hiru lurralde historikoetatik bidali direnen portzentaiak nahiko antzekoak dira. Horrek berriro frogatzen du arabarrek proportzioan kexa gehiago aurkezten dizkiotela Arartekoari. Guztizko kopuru zehatzetxei dagokienez, ordea, Bizkaia da buru, lurralde horretako udalerrien kontrako 74 kexa jaso ditugulako guztira.

Udalerriei dagokienez, Gasteizkoa izan da kexa gehien sorrerazi dituen udala eta oso atzean utzi ditu Bilbo eta Donostia, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren geratu direnak. Ikus daitekeen bezala, beste herriak hiru hiriburu oso atzetik geratzen dira. Nolanahi ere, gogoratu behar da 1991 hiru hiriburuak eragin zituzten kexen kopurua antzekoa izan zela (28 Bilbok eta 27na Gasteiz eta Donostiak); oreka hori aurten hautsi egin da, eta horrela

Gasteizek Bilbok baino %65 aldiz kexa gehiago sortu ditu, eta aldi berean Donostiako Udalaren kontrako kexak halako bi aurkeztu dira Gasteizkoaren aurka.

### Araba

Gasteiz .....	55
Zigoitia .....	4
Amurrio.....	3
Laudio.....	2
Arrazu-Ubarrundi .....	1
Barrundia .....	1
Berantevilla.....	1
Iruña .....	1
Bastida .....	1
Biasteri.....	1
Lantaran .....	1
Valdegovia.....	1
<hr/>	<hr/>
GUZTIRA.....	72

(Ikus 8. diagrama 161. orrialdean)

### Bizkaia

Bilbo .....	32
Basauri.....	6
Galdakao .....	4
Getxo.....	4
Santurtzi.....	4
Erandio .....	3
Alonsotegi .....	2
Etxebarria.....	2
Barakaldo .....	2
Gorliz.....	2
Igorre.....	2
Orduña.....	2
Amorebieta-Etxano.....	1
Durango.....	1
Ermua .....	1
Gautegiz-Arteaga.....	1
Gernika-Lumo.....	1

Ibarrangelu .....	1
Urtuella .....	1
Sopela .....	1
Trapagaran .....	1
	<hr/>
GUZTIRA .....	74

(Ikus 9. diagrama 162. orrialdean)

### Gipuzkoa

Donostia .....	23
Irun .....	7
Hondarribia .....	6
Errenteria .....	4
Eibar .....	3
Hernani .....	3
Oiartzun .....	3
Tolosa .....	3
Deba .....	2
Elgeta .....	2
Ordizia .....	2
Pasaia .....	2
Aduna .....	1
Alegia .....	1
Ataun .....	1
Bergara .....	1
Lasarte-Oria .....	1
Lezo .....	1
Oñati .....	1
Orio .....	1
Zarautz .....	1
Billabona .....	1
	<hr/>
GUZTIRA .....	70

(Ikus 10. diagrama 163. orrialdean)

## Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren kontra aurkeztutako kexak sailez sail

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren jardueraren edo isiltasunaren kontra aurkeztutako kexak alor hauei dagozkie: Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Hezkuntza eta Osasuna; hauek 1992an Administrazioaren kontra aurkeztutako kexen %74,4 izan dira, aurreko urtealdian alor horiek lortu zuten portzentaia hamairu puntu baino gehiagoz gaindituta geratu delarik.

Aipatutako hiru alorretan gehitu da oro har erreklamazioen kopurua, eta beherakadarik nabarmenena justizia eta herrizaingoari buruzkoetan gertatu da.

	Zenbat kexa jaso	%
Hezkuntza	62	25,9
F.P. eta Adm. antol.	60	25,1
Osasuna eta Giz. Ong..	56	23,4
Hirg. eta Etxeb.	21	8,8
Herrizaingoa	12	5
Lana eta Giz. Segur.	7	2,9
Nek. Ind. Merk. eta Tur.	5	2,2
Herrilan eta Zerb.	5	2,2
Kultura eta Zerb.	4	1,7
Ingurugiroa	3	1,2
Ogasuna	3	1,2
Justizia	1	0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>239</b>	<b>100</b>

(Ikus 11. diagrama 164. orrialdean)

## Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak sailez sail

Ohizkoa den bezala, foru aldundien kontra aurkeztutako kexen artetik Arartekoan jasotzen diren gehienak Ogasun alorrari buruzkoak dira. Nahiz 1992an atal honetan beherakada txiki bat egon, batez ere Bizkaian izandako jaitsierak eragina, foru administrazioen kontrako kexen ia erdia foru ogasunei dagokie.

Azpimarragarria da, orobat, Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo alorretan izandako beherakada, Araban bakarrik gertatu dena, eta



bestalde, Osasun eta Gizarte Ongizate eta Herrilanak eta Zerbitzuekin zerikusia duten kexetan izandako gorakada.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna	9	7	10	26	42
Osasuna eta Giz. Ong.	3	6	3	12	19,4
Herrilan eta Zerb.	-	6	3	9	14,5
Nek. Ind. Merk. Tur.	2	2	3	7	11,3
F.P. y Adm. Antol.	1	2	-	3	4,8
Hirig. eta Etxeb.	-	1	2	3	4,8
Kultura eta Elebit.	-	1	1	2	3,2
Ingurugiroa	-	-	-	-	-
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-	-
Hezkuntza	-	-	-	-	-
Herrizaingoa	-	-	-	-	-

(Ikus 12. orrialdean 165. orrialdean)

### Udalen aurkako kexak sailez sail banaturik

1991n ez bezala, gure Autonomi Komunitateko toki-administrazio ezberdinen kontra hiritarrek aurkeztu dituzten kexa guztien artean Ingurugiro alorrek Hirigintza eta Etxebizitza gainditu egin du aurten. Bi alorrek aurten ia berdin ageri dira, eta udalen kontra aurkeztutako kexen %50,2 dira.

Ingurugiroari buruzko kexen gehikuntza batez ere Araban kokatu da, eta Gipuzkoan, aldiz, hirigintza edukia zutenak jaitsi egin dira piska bat. Herrizaingoari nahiz Kultura eta Elebitasunari dagozkien alorretan ere beherakada nabaritu da; Osasun eta Gizarte Ongizate eta Funtzio Publiko eta Administrazioaren Antolakuntzan ordea, gora egin da.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ingurugiroa	25	17	17	59	27,3
Hirig. eta Etxeb.	15	24	19	58	26,9
F.P. y Adm. Antol.	6	7	11	24	11,1
Herrilan eta Zerb.	10	3	4	17	7,9
Ogasuna	7	3	7	17	7,9
Herrizaingoa	3	6	6	15	6,9
Osasuna eta Giz. Ong.	4	8	2	14	6,5
Hezkuntza	2	6	-	8	3,7
Kultura eta Elebit.	-	-	4	4	1,7
Nek. Ind. Merk. Tur.	-	-	-	-	-
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-	-

(Ikus 13. diagrama 166. orrialdean)

#### 4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Aurreko urteetan bezala, 1992ko urtean Arartekoari kexa gehien aurkeztu dizkietenak Bizkaiko lurralde historikoko hiritarrak izan dira. Horretaz gain, azken urtealdi honetan Bizkaitik aurkeztu diren kexak hamairu puntutan igo dira 1991koarekin konparatuz.

Araba da halere, iaz bezala, aurkezturiko kexen portzentaian gorakadarik handiena egin duena, kexen guztizko kopuruan Gipuzkoarekin zeukan alde handia murriztuz.

Erakunde honek jardunean daramatzen lau urteetan jasotako kexen lurralde-banaketari buruzko bilakaera taulan ikusten da Bizkaitik bidaltzen diren erreklamazioen kopurua etengabe hazten dela, Gipuzkoan portzentaiak orain bere-berean daudela eta Arabako hiritarrek aurkeztutako kexa kopurua etengabe eta nabarmenki goruntz doala.

##### Kexen jatorria

	1989	1990	1991	1992	Joera
Bizkaia	288	284	293	332	%+13,3
Gipuzkoa	188	195	244	241	%-1,2
Araba	97	125	158	201	%+27,2

(Ikus 14. diagrama 167. orrialdean)

##### Kexen jatorria

Bestalde, Arartekoari aurkeztu zaizkion kexen jatorria hiru lurralde historikoetako hiriburuetan kokatzen da nagusiki. Nagusitasun hau Araban nabaria da, Gasteiztik egin baitira bost erreklamaziotatik lau; Bizkaia eta Gipuzkoako kopuruak txikiagoak dira, nahiz eta Bilbok duen garrantzia nabaria izan Bizkaiko gainerako biztanle kopuruarekin erkatuz gero.

	Zenbat	%
<b>Araba</b>		
Gasteiz.....	165	82,1
Beste udalerriak.....	36	17,9
	<hr/>	<hr/>
	201	100

	Zenbat	%
<b>Bizkaia</b>		
Bilbo.....	166	50
Beste udalerriak.....	166	50
	332	100
<b>Gipuzkoa</b>		
Donostia.....	82	34
Beste udalerriak.....	159	66
	241	100

(Ikus 15. diagrama 168. orrialdean)

### Euskal Autonomi Komunitateaz kanpotik iritsitako kexak

Euskal Autonomi Komunitatetik kanpo bizi direnek aurkeztutako kexei dagokienez, 1992an Nafarroatik iritsi zaigu bat, eta beste hiru Europako zenbait Estatutatik. Nolanahi ere, aurreko urtealdiaren ondoan, erdira jaitsi dira aurten kanpotik iritsitako kexak.

Castilla-Leongo A.K. ....	2
Errusia.....	1
Catalunyako A.K. ....	1
Asturiasko Printzerria.....	1
Frantzia.....	1
Cantabriako A.K. ....	1
Nafarroako Foru Komunitatea .....	1
	9

### Kexak 10.000 biztanleko

Lurralde historiko bakoitzean aurkeztutako kexei buruzko datuak hobeto ulertzeko, datu horiek herrialde bakoitzeko biztanle kopuruarekin erkatu behar dira, eta horrek erakusten digu lurralde bakoitzeko biztanleek zein mailatan josten duten Ararteko Erakundera.

Horrela, 10.000 biztanleko aurkezten den kexa-kopuruari dagokionez, nabarmena da Arabaren nagusitasuna Arartekoak bideratu dituen espedientee-tan. Garbi dago, Erakundearen egoitza Gasteizen egotearekin batera Arabako

biztanle gehienak hiriburu horretan bizi zanean, biztanle arabarrei eskurago geratzen zaiela Arartekoa, urtez urteko bilakaeran ikus daitekeen bezala, beraien partaidetza gero eta handiagoa delarik.

Ararteko Erakundearen kexa-kopuruari begira nagusi den bigarren lurralde historikoa Gipuzkoa da bigarren urtez jarraian, 1991ko partaidetza kuota berdintsuarekin. Bizkaiari dagokionez, gorakada txiki bat ikusten da bere ratioan, eta horri esker Arartekoaren lehen bi urteetako mailetara iristen da berriro.

	1989	1990	1991	1992
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4
Bizkaia	3	2,9	2,5	2,8
Gipuzkoa	3,3	2,7	3,6	3,5

(Ikus 16. diagrama 169. orrialdean)

#### 4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA

Euskal administrazio publikoen kontrako kexengatik 1992. urtean bideratutako 517 espedienteetatik erdia baino gehiago aurkeztu diren urtean bertan konpondu dira, eta abenduaren 31n beste 251 espediente geratzen ziren artean biderapenean. Datu horiek ulertzeko, aintzat hartu behar da aipatu urteko azken egunerarte euskal administrazio publikoen kontra aurkeztutako kexa guztiak sartzen direla txostenean.

Erabat burutu eta artxibatutako kexen artean, Arartekoak erreklamatzaileriei eman die arrazoia %40an; aldiz, kasuetatik %47an, Administrazioaren jardura zuzena izan dela ebatzi da.

	Zenbat	%	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Biderapenean	251	48,5			
Bukatuak	266	51,5	110	124	32

(Ikus 17. eta 18. diagramak 170. eta 171. orrialdeetan)

1992an zabaldu eta urte berean amaitu diren 266 espedienteez gain, aztertzen ari garen urtealdian beste 259 kexen tramitazioak ere burutu dira, eta horietako gehienak 1991ko azken sei hilabeteetan aurkeztutakoak ziren.

### 1992. urtean bukatutako espedientak bideratzen hasitako urteen arabera

1989.....	13
1990.....	22
1991.....	224
1992.....	266
GUZTIRA.....	525

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak

1992an hasi eta amaitutako kexen gaietako bagagozkie, ikusten da nagusiki Osasunaren eta Ingurugiroaren alorretan eman zaiela arrazoia erreklamatzailerei.

	Biderapenean	Bukatuak	Kexadura zuzen	Kexadura oker	Besterik
F.P. eta Adm. Antol	47	40	10	22	8
Hirig. eta Etxeb.	46	36	11	20	5
Osasuna eta Giz. Ong.	41	41	22	17	2
Hezkuntza	36	34	17	16	1
Ingurugiroa	28	34	22	5	7
Ogasuna	18	28	13	13	2
Herrilan eta Zerb.	15	16	7	6	3
Herrizaingoa	7	20	4	15	1
Nek. Ind. Merk. Tur.	2	10	2	7	1
Kult. eta Elebit.	7	3	1	-	2
Lana eta Giz. Segur.	4	3	-	3	-
Justizia	-	1	1	-	-
GUZTIRA	251	266	110	124	32

(Ikus 19. eta 20. diagramak 172. eta 173. orrialdeetan)

## Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren prozedurazko estatistika

1992ko urtealdian Eusko Jaurlaritzako administrazioen kontra aurkeztutako kexetatik guztira 114 bideratu eta amaitu dira, eta horietatik 49 kasutan erreklamatazileei eman zaie arrazoia eta 54 kasutan, berriz, Administrazioari. Beraz, 127 kexa-espeditente daude oraindik biderapenean.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Eusko Jaurlaritza.

	Biderapenean	Bukatuak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
F.P. eta Adm. Antol.	38	22	9	10	3
Hezkuntza	34	28	13	14	1
Osasuna eta Giz. Ong.	33	23	18	4	1
Hirig. eta Etxeb.	7	14	1	12	1
Herrizaingoa	1	11	4	6	1
Lana eta Giz. Segur.	4	3	-	2	1
Nek. Ind. Merk. Tur.	1	4	-	4	-
Herrilan eta Zerb.	2	3	2	1	-
Kult. eta Elebit.	1	3	1	-	2
Ingurugiroa	2	1	-	-	1
Ogasuna	2	1	-	1	-
Justizia	-	1	1	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>125</b>	<b>114</b>	<b>49</b>	<b>54</b>	<b>11</b>

(Ikus 21 eta 22 diagramak 174. eta 175. orrialdeetan)

### Foru Administrazioaren prozedurari buruzko estatistika

Hiru foru aldundietakoren baten kontra hasitako hiru espedientetatik biren tramiteak amaitu dira 1992an, eta 17 kasutan jo dira zuzentzat hiritarrek azaldutako argudioak.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Foru Administrazioa

	Biderapenean	Bukatuak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ogasuna	10	16	8	7	1
Osasuna eta Giz. Ong.	2	10	3	7	-
Herrilan eta Zerb.	3	6	2	3	1
Nek. Ind. Merk. Tur.	1	2	-	1	1

	Biderapenean	Bukatuak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
F.P. eta Adm. Antol.	1	2	1	1	-
Hirig. eta Etxeb.	1	6	3	2	1
Kult. eta Elebit.	2	-	-	-	-
Ingurugiroa	-	-	-	-	-
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-	-
Hezkuntza	-	-	-	-	-
Herrizaingoa	-	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>	<b>42</b>	<b>17</b>	<b>21</b>	<b>4</b>

(Ikus 23. eta 24. diagramak 176. eta 177. orrialdeetan)

### Udal Administrazioaren prozedurari buruzko estatistika

Gure Autonomi Komunitateko udalen kontra aurkeztutako erreklamazioei dagokienez, 1992an ezarritako 216tik 119ren tramiteak burutu dira, eta horietatik 45etan onartu dira azkenik salatzailearen argudioak.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Udal Administrazioa

	Biderapenean	Bukatuak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ingurugiroa	27	32	22	5	5
Hirig. eta Etxeb.	28	30	9	17	4
F.P. eta Adm. Ant.	8	16	1	11	4
Herrilan eta Zerb.	10	7	3	2	2
Ogasuna	6	11	5	5	1
Herrizaingoa	6	9	-	9	-
Osas. eta Giz. Ong.	6	8	1	6	1
Hezkuntza	2	6	4	2	-
Kult. eta Elebit.	4	-	-	-	-
Nek. Ind. Merk. Tur.	-	-	-	-	-
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>97</b>	<b>119</b>	<b>45</b>	<b>57</b>	<b>17</b>

(Ikus 25. eta 26. diagramak 178. eta 179. orrialdeetan)

#### 4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA

1992ko urtean zehar Ararteko Erakundearen kexak aurkeztu dituzten hiritarren ezaugarri soziologiko ezberdinei begira, erreklamatzailerak nolako den zehazten lagunduko dituzten argibideak emango ditugu jarraian.

Urte honetan Arartekoarengana jo duten kexa-aurkezleen sexuari dagokionez, oraindik ere kexen erdiak baino gehiago gizonak aurkezten dituztela esan behar da; halere, bi sexuen arteko aldea aurreko urtealdian baino txikiagoa izan da. Bestalde, taldeen izenean aurkeztu den kexa kantitatea 1991koaren antzekoa izan da.

<b>Sexua</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gizonak	450	57,5
Emakumeak	253	32,3
Taldeak	80	10,2

(Ikus 27. diagrama 180. orrialdean)

Gure Autonomi Komunitatean bi hizkuntzak, euskara eta gaztelera ofizialak direnez, hiritarrek bietako edozeinetan jo dezakete Arartekoarengana. Horrela, 730 kexa gazteleraz aurkeztu dira, eta beste 53, berriz, euskaraz edo bi hizkuntzetan aldi berean. 1991ko urtealdiaren aldean, euskaraz aurkeztutako kexak zertxobait ugari dira.

<b>Hizkuntza</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gazteleraz	730	93,2
Euskaraz	51	6,5
Elebidunak	2	0,3

(Ikus 28. diagrama 180. orrialdean)

Azkenik, kexak aurkezteko moduari dagokionez, arazoa azaltzen duen gutuna bidali ohi zaio Arartekoari. 1992an, aurreko urtean aurkeztu zen kexa kopuru berdintsua jaso dugu idatziz; erreklamatzailerak egoitzara etorri zuzenean aurkeztu dituzten ahozko kexak, berriz, gehiago izan dira.



<b>Aurkezpena</b>	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Ahoz	163	20,8
Idatziz	620	79,2

(Ikus 29. diagrama 181. orrialdean)

#### 4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA

1992an Erakundera keak ahoz aurkeztera etorri diren pertsonen kopurua aurreko urtekoaren antzekoa izan da, eta horrek esan nahi du euskal hiritarrek zerbitzu horri ematen dioten erabilera finkatu egin dela.

1992an 436 bisita hartu ziren Erakundean, hilean batzaz-beste 36,33. Horietatik 166k, hau da, bisiten %38ak, kexa-espeditente bana irekiarazi zuten. Gainontzekoek, aurrez gestioak egitea edo agiri gehiago aurkeztea eskatzen zuten, edo Arartekoaren ahalmen-eremutik kanpo zeuden.

Bisita horiek egitera gehienak bakarrik etorri dira (%71), baina %30 beste norbaitekin agertu dira. Horrela, Arartekoaren bulegora 586 pertsona etorri dira, eta horietatik %51 emakumeak izan dira eta gainontzeko %49, gizonak.

#### Izandako bisitak

	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Banaka	311	71
Taldeka	125	29
<b>GUZTIRA</b>	<b>436</b>	<b>100</b>

(Ikus 30. diagrama 182. orrialdean)

#### Etorri diren pertsonen kopurua

	<b>Zenbat</b>	<b>%</b>
Gizonak	288	49
Emakumeak	298	51
<b>GUZTIRA</b>	<b>586</b>	<b>100</b>

(Ikus 31 diagrama 183. orrialdean)

Pertsona horien ezaugarri sozio-kulturalei bagagozkie, esan dezakegu Erakundera etorri diren pertsona gehienek gizarte eta kultur ezaugarriak erdi mailakoak direla.

Adinari dagokionez, 35 eta 46 urte bitarteko adina duten erreklamatzailerak dira nagusi, jarraian 47-59 urte bitartekoak daude, eta hirugarren postuan 24 eta 34 urte bitartean dituztenak. 24 eta 59 urte bitartekoak Erakundera jo duten pertsona guztien %80 izan dira. 60 urtetik gorakoak %14,7 dira, eta 22 urtetik beherakoak, %5,3.

### Pertsonen sailkapena adin taldeen arabera

Adina	Zenbat	%
22 urte arte	31	5,3
24-34	129	22
35-46	185	31,6
47-59	155	26,4
60 edo gehiago	86	14,7
	586	100

Bisiten kopurua ez da berdin banatzen urtean zehar. Pertsona gehienak ekainean etorri dira, 65, eta udaran eta jai bereziak dauden hilabeteetan beherakada normala antzematen da.

### 1992an Erakunde hartutako bisitak

Urtarrila	44
Otsaila	51
Martxoa	37
Apirila	26
Maiatza	45
Ekaina	65
Uztaila	24
Abuztua	20
Iraila	23
Urria	33
Azaroa	29
Abendua	39
<b>GUZTIRA</b>	<b>436</b>

(Ikus 32. diagrama 184. orrialdean)

Aurten berriro azpimarratu behar dugu Erakundearen egoitza Gasteizen egoteak daukan eragina, bisita guztien %65 hiri horretan bizi diren pertsonak izan direlako (eta hiri horren biztanlegoa EAeko %13 da). Horrela ulerzen da bisiten %74 arabarrenak izatea eta, bizkaitarrenak eta gipuzkoarrenak berriz, %16 eta %9,6 izatea hurrenez hurren.

### Bisitarien jatorri geografikoa lurralde historikoen arabera

	Zenbat	%
Araba	322	73,9
Bizkaia	70	16
Gipuzkoa	42	9,6
Beste batzuk	2	0,5
GUZTIRA	436	100

(Ikus 33. diagrama 185. orrialdean)

- Gasteiz: bisita guztien %65,3 eta Arabakoan ..... %88,5.
- Bilbo: Bizkaiko bisita guztien ..... %45,7.
- Donostia: Gipuzkoako bisita guztien..... %14,3.

### Bisitarien jatorri geografikoa

#### Araba

Amurrio .....	2
Aramaio.....	3
Ariñez.....	1
Berantevilla .....	5
Cigoitia.....	1
Iruña de Oca .....	1
Labastida .....	3
Laguardia.....	2
Llodio.....	4
Luku.....	2
Nabaridas.....	2
Oion.....	2

Okondo .....	3	
Peñacerrada .....	1	
Respalditza .....	1	
Salvatierra .....	2	
Urturi .....	1	
Gasteiz .....	285	%88,5
Zuya .....	1	
	<hr/>	
GUZTIRA .....	322	

### Bizkaia

Amorebieta .....	1	
Arrigorriaga .....	1	
Barakaldo .....	5	
Basauri .....	3	
Bilbo .....	32	%45,7
Durango .....	1	
Erandio .....	2	
Ermua .....	1	
Getxo .....	7	
Gordexola .....	1	
Igorre .....	2	
Leioa .....	3	
Lemoa .....	1	
Ondarroa .....	1	
Orduña .....	1	
Portugalete .....	2	
Santurtzi .....	1	
Sestao .....	1	
Sopela .....	2	
Zaldibar .....	1	
Zalla .....	1	
	<hr/>	
GUZTIRA .....	70	

### Gipuzkoa

Albiztur .....	1
Arrasate .....	1
Ataun .....	1
Beasain .....	2

Bergara.....	4	%14,3
Donostia .....	6	
Eibar.....	2	
Elgeta .....	1	
Eskoriatza .....	2	
Irun .....	4	
Lazkao.....	1	
Legazpia .....	1	
Lezo .....	1	
Oiartzun.....	1	
Ordizia.....	5	
Ormaiztegi .....	1	
Pasaia.....	3	
Errenteria.....	4	
Zumarraga .....	1	
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>42</b>	

### Beste batzuk

Iruñea.....	1
Añastro (Trebiño).....	1
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>2</b>

Hauek dira, bestalde, azaldu diren arazoak:

	Zenbat	%
- Euskal Adm. publikoaren aurka	262	60
- Onartu ez direnak	101	23
- Beste adm. publiko batzuk	31	7
- Esped. biderapen egoerari buruzko kontsulta	42	10
	436	100

Euskal Administrazio publikoaren jarduerarekin zerikusirik duten arazoek sorrarazi dituzte aztertutako kexa gehienak: 262, %60 hain zuzen.

Kexa horiek interes guneen arabera sailkatuz, lau multzo bereiz ditzakegu: lehenengoan, %40arekin, Osasun eta Gizarte Ongizatea nahiz Hirigintza eta Etxebizitza sailak daude. Bigarreanean, Funtzio Publikoa, Hezkuntza eta Ingurugiroa sailai dagozkienak, guztien %33arekin. Hirugarren multzoan, %17arekin, Ogasunari, Herrilan eta Zerbitzuei eta Herrizaingoiari dagozkienak. Eta azkenik, %10arekin, Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa, Kultura eta beste batzuei buruzko gaiak daude.

### Bisitetarako arrazoiak sailen arabera

Saila	zenbat
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	58 40%
Hirigintza eta Etxebizitza	47
Funtzio Publikoa	35
Hezkuntza	26 33%
Ingurugiroa	26
Ogasuna	20
Herrilanak eta Zerbitzuak	14 17%
Herrizaingoa	11
Nek., Ind., Merk., eta Turismoa	8
Kultura eta Elebitasuna	5
Lana	2 10%
Beste batzuk	8
Justizia	2
	262

(Ikus 34. diagrama 186. orrialean)

Aurkeztu diren beste arazo asko, berriz, guztira 101 (%23), ez dira onartu partikularren arteko auziak zirelako (79) edota epaia eman zain edo epaia emanda zeudelako (22).

31 kasutan, Estatuaren Administrazioarekin erlazionatutako arazoak azaldu dira, eta Gizarte Segurantzari eta Estatuaren klase pasiboari dagozkie. Hauxe da horien banaketa:


Gizarte Segurantza eta Estatuaren klase pasiboak	20
Herrizaingoa	2
Espetxeak	3

Soldadutza	3
Beste batzuk	3
	<hr/> 31

Azkenik, 42 bisiten helburua, Erakunde honetan bideratzen ari ginen espedienteen egoeraren berri jakitea izan zen.


Bestalde, iaz bezalaxe, aurten ere azpimarratu behar da larrialdietarako plana martxan dagoela, eta zerbitzu horretaz baliatzeko Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko SOS-Deiak zerbitzuko 088 telefono zenbakira deitu behar dela. Arartekoaren zerbitzu osagarri hori noizean behin erabiltzen da; horren bidez, ohizko lanorduetatik kanpo, hiritarrak kexa aurkezteko zer egin behar duen jakin dezake, edo SOS-Deiako arduradunei kasua larria dela iruditzen bazaie, beharrezko gestioak egiten dituzte pertsona horrek Erakundearen laguntza zuzenean jaso dezan.

IDAZKIEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE  
URTARRILAK 1-ABENDUAK 31 BITARTEKO ALDIAN



1. DIAGRAMA






2. DIAGRAMA


\* Ikus oharra IV. atalean, 128. orrialdean

KEXEN EGOERA ONARPEN PROZEDURAREN ONDOREN




3. DIAGRAMA

# EZEZTUTAKO KEXEN BANAKETA




4. DIAGRAMA

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN  
 AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL




5. DIAGRAMA

ADMINISTRATIOEN ARABERAKO KEXEN  
BANAKETA




6. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO  
BANAKETA




7. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA ARABAN UDALEZ UDAL



8. DIAGRAMA


KEXEN BANAKETA BIZKAIAN UDALEZ UDAL



9. DIAGRAMA




KEXEN BANAKETA GIPUZKOAN UDALEZ UDAL




10. DIAGRAMA

JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO  
KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL




11. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN AURKA AURKEZTATUKO  
KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL




12. DIAGRAMA

UDAL ADMINISTRAZIOEN AURKA AURKEZTUTAKO  
KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL



13. DIAGRAMA


KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA



1989
  1990
  1991
  1992

14. DIAGRAMA


KEXEN BANAKETA LURRALDE BAKOITZEAN



HIRIBURUA     
 
 BESTE UDALAK

15. DIAGRAMA



KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO  
LURRALDE BANAKETA 10.000 BIZTANLEKO



1989
  1990
  1991
  1992

16. DIAGRAMA


BUKATUAK  
266



BIDERAPENEAN  
251




BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA EMAITZAREN  
ARABERA




18. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN  
DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL




19. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




20. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA:  
 BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN  
 BANAKETA SAILEZ SAIL




21. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




22. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL




23. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN  
BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA



24. DIAGRAMA


UDAL ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN  
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA  
SAILEZ SAIL



25. DIAGRAMA




UDAL ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




26. DIAGRAMA

### KEXEN BANAKETA KEXADUNAREN ARABERA




27. DIAGRAMA

### KEXEN BANAKETA HIZKUNTZAREN ARABERA




28. DIAGRAMA

KEXAK AURKEZTEKO MODUA



29. DIAGRAMA



ERAKUNDEAK JASOTAKO BISITALDIAK



30. DIAGRAMA

GIZONEZKOAK

288




EMAKUMEZKOAK

298


31. DIAGRAMA

ERAKUNDEAK JASOTAKO BISITALDIEN  
BANAKETA HILABETEZ HILABETE




32. DIAGRAMA

# BISITARIEN JATORRIA



33. DIAGRAMA

BISITALDIEN ARRAZOIA SAILEZ SAIL



34. DIAGRAMA



V. ATALA

**ADMINISTRAZIOAREN SAIL  
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE  
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**

Arartekoari legez agindu zaion zeregina bete dezan, biderapenean dauden kexekin zerikusia duten administrazio sailen lankidetzak behar du, eta horretarako, informazio eskaera luzatzen die beroriei, hiritarrak aurkeztutako arazoari Erakunde honek erantzun zuzena eman diezaion.

Oro har esan daiteke administrazio publikoen jarrera Erakunde honek luzatzen dizkien eskaerak betetzearen aldekoa izaten dela. Hala ere, ez dira falta izan espedientearen biderapenaren kaltetan gertatu diren arrazoi gabeko luzamenduak, eta horrek, ondorioz, bai Erakundearekiko bai hiritarrenaganako begiramen eza adierazteaz bat, gogoz kontrako atzerapena ekarri du kexaren ebazpena emateko garaian.

Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, bere 24. artikuluan, eskumena ematen dio Arartekoari urteroko Txostenean ager ditzan, kexen ikerlanean lankidetzak jarrera zaborra edo eragozlea agertu duten funtzionari, agintari eta langileak; baita entrepresa kontzesionarien edota Administrazioaren babespean dauden bestelakoen arduradunak ere; era berean, Arartekoari, bere ikerlanerako beharrezkoak deritzen dokumentazioa eta administrazio espedienteak ezagutzeko bidea itxi diotenak.

Ondoren, 1992 urtean zehar Erakundearen informazio-eskaerei edota ondorengo errekerimenduei derrigorrez erantzun beharra bete ez duten jardute-sailak zehazten dira.

Horri buruz, egiaztatu dugunez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Herrizaingoa eta Hezkuntza izan dira, elkarlanerako jarrera txarragatik Arartekoaren errekerimendu gehien sorrarazi duten administrazio sailak joan den urtealdian.

Foru administrazioei dagokienean berriz, Ogasun eta Finantzak, Gizarte Ongizatea eta Garraioak izan dira errekerimendu gehien jaso dituztenak.

Azkenik, udalen kasuan, Gasteizko Alkateak, Bilbokoak eta Irungoak agertu dute lankidetzak mailarik baxuena.

Jarraian azaltzen diren zerrendetan, lehen datak, informazio eskaera egin zeneko data adierazten du.

Bestalde, B eta E letrek kexa-espedientearen egoeraren berri ematen dute, bukatua (B) ala ez bukatua (E) dagoen alegia.

Bosgarren atal honen bigarren sailean, Arartekoak eskaturiko informazioa erantzuteko bi errekerimendu edo bi baino gehiago bidali behar izan zaien agintarien zerrenda zehazten da; demokrazia kezkarik ezaren sailkapenean txapeldun geratu diren horiek, hiritarraren babesa xede duen Erakunde honekikoan eta, azken batean, hiritarrenaganako ere mesprezu itzela adierazi dute,

horregatik, jokaera onartezin horien aipamen berezia egin behar izan dugu gaitzespen gisa.

Azkenik, atal honen hirugarren sailean, hainbat administrazio zerrendatu ditugu, kebaren bukaerako ebazpena eman ondoren zegokion Administrazioak zer erizten zion jakiteko eta, aldi berean, Arartekoak berorren jarrera hiritarri jakinaraztearren errekerimendua bidali behar izan zaienak.

## 5.1. **ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

### A) **Eusko Jaurlaritza**

#### **Industria eta Energia Saila**

*Bizkaiko Industriako Lurralde Ordezkaria*

386/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-06-11 (1) 92-03-03

#### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

*Hezkuntzako Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

62/90 - B - Zentru publiko bat egokitzea.  
90-09-13 (1) 92-01-29  
166/92 - B - Korrespondentzia pribatua Ordezkaritzan.  
92-03-24 (1) 92-11-27

#### **Herrizaingo Saila**

*Bidezaingo Zuzendaria*

646/91 - B - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
91-10-29 (1) 92-05-15  
87/92 - B - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
92-02-12 (1) 92-05-13

*Bizkaiko Bidezaingo Zuzendaria*

292/92 - B - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
92-05-19 (1) 92-09-29

## Ogasuna eta Finantza Sails

### *Serbitzu burua*

604/92 - E - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
92-10-15 (1) 92-12-01

## Osasun Sails

### *Osasun Sailburua*

238/90 - E - Behin-behineko praktikantea.  
90-05-08 (1) 92-09-02

### *Osakidetzako Zuzendari Nagusia*

284/91 - E - Sendagileak metatutako plazarekin.  
91-04-26 (1) 92-12-30

664/91 - B - Traslado eskaria ukatu.  
91-11-06 (1) 92-01-29

766/91 - E - Lan baldintzak ospitalean.  
91-11-18 (1) 92-09-01

207/92 - E - Itxarote zerrenda ekografia bat egiteko.  
92-04-13 (1) 92-11-24

277/92 - E - Barne sustapena.  
92-05-15 (1) 92-09-29

318/92 - E - Aldi baterako plazak okupatzea.  
92-05-28 (1) 92-10-13

360/92 - B - Gastuen itzulera.  
92-06-10 (1) 92-08-20

559/92 - E - Pediatraren asistentziarekin ados ez.  
92-09-21 (1) 92-12-01

597/92 - B - Gastuen itzulera.  
92-10-09 (1) 92-12-01

### *Osakidetzaren Arabako Barrutiko Zuzendaria*

625/91 - E - Gastuen itzulera.  
91-10-18 (1) 92-01-14

## Garraio eta Herrilan Sails

### *Eusko Trenbideen kontseilari ordezkaria*

294/92 - E - Ume-kotxeak EE.TT.etan.  
92-05-20 (1) 92-10-13

## **Euskal Herriko Unibertsitatea**

*Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea*

439/92 - E - Irakasle postuei buruzko ebazpena.  
92-08-07 (1) 92-09-29

### **B) Foru Aldundiak**

#### **- Arabako Foru Aldundia**

##### **Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

*Arabako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Foru Diputatua*

354/92 - B - Kitapena haurtzaindegi gastuengatik.  
92-06-08 (1) 92-09-01

#### **- Bizkaiko Foru Aldundia**

*Bizkaiko Foru Diputatua*

240/91 - B - Osasunbide zerbitzuak ezartzearen aurka.  
91-04-11 (1) 92-01-29

##### **Ogasun eta Finantza Saila**

*Ogasun eta Finantza Foru Diputatua*

388/91 - B - NUIZ zerga itzultzeko epeak.  
91-06-11 (1) 92-09-01

188/92 - B - Institutu baten eraikuntzan atzerapena.  
01-04-92 (1) 01-12-92

##### **Kultura Saila**

*Kultura Foru Diputatua*

671/91 - B - Alde zaharra birregokitzeko plan berezia.  
91-11-11 (1) 92-02-10

## **Gizarte Ongizate Sails**

### *Gizarte Ongizate Foru Diputatua*

- 571/91 - B - Zaharretxeko zuzendariaren gestioarekin ezadostasuna.  
91-09-25 (1) 92-01-29
- 259/92 - E - Elbarritasun maila.  
92-05-08 (1) 92-07-06

## **Garraio Sails**

### *Garraio Foru Diputatua*

- 387/91 - B - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
91-06-11 (1) 92-11-24
- 358/92 - B - Garraio publikoa.  
92-06-09 (1) 92-11-24

## **- Gipuzkoako Foru Aldundia**

### **Lehendakaritza eta Lege-Jaurpide Sails**

#### *Lehendakaritzako Foru Diputatua*

- 847/89 - B - Lanpostuen organigrama ez argitaratzea.  
89-12-26 (1) 92-03-06

### **Ogasun eta Finantza Sails**

#### *Ogasun eta Finantza Foru Diputatua*

- 288/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-09-01
- 289/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-09-01
- 290/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-09-01
- 291/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-09-01

## **Nekazaritza eta arrantza Saila**

*Nekazaritza eta Arrantza Foru Diputatua*

537/92 - B - Ehizerako postuak.  
92-09-09 (1) 92-12-01

### **C) Udalak**

#### **- Arabako Lurralde Historikoa**

*Amurrioko Alkatea*

131/92 - E - Konturik gabeko isurketak Nerbioi ibaira.  
92-03-02 (1) 92-05-13

*Barrundiako Alkatea*

3/92 - E - Udalaren lurretan ur potzu batek eragindako kalteak.  
92-01-08 (1) 92-05-13

*Llodioko Alkatea*

433/92 - E - Langileen kontrako udal agindua.  
92-05-06 (1) 92-10-13

*Gasteizko Alkatea*

422/91 - B - Ibilgailu baten bahikuntza.  
91-06-24 (1) 92-02-10

440/91 - B - Ibilgailu baten bahikuntza.  
91-07-01 (1) 92-02-10

692/91 - B - Udal ordenantzak ez betetzea.  
91-11-20 (1) 92-02-10

54/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-01-31 (1) 92-09-29

56/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-01-31 (1) 92-09-29

324/92 - E - Autoentzako sarrera baimena.  
92-06-01 (1) 92-09-01

383/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-06-15 (1) 92-09-01

399/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-06-18 (1) 92-09-01

- 424/92 - E - Kalez kaleko salmenta.  
92-07-02 (1) 92-10-13
- 455/92 - B - Udalak fiantza ez itzultzea.  
92-07-21 (1) 92-10-13
- 463/92 - E - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
92-07-23 (1) 92-10-13
- 676/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-11-13 (1) 92-12-30

*Cicujanoko Administrazio Batzordeko Presidentea*

- 94/92 - E - Egur pilen banaketa.  
92-02-13 (1) 92-07-06

**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

*Bermeoko Alkatea*

- 386/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-06-11 (1) 92-03-02
- 566/91 - E - Hirigintza arauak ez betetzea.  
91-09-20 (1) 92-09-02

*Bilboko Alkatea*

- 163/91 - B - Etxebizitza, legez kanpoko ezarpenak.  
91-03-01 (1) 92-01-03
- 381/91 - E - Ingurubide autobide projektuaren aurka.  
91-06-07 (1) 92-12-30
- 241/92 - E - Jarduera gogaikarriak.  
92-04-29 (1) 92-06-23
- 371/92 - E - Etxebizitza baten erauzketa.  
92-06-10 (1) 92-11-24
- 697/92 - E - Hirugarren adinekoentzako egoitza etxebizitza batean.  
92-11-25 (1) 93-01-18

*Durangoko Alkatea*

- 550/92 - E - Udalak prezintatutako kamara frigorifikoa.  
92-09-16 (1) 92-12-01

*Erandioko Alkatea*

- 99/92 - B - Eraikuntza egoera txarrean.  
92-02-14 (1) 92-10-13



*Galdakaoko Alkatea*

405/92 - E - Jarduera gogaikarriak.  
92-06-22 (1) 92-10-13

*Igorreko Alkatea*

193/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-03-13 (1) 92-06-17

*Ortuellako Alkatea*

170/90 - B - Udalaren akordioa burutzea.  
90-09-04 (1) 92-03-02

*Portugaleteko Alkatea*

406/91 - E - Garajeak ixteko eskaria.  
91-06-21 (1) 92-11-18  
550/91 - B - Elbarri baten arazoak autoa aparkatzeko.  
91-09-12 (1) 92-01-16

*Santurtziko Alkatea*

648/91 - B - Eskolako patioan hesia aldatzea.  
91-10-29 (1) 92-03-02

*Sopelanako Alkatea*

183/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-03-31 (1) 92-05-15

*Traparango Alkatea*

475/90 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
90-10-01 (1) 92-01-29  
262/91 - B - Garajeko ateak ateratako zaratak.  
91-04-18 (1) 92-01-03

*Zallako Alkatea*

493/92 - B - Lur sail bat erroldaratzea eta telefonoa jartzea.  
92-08-06 (1) 92-11-06

## - Gipuzkoako Lurralde Historikoa

### *Donostiako Alkatea*

- 658/91 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
91-11-04 (1) 92-01-24
- 752/91 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
91-12-20 (1) 92-02-10
- 497/92 - B - Praktiketan zegoen funtzionaria zesatzea.  
92-08-10 (1) 92-12-01

### *Elgetako Alkatea*

- 159/92 - E - Uholdeak baserrian Udalaren obregatik.  
92-03-23 (1) 92-05-08

### *Hondarribiko Alkatea*

- 509/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-08-19 (1) 92-01-29

### *Irungo Alkatea*

- 179/92 - E - Jarduera gogaikarriak.  
92-03-30 (1) 92-10-13
- 285/92 - B - Jarduera gogaikarriak.  
92-05-18 (1) 92-10-13

### *Errenteriako Alkatea*

- 153/92 - E - Argizko iragarki baten kontra.  
92-03-16 (1) 92-12-30

### *Tolosako Alkatea*

- 414/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-06-19 (1) 92-11-20

## **D) Elkargoak**

### *Bizkaiko Abokatuen Kolegio Ofiziala*

- 121/92 - E - Abokatu minuta.  
92-02-27 (1) 92-12-03
- 157/92 - E - Defentsa Ministerioaren kontrako auzia.  
92-03-23 (1) 92-12-03

5.2. **ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO,  
ERREKERIMENDU-IDATZIA BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN  
BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

**A) Eusko Jaurlaritza**

**Herrizaingo Saila**

*Bidezaingo Zuzendaria*

263/92 - B - Bidezaingo Sailaren zigorra.  
92-05-11 (2) 92-09-01 / 92-11-24

**Hirigintza eta Etxebizitza Saila**

*Arabako Hirigintza Ordezkaria*

408/91 - E - Arazoak babes ofiziala duten etxebizitzetan.  
91-06-18 (2) 92-01-14 / 92-02-10

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

*Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea*

109/92 - B - Ikasketen homologazio ofiziala.  
92-09-19 (2) 92-04-09 / 92-05-15

**B) Udalak**

**- Arabako Lurralde Historikoa**

*Aramaioko Alkatea*

315/91 - E - Txoko batean zaratek eta keek eragindako gogaipenak.  
91-05-13 (4) 92-01-03 / 92-02-19 / 92-06-12/  
92-06-25

*Cigoitiako Alkatea*

224/92 - E - Jabego-kentzeak.  
92-04-22 (2) 92-09-02 / 92-09-29

*Gasteizko Alkatea*

335/92 - E - Jarduera gogaikarriak.  
92-06-09 (2) 92-10-13 / 92-11-24

*Berrikanoko Administrazio Batzordeko Presidentea*

224/92 - E - Jabego-kentzeak.  
22-04-92 (2) 02-09-92 / 29-09-92

**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

*Bermeoko Alkatea*

768/91 - B - Udal zerbitzu eza.  
91-12-31 (2) 92-09-29 / 92-11-20

*Bilboko Alkatea*

78/92 - E - Taberna baten irekiera.  
92-02-10 (2) 92-03-26 / 92-10-30

*Elorrioko Alkatea*

553/91 - B - Eskubide eta zergen ordenantza fiskala.  
91-09-16 (2) 92-01-14 / 92-08-13

*Gorlizeko Alkatea*

326/92 - E - Etxepe batean legez kanpoko jarduera.  
01-06-92 (2) 13-10-92 / 24-11-92

*Portugaleteko Alkatea*

287/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-04-26 (3) 92-03-26 / 92-09-29 / 92-11-20

*Traparango Alkatea*

180/92 - E - Garajeko ateak ateratako zaratak.  
92-03-30 (2) 92-10-13 / 92-11-25

## - Gipuzkoako Lurralde Historikoa

### *Azkoitiko Alkatea*

751/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-12-19 (3) 92-02-10 / 92-03-06 / 92-07-06

### *Hondarribiko Alkatea*

389/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-06-11 (5) 92-01-24 / 92-03-06 / 92-04-08 /  
92-09-29 / 92-12-30

### *Irungo Alkatea*

480/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-07-24 (3) 92-06-25 / 92-09-01 / 92-10-13  
502/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-07-24 (3) 92-06-25 / 92-09-01 / 92-10-13  
503/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-07-24 (3) 92-06-25 / 92-09-01 / 92-10-13  
504/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-07-24 (3) 92-06-25 / 92-09-02 / 92-10-13  
472/92 - E - Jarduera gogaikarriak.  
92-07-28 (2) 92-10-13 / 92-11-18

### *Lasarte-Oriako Alkatea*

556/91 - E - Telebista antena jartzeko arazoak.  
91-09-16 (3) 92-01-16 / 92-03-09 / 92-04-08  
721/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-12-05 (2) 92-05-15 / 92-07-06

### *Lezoko Alkatea*

153/92 - E - Argizko iragarki baten kontra.  
92-03-16 (2) 92-09-01 / 92-09-29

### *Zarauzko Alkatea*

576/91 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
91-09-27 (2) 92-02-10 / 92-05-15

**5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARRREN, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

**A) Foru Aldundiak**

**- Gipuzkoako Foru Aldundia**

**Ogasuna eta Finantza Saila**

*Ogasuna eta Finantza Foru Diputatua*

288/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-11-24

289/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-11-24

290/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-11-24

291/92 - B - NUIZi erantsitako karga.  
92-05-19 (1) 92-11-24

**B) Udalak**

**- Arabako Lurralde Historikoa**

*Gasteizko Alkatea*

522/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-08-28 (1) 92-09-29

**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

*Bilboko Alkatea*

559/91 - B - Jasogailuen errebisioa.  
91-09-17 (1) 92-03-09

**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

*Bergarako Alkatea*

649/91 - B - Jarduera gogaikarriak.  
91-10-31 (3) 92-03-09 / 92-06-05 / 92-09-18

*Donostiako Alkatea*

497/92 - B - Praktiketari zegoen funtzionaria zesaraztea.  
92-08-10 (1) 92-10-06

*Irungo Alkatea*

504/91 - E - Jarduera gogaikarriak.  
91-07-24 (2) 92-06-30 / 92-09-01

*Ormaiztegiako Alkatea*

265/91 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
91-04-19 (1) 92-11-20

311/91 - E - Lurrak berriz kalifikatzea.  
91-05-13 (1) 92-11-20

*Zarauzko Alkatea*

576/91 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
91-09-27 (1) 92-09-29

VI. ATALA

**ARARTEKOAK EMANDAKO  
EBAZPENAK BETETZEA**



Bideratutako kexei bukaera ematen dioten Arartekoaren ebazpenenak, hala nola gomendioak, iradokizunak, lege-oharpenak, erreklamatzailari nahiz eragindako agintaritzari jakinarazi behar zaizkie, 3/1985 Legearen 30. eta 31. artikuluek diotenaren indarrez.

Arartekoak behartze-ahalmenik ez izanda ere, administrazio-sailei bidaltzen dizkien ebazpenen bitartez, sail horiek ekintza bat burutu dezaten, edo bestela, herritarren eskubideren bat hausten duela irizten badio, ekintza hori gauza ez dadin ahaleginak egiten ditu.

Arartekoaren ebazpenek betearazte-indarrrik ez izateak esan nahi du herri-administrazioek aukeran dutela ebazpenak betetzea ala ez betetzea; halarere, legebiltzar Goikargudun honek Legebiltzarrari adierazi beharko dio bidalitako ebazpenak zein neurritan bete diren.

Beraz, atal honetan Arartekoaren ebazpenei euskal administrazio ezberdinek eman dizkieten erantzunak biltzen dira, hiru sailetan banaturik: onartuak, ebatzi gabe daudenak eta ez onartuak.

## **A) Eusko Jaurlaritza**

### **Lehendakaritzaren Idazkaritza**

#### *Lehendakaritzaren Idazkari Sailburua*

491/92 - Publizitate ofiziala komunikabideetan.  
Edukia: Publizitatea emateko irizpideak egokitzeko premia.  
Onartua.

## **Industria eta Energi saila**

#### *Bizkaiko Industria Ordezkaritza.*

386/91 - Jarduera gogaikarriak  
Edukia: Industria Ordezkaritzaren baimenik gabe etxebizitza batean berogailua jarri eta funtzionamendua berehala galeraztea. Onartua.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila

### *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua*

- 225/91 - Euskara ikasteko testuak Braille sisteman.  
Edukia: Orain dela urte batzuk Braille sistemara itzulitako euskara ikasteko testuak, edo bestela, irakaskuntza ertainetako institutuetan helburu berarekin erabiltzen diren eta Itsuentzako Errekurtsoetarako Zentruak dauzkan testuak erreklamatzailerak itsuari eskuratzea. Onartua.
- 765/91 - EGA azterketa.  
Edukia: Egindako azterketaren fotokopia lortzea. Ez onartua.
- 28/92 - Lortutako eskubideak.  
Edukia: Zentru bat Administrazioaren eskuetara pasa ondoren lehenagoko soldatak errespetatzea. Ez onartua.
- 41/92 - Autonomoen bekak.  
Edukia: Irabazi garbiei lanbidearteko gutxienezko soldata ez gehitzea. Onartua.
- 296/92 - Eskola publiko batean egindako lanen ordainketa.  
Edukia: Zaratamoko eskola publikoan egindako lanak berehala ordaintzeko eskaria. Onartua.
- 302/92 - EGA azterketa.  
Edukia: Agiria lortzeko atariko probaren arauketa. Onartua.
- 476/92 - Ikasleak onartzeko irizpideak.  
Edukia: Ikasleak onartzeko arauak ikastetxe bateko matrikula egiteko baldintzei egokitu beharra. Onartua.
- 535/92 - Bekak.  
Edukia: Onartzeko baldintzak komunitateko biztanleentzat EEEk finkatutako irizpideei egokitu beharra. Onartua.
- 593/92 - Ikasteko dagoen eskaintza ez betetzea.  
Edukia: Onartutako eskolaratze eskaintzari ikasle kopurua egokitzeko neurriak hartzea eskatzen zaio Sailari. Onartua.

## Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saila

### *Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburua*

- 745/91 - Funtzionarientzako deialdia bertan behera uztea.  
Edukia: Horniketarako prozedurak eraginkortasun eta bizkortasun printzipioei egokitzea. Onartua.
- 10/92 - Traslado lehiaketa.  
Edukia: Postuak betetzeko prozeduran berdintasun printzipioa ezartzea. Ez onartua.

## *Funtzio Publikoaren Sailburuordea*

- 64/92 - Lanpostuetarako titulazioak.  
Edukia: Posturako eskatutako titulazioak aztertzeko proposamena. Onartua.

## **Herrizaingo Saila**

### *Herrizaingo Sailburua*

- 528/91 - Bigarren jarduera Ertzaintzan.  
Edukia: Bigarren jarduera behin betirako arautu arte aldi baterako neurriak onartzea. Onartua.

### *Arabako Trafiko lurralde arduraduna*

- 147/92 - 263/92 - 292/92.-  
Zirkulazio-isuna.  
Edukia: Hiritarrak emandako arrazoiak frogatzea. Onartua.

## **Osasun Saila**

### *Osasun Sailburua*

- 180/90 -357/91.-  
Aldi berean prentsa eta janariak saltzea.  
Edukia: Ogiaren salmentarako osasun araudia bete dadin kontrolatzea, okindegietan eta janari dendetan ogia eta prentsa artikuluak aldi berean saltzea galeraziz, janari dendetan arau horietan iragarritako baldintzak espreski betetzen direnean salbu. Onartua.

### *Osakidetzako Zuzendari Nagusia*

- 343/90 -469/90.-  
Sendagiletan egindako gastuak itzultzea.  
Edukia: Sare pribatuko medikutan egindako gastuak itzultzeko ukapen-ebazpena berriro aztertzea eskatzen da. Ez onartua.
- 305/92 -  
Espedientea ikusteko baimenik ez emateagatik babesik gabe geratzea.  
Edukia: Interesatuak, oposaketako espedientea ikustea eskatu zuen bere helburua lortzeko aukera izatearren. Ez onartua.

- 378/92 - Jakinarazpenean huts egitea eta euskara erabiltzeko eskubidea.  
Edukia: Errekurtso baten ebazpena jakinerazteko orduan egindako hutsegiteen zuzenketa. Onartua.
- 597/92 - Sendagiletan egindako gastuak itzultzea.  
Edukia: Aldez aurretiko baimenez sare pribatura joan eta gero, egindako gastuak itzultzeko eskariak ahal den denborarik laburrenean ebatzi daitezela. Ebatzi gabe.

## **Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila**

### *Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailburua*

180/90 - 357/91.-

Aldi berean prentsa eta janariak saltzea.

Edukia: Ogiaren salmentarako osasun araudia bete dadin kontrolatzea, okindegietan eta janari dendetan ogia eta prentsa artikulua aldi berean saltzea galeraziz, janari dendetan arau horietan iragarritako baldintzak espreski betetzen direnean salbu. Ebatzi gabe.

## **Euskal Herriko Unibertsitatea**

### *Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea*

- 370/92 - Unibertsitatean sarrera 25 urtetik gorakoentzat.  
Edukia: Arau erregulatzailan iragarri eta aintzat hartu ez ziren alderdien balioztapena. Onartua.
- 504/92 - Selektibitate azterketa ikusi ahal izatea.  
Edukia: Azterlariak beren azterketa ikusteko eskubideaz araudi zehatzik ez egonik ere, ez ditzatela ukatu era horretako eskariak eta eskubide hori espreski jaso dadila Unibertsitateko arauetan. Onartua.

## B) Foru Aldundiak

### - Arabako Foru Aldundia

#### Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Foru Diputatua*

Of2/92 - Hartzaindegi gastuei dagokien kenketa.  
Edukia: Ezkontideak ez diren sujetu pasiboeri kenketak onartzea. Ez onartua.

### - Bizkaiko Foru Aldundia

*Diputatu Nagusia*

729/91 - Malmasineko tunelean istripua.  
Edukia: Ondarezko erantzukizun erreklamazioari berarizko ebazpena eman dakiola. Onartua.

#### Ogasun eta Finantza Saila

*Ogasun eta Finantza Foru Diputatua*

751/92 - Sari gehigarria erretiroa lehenago hartzeagatik.  
Edukia: kexadunaren eskariari berarizko ebazpena eman dakiola. Onartua.

### - Gipuzkoako Foru Aldundia

*Ogasun eta Finantza Foru Diputatua*

288/92 - 289/92 - 290/92 - 291/92.-  
NUIZ Enplegua Sustatzeko Fondoak.  
Edukia: Kalteordain batean itzultzen den kopuruari karga fiskalik ez ezartzea. Onartua.

## C) Udalak

### - Arabako Lurralde Historikoa

#### *Aramaioko Alkatea*

- 315/91 - Elkarte gastronomiko bateko zarata eta keek eragindako gogaipenak.  
Edukia: Lokala itxi dadila jarduera isilpekoa delako, eta gainera soinuak isolatzeko sistemarik ez daukala frogatu delako. Ez onartua.

#### *Labastidako Alkatea*

- 255/92 - Nekazal zaintzgatiko zerga.  
Edukia: herri-zergatzat har dadila eta interesatuek aukeran izan dezatela zerbitzu hori jasotzea. Ebatzi gabe.

#### *Gasteizko Alkatea*

180/90 - 357/91.-

Aldi berean prentsa eta janariak saltzea.

Edukia: Ogiaren salmentarako osasun araudia bete dadin kontrolatzea, okindegietan eta janari dendetan ogia eta prentsa artikulua aldi berean saltzea galeraziz, janari dendetan arau horietan iragarritako baldintzak espreski betetzen direnean salbu. Onartua.

522/91 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Taberna baten jabeari jarduera baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak hilabete bateko epean bete ditzala eskatzen zaio. Onartua.

19/92 - Gainbalioaren udal indizeak.

Edukia: Peritoak balio-neurketa argigarria egin dezala.

463/92 - Bidezaingo Sailaren zigorra.

Edukia: Auto sarbidea gaizki seinalizatuta egoteagatik, sarbide horietako batean ordutegi mugaren barruan autoa aparkatzeagatik kexa-aurkezleari ezarritako isuna itzultzea. Ebatzi gabe.

#### *AMVISAKo Arduraduna*

468/92 - Kontagailuen instalazioa.

Edukia: Kontagailuak kokatzeko eraikitzaileak egindako instalazioa onartu dadila. Ez onartua.

### *Arcayako Administrazio Batzordeko Presidentea*

- 154/91 - Auzolurren banaketa.  
Edukia: Herriko nekazarien artean desberdintasunik sortzen ez duen lur banaketa berria egitea gomendatzen da. Ez onartua.

### *Berricanoko Administrazio Batzordeko Presidentea*

- 244/92 - Jabego-kentzeak.  
Edukia: Legeak ezarritako prozedurari jarraituz jabego-kentze ekintzak berriro hastea gomendatzen da. Ebatzi gabe.

### *Toberako Administrazio Batzordeko Presidentea*

- 257/91 - Administrazio Batzarren ekintzaren kontra.  
Edukia: Gomendio batzuk egiten dira, haien artean, Kontzejuaren bilera-deiak behar bezala jakinaraztea, herriko telefono publiko bakarra egokiro erabiltzea, eta zerbitzu publikoak jasotzeko orduan herritarren artean desberdintasunik ez sortzea. Ebatzi gabe.

## **- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

### *Abanto eta Zierbenako Alkatea*

- 110/89 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: garaje baten jabe elkarteari, berau zaraten kontrako sistemaz hornitzeko Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako neurri zuzentzaileak har ditzatela eskatzea gomendatzen zaio Alkateari. Ebatzi gabe.

### *Bermeoko Alkatea*

- 386/91 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Beharrezko baimenik gabe berogailua jartzeko obrak egin ondoren eskatzen da obra horiek legeztatzeko baimena. Onartua.
- 768/91 - Ur zerbitzua.  
Edukia: Etxebizitza batean ura jasotzeko lotunea onartzea gomendatzen da. Onartua.

### *Bilboko Alkatea*

- 559/91 - Eraikuntzaren zerga.  
Edukia: Oinarri zergagarrian ez dadila sar igogailu eta zama-jasogailuaren kostua. Ez onartua.
- 78/92 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Lokal baten jarduera isilpekoa denez gero, hots, beharrezko udal baimenik gabe funtzionatzen duena, legezatu arte ixtea eskatzen da. Ez onartua.
- 539/92 - TAO seinalea.  
Edukia: Trafiko eta aparkaleku ordenantza aldatzea eskatzen da, Bilbon bizitzen sei hilabete baino gutxiago daramatzaten atzeritarrek egoiliar txartel berezia eskura dezaten. Onartua.

### *Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeko lehendakaria*

- 70/92 - Etxebizitzetan kalteak.  
Edukia: Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren 1991ko azaroaren 4ko Aginduaren indarrez, udal etxebizitzetan eskatutako konponketa lanak berehala egin daitezela. Onartua.

### *Ermuako Alkatea*

- 127/92 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Taberna-jatetxe bateko jabeari, lokala zaraten kontrako sistemaz hornitzeko proiektua aurkez dezala eskatzen zaio, agindutakoa betetzen ez badu baimena erretiratu zaiola esanaz. Onartua.

### *Galdakaoko Alkatea*

- 190/92 - Udal musika eskola.  
Edukia: Udal musika eskolako prezioen igoera murriz dadila. Onartua.
- 605/92 - Udal kontserbatorioan ikasle bat onartu nahi ez izatea.  
Edukia: Onartzeko prozedura eta salneurri publikoaren kobraketa bereiztea. Ez onartua.

### *Santurtziko Alkatea*

- 647/91 - Eskola bateko patioaren garbiketa.  
Edukia: Leku horren maila guztietako garbitasuna ziurtatzeko neurriak har daitezela, eta horretarako ez da baztertzen patioa urez sarri zirriztatzea. Onartua.



## - Gipuzkoako Lurralde Historikoa

### *Bergarako Alkatea*

- 649/91 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Isilpeko jarduera bat legeztatu arte ixteko gomen-  
dioa, zaraten kontrako sistemarik ez daukanez gero, ingu-  
ruko biztanleei gogaipenak eragiten dizkiolako. Ez onar-  
tua.

### *Donostiako Alkatea*

- 497/92 - Administrazioaren isiltasuna.  
Edukia: Ebazpen zehatz bat emateko legezko betekizuna  
gogoraraztea. Onartua.

### *Hondarribiko Alkatea*

- 389/91 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Jarduera isilpekoa denez gero, Hondarribiko  
Eraikuntza Publikoak arautzen dituen Udal Ordenantza  
berriaren lehen xedapen iragankorrean agindutakoaren  
arabera, jarduera hori berehala legeztatzea eskatzen dugu  
Ebatzi gabe.

### *Irungo Alkatea*

- 480/91 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Ostalaritzako egoitza ezberdinei buruzko gomen-  
dio batzuk: taberna, pub, dantzaleku, etabarretako zenbait  
jarduera isilpekoak direlako eta neurri zuzentzailerik ez  
daukatelako. Ebatzi gabe.
- 502/91 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Ostalaritzako egoitza ezberdinei buruzko gomen-  
dio batzuk: taberna, pub, dantzaleku, etabarretako hainbat  
jarduera isilpekoak direlako eta neurri zuzentzailerik ez  
daukatelako. Ebatzi gabe.
- 504/91 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Ostalaritzako egoitza ezberdinei buruzko gomen-  
dio batzuk: taberna, pub, dantzaleku, etabarretako zenbait  
jarduera isilpekoak direlako eta neurri zuzentzailerik ez  
daukatelako. Ebatzi gabe.
- 621/91 - Igerilekuen erabilera.  
Edukia: Ahal den neurrian udal igerilekua erabiltzeko bai-  
mena ematerakoan, banaketa zuzenago egitea. Ez onar-  
tua.

### *Lasarte-Oriako Alkatea*

- 5/92 of.- Lehiaketa-oposaketa batean eskatutako baldintzak.  
Edukia: Lasarte-Oriako Udalak Kultur-Etxerako Zuzendari Gerente bat izendatzeko bideratzen ari zen espedientea bertan behera uztea eta deialdiko baldintzak berriz aztertzea eskatzen da, Lasarte-Orian edo ondoko beste herri batzuetan bizi beharra zelako baldintzetako bat. Onartua.

### *Lazkaoko Alkatea*

- 83/91 - Obretarako baimena.  
Edukia: baimenak ematen direnean hirigintza alorreko legeak bete daitezela gomendatzen zaio Alkateari, eta, era berean, ez dezala parte hartu bere interes pertsonala tartean egon daitekeen arazoetan. Onartua.

### *Oiartzungo Alkatea*

- 139/92 - Parke publiko batean propano gasezko biltegi bat egotea.  
Edukia: landaregune batean arauen kontra dagoen gas-biltegia legezkatzea edo zuzentzea, eta Xehetasun-lkerketan zehaztutako eraikuntzen gehienezko altuera errespetatzea gomendatzen da. Zatiz onartua.

### *Ormaiztegiko Alkatea*

- 265/91 - Administrazioaren isiltasuna.  
Edukia: Herritar batek hirigintzari buruzko argibideak lortzeko egindako eskariei erantzutea gomendatzen da. Onartua.
- 311/91 - Lur baten sailkapen berria.  
Edukia: Udalak arau subsidiarioak bideratzea eta, bitartean, indarrean dagoen plangintza betetzen ez duten eraikuntza lanetarako baimena ez ematea gomendatzen da. Onartua.

### *Ordiziko Alkatea*

- 143/92 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Inguruko biztanleei gogaipean sortarazten dizkien taberna-jatetxe batek neurri zuzentzaileak ez betetzea. Horregatik, jarduera baimenean adierazitako neurri zuzentzaileak gauzatu arte lokala ixtea eskatu zen. Ez onartua.

*Pasaiko Alkatea*

- 72/92 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Biltegi baten jarduera berehala geraraztea eskatzen da, horren aldamenean dagoen etxeko biztanleei zaratek gogaipen larriak eragiten dizkietelako. Ez onartua.

*Tolosako Alkatea*

- 186/89 - Jarduera gogaikarriak.  
Edukia: Kirol elkarte bat ixtea eskatzen da, neurri zuzentzailerik ez daukalako. Ez onartua.

VII. ATALA

**GOMENDIO ETA IRADOKIZUN  
OROKORRAK**

1992.go urtealdian, aurreko urteetan bezala, gomendio-idatzi zein legeharpunen moduan gauzatutako ebazpen ugari eman du Arartekoak, 3/85 Legeak bere 11. b) artikuluan dioenari jarraiki, horrela, kexa espedientearen biderapena bukatuz.

Halere, jasotako kexak aztertu ditugunean, bertan agerturiko arazo zehatza gairitu eta ikerketa zabalagoa eskatzen zuten gai orokorrak azalatu dira.

Gainera, batzuetan gertatzen den bezala, banakako kexetan ez dira azaleratzen, arazoari loturik egonik ere, aztergai izan daitezkeen beste hainbat puntu, eta kexen biderapena bukatutzat eman arren, ezin daiteke esan arazoari erabateko konponbidea eman zaionik.

Horregatik, jardunean daramatzagun lau urte hauetan, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. c) artikuluan xedatutakoari jarraiki, bidezko iruditu zaigu herri-agintariei gomendio eta iradokizun orokorrak egitea; beroriek ez dira kexa zehatz batzuen ebazpenak, baizik eta hiritarren eskubideei dagozkien gaien azterketa orokorrak.

Gomendio hauen bidez, ustez hiritarren eskubideekin zerikusirik duten gaietan somatzen diren akatsak eta arauik eza bereziki jakinarazten dira.

## **7.1. HAUTAKETA PROZEDURETAN ADMINISTRAZIOAREN ESPE- DIENTEA IKUSTEKO AHALMENA. JARDUERA HORI EZ ONARTZEAK SOR DEZAKEEN DEFENTSA EZA**

Sarritan esan da, hiritarrek administrazio espediente bat osatzen duten agiriak ikusteko eskubidea, partaidetza bezalako eskubide zabalago baterako baldintza baino ez dela, eta gainera informazio eskubidearekin lotu ohi da, baina informazioaren eta kontrolaren arteko erlazioa dela medio, informazioa nahitaezkoa da kontrola ezarri ahal izateko.

Era berean, Administrazioaren agiriak ikusteko eskubide hori, Administrazioaren gardentasun printzipioaren azalpentzat hartu izan da, Administrazioak bere jardueren berri eman behar duelako Zuzenbidedun Estatu batean.

Aipatu dugun Administrazioaren espedienteak ikusteko eskubidea ez dugu, ordea, ikuspegi horretatik aztertuko, eskubide horrek kasu batzuetan babes judizial eraginkorrenekin daukan loturaren eta horrek sorraraz dezakeen defentsa ezaren ikuspegitik baizik.

Espainiako Konstituzioko 105. b) artikuluan aldarrikatzen da hiritar guztiei aitortzen zaiela artxibategi eta dokumentu publiko guztiak ikusteko eskubidea, baina artikulua horren ezarpena ez da baketsua izan, Konstituzioaren agindu hori ezarriz eskubide horretaz baliatzeko arauak garatu behar direla diotena kontra azaldu direlako.

Ikuspegi horretatik, gaiari buruzko interes zuzena zeukatelako legitimazio baldintza bereziaren jabe ziren hiritarrei bakarrik bermatzen zitzaizen administrazio espediente bateko dokumentazioa ikusteko aukera.

Horrela, bada, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorren Erregimen Juridikorako azaroaren 26ko 30/92 Legea (APEJL eta APO) oraintsu onartu den arte, orain hiritar guztiei hedatzen zaien eskubide hori lehenago interesatuei bakarrik aitortzen zitzaizen, interesatu hitzari 1958ko Administrazio Prozeduraren Legean jasotzen den ulerkera emanaz.

Prozedurazko lege berri horretan, administrazio guztietarako arautzen da espedienteak ikusteko eskubidea, eta, gainera, eskubide hori hiritar guztiei orokorrean hedatzen zaie, baina berori gauzatzerakoan berariz zehazturiko muga batzuk ezartzen dira espediente moeten arabera, hala nola Estatuko segurtasunarekin, delituen ikerketarekin edo pertsonen intimitatearekin erlacionatutakoetan (37.5. art.). Espedienteak ikusteko ukapen gehienak ez dira seguraski gai horiei buruzkoak izango.

Aldiz, aipatu legeko 37.7. artikuluan adierazten den eraginkortasun printzipioa izango da administrazio espedienteak ikusteko eskubidearentzat egiazko muga. Administrazio publikoen jardura zuzendu behar duen eraginkortasun printzipioa izango bada dokumentuak ikustea galerazteko argudio nagusia, argudio hori oso kontu handiz neurtu beharko da, hiritarrak baliarazi nahi duen eskubidea aurrera eramateko orduan muga hori gainditu ezina gerta ez dadin.

Aztertutako eskubideaz baliatzean Administrazioaren funtzionamendu eraginkorrari trabak jartzen zaizkiola esatea ez da nahikoa izango, gure iritziz; are gehiago, Administrazioak garbi frogatu beharko du eskubide hori aurrera eraman nahi izateak eraginkortasun printzipioa zalantzarik gabe kolokan jartzen duela, eta horrek bai, salbuespen bezala, ekar dezake eskubide hori gauzatzeko baimenik ez ematea.

Arrazoi hori dela eta Arartekoari aurkeztu zaizkion kexek, ordea, Administrazioak eskubide hori modu berezian ulertu duela erakusten dute; izan ere, Administrazioak, itxuraz zerbitzu publikoaren eraginkortasun printzipioa babesteko argudioan babestuz, funtsean eskubideaz baliatzeko oztopoak jarzea baino ez zuen egiten, legeak babesten ez duen moduan, gainera.

Normalean, langileak hautatzeko prozesuetan parte hartutako pertsonak izan dira kexak aurkeztu dituztenak. Pertsona horiek, jasotako puntuazioarekin ados ez egotean, zegozkien erreklamazio eta errekursoak aurkeztu zituzten, baina beraien nahiak onartzen ez zirenez -eta horretarako ematen zitzaizen arrazoi bakarra lortutako emaitzen baieztapena izaten zen-, ados ez zeuden lehiakideek beraien azterketak edo erabilitako erantzun-orriak, hau da, hitz

gutxitan, hautaketa prozesuaren espedientea osatzen zuten agiriak ikusteko aukera eskatzen zuten.

Administrazioaren funtzionamendu ona, bere jarduerak eraginkortasun printzipioaren arabera burutzeko arrazoia, beraz, jarrera ilun, ez garbi eta inolako lege justifikaziorik ez dutenetan babesteko azalpenak baino ez dira izaten.

“Zer gertatuko litzateke interesatu guztiek espedienteak ikustea eskatuko balute?” bezalako esapideak dira Administrazioak eskatutakoari uko egiteko normalean erabiltzen dituenak. Horrela, eraginkortasun printzipioa aldarrikatuz, baina hori kolokan zergatik geratzen zen adierazi gabe, espedienteak ikusteko eskariari ematen zaion ukoa bera eskubidearen ukatze hutsa baino haruntzago doa, kasu askotan egiazko defentsarik eza sorrarazten baitu.

Bestalde, hautaproba batean puntuazio jakin bat jasotzen duenak, horren aurrean erreakzionatzeko, adostasun eza azaltzera eraman duen erabakia hartzeko Administrazioak izan dituen arrazoiak ezagutzea beharrezkoa da, eta horrek ere jarduera horien motibazioaren eta babes judizial eraginkorrerako eskubidearen arteko lotura gogoan hartzera garamatza.

Motibazio ezak eraginda, interesatuak ezin du Administrazioaren ebazpenaren kontrolerako oinarrizko elementu bat eskuratu, eta beraz, ebazpen horren aurrean erreakzionatzeko bere gaitasuna funtsean murriztuta geratzen da. Horrela, bada, babes judizial eraginkorrerako eskubidea kaltetu dezakeen akordioa hartzeko epaimahai batek eduki dituen arrazoiak jakin gabe geratzen da interesatua.

Lehenago esan da Arartekoari aurkeztu zitzaizkion kexei zegozkien arrazoi nagusiak epaimahai kalifikatzaileekin ados ez egotearen ondorioz sortuak zirela. Aurkeztutako errekurtsioak onartzen ez zituzten ebazpenetan ematen zen funtsezko arrazoia, lortutako emaitza berriz aztertzeko funtsik ez egotea zen, eta, ondorioz, interesatuak erabaki hura hartzeko egondako arrazoiak jakin gabe, eta beraz, kontrolerako elementurik gabe jarraitzen zuen. Egoera horretan, interesatuak oposaketa-espedientea ikustea eskatzen zuen, horren bidez epaimahai kalifikatzaileak erabilitako irizpideak ezagutzera iristeko.

Erreklamazioak edo administrazio errekurtsioak baztertzeko arrazoirik ematen ez denez, interesatuak orain justiziara jotzea beste biderik ez du, baina ezin jakingo du administrazioarekiko auzia aurkeztuz gero, hautaketa prozedura bere adostasunik eza sorrarazi duen ebazpena eman zen unera baino lehenagora eramatea lortuko lukeen ala ez.

Gai honen inguruko jurisprudentzia ugari dago -Epaitegi Gorenaren epaiak: 83-6-9 eta 85-2-29, besteak beste-, eta hau diote:

“...Balorazio-epai guztien edo ekintza edo datuen balioespenen justifikazioa, diskrezionalitatea arbitrariotasunetik bereizten duen aurre-uste formala da, eta mota horretako epaia berekin dakarten jardueren zuzentasuna, zentzutasuna eta egokitasunaren behar-beharrezko bermea da, eta hori gertatzen da aurrez legalki finkatutako baremuari jarraiki lanpostu baterako edo merituen arabera kargu publiko baterako lehiakideak hautatzeko ematen direnetan”.

Aipagarria da, orobat, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak emandako azaroaren 22ko 558/89 epai garrantzitsua, motibazio ezaren eta justiziaren babes eraginkorrerako eskubidea haustearen arteko harremana ezartzen baitu argi eta zorrozki, ondorengoa esaten duenean:

“...Puntuazio bat emateko arrazoi bakar bat ere ematen ez denez gero, ezinezkoa da jakitea baremuan ezarritako merituetatik hautagai bakoitzari zein baloratu zitzaizkion eta zein ez, aurrez finkatutako puntuazioetatik hautagai bakoitzak zeuzkan merituen arabera emandako puntuazioak zeintzuk izan ziren, eta kasu bakoitzari emaitza bat ezartzeko zein arrazoi erabakikor erabili ziren; bestalde, kexadunak bere eskariaren arrazoibide juridikoan oso ongi adierazten zuen bezala, arrazoirik ez ematean, horren ondorioz derrigorrez defentsa eza gertatzen da, eta horrelakorik gerta ez dadin, alegazio eta froga zehatzak biltzeko lan handia egin behar da, erabakia hartzerakoan erabil zitezkeen arrazoi erabakikor guztiak azaldu behar baitira alde zuretik; ondorioz, eta hori da garrantzitsua, Konstituzioko 24.1. artikuluan jasotako funtsezko eskubidearen onura osorik jasotzea galeratzen da; izan ere, artikulua horrek adierazten duenaren arabera, auziaren funtsean oinarritutako ebazpena eman behar da, beti ere lege-antolamenduak debekatzen ez duen defentsaz baliatzeko aukera eman ondoren (eta hemen Konstituzio Epaitegiaren doktrina gogora daiteke, 1985eko uztailaren 22ko epaia batez ere, zeinen arabera gerta baitaiteke Espainiako Konstituzioko 24.1. artikuluan jasotzen den eskubidea justizia alorrekoak ez diren organuek haustea). Gauzak horrela, errekurtsioa aurkeztu duenaren argudioaren mamira joaz, arrazoi ezak galerazi egiten du lehiakide bakoitzaren meritu eta gaitasunei zein puntuazio dagokien ezagutzea, baldin eta Epaitegi honek dagokion zereginaren ordeztasun, alegia, errekurritutako ebazpenak Zuzenbidearen araberrakoak diren kontrolatu ordeztasun, Balorazio Batzordeari dagokiona egiten ez bada, Batzordea bera ordezkatzuz; horregatik ere ezingo da erabaki errekurritutako ebazpenetan berdintasun eskubidea (EK-ko 14. eta 23.2. artikulua) haustera iritsi zen ala ez.”

Espainiako Konstituzioko 24.1. artikulua hausteaz egiten den oharpen horri buruz ezingo da argudiatu epaimahai kalifikatzaileak justizi alorrekoak ez direla. Epaitegi Konstituzionalak garbi adierazi du justizi alorrekoak ez diren organuek ere hauts dezaketela babes judizial eraginkorra izateko eskubidea.

Jadanik esana dugun bezala, elkarri estuki loturik daude, alde batetik, ebazpenak hartzeko arrazoirik ez ematea, bai eta, kasu batzuetan, espedientea ikusteko baimenik ez ematea ere, eta bestetik, interesatuak nahi duena behar bezala defendatzeko oztopoa dagoenean, justiziaren babes eraginkorra eduki ahal izatea. Bestalde, oztopo hori are handiagoa da hautaketa prozesu bati dagokion prozeduran sartzen bagara, epaimahai kalifikatzaileek diskrezionali-



tate teknikoaren arabera jokatzen dutelako, eta horiek ematen duten ebazpena, juridikoa izan ordez, teknikoa izanda, justiziaren kontroletik kanpo gertatzen delako.

Epaimahai kalifikatzaileen jarduera kasuetan, sarri dagokien diskrezionalitatea interpretatu egiten da, eta ondorioz organu kolegiatu horiek eta izendatzen dituen Administrazioak uste izaten dute kanpoko kontroletik erabat libre daudela.

Eskumen bati buruzko oharpen hori, funtsean diskrezionala dena, eta arbitrarietate kasuak gertatzen direnean izan ezik justiziaren kontrolik ezarri ezina adierazten duena, normalean onartu egiten da. Baina ahaztu egiten da diskrezionalitatearen eta arbitrarietatearen artean dagoena hain zuzen arrazoi-bidea dela. Eta horregatik, diskrezionalitate hori ezin da traba bat izan bere jardueren arrazoiak derrigorrez azaltzeko eta aurrerantzean dokumentuak ikusteko, horietan ikus daitezkeelako erabili diren irizpideak, eta hori guztia diskrezionalitate teknikoaren eremuko mugak gainditu diren ala ez jakiteko hain zuzen ere.

Egin diren oharpenekin ez da zalantzan jarri nahi epaimahai kalifikatzaileen diskrezionalitate teknikoa, eta bai ordea argitu, Konstituzioak dioenaren ildotik, eta Konstituzio Epaitegiak hauxe esaten du hain zuzen:

“...noski, ez du esan nahi ezagutzen ez direnik Konstituzioko 24.1. artikuluan jasotzen den babes judizial eraginkorrerako eskubi-dea, Administrazio Publikoa erabat Legearen eta Zuzenbidearen pean egoteko printzipioa (103.2. art.) eta Justiziak Administrazioaren jardueren zilegitasunari buruz egin beharreko kontrola, edota Administrazioaren jarduera berau justifikatzen duten helburuen pean garatu beharra (106.1. art.). Ez du esan nahi, orobat, justiziaren kontrol hori ahalik eta zabalena eta eraginkorrena izan dadin jurisprudentziak eta doktrinak egin dituzten eta egiten dituzten ahalegin handiak ahazten direnik. Baina ezin da ahaztu, ezta ere, kontrol horrek kasu batzuetan muga garbi batzuk aurkituko dituela. Hori gertatzen da izaera erabat teknikoa duten elementuetan oinarritutako epaiketa baten bidez ebatzi behar diren kasuetan, Administrazioaren organu espezialdu batek bakarrik formula baitezake, eta bere izaeragatik justiziaren kontroletik kanpo geratzen da, eta justizia organuek kontrol mota hori bakarrik ezar dezakete, eta noski, ezarri beharko dute epaiak kokatzen den lege-esparruari eragiten dion neurrian, lege gaitan alegia...”

Era berean azpimarratu behar da Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikorako Legeko 105. b) eta 37.1. artikuluetan, hiritarrek orokorki hartuta erregistro eta dokumentuak ikusteko aukera iragartzen badute ere, ordenamendu juridikoak, titularrak izan gabe interes legal eta zuzena frogatzen duten beste pertsona izendun batzuek

dokumentuetara iristeko izango duten aukerarentzat arreta berezia iragartzen duela (APEJL eta APOko 37.3. art.).

Halaxe da, hautaketa prozesu baten eremuko izaera nominatiboa duten dokumentuak ikusteko eskubidearen jarduera kasurik arruntena, azterketa egindako norbaitek bere azterketa ikusi nahi izatea da. Hautaketa prozedura bat amaitutzat ematen duen eta adostasun ezarekin geratzen den ebazpen baten kontrako defentsa aurrera eramateko, gerta daiteke hautaketa proba berean parte hartutako beste hautagai batzuen azterketak nahitaez ikusi behar izatea.

Nabaria den bezala, edozein hautaketa prozesutan ezartzen den puntuazio indibidualak ez dauka izaera absoluturik; aitzitik, erlatiboa izango da, beste partaideen puntuazioei begira neurtzen baita. Horrek esan nahi du, legezko interes zuzena frogatzen duten guztiei beste batzuen azterketak ikusteko aukera eman behar diela Administrazioak, prozesu berean parte hartu zutelako.

Horren guztiaren ondoren baieztza dezakegu, espediente bat ikusteko aldeko ebazpenarekin batera, auzitan dagoen jarduera eragin duten arrazoiak ezagutzeko interesatuak daukan premiari erantzun behar zaiola. Eskatzen dena ematen bada, eta horrekin batera adostasunik eza sorrerazi duen ebazpena emateko epaimahaiak izan zituen arrazoi erabakiorrak ezagutzeko aukera eskaintzen denean bakarrik ez da hautsiko babes judizial eraginkorrerako eskubidea.

Pentsatzekoa da 30/92 lege berrian dokumentuak ikusteko jasotzen den eskubidearen garapen zehatzak eskubide horretaz behar bezala baliatzeko bideak erraztu egingo dituela. Espainiako Konstituzioko 105. b) artikulua informazio izaerak, eskubideaz baliatzeko muga zehaztasunak eta beste batzuek dokumentuak ikusteko eskubideaz arauetan jasotzen den iragarpenak guzti horretarako balio behar dute.

Espero da, beraz, arau horren azpian itxuraz dagoen irizpidearen bitartez, hiritarrak eta Administrazioak batak bestearekiko konfidantza lortzen lagunduko duen garai berri bati ekitea, Administrazioaren funtzionamendu gardenagoak sinesgarriago bihurtuko baititu bere jarduerak.

## **7.2. ADMINISTRAZIOAREN JAKINARAZPENA BABES JUDIZIAL ERAGINKORRA IZATEKO ESKUBIDEA BERMATZEARREN**

### **7.2.1. JAKINARAZPENA ADMINISTRAZIO PROZEDURAN: DEFENTSA EZAREN DEBEKUARI ETA SEGURTASUN JURIDIKOARI BURUZKO KONSTITUZIOAREN PRINTZIPIOAK**

Gure lege-antolabidearen aginduz, Administrazioa bere ebazpen eta jardueren berri norbanakoei ematera beharturik dago, ebazpen-jarduerak haien eskubide eta interesei eragiten dietenean. Jurisprudentziak ongi zehaztu duen bezala, interesatuei Administrazioak agindutako jarduerak ezaguterazteko, alegia, jakinarazpen izenaz ezagutzen ditugunak gauzatzeko lege-antolabideak

erabiltzen dituen bide eta berme guztiak izateko arrazoi bat daukate: interesatuek administrazio prozedura ezagutzea eta horretan parte hartzea, eta hori Konstituzioan aitortutako defentsa eta segurtasun eskubideen berezko ezaugarria da.

Horrela, jakinarazpenak bi helburu ditu: alde batetik, interesatuari bera eragiten duen jardura bat badagoela eta eskubideak nahiz betebeharrak sor ditzakeela adieraztea, eta horren edukia eta garrantzia ezagutzera ematea; eta bestetik, lege-antolabideak dagokionaren esku jartzen dituen defentsa eta erre-akziorako aukerez baliatu ahal izatea.

Horregatik, epaitegiek aho batez eskatzen dute ahalik eta zintzoen bete-tzeko prozedurazko arauetan iragarritako baldintza horiek, defentsa eza debe-katzen duen printzioaren bermatzaile bilakatzen direlako, edo modu positiboan adieraziz, babes judizial eraginkorra eta segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen dituztelako, hurrenez hurren Espainiako Konstituzioaren 24. eta 9.3. artikuluek dioten bezala.

### **7.2.2. JAKINARAZPENAREN ARAUKETA 1958ko ADMINISTRA-ZIO PROZEDURAREN LEGEAN (APL)**

1958ko uztailaren 17ko Administrazio Prozeduraren Legearen arabera, administrazio jardueraren eraginkortasuna baldintzatzen duen elementu eraba-kiorra da jakinarazpena (45. art.), eta 79. eta 80. artikuluetan baliozkotzat jo-tzeko bete behar zituen baldintzak arautzen zituen.

Azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Erregimen Juridikorako eta Administrazioaren Prozedura Arrunterako 30/1992 Legeak (APEJL), bertan behera uzten du, besteak beste, 1958ko Administrazio Prozeduraren Legeko IV titulua, non kokatzen baitira 79. eta 80. artikulua. Hori horrela izan arren, bertan behera utzitako agindu horiek bi arrazoiengatik aztertzen ditugu: alde batetik, legea orain dela oso denbora gutxi indarrean sartu denez, oraindik aztertu beharreko espediente asko daudelako, eta horiek APL legearen baitan aztertu beharko direlako; eta bestalde, administrazio prozeduraren araudia bezalako garrantzi handiko araudi batek Zuzenbidedun Estatu batean duen bilakaera ezagutzea oso interesgarria delako.

#### **7.2.2.1. Jakinarazpena indargabetzen duten hutsegiteak: Jasotako-kexak aztertu ondoren, Ararteko Erakundeak aurkitu dituen disfuntzioak**

APLko 79. artikulua arabera, jakinarazpen guztiak jardueraren testu osoa hartu beharko dute bere baitan, administrazio biderapenean behin-beti-koa den ala ez zehaztuz, eta behin-behinekoa izanez gero, zein errekurtsio jar daitekeen, zein organuri zuzendu behar zaion eta ezartzeko dagoen epea ere

adieraziz. Hau da, hartzaileak, jakinarazten zaion jardueraren garrantzia eta ondorioak maila guztietan neurtzeko elementu zehatzak eduki behar ditu eta, bere arrazioen kontrako iritzia ebatziko balitz, horren kontra jotzeko neurriak ere izan behar ditu.

Aipatu dugun formazko zorrotasun hori horrela izan arren, jakinarazpenak egiterakoan burutzen diren hutsegite guztiek ez dute, ordea, hura baliorik gabe uzten. Izan ere, hartzaileak, jakinarazpena jaso duela espreski adieraziz edo dagokion errekurtsioa ezarri konpon ditzake hutsegite horiek. Kasu horietan, jakinarazpenaren eraginkortasuna aitortu behar da. Ikuspegi horretatik, Epaitegi Gorenak behin eta berriz azaltzen du jakinarazpena indargabetu nahi bada, horrek hutsegiteak edukitzeaz gain defentsa eza ere ekarri behar duela. Beraz, jakinarazpena baliorik gabe uzteko ez da aski eskatzen den baldintzeta-ko baten falta frogatzea, baldin eta garbi geratzen bada hutsegite hori gorabehera, interesatuaren defentsarako aukerak ez direla gutxitu.

APLko 80. artikulua indarrez, jakinarazpena hartua izan dela frogatzen edozein bide erabiliz egin behar zen, eta horretarako jakinarazpena interesatuaren etxebizitzara edo berak adierazitako lekura bidali behar zen. Itxuraz oso argia den arren, agindu horrek ez zituen bere barne hartzen beste hainbat kasu eta, labur bada ere, komeni da horiek aipatzea:

#### **A) Hartzailea bere etxean ez egotea: beste pertsona bati eskuratzea: baliagarria izateko baldintzak**

Hartzailea etxean ez zegoen kasurako, 80. artikulua bigarren atalean esaten zen jakinarazpena hartzailearen etxean zegoen beste pertsona bati eskura zekiokoela, interesatuaren familiartekoa edo haren ardurapekoa zela frogatzen bazuen. Betebehar hori Epaitegi Gorenaren epai ugarik zehaztu dute. Adibide gisa, 1992ko apirilaren 13an Epaitegi Gorenako 3. Aretoak, 2. Atalak (Ar. 3.292) emandakoa ikusiko dugu:

“Jakinarazpenak Posta bidez egiten diren kasuan, 1954-4-2 Dekretuko 4. artikulua, 58-10-20 Aginduko 2.5. artikulua eta Posta Zerbitzuetako Araudiko 271.2. artikulua diotenez, jakinarazpena hartzaileari berari eskuratzen ez bazaio, eskuratze liburuan edo jaso-agirian hartzen duenaren NAN zenbakia zehazteaz gain, sinatzaileak harekin duen lotura ere adierazi behar da.”

Jakinarazpena baliagarritzat jotzeko, bi agiri horietako batean frogatzea nahikoa litzateke. Formaltasun horien guztien helburua interesatuari administrazioaren jardueraren ezagutza bermatzea dela azpimarratu behar da. Eta beraz, hartzailearen nortasuna zehazki ezagutzeko ez da nahikoa ezertarako aukerarik ematen ez duen sinadura iluna bakarrik, beste daturik gabe, azal-

tzea. Zergatik zegoen interesatuaren etxean eta harekin duen harremana zehazteaz gain, bere nortasun datu osoak behar dira.

## B) Ediktu bidezko jakinarazpena: kasuak

Sarritan gertatzen da hartzailearen etxean ez hartzailea, ez eta jakinarazpena bere gain hartuko duen beste inor ere ez egotea -eta hori gaur egun gertatzea normala da, bi ezkontideek lan-merkatuko ateak zabalik dituztenez, lanorduetan biak kanpoan lanean egon daitezkeelako-; kasu horietan, beraz, ediktuaren bidez jakinarazten da. Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar APLko 80.3. artikulua arabera, prozedura batean sartuta egon eta eragindako pertsonak ezezagunak badira, edo beraien bizilekua ezagutzen ez bada bakarrik egin daitekeela ediktu bidezko jakinarazpena, eta ez pertsona horiek kanpoan dauden kasuan.

Konstituzio Epaitegiak berak, martxoaren 25eko 36/1987 epaian, 2. oinarrian (Boletín de Jurisprudencia Constitucional -BJC-, 72. zenb.), hau argitzen du:

“...Konstituzioak bermatzen duen justiziaren babes eraginkorra izateko eskubidearen ikuspegitik, behin eta berriz esan behar da ediktu bidez egiten diren jakinarazpenek ordezeko balioa baino ez dutela, eta eskumenezko organuak alderdiekin harremanetan jartzeko daukan azken irtenbidetzat hartu behar dela, baina aurretik beste bide guztiak agortu behar direla, hartzaileak jakinarazpena jasotzeko segurtasun maila handiagoa eskaintzen dutenez, kasu honetan babesen ez den eskubideari eraginkortasun osoa ematen diotelako.

Kasu honetan eskumenezko organuak ez zuen horrela egin, maila berean jarri baitzituen Posta Zerbitzuaren oharra, “banaketa orduetan ez dago” zioena, eta jasotzailearen egonlekua edo etxebizitzara ezezaguna izatea; horrela, ediktura jo beharra dagoenez, orain justiziaren babes eraginkorra eskatzen duenaren eskubidea nabarmenki kaltetuta dago, eta horregatik eskatutako babesa ematea ebazten da.”

Erakunde honetan 270/91 zenbakiaz bideratutako espedientean, Bilboko Udalak gainbalio zergaren kitapenaren oharra interesatuak jakinarazpenetarako emandako helbidera bidali zuen. Posta zerbitzuak jakinarazpen hori itzuli egin zuen titularra helbide horretan “ezezaguna” zela adieraziz, eta etxean inor ez egoteko arrazoia bi ezkontideak kanpoan lanean egotea zen. Udalak etxebizitza aldatu ote zuten ikertu ondoren, hiriko biztanleen erroldan sujetu pasiboren helbidea aztertu eta lehenagoko huraxe zela ikusi zen. Halere, Posta Zerbitzuak emandako informazioa onartu eta, aitorturiko etxebizitzan jakinarazpena egiten ahalegindu gabe, lurraldeko Aldizkari ofizialean ediktua argitaratu zen, eta kasu horietako gehienetan gertatu ohi den bezala, interesatuak ez zuen irakurri.

Interesatuak kitapenaren berri izan zuenerako premiamendu bidea hasita zegoen, hasierako kopuruari %20ko gainordaina ezarrita.

Premiamendu probidentziaren kontrako errekurtsua ezarri zuen, kitapenaren legezko jakinarazpenik ez egitean oinarrituta, eta errekurtsua ez zitzaion onartu, Postako funtzionariaren aitopenerari egia balioa eman zitzaiolako, eta guk uste dugu aurkako proba baten bidez frogatzea deuseztu zitekeela.

Epaitegi Gorenak puntu zehatz horri buruz 1989ko apirilaren 10ean emandako Epaian (Ar. 3.167) hau adierazten du:

“Legegilearen ustez, zerbitzu publiko bat burutzen duen langilegoak eta Administrazioaren jarduerak edo ebazpenak jakinarazteko zeregin garrantzitsua duenak badauki nola jokatu behar den. Eta uste hori kasu horretan ez dator gertatuarekin bat, aztertutako jakinarazpena egiteko erabili den modua delako hain zuzen horretarako erabili behar ez dena. Jakinarazpenak egin behar dituenak zuzen ez jokatzeak ezin dio hiritarrari kalterik sortu, horrek ez baitauka inolako eraginik jakinarazpena egin behar duen arduradunaren izendapenean.”

Horri dagokionez, ez doktrinak, ez eta jurisprudentziak ere ez dute garbi uzten Administrazioak, jakinarazpena ediktu bidez egin aurretik, zenbat ahalegin egin beharko lituzkeen jakinarazpen hori ohizko bidetik iritsiarazteko. Alde batetik, 80.3. artikulua idazkerak, aipatutako kasuetan izan ezik, jakinarazpen mota hori galerazi egingo luke. Bestetik, hiritarren interesak eta justizia segurtasunak muga horiek arintzea gomendatzen dute.

Bestalde, Administrazioak eta beste guztiek ere garbi daukate ediktu bidezko jakinarazpenak ez daukala inolako eraginkortasunik, nahiz eta ediktua jakinarazteko jarraitu den bide horrek legezkoa izateko itxura guztia eman prozedurari.

### 7.2.3. ARAUKETA BERRIA AZAROAREN 27ko 30/1992 LEGEAN

1993ko otsailaren 28tik indarrean dagoen APEJL lege berriak, administrazioaren jakinarazpenaren inguruko puntuak 58. eta 59. artikuluetan jasotzen ditu. Lehenengoak, APLko 79. artikulua ordezkatu duenak, bere aurrekoak ez bezala, ez du eskatzen interesatuak espreski jakinarazpena jaso duela adierazi beharra jakinarazpenak eduki ditzakeen hutsegiteak zuzendu direla ulertzeko. Idazkera berriaren arabera, interesatua jakinarazten den ebazpen edo jardueraren edukia berri baduela adierazten duten ekintzak burutzen hasten denetik aurrera jartzen dira indarrean hutsegiteak zeuzkaten jakinarazpenak.

Jakinarazpenaren edukia dagokionez, 58.2. artikulua eskatzen duena aurreko 79. artikulua antzekoa da.

Lekuari dagokionez, 59. artikuluko bigarren atalean hau esaten da:

“Interesatuaren eskariz hasitako prozeduretan, jakinarazpenak interesatuak bere eskarian horretarako jarri duen lekuan egingo dira”.

Administrazioak prozedura hasten duenean jakinarazpena non egin behar den esaten ez den kasuan, interesatuaren etxebizitzan egin behar dela ulertuko da.

Etxebizitzan ezin egin denean, horretarako egokia den beste edozein lekutan egingo zaio, baina beti ere jakinerazpena hartua izan dela frogatu beharko da.

APLk ezarritako irizpideari jarraituz, jakinarazpena interesatuaren etxebizitzan egiten denean, jasotzailea bertan ez badago, etxe horretan dagoen eta bere nortasun-datuak adieraz ditzakeen beste edonork hartu ahal izango du jakinarazpena bere gain. Posta bidez egiten diren jakinarazpenen kasuan, ulertu behar da indarrean jarraitzen dutela eta erabat ezargarriak direla 1958ko urriaren 20ko Aginduan, 1954ko apirilaren 2ko Dekretuan eta Posta Zerbitzuei buruzko Araudian jasotzen diren aginduak, lehenago APLri buruz hitzegiterakoan esan den bezala, NAN zenbakia adierazteaz gain, eskuratze liburuan edo jaso-agirian sinatzailearen datuak edo interesatuarekin duen lotura ere azaldu beharko dutelarik.

59. artikuluko hirugarren atalak, APLn iragartzen ez den baina praktikan sarritan gertatzen den kasu bat jasotzen du, alegia, interesatuak edo bere ordezkariak ez dutela onartzen administrazio jardura baten jakinarazpena. Horrelakorik gertatzen denerako, APEJLk dio jakinarazpen tramitea egintzat jotzen dela, espedientean horrela adierazi eta tramiteekin aurrera jarraitu behar delarik.

Agian, interesatuaren bermeen ikuspuntutik, 59. artikuluko laugarren atala dela medio atzerako pauso handia eman da, aurreko egoerarekin, hots, APLren bidez indarrean zegoenarekin alderatuz. Oraingo idazkerak hauxe dio:

“Prozedura batean interesatuak ezezagunak direnean, jakinarazpena egin behar den lekua edo artikulua honen lehen puntuari dagokion antolapidea ezagutzen ez denean, edota jakinarazpena egiten ahalegindu ondoren ezin egin izan denean, interesatuaren azken etxebizitza zegoen herriko Udalaren ediktu-taulan eta kasu bakoitzean interesatuari dagokion eta ediktua ateratzen duen organuaren lurralde eremuaren arabera legokiokeen Estatuko, Autonomi Lurraldeko nahiz probintziako Aldizkari Ofizialean iragarkiak sartuz egingo da jakinarazpena.”

Adierazi den bezala, 1958ko APLk ediktu bidez egin beharreko jakinarazpenak bi kasutan biltzen zituen: prozedura batean interesatuak ezezagunak zirenean, edo haien etxebizitza ezagutzen ez zenean bakarrik. Ikusi dugunez, bazegoen itxuraz hutsune bat, ez baitzen adierazten, hiritarren interesekin eta justiziaren segurtasunarekin bat etortzearen, zenbateko ahaleginak egiteko eska zekiokkeen Administrazioari, ediktu bidetik jo aurretik, jakinerazpena inte-

resatuari berari egin ziezaion. Eta itxuraz diogu, izan ere gure ikuspegitik aipatutako bi kasuetan salbu Administrazioak behar hainbat aldiz ahalegindu beharko lukeelako jakinarazpena helarazten, ziur baikaude ediktu bidezko jakinarazpena erabiltzean Administrazioak prozedura amaitzeko daukan beharrari erantzuten diola, nahiko zaila denez interesatuak ediktuaren bidez auzitan dagoen ebazpen edo jardueraren berri izatea.

Laugarren atal honek, edikto bidez egin beharreko jakinarazpenak murrizteari dagokionez, Epaitegi Gorenaren eta Konstituzio Epaitegiaren ebazpenetan jasotako izpiritua bere egin beharrean, erabilera edo bide hori beste bi kasutara zabaldu du, kasu horietako bat berezia izanik eta bestea orokorra. Lehen a idazketa hutsegite bat izango da, jakinarazpena egiteko bidea ez eza-gutzteari dagokiolako. Lehenago esan dugunez, Administrazioak jakinarazpena egiterakoan interesatuari helarazteko edozein bide har dezake, eta horregatik ez dirudi zentzuzkoa denik Administrazioak bide bat bera ere ez ezagutzea.

Bigarren kasua, ordezko izaera duena eta gure ikuspegitik kezkarriagoa dena, *jakinarazpena egiteko ahalegindu eta ezin egin izan denean* gertatzen da.

Agindu horretan legegileari lepora lekiokoe diskrezionalitate tarte handiegia uzten duela, *jakinarazpena egiten ahalegindu* adierazpenaren zehaztasun ezak interesatuaren defentsa eza sortaraz dezakeelako.

Halaxe, atal hori hitzez hitz eta zehazki interpretatzen bada, Administrazioak jakinarazpen pertsonalerako ahalegin hori behin egin eta lortu ez izana aski litzateke Udaletxeko iragarki-taulan edo aldizkari ofizialetan ediktua sartzeko, eta azken kasu horietan Administrazioak aurretik erabili dituen bideetan bezalaxe gauza bat gerta liteke: interesatuak jakinarazpenaren berririk ez izatea, eta horrek defentsa eza debekatzeko printzipioarekin aurrez aurre topo egiten du.

#### 7.2.4. ZERGA KITAPENEN JAKINARAZPENARI BURUZKO AIPAMEN BEREZIA

Administrazioaren ohizko prozeduretan jakinarazpenek daukaten garrantzia azaldu ondoren, zergen alorrean daukana aztertu behar da, laburki bada ere, alor horretan normalean egiten diren jakinarazpenek eduki ekonomikoa izaten dutelako, eta beste batzuetan berriz, premiabide prozeduretako bali-kuntzarekin gertatzen den bezala, zorduna beharturik bere ondasunik gabe gera daitekeelako.

Maila orokorrari buruz aipatutakoaz gain, alor fiskalean, kitapenaren araubidezko jakinarazpenak sujetu pasiboa zerga-zorra ordaintzera behartzen du, eta aldi berean, ordaintzeko borondatezko epea gauditutzat jo eta premia-bidezko prozedura hasteko balio du.



#### **7.2.4.1. Administrazio Publikoen Erregimen Juridikorako eta Administrazioaren Prozedura Orokorreko Legearen (APEJL) ordezkotasuna zerga gaitan**

1958ko Administrazio Prozedurarako Legean bezalaxe, APEJLk bere bosgarren xedapen gehigarrian dio bere aginduak ordezkoak direla zerga prozedurei dagokienez, eta, beraz, horiek lehenik berez dagokien araudi berezian arabera jarriko dira indarrean, eta horrelakorik ez dagoenean bakarrik ezarriko zaie administrazio Zuzenbide orokorra.

#### **7.2.4.2. Zerga kitapenei buruzko jakinarazpenetan bete beharreko arau orokorra**

Hori dagokionez, Zerga Lege Orokorreko (ZLO) 124.1. artikulua, jakinarazpenak eduki behar duen gutxienezko edukiar dagokionez APLko 79. artikulua eta APEJLko 58. artikulua adierazten dituzten betebeharrak jasotzen ditu, baina berezitasun batekin, jakinarazten dena premiabidezko probidentzia denean kontrako arrazoi zehatzak jaso behar direla baitio.

Beraz, eta arau orokor bezala, zergen kitapenak interesatuei beraiei, eta banan banan gainera, jakinarazi behar zaizkie, haiek horretarako adierazitako lekuan.

Jakinarazpena interesatuaren etxebizitzan egiten ahalegindu eta hura bertan ez dagoen kasuetarako, Epaitegi Gorenak eta Epaitegi Ekonomiko-Administrazio Zentralak behin eta berriz adierazten dute jakinarazpena jasotzen duen pertsonari NAN zenbakia eskatzeaz gain, interesatuarekin daukan lotura adieraztea ere eskatu behar zaiola.

#### **7.2.4.3. Salbuespenak**

##### **A) Etxebizitza aldatzen den kasuetan**

ZLOk kasu bitxi bat iragartzen du, haren arabera ulertzen baita jakinarazpena egin nahi izana nahikoa dela hori gauzatzeko. Zergapekoak Administrazioari etxebizitza aldatu duela adierazteko beharra bete ez duenean gertatzen da. Epaitegi Gorenak aditzera eman duen bezala, adierazitako azkeneko etxebizitzan egindako jakinarazpenak ondorio guztiak izango ditu. Hori eragingarria gerta dadin, lau baldintza bete beharko dira:

- a) Sujetu pasiboak zerga agiri batean etxebizitza adierazi izana.
- b) Etxebizitza aldatu izana.
- c) Aldaketa hori Administrazioari jakitera eman ez izana.

- d) Administrazioa jakinarazpena azkeneko helbidean egiten saiaturazana.

## **B) Jakinarazpena agiria aurkezten duenari egitea**

Puntu honetan, aipatu beharrekoa da Ondare-Eskualdaketengatik eta Agiri-bidezko Ekintza Juridikoengatik Zergan, jakinarazpenaren ondorioetarako, pareko jotzen direla agiria aurkezten duena eta ordaintzera behartuta dagoena; gai hori Erakunde honek 1991n Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako Txostenean egiten zen gomendioan aztertu zen beste zenbait alderirekin batera.

Normalean, salerosketa agiriak egin ondoren, notarioa arduratzen da aitorten hori aurkezteaz Eskualdaketan Zergan kitapena egin dadin. Administrazioak behin baino gehiagotan bidali izan du kitapen osagarri bat aitortutako balioarekin ados ez zegoelako eta, indarrean dagoen araudian babestuz, parte hartu duen notariara igortzen du, eta horrela, sujetu pasiboak egokitzapen horren berri ez duenez, ezin du dagokion errekurtoa ezarri.

Defentsarako babes printzipioarekin bat ez datorren iragarpen hori neurritz erabiltzeko gomendioa egiten dugu honen bidez, sujetu pasiboak, ordaintzera behartuta dagoenez gero, kitapen prozeduraren gorabeherak beti ezagutu ahal ditzan.

## **C) Aldizka kobratzen diren zergak errezibo bidez jakinaraztea: arazoak**

Ararteko Erakundeak jardunean daramatzen urteetan, oso adierazgarria da zenbat kexa aurkeztu diren, borondatezko epean maiz kobratzen diren zergeti dagozkien kitapenei buruzko jakinarazpenak agiri bidez egin ez izanagatik.

Hiritar gehienek ez dakite zergen jakinarazpen zehatz, pertsonal eta indibidualei buruzko arau orokorraren parean Zerga Lege Orokorreko 124. artikulua salbuespen garrantzitsu bat iragartzen duela. Agindu horrek hau dio:

“Errezibo bidez kobratzen diren aldizkako zergetan, kitapena dagokion erregistro, errolda edo matrikulan jakinarazi ondoren, jarraian egingo diren kitapenak denak batera ezagutarazi ahal izango dira horiek jakinarazten dituzten ediktuen bidez”.

Salbuespen horren garrantziaz ohartzeko, esan dezagun Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (antzinako Hiri Zerga), Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuen gaineko Zerga, edo Ekonomi-jarduerena, errezibo bidez aldizka kobratzen diren zergen kategoria horretan sartzen direla.

Horrelako zergak direnean, nahikoa da zerga ezartzen duen Administra-zioak alta emateari dagokion lehen kitapena zuzenean eta pertsonalki horretar-ako dagoen erroldan, matrikulan edo erregistroan ematea, jarraian egingo direnak ediktuak argitaratuz modu orokorrean egin ahal izateko. Udalek kobratzeko epea irēkitzat ematen duen ediktua probintziako Aldizkari ofiziale-an eta gainera dagokion lurraldeko egunkaririk zabalduenetan eman ohi dute.

Halere, eta praktikan, bide horiek erabiltzeaz gain, udalek gutun arrunten bidez ordainketa agiri indibidualak bidali ohi dituzte, baina jakinarazpenek bete behar dituzten baldintza guztiak ez dituzte horietan betetzen, ez delako frogatzen agiri horiek jaso direnik.

Kasu horietan, zergapekoak konfidantza osoz itxarotea erabakitzen badu, baina ordainketa agiria aipatutako arrazoiengatik zergapekoaren eskuetara sekula iristen ez bada, %20ko gainordainaren zorra ezartzen duen premia-mendu probidentzia egiten zaionean, ezin argudiatuko du kitapenaren jakina-razpenik ez duela jaso.

Beste horrenbeste gertatzen da zergapekoak errezipoen ordainketa-agin-dua finantz erakunde batean eduki eta horrek edozein arrazoiengatik ordain-tzen ez duenean ere. Kasu horietan, Administrazioa ez da saiatzen zergapeko-aren etxera kobraketa-deia berriz bidaltzen, eta ondorioz zergapekoa harriturik geratuko da premiabidezko probidentzia jasotzen duenean; kasu horietan bai, jakinarazpenak bete beharko ditu dagozkion baldintza orokorrak, kuota %20 igoko duelarik.

#### **D) Zerga Lege Orokorreko 124.3. artikulua egokitzen duen juris-prudentzia**

Aldez aurretik, ZLOko 124.3. artikuluan iragarritako ediktu bidezko jaki-narazpenaren eta Administrazioaren prozedura orokorraz hitzegiterakoan aipatu dugunaren artean dagoen aldea argitu behar da. Lehenengoan, hartzai-leak eta horien etxebizitza eta gainontzeko zertzeladak ezagunak dira, baina gestioak gutxitzeagatik, jakinarazpen orokorra egiteko aukera ematen da; aldiz, APEJL berriko 59. artikuluan iragarritako ediktu bidezko jakinarazpenak ordezkio izaera du, eta administrazio prozeduran sartutako interesatuari berari zuzenean jakinarazpen bat egiterik ez dagoenean bakarrik erabil daiteke.

Gai horri dagokionez, eta aldizka kobratzen diren zergen jakinarazpenaz orain arte esandakoaren aurka, babes judizial eraginkorren eskubidea defen-datzeko ahaleginean, jurisprudentziak egin duen zuzenketa aipatu behar da.

Horrela, aldizka kobratzen diren zergak ediktu bidez jakinarazteko bidea onargarria izan dadin, alta ematen denean egiten den lehen zerga kitapenak eta jarraian egiten direnek izaera berekoak izan behar dute, eta beraz, zerga-zorrearaino igoerarik egiten bada, Administrazioak norberari eta banan banan jakinarazi beharko dio aldaketa.

1992ko otsailaren 17ko Epaitegi Gorenaren epaian (Ar. 2.235) azaltzen diren oinarriak jasotzen ditugu hemen:

“...bestalde, errezibo bidez aldizkako zerga kobraketa guztiei buruz 86-12-9ko epaian sala honek finkatutako doktrinaren ezarpena baino ez da, eta bertan adierazten da, altari dagokion kitapena horretarako dagoen erroldan, matrikulan edo erregistroan jakinarazi ondoren, aurrerantzeko kitapenak ediktu bidez jakinarazpen orokorrak egiteko ZLOko 124.3. artikulua ematen duen aukera, bakar-bakarrik zergaren kobraketa aldizkakoa denean erabil daitekeela eta, gainera, indibidualki jakinarazten den hasierako kitapena eta ediktu bidez jarraian egiten dena izaera berekoak direnean.”

## 7.2.5. ONDORIOAK

**Lehenengoa.** Justizia antolamenduak jakinarazpenerako ezartzen dituen bide eta berme guztien helburua, Konstituzioan aitortzen diren babes judizial eraginkorren eta segurtasun judizialaren printzipioei erantzutea da, eta Administrazioak, beraz, ezin die entzungor egin Epaitegi Gorenak eta Konstituzio Epaitegiak gai horri buruz eman dituzten ebazpenei.

**Bigarrena.** Administrazioak bereziki, ahal dela, ez du ediktu bidezko jakinarazpena jo behar, beste bideekin ez bezala kasu horretan interesatuak jakinarazpena jaso duela ez delako frogatuta geratzen.

Administrazioak APEJLko 59. artikulua erabiliko dela iragartzen baita, moldatu egin beharko luke, bertan ediktu bidezko jakinarazpena *jakinarazpena egin nahi izan eta lortu ez denean* erabiliko dela iragartzen baita. Erakunde honen iritziz, jakinarazpena egiteko lekuari buruz zalantzarik ez dagoenean, ahalegin hori behar hainbat aldiz egin beharko litzateke, aipatutako aginduaren baimen orokorrean babestuz, hain garrantzi handia duen tramitea ediktu bidez jakinarazteko joera baztertuz. Era berean, jakinarazpenak egiteko ardura daukaten funtzionarioen aitorpenak egiazkotzat jotzea *iuris tantum* dela onartu beharko da, eta beraz kontrako frogak aurkez daitezkeela.

**Hirugarrena.** Zergen alorrean, Ondare-Eskualdaketan eta Agiri-bidezko Ekintza Juridikoan gainera Zergaren kasuan, agiria aurkezten duena interesatuaren ordezkari hartzea lehen fasean soilik onartu beharko litzateke, alegia, Administrazioak egite zergagarria sortu dela jakinarazteko unean bakarrik, prozeduraren ondorengo pausu guztietan sujetu pasiboari berari zuzenean jakinarazpena egin behar zaiolarik.

**Laugarrena.** Ez dugu ahaztu behar errezibo bidez aldizka kobratzen diren zergak ediktu bidez jakinaraztea aukerakoa dela ZLOeko 124.3. artikulutik ondorioztatzen den bezala, eta Epaitegi Gorenaren jurisprudentziak adierazi duen eran aurre baldintza bezala, erroldan, erregistroan edo matrikulan alta

ematerakoan egindako lehen kitapenak eta ediktu bidez ondoren egindakoek izaera berekoak izan behar dute.

Arau orokor bezala, Administrazioak, defentsa ezaren debekuaren eta babes judizial eraginkorraren printzipio nagusiak betetzearren, jakinarazpenak egiterakoan interesatuarentzat bermerik handienak eskaintzen dituen bidea aukeratu beharko du.

### **7.3. ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA ETA BABESPEKO ZAHARBERRITZE GAIAN ZENBAIT ONURA FISKAL BERRIRO INDA- RREAN JARTZEAREN EGOKITASUNA**

Bai babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak, bai higiezinak babespean zaharberritu eta ahalmen ekonomikorik gutxien duten biztanleen esku uzteko ekintzek ere Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua osatzen dute; artikulua horren indarrez, aginte publikoek bermatu behar baitute hiritar guztiak etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea.

Helburu hori lortuko bada, garrantzi handia izango du aginte publikoek noraino esku hartuko duten etxebizitzaren salneurrian eragina duten aldagai ezberdinetan, haien artean munta handikoak direlarik etxea edukitzeari ezar-zen zaizkion zerga ezberdinak.

Ikuspuntu horretatik, berriro azpimarratu behar da oso garrantzitsua izan daitekeela halako neurri fiskal multzo egoki bat hartzea, etxebizitza alorreko ekintza publikoaren esparru orokorrean.

Horrela, bai 1968ko Arautegiak, bai 2.960/1976 Erret Dekretuak ere zerga salbuespen eta hobari batzuk finkatzen dituzte babes ofizialeko etxebizitzetarako.

Gure Autonomi Komunitatearen esparruari dagokionez, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko legeetan araututa dauden salbuespen, hobari eta gainontzeko zerga-onurak 278/1983 Dekretuak araututako babespeko zaharberritze ekintzei ere ezarri zitzaizkien.

Onura horien artean, garrantzi handikoa zen obra eta hirigintz baimenen zerga-kuotan egiten zen %90eko hobaria.

Etxebizitzaren sustapen eta babespeko zaharberritze gaian zeuden finantz tresna hauen antolaketa aldatuta geratu zen abenduaren 28ko Toki-Ogasunei buruzko 39/1988 Legea, besteak beste, eta hiru lurralde historikoetako toki-ogasunei buruzko foru arauak onartu zirenean.

Horrela, haietako bakoitzaren xedapen gehigarriak zirela medio, 1989ko abenduaren 31tik aurrera, udal erregimenekoak ez ziren beste xedapen guztietatik ezabatuta geratu ziren udal zergetan finkatuta zeuden hobari fiskal guztiak, orokorrak zein bereziak.

Gertaera hori atzerapausu nabaria izan zen babespeko etxebizitzetarako politikan udalek egiten zuten ekarpenean, beste administrazio batzuek gerora zerga kontuan izan zuten jokabidea ez bezala.

Honi dagokionez ez da ahaztu behar gobernu autonomoak alor honetan egindako ahalegina, dirulaguntzatan eta mailegu kualifikatutan bideratutakoa.

Oraindik orain, esate baterako, Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Exekuzioari buruzko otsailaren 11ko 1/1993 Foru Arauaren bitartez, Ondare-Eskualdatzearen eta Agiri-bidezko Ekintza Juridikoen gaineko Zerga %3ra murriztea erabaki dute, ohizkoa izango den etxebizitza erosten denerako, bai etxebizitza libreetarako, bai babespekoetarako ere.

Estatu mailan, bestalde, BEZaren araupetze berria onartzen duen abenduaren 28ko 37/1992 Legeak ere %3ko zerga murriztua ezartzen die administratiboki erregimen bereziko babes ofizialekoen artean sailkatzen diren etxebizitzei, emanaldiak etxe horien sustatzaileek berek egiten dituztenean.

### 7.3.1. **OBRA ETA HIRIGINTZ BAIMENEN TASAKO ETA ERAIKUNTZA, OBRA ETA INSTALAKUNTZENGATIKO ZERGA HOBARIAK**

Toki-ogasunari buruzko foru arauak leku bakoitzean onartuak izan ondoren, bi dira babes ofizialeko etxebizitzaren alorreko ekintzetan zuzeneko eragina duten udal zergak. Alde batetik, obra eta hirigintz baimenak emateko tasa, 1992ko ekainaren 26ko Lur Jaurpideen eta Hiri-Antolaketaen Legearen Testu Bateratu berriko 242. artikulua ezarritako baldintzen arabera. Eta, beste aldetik, Eraikuntza, Obra eta Instalakuntzengatiko Zerga, Udalaren aukerakoa, dagokion baimena behar duen edozein eraikuntza, obra edo instalakuntzari ezartzen zaiona, hain zuzen ere. Bi zerga mota horiek zergagai berbera daukate, obren egiazko kostuak osatua, eta dagokion aurrekontuan azaldua.

Honi dagokionez, toki-ogasunari buruzko foru arauak hobari fiskalak kentzeaz esan dugunak ez du esan nahi udalek ezin dutela salbuespen eta hobari fiskal berririk onartu. Horrela, dagokien arauetako 9. artikulua dioen bezala:

“Udalerriek, beren aginpideaz baliatuz, eta Foru Arauen esparruaren barruan, hobari fiskalak eskaini ahal izango dituzte beraien zergetarako, beraien aurrekontuen kontura.

Horretarako, udalek, oro har, hobari fiskal horiek aplikatzeko erabakia hartu ahal izango dute beraien aginpide-esparrurako”.

Beste alde batetik, hirugarren xedapen gehigarriak, bere bigarren idaztarian, aditzera ematen duenez, esandako 9. artikuluan finkatutakoa galerazi gabe, lurralde historiko bakoitzeko aurrekontu orokorren foru arauak hobari fiskalak finkatu ahal izango dituzte udal zergetarako.

Azkenik, ez da ahaztu behar toki-ogasunei buruzko arautegi horretxan arabera, udalek, tasen zenbatekoa zehaztean, zergadunen gaitasun ekonomikoari buruzko irizpide orokor batzuk eduki beharko dituztela kontutan.

Beraz, ikuspuntu formal batetik begiratuta, inolako eragozpenik ez dago udalek esan ditugun zerga mota horietarako salbuespen eta hobariak onartzeko, zergaia babespeko etxebizitza alorreko ekintza bat denean.

### 7.3.2. ONDORIOA

Aginte publikoak beraien jardueraren bitartez Espainiako Konstituzioko 47. artikulua aldarrikatzen duen eskubidea babestera behartuta daude, horrela hiritar guztiek etxebizitza duin eta egokia edukitzeko aukera izan dezaten.

Hiru lurralde historikoetako toki-ogasunari buruzko foru arauak 1989an onartu ziren arte, udalek zuzenean esku hartzen zuten babespeko etxebizitzaren gai honetan, besteak beste, obra eta hirigintz baimenen gaineko tasaren kuotatik %90eko hobaria eginez.

Arau-aldaketa hori gertatu eta gero, ez dago inolako zuribiderik udalek zerga horien bidez beren sarrerak ugaltzen jarraitzeko, kontutan harturik bai Eusko Jaurlaritza, bai foru aldundiak ere ahalegin handiak egiten ari direla, dirubide eta baliabideak eskainiz, etxebizitza alorra suspertzeko asmoz.

Horrekin bat etorritz, bidezkoa dirudi, beraz, udalei dagokien esparruan konpromezu maila handiagoa eskatzea, hau da, zehazkiago hitzegiteko, hobari fiskalak berriro indarrean jartzeko erabakia har dezatela, toki-ogasunari buruzko foru arauak onartu aurretik indarrean egon ziren bitartean oso tresna eragin-garriak gertatu zirelako babes ofizialeko etxebizitzak eta babespeko zaharberitze ekintzak sustatzeko.

Ararteko Erakunde honen iritziz, eta Espainiako Konstituzioko 47. eta 53. artikuluek aginte publikoei ezartzen dien betebeharraren ikuspegitik, beharrezkoa da udalen ordenantza fiskaletan babespeko etxebizitza alorreko ekintzetarako salbuespen eta hobariak sartzea, 1989ra arte zegoen laguntza maila berbera behintzat bermatzeko.

Illo horretatik, horretarako beharko diren xedapenak eman ditzatela gomendatzen zaie foru aldundiei.

## 7.4. HONDAMEN-ADIERAZPENETAN ORDEZKO ETXEA JASOTZEKO ESKUBIDEA

### 7.4.1. HELBURUA

Gomendio honen helburua, etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubi-dearen osagaien artean, hondamendizat jotzen diren eraikinen kasuan, ordezeko etxea jasotzeko eskubidea sartzea da.

## 7.4.2. **ORDEZKO ETXEA JASOTZEKO ESKUBIDEA, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ESKUBIDEAREN OSAGAI**

Espainiako Konstituzioko (EK) "Gizarte eta ekonomi politikaren gida oinarriez" deritzan III. atalean, "Oinarrizko eskubide eta betebeharrak" izenburuko I. tituluan datorren 47. artikulua honako hitz hauekin aitortzen du etxebizitza edukitzeko eskubidea:

"Espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Aginte publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta beharrezko arauak ezarriko eskubide hau egiaztatzeko."

Eskubide hau garrantzitsua da, ez bizitzeko oinarrizko premia bat betetzen duelako bakarrik, baizik eta, baita hiritarrei funtsezko eskubide ohizkoak ere edukitzeko aukera ematen diolako, hau da, bizilekuaren bortxaezintasuna (18.2. art.) edo bizitokia hautatzeko askatasuna (19. art.). Hortaz, etxebizitza ezinbestekoa da norbanakoaren bizitza pertsonal, familiarreko edo lagunartekoa egon eta garatu ahal izateko, bai eta beharrezko funtsezkoenak eta oinarrizkoenak asetu ahal izateko ere.

Etxebizitza eskubidearen edukiari dagokionez, Konstituzioak "etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea" aipatzen duela adierazi behar da. Dena dela, atzerriko beste funtsezko arau batzuek, hala nola Grezia, Italia edo Portugalekoak, etxebizitzaren jabe izateko eskubideaz hitzegiten dute, baina Espainiakoak, aldiz, ez du aditzera ematen zer nolako harreman juridikoak egon behar duen eskubideduna den hiritarraren eta eskubidegaia den etxebizitzaren artean. Ondorioz, konstituzio-agindua bete daiteke, bai jabetza-harremanaren bidez, bai alokera, usufuktu, azalera edo beste ezertarako eskubide baten bidez ere.

III. ataleko eskubide guztien antzera, etxebizitza eskubidea ez da hiritarrek zuzenean exiji dezaketena, II. ataleko oinarrizko eskubideak ez bezala. Baina badu bere garrantzia, abiaburu den aldetik zuzenbide-iturri delako jasotzaile dituen aginte publiko guztientzat (EK 53.3. art.), eta, ondorioz, ohizko legegileari askatasuna mugatzen diolako eta derrigorrez bete beharreko jarraibideak ezartzen dizkiolako. Hortaz, legegintzarako botereak, abiaburu horiei dagozkien gaiekin topo egiten duenean, horiek bete egin beharko ditu, legeria positiboaren oinarri direlako.

Etxebizitza edukitzeko eskubideaz benetan baliatu ahal izatea zailtzen duten baldintza faktiko batzuk badira. Bestela esanda, honelako eskubideen edukia hainbat faktoreren menpe dago: zein den herri batek lortutako garapen ekonomikoaren maila, zein den testuinguru soziala, eta, orobat, Estatuak nolako aukera eta ahalbide materialak dituen eskubide horiek exijitzen dituzten zerbitzuak eskaintzeko. Kontutan eduki behar da etxebizitzak produzio kostu handia duela, ondasun ekonomikoa den aldetik.

Konstituzioko 9.2. artikuluko aginduaren arabera, aginte publikoei dagozkie hiritarren askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan



dadin behar diren baldintzak bultzatu eta dauden oztopoak galeraztea. Etxebizitza hiritar guztien beharrian soziala da, baina biztanle multzo guztiek ez dute premia hori asetzeko modurik, beren errenten eraginez. Horren ondorioz, aginte publikoek (Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, udalek...), legeria positiboaren eta administrazio-jardueraren bitartez, batez ere dirusarrera gutxien duten hiritarrei lagundu behar diete, eskubide hori benetan gauzatzeko aukera izan dezaten.

Izan ere, ordezko etxea jasotzeko eskubidea, titularrari etxebizitza edukitzeko edo higiezin batean bizilekua hartzeko aukera ematen dion eskubidea da, baina berezitasun batez: alegia, titular horrek lehenago bazuela bere ohizko etxebizitza. Beraz, lehenago etxebizitza hori gabe utzi denean, titular horri etxebizitza edukitzeko eskubidea itzultzea edo eskubide horri eustea da gakoa, nahiz eta, bistan denez, etxebizitza hori beste bat izango den eta, horrela, eskubidea beste bizen bat emanez gauzatu beharko den.

Gure iritziz, ordezko etxea jasotzeko eskubidea EKko 47. artikuluan aldarrikatutako etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubide hori aplikatu behar den kasuetako bat da; gainera aginte publikoen eskuhartzea eskatzen du, gehienetan hirigintza izaera duena, higiezin bat hondamendizat jo eta, ondorioz, bota egiten denean, neurria jasaten dutenak eskubide hori gabe uzten dituztelako. Horregatik, herri-agintariak bizileku gabe utzitako hiritarrei etxebizitza duin eta egokia emateko ahaleginak egin beharko lituzkete, eta oro har irizpide horretan oinarritu beren jarduerak.

### 7.4.3. HONDAMEN-ADIERAZPENA ETA ERAIKUNTZEN ERAUZKETA

Gomendioaren hasieran aditzera eman dugunez, beronek ordezko etxea jasotzeko eskubidea etxebizitza edukitzeko eskubidearen osagaitzat hartzea du xede, eta jakina, orduan, beharrezko da *hondamen* hirigintza-hitza aztertzea.

1992ko Lur Jaurpideen eta Hirigintza Antolaketaren Legearen Testu Bateratuko (aurrerantzean LLTB) 245.1. artikulua dioenaren arabera, "lur-sail, ekimen partikularreko urbanizazio eta eraikin jabeek 21.1. artikuluan adierazitako baldintza eta arauak jarraituz mantendu beharko dituzte", hau da, "...segurtasun, osasungarritasun eta txukuntasun baldintza egokietan...".

Horren arabera, arauak halako betekizun orokor bat ezartzen die jabe guztiei: eskatutako segurtasun, osasungarritasun eta txukuntasun mailari eusteko beharrezkotzat jotzen diren obrak egitea; era berean, Administrazioari kontrol-ahalmena ematen dio, exekuzio-aginduen bitartez gauza dezan eta kasu bakoitzean egiteko behar berezi bihurtu dezan (LLTB 245.2.).

Jabeei zein Administrazioari berari esijitzekoa den mantenu behar hori LLTBko 247. artikulua aipatzen dituen kasuetako bat gertatzen denean amaitzen da, hots, eraikuntza hori hondamendi hutsa denean; kasu horretan, jabeek higiezina erauzteko beharra izaten dute.

Horixe argitzen du LLTBko 247. artikulua bere 1. idazatian: "Eraikin bat edo bere zatiren bat hondamen egoeran dagoenean, Udalak, ofizioz edota edozein interesaturen eskariz, egoera hori adierazi eta erauzketa osoa edo zatizkoa egin behar dela erabakiko du, lehenago jabeari eta bizilagunei entzualdia emanaz, hori galerazten duen berehalako arriskua izan ezean."

Artikulu bereko 2. idazatiak zehazten du zein kasutan eman daitekeen hondamen-adierazpena:

a) Arrazoi ekonomikoengatik, "egin beharreko konponketa-lanen kostua eraikuntzak edo dagozkion solairuak une horretan duen balioaren ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa denean, lurraren balioa kanpo utzirik".

b) Eraikuntz mailako arrazoiengatik, "eraikuntzaren funtsezko edo egiturazko osagai gehienak hondatuta daudenean".

c) Hirigintz mailako arrazoiengatik, "eraikuntza hori antolaketatik kanpo egoeran izanik, baimendu ezinezko konponketa-lanak egin beharra dagoenean".

Arau hau, ordea, ezin zaie ezarri sailkaturik edo zerrendaturik dauden kultur ondasuntzat jotako higiezinei, ezen kasutan hondamen-adierazpenak ez baitakar berekin eraikina erauzi beharra. Euskal Kultur Ondarearen 7/90 Legearen 36. artikulua arabera, higiezin horiek erauzi ahal izateko, dago-kion foru aldundiak aurretiaz bere baimena eman behar du, eta kontsulta-sail autonomikoaren txostena ere behar da.

Dena dela, legeak ez du zehazten zein arrazoi *erreal*, *objetibo* edo *subjektiborengatik* gerta daitezkeen eraikin horien hondamen-egoerak. Ildo honetatik, honako kasuok bereiziko ditugu:

1. Hondamen-adierazpena ematea, jabeak bere eraikuntza segurtasun eta osasungarritasun egoeran edukitzeko beharra ez betetzeagatik. Ez betetze hori, aldi berean, bi arrazoiok eragin dezakete:

1.1. Jabearen utzikeriagatik gerta daiteke, hau da, espekulatzearren, horren bidez alokera zaharreko maizterrak etxetik aldeginarazteko.

1.2. Jabeak bere eraikina behar den egoeran edukitzearren egin beharreko berriztatze-lanei aurre egiteko dirurik ez izateagatik.

2. Hondamen-adierazpena ematea, legezko murriztapenek jabeari gogortze eta berriztatze-lanak egin ditzan eragozten diotelako, eraikin hori antolaketaz kanpo egoteagatik, hirigintz plangintzari egokitzen ez zaiolako.

Kasu honetan, etxebizitza jabeari gogortze eta berriztatze-lanak egiteko aukera ukatzen zaio, Lurraren Legearen Testu Bateratuko 137. artikulua diotenari jarraiki, eta horrela, denbora-epe jakin baten buruan, antolaketaz kanpo eraikin hori erauzi beharra gertatuko da.

Hirigintz-plangintzak eraikina antolaketaz kanpoko izendatzeak, eraikinean egiturazko edo zaharberritze-lanak egiteko mugapena jartzen dio jabeari. Halere, mugapen berezi eta desberdintzailea den arren, gainerako jabeek obra horiek egin baititzakete, jabeek ez dute kalteordainik jasotzeko aukerarik, LLTBko 237.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Alde batetik plangintzak eraikinaren hondamena iragartzen du eta horren aldeko da, baina bestetik ez du lege-jaurpideetan ordainbiderik aipatzen. Gure ustez, ordezko etxebizitza jasotzeko eskubidearen bitartez eman beharko litzaioke jabeari lehen izan zuen etxebizitza edukitzeko aukera, hain zuzen ere, antolaketaz kanpokotzat jo ondoren, denbora-epe baten buruan galdu zuena.

Gauzak horrela, etxebizitza duina edukitzeko eskubideari dagokionez, argitu behar da zer nolako egoeratan geratzen diren etxebizitzan bizi direnak, etxebizitza hondamendizat jo eta erauzi beharra dagoenean, eskubide horretaz baliatu ezinik geratzen baitira. Eta zehazkiago, aztertu behar da ea, zertzelada horietan, neurri gogor horren ondorioak jasaten dituztenek ordezko etxea jasotzeko eskubiderik duten ala ez, beren etxebizitza hondamendizat jo eta galdu aurreko egoerara itzultzerik izan dezaten.

Ildo horretatik, zuzenbide positiboa ikertzeari ekingo diogu ondoko orriotan, legeetan eskubide horretaz baliatzeko asmoa baieztatzen duen aurrikuspenik ba ote dagoen zehazteko.

#### **7.4.4. ORDEZKO ETXEA JASOTZEKO ESKUBIDEA LEGERIAN**

##### **7.4.4.1. Zuzenbide konparatua**

Ordezko etxea jasotzeko eskubidea arautzeko ahalbidea aztertzean, Estatuko legeria ikertzeari ekin aurretik, komeni da azpimarratuta uztea kontzeptu juridiko hori jasota dagoela guregandik hurbileneko ingurune juridiko-kulturalean, hainbat antolaketa juridikotan, eta ikuspegi juridiko desberdinetan, hala nola kontinentekoan eta anglosaxoian.

Horrela, hondamen-adierazpenari gagozkiolarik, Alemaniako legerian 1976ko Eraikuntza Lege Federalean jasotzen dela ikus dezakegu. Lege-testu horretan jasotzen da zein kasutan udalerririk behartu dezakeen jabea bere eraikuntza erabat edo zatiz bota dadin onartzera, etxebizitza horrek, garapen-egitasmo baten aplikazio-eremuan, egitasmoan finkatutakoari jarraitzen ez dionean eta horretara moldatzerik ez duenean, edota etxebizitzan berrikuntza lanak eginez konpondu ezin diren akatsak daudenean.

Orobat, gure azterlanari begira, argi adierazten da ezin daitekeela etxea hustuarazi ez eta erauzi ere, aurrez ez bada baldintzatan dagoen beste leku bat aurkitzen; hau da, erauzketa-agindua jakinerazi aurretik, kontutan hartu behar dela eraikuntza horretako bizilagunak antzeko ezaugarriak dituen beste etxebizitza batzuetara eraman behar direla. Honela dio 39. d) artikulua:

“Bizilekua denean, jakinerazpena egin daiteke baldin eta erauzketari ekiteko orduan bizilagunentzat onartzeko moduko beste etxebizitza bat badago...”.

Bretainia Handiko legerian, aldiz, ordezeko etxea jasotzeko aukera, bai eta horri buruz 1985eko “Housing Act” deritzanak ezartzen duen jarraitu beharreko prozedura ere hartzen dira kontutan. Haren 289. artikulua arabera, toki-agintaritzak erauzketa-eremu bat izendatu ahal izateko, ezer baino lehen ziurtatu behar du erauzi beharreko etxeetan bizi zirenek beste bizilekurik badutela, eta erabaki hori beharrezkoa denean, agintariek erabakia hartu aurretik ordezeko bizilekua topa daitekeela ziurtatu behar dute. Honi dagokionez, argitu dezagun zein hartzen diren erauzketa-eremutzat:

1. “Eremu horretako etxeak, orubeak edo eraikinak etxebizitza izateko desegokiak direnean beraien egoera okerragatik edota, kale estuetan egonda arriskutsuak direnean, edota bertako biztanleen osasunerako kaltegarriak direnean, eta

2. Eremu horretan beste eraikuntzarik egonez gero, antzeko arrazoien-gatik arriskutsuak edo bertako biztanleen osasunerako kaltegarriak direnean, eta eremu horretako baldintzak hobetzeko biderik egokiena bertako eraikuntzak erauztea denean.”

Beraz, agindu horretatik ondoriozta daiteke hirigintz hondamendia edo osasungarritasun arazoek eragindako hondamen adierazpena egin daitekeela hondatutako hiriguneak bereoneratzeko, eta, halaber, adierazpen horrek, berme gisa, eragindako pertsoneri beste bizileku bat aurkitzera behartzen duela.

Frantziako legeria Alemaniakoarekin bat dator, hondamen-adierazpenaren ondorioz eraikina erauzi beharra dagoenean, edota etxebizitzak denboratarte batez zaharberritu behar direnean, bizilagunei ordezeko etxea aurkitu behar zaiela baitio; prozedura hori araututa dago, gainera, 1986ko Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Kodigoaren III. kapituluko 1. ataleko 496. artikulutan eta ondokoetan.

#### 7.4.4.2. Hirialdeko Alokeren Legea

Estatuko araei bagagozkie, ordezeko etxea jasotzeko eskubidea izaera orokorreko inolako arautan finkatzen ez bada ere, lege berezi batzuetan bai, jasotzen da, ordea.

Horrela, 1964ko Hirialdeko Alokeren Legean (HAL) ez da inolako aipamen berezirik egiten ordezeko etxea jasotzeko eskubidez, hau da, etxebizitza hondamendizat jo ondoren handik alde egin behar duten bizilagunek bere kasuan eduki dezaketan eskubide horretaz.

HALeko 10. kausako 114. artikulua arabera, alogera-kontratua, alokatzailearen ekimenez, bukatutzat jotzeko arrazoen artean sartzen du orubearen hondamen-adierazpena, errekurtoa egin ezinezko erabakian eta udal agintearen aurrean bideratutako kontraesanezko espediente hartua, espediente horren hasieran maizterrak eta alokatzaileak zitatuta egon behar dutelarik.

Ildo honetatik, hondamen-adierazpenak, berehalako ondorio etxebizitzaren erauzketa dakarrenak, alderdi kontratatzaileen nahiaz kanpoko arrazoenatik kontratugaia galtzea eragiten du, eta horregatik, eraikina hondamendizat jotzen denean, etxean bizi zirenei kalteordainik eman beharrik ez dago eta, are gehiago, alokatzailea ez dago maizterrei ordezeko etxebizitza aurkitzera behartuta.

Era berean, komeni da aipatzea esandako lege horretako 78. artikuluan eta ondokoetan, etxebizitzaren edo negozio-lekuaren alogera kontratua luzatzeko bigarren salbuespen-arrazoi hau jasotzen dela: alegia, alokatzailearen eskariz, eta Gobernadore Zibilaren baimenaz, orube bat erauzteko egitasmoa egotea, ebazpen horietan oinarritutako arrazoiengatik, eta agintariak aurretiaz ezarritako epean eraikin berria egiteko konpromezuarekin.

Orubeak erauzteko kasu horietan ere ez da aipatzen maizterrei ordezeko bizilekua aurkitu behar zaienik; bakarrik, etxebizitzak erauzi aurreko baldintza berberetan eraikuntza berrietara itzultzeko eskubidea bermatzen zaie maizterrei.

Horrela, itzultzeko eskubidea finkatzen da, obrek etendako alokera-kontratuaren luzapen gisa, hau da, maizterrari edukitzeko aukera berreskuratuz.

Azkenik, HALri buruzko azaleko azterketa honetan, esan dezagun 81.5. artikuluari jarraituz, ehun urtetik gorako etxeak erauzteko baimena ematen denean maizterrek dauzkaten ahalbideen artean, kontutan hartzen dela alokatzaileek, maizterren beharren eta ahalbide ekonomikoen arabera, hiri berean beste etxebizitza bat eskaintzeko aukera. Kasu horretan, maizterrak aukera horretaz baliatu nahi izanez gero, alokatzailea erauziko diren etxeetan bizi direnei ordezeko bizilekua aurkitzera behartuta dagoela esan genezake.

Hortaz, ondorioz esan dezakegu, HALri jarraituz, orube bat hondamendizat jotzea alokera-kontratua amaitzeko motibu izan daitekeela, eta kasu horretan ez dagoela ordezeko etxebizitza berehala jasotzeko eskubiderik.

Dena dela, badago itzultzeko eskubidea, HALko 78. artikulua eta ondokoek aipatutako kasua bada, bai eta ordezeko etxea jasotzeko behin-behineko eskubidea ere, erauzten den etxeak 100 urte baino gehiago dituenean, eta maizterrak aukera horretaz baliatu nahi badu.

#### **7.4.4.3. 1992ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratua**

Lurzoruaren Hirigintz Jaurpidearen eta Balioespenaren Aldakuntzarako uztailaren 25eko 8/90 Legea, ekainaren 26ko 1/1992 Erret Legegintz Dekretuan bateratu zena, hots, Lur Jaurpideen eta Hirigintz Antolaketaren

Legearen Testu Bateratua onartu zen arte, hirigintzaren alorreko legeriak ez zuen kontutan hartzen hirigintz jardueren ondorioz beren etxebizitzetatik alde egin beharrean aurkitzen ziren pertsonen ordezko etxea jasotzeko eskubidea.

Horregatik, berria da 8/90 Legearen bosgarren xedapen gehigarria, Lurzoruaren Legearen Testu Bateratu (LLTB) berriko laugarren xedapen gehigarrian hitzez hitz eta eranskin labur batzuez jasoa; izan ere, argi uzten du zein hirigintz ekintzen ondorioz bermatu behar zaien ordezko etxebizitza jasotzeko eskubidea, beraien ohizko etxebizitzetan bizi direnei.

Gauzak horrela, bertan aipatzen diren kasuak hona ekarriko ditugu, beren garrantziagatik hitzez hitz transkribatuta:

1.- “Jabego kentzeari ekiten zaionean, Administrazio jabego kenzaileak edo, bestela, jabego kentzearen onuradunak behartuta daude eragindako legezko bizilagunei etxebizitzak aurkitzera, herri-sustapenekoak diren etxeak saldu edo alokatzeko baldintza berberetan, legeria babesgarriak ezarritako mugen barruan.

2.- Exekuzio-unitateetan beste bide bati ekiten zaionean, legezko bizilagunek ez dute ordezko etxea jasotzeko eskubiderik izango baldin eta, beren lur ekarpenaren arabera, laurogeita hamar metro karratutik gorako edo etxebizitzaren legeria babesgarriak ezartzen duen gehienezko azalera gainditzen duten bizitegi probetxamenduak banatzen bazaizkie.

Gainontzeko kasuetan, bestalde, jarduera aurrera daraman Administrazioak gauzatu behar du ordezko etxebizitza jasotzeko eskubidea, 1. araeuan adierazitako baldintzetan; hirigintz ekintzaren gastutzat joko dira legezko bizilagunek lekuz aldatzeagatik eta beste arrazoi batzuegatik dauzkatenak.

3.- Jabego kentzekoak ez diren ekintza bakunetan, aldiz, erauzitako etxebizitzaren jabeek alokera-legerian araututako itzultzeko eskubidea izango dute, eta eskubide horretaz baliatu ahal izango dira eraikuntza berriaren jabearen aurrean, berau edozein delarik ere. Kasutan, etxera itzultzeko modurik ez dagoen bitartean, jabeak behin-behineko bizilekua bermatu behar die maizterrei.”

Eraikuntza bat antolaketaz kanpokotzat sailkatua egonda, orube berean berreraikitzen denean, antolaketan ipinitako erabiletatik kanpo ez egoteatik hain zuzen, jabeek maizterrei itzultzeko eta behin-behineko bizilekua emateko eskubidea bermatu behar dietela jasota dago LLTBko 137. artikuluan.

Azkenik, adierazi behar dugu esandako xedapen gehigarriak finkatutakoa ezin dela aplikatu, LLTBko 136. artikulua dioenaren arabera, baimentzen diren behin-behineko erabilera eta obretan, hirigintz egitasmoetan ezarritakoaren salbuespen bezala, baldin eta haien exekuzioa zailtzen ez badute, eta edozein unetan erauz daitezkeela, Udalak halaxe erabakitzen badu.

Hortaz, amaitzeko hauxe esan dezakegu xedapen gehigarri horretaz:

- Gure lege-erapidetzan lehen aldiz aipatzen da oro har edozein hirigintz-jarduerak eragindakoek ordezko etxebizitza duten jasotzeko eskubidea.

- Ez da adierazten etxebizitza bat hondamendizat jotzen denean, etxea utzi behar duten legezko bizilagunek ordezko etxea jasotzeko eskubidea duten. Hori gertatuz gero, erauzitako etxeetako maizterrek etxe berrira itzultzeko eskubidea besterik ez legoke.

- Etxebizitzetako legezko bizilagunei antzeko beste etxe bat ematean, ordezko etxea sustapeneko etxebizitzak saldu edo alokatzeko baldintza beretan jasotzeko eskubidea zehazten da.

- Ez da ezertarako ere aipatzen, bizilekua alokatzea erabakiz gero, alogeren gutxienezko denbora iraupena.

- Arauak ordezko bizilekua aurkitu beharraz hitzegiten duenean, ez du argitzen zein den jarraitu beharreko bidea, ez eta bizileku horiek behin-behinekoak izango diren ere.

Gauzak horrela, gure iritziz, geroago azalduko dugun bezala, ordezko etxea jasotzeko eskubidearen edukia hobeto zehaztu eta argitu beharra dago.

#### 7.4.4.4. **Ordezko etxea aurkitzeko operazio handiak babesteko lege-neurriak**

Lehenago adierazi dugu ordezko etxea jasotzeko eskubidea, oro har, arautu gabe dagoela Estatuko legerian, zenbait lege berezitan jasota badago ere. Dena dela, esan behar da, orobat, Carl Schmitt-ek "lege-neurriak" deitzen dituenak -halako arazo jakin bakan batzuk konpontzeko xedea dutenak eta orokorrak eta iraunkorrak ez direnak- izango direla era honetan arautzen diren neurrien hartzaileek duten ordezko etxea jasotzeko eskubidea ustez gehien jasoko dutenak.

Aginte publikoek gero eta sarriago ahaleginak egiten dituzte hiri handietako kanpokaldeetan gertatzen diren pobrezia latzeko arazoei eta bazterkeriazkoei irtenbide orokorrak emateko; izan ere, gizarteko zenbait talde txabolatan eta bizigarritasun eta osasungarritasun baldintza eskasetan bizi direnez gero, aginte publikoek neurriak hartu behar dituzte behe mailako etxebizitzak desgerrarazteko eta neurri horiek jasaten dituztenei ordezko bizilekua aurkitzeko.

Horregatik, tresna juridikoek ahalbidetzen dituzten neurri *ad hoc* horiek kontutan hartzen dute ordezko bizilekua jasotzeko eskubidea, baina ez orokorri, baizik eta kasuak banan banan aztertuz.

Ildo honetatik, aipagarria da 1984ko otsailaren 22ko Erret Dekretuak, 1979ko maiatzaren 24ko Herrilan eta Hirigintza Ministraritzaren Aginduak eta 1982ko otsailaren 12ko Ministro Kontseiluaren erabakiak arautzen dituztela higiezinaren bermoldaketa eta bizilagunei ordezko bizilekua aurkitu beharra, Madrilera zenbait auzotako (Palomeras, Orcasitas...) behe mailako bizilekuak eta txabolatan bizitzea desgerrarazi asmoz.

Arrazoi berberagatik onartu zen Administrazio zentralak, autonomikoak eta lokalak 1986ko urtarrilean izenpetu zuten Lankidetzak Hitzarmena, Madrilgo Elkarte Autonomoan bizi zen biztanleria bazterreratuari, ijito arrazakoari batez ere, bestelako bizilekuak emateko, ordurarte bizi ziren leku eta etxeak nahiko eskasak eta ezin bizitzeko modukoak zirelako.

Hitzarmen horretan, halako azpiegitarrak batzuen bitartez, gutxi gorabehera 1.500 familiari duintasunez bizitzeko moduko behin-behineko etxebizitzak eta bizilekuak eraikitzeke proiektuaren garapena zehaztu nahi zen; esandako egitarau hori sei urtez luzatuko zela aurrakusi zen.

#### 7.4.5. **HONDAMEN-ADIERAZPENAREN ONDORIOZ ERAUZITAKO ERAIKINEAN BIZI DIRENEI ORDEZKO ETXEBIZITZA AURKITZEKO PROPOSAMENA**

Lehenago esan den bezala, Konstituzioaren arabera gure Estatua zuzenbidedun, sozial eta demokratikotzat jotzen da, bere legeria sektorialean zati batez bakarrik jasotzen du ordezkoko etxea jasotzeko eskubidea, eta bere Konstituzioiko I. tituluan funtsezko eskubidetzat eta politika sozial eta ekonomikoaren abiapuntutzat jotzen du etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea (47. art.).

Bada, eskubideak bermatzen dituen testuinguru instituzional honetan gaudela, gure iritziz Herri-agintaritzaren ahaleginak, hau da, jarduera administratiiboak eta legeria positiboak, biztanle guztiei aitortu beharko liekete ordezkoko etxea jasotzeko eskubidea, edozein dela hasierako egoera, hori bai, legearen barruan beti, eta etxea utzi beharra eragiten duten arrazoiak edozein direlarik, arrazoi horiek maizterrei edo jabeei leporatu beharrekoak direnean izan ezik.

Ordezko etxea jasotzeko eskubidea biztanleria osoari aitortzea askoz premiazkoagoa da lehenago esandako kasuetan, hau da, eraikuntza bat hondamenditzat jotzean legezko bizilagunak etxetik alde egin behar duenean.

Gogoeta hauekin aurrera jarraitu baino lehen, zehaztu behar da zertan datzan ordezkoko etxea jasotzeko eskubidea, eta horretarako indarrean dagoen legeria positibo sektorialak eskubide honetaz egiten duen definiziotik abiatzen gara.

Ordezko etxea jasotzeko eskubideak salmenta edo alogera erregimenean etxea edukitzeko aukera eman behar du, ondoko zehaztapenekin:

- Une bakoitzean herri-babespeko etxebizitzetara dagokienez indarrean dagoen saltzeko edo alokatzeko baldintza berberak ezarri behar dira.

- Jasotzen den ordezkoko etxea alogeran hartzen denean, gutxienezko egonaldi bat bermatu behar zaio maizterrari.

- Ordezko etxearen azalera lehenagoko etxearen antzekoa izan behar du, herri-babespeko etxebizitzetara onartzen zaien gehienezko azalera gainditu gabe.

- Etxebizitza berriak aurrekotik ahalik eta hurbilen egon beharko du.



Hondamen kasuetan ordezeko etxebizitza jasotzeko eskubidea eduki ahal izateko, onuradunek zenbait baldintza bete behar dituzte:

1.- Legezko bizilagunak izatea (maizterrak, usufruktudunak, azalera-eskubidunak...).

2.- Herri berean beste etxebizitzarik ez edukitzea.

3.- Etxea utzi aurretik, zehaztuko den gutxienezko epean bertan bizi izana. Baldintza honen bitartez eragotzi nahi da maizter berriak hondamendizat jotzeko zorian dagoen etxebizitzan sartuz ezaugarri hobeak dituen ordezeko etxea jasotzeko eskubideaz jabetzea.

Etxebizitza-jabeek dauzkaten betebeharren artean etxeak segurtasun eta osasungarritasun egoera egokian edukitzekoa dagoenez gero, gure iritziz ez litzateke komenigarria izango ordezeko etxea jasotzeko eskubidea aitortzea etxea behar bezala mantentzeko beharra bete ez duen jabe axolagabeari. Aitzitik, gure ustez, legezko bizilagun deitzen diren horien artean sartu beharko liriateke jabeak ere hirigintz-hondamendia denean, edota, hondamendiaren arrazoia bestelakoa izanda, jabeak berrikuntza-lanak ordaintzeko modurik ez duenean.

Eskubide orori betebehar bat dagokio, eta, beraz, ordezeko etxea jasotzeko eskubidea nork bermatu behar duen zehaztu behar da. LLTBk, bere 4. xedapen gehigarrian, Administrazio ekintzaleari ezartzen dio betebehar hori, alegia, udalei edo hirigintz jaupideen alorrean eskumena duten administrazioei, ondoko bi salbuespenekin:

1. Jabego-kentzeari ekitean, onuraduna beste bat denean.
2. Jabego-kentzea ez den ekintza bakana, hots, borondatezko erauzketa denean.

Lehen kasuan, jabego kentzearen onuraduna da eskubidea bermatu behar duena; bigarrean, ordea, etxearen jabeak bermatu behar dio eskubide hori maizterrari, honek, gainera, eraikin berrian ere baliaraz dezakeelarik bere eskubidea jabearen aurrean.

Gure ustez, eraikuntza bat hondamendizat jo eta gero etxebizitza hustu beharra dagoenean ere erabil liteke irizpide hori, eta, beraz, kasu horretan Administrazio ekintzaleak bermatu behar du eskubide hori. Hondamena "borondatezkoa" denean, hau da, jabeak etxea egoera onean mantentzeko beharra betetzen ez duenean, jabea da maizterrari ordezeko etxea aurkitu behar diona.

Eskubide horretaz baliatzeko prozedurak ez du inolako berezitasunik, baina oinarrizko bi jarraibide bete behar ditu:

1. Entzunaldia: kaltetutakoak etxebizitzaren ezaugarri, kokapen eta beharrei buruz duen iritzia adierazi ahal izateko.

2. Erauzketa baino lehen ordezeko etxea jasotzea: hau da, erauzketa lanak ezin dira hasi, ezta administratiboki ere, ordezeko etxea benetan jasotzen ez den bitartean.

Kontutan hartzen badugu Konstituzioak etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea aitortzen diela hiritarrei (47. artikulua), nahiz eta ez izan eskubide subjektibo moduan, eta, orobat, aitorten horrek egon behar duela aginte publikoen ekintzaren oinarrian (53.3. artikulua), ez dugu uste inolako oztoporik dagoenik, oztopo ekonomiko hutsa izan ezik, Administrazioak hondamen-adierazpena ematen duenean udalek legezko bizilagunei ordezeko etxebizitza jasotzeko eskubidea onartzeko.

Nolanahi ere, hondamen-adierazpenetan ordezeko etxea jasotzeko eskubide hori legezko testu batean finkatzearen alde gaude. Euskal Autonomi Komunitateko erakunde amankomunek, etxebizitza eta hirigintza alorreko eskumen-tituluetan (Estatutuko 10.31. artikulua) onartuta daukate gai honi buruzko legeak egiteko ahalmena.

Gure iritziz, honelako funtsezko eskubidea aitortzen bada, kontutan hartuz udalei halako betebeharrak batzuk ezarriko dizkiela, lege mailako arau batean jaso beharko litzateke. Are gehiago, komenigarria eta egokia ere izan liteke 1992ko LLTB garatu eta osatzearen Eusko Legebiltzarrak onartu beharko duen lege autonomikoaren artikuluen artean sartzea.

Gainera, etxebizitza publikoari buruzko arautegia ere koordinatu beharko litzateke, ordezeko etxea jasotzeko eskubidea ahalbideratzeko, etxebizitza sozialak banatzen direnean hondamen-adierazpenak kaltetutako biztanleei lehentasuna emanez eta, batez ere, udalekin elkar hartuz, eskubide hori benetan gauzatzeko modua egon dadin.

Azkenik, interesgarria litzateke udalen hirigintz ordenantzetan, hondamen-adierazpena arautzean, ordezeko etxea jasotzeko eskubide hori aitortzea, bai eta eskubide hori ahalbideratzeko jarraitu beharreko prozedura finkatzea ere, hondamen-espeditzearen osagarri edo zati bezala. Kontutan eduki behar da Konstituzioak esaten duenean aginte publikoek etxebizitza-eskubidea gauzatzeko behar diren neurri eta baldintzak ipini behar dituztela, betebeharrak hori udalei ere ezartzen zaiela.

#### 7.4.6. ONDORIOA

Hirigintza alorrean aginte publikoek (udalek batez ere) jarduten dutenean, hondamen-adierazpenen ondorioz bakarrik gertatzen da legezko bizilagunek etxea utzi behar izatea, ordezeko etxea jasotzeko eskubidea onartu gabe. Hirigintz jardueretan, gainontzeko kasu guztietan, 1992ko LLTBko 4. xedapen gehigarriak ordezeko etxea jasotzeko eskubidea onartzen die kaltetutakoiei.

Konstituzioak finkatzen duen etxebizitza duina edukitzeko eskubidea (47. art.) benetakoa izateko, ordezeko etxea jasotzeko eskubide hori ohizko etxebizitza erauzten denean kaltetuta geratzen diren bizilagun guztiei onartu beharko

zaie, inolako mugarik ipini gabe etxea erauzteko motibuarengatik, maizterrari edo jabeari egotzi beharreko axolagabekeriagatik izan ezik.

Behar hori larriagoa da, horrela esaterik badago, hirigintz hondamendia gertatzen denean. Kasu horietan, hirigintz alorreko antolaketak muga desberdinak ezartzen dizkie antolaketaz kanpokotzat jota dauden eraikuntzen jabeei; izan ere, egiturazko obrak egitea debekatzen zaie, eta higiezinaren hondamena areagotu eta hondamen-adierazpena azkartu egiten du, trukean inolako kalteordainik eskaini gabe.

Euskal Autonomi Komunitateko herri-agintariak arau bidez erantzun beharko liokete egoera horri, bai eta hondamen-adierazpen kasuetan ordezko etxea jasotzeko eskubidea onartu ere, bestelako hirigintz jarduerak kaltetutako-ei onartzen zaien baldintza berdintsuetan. Bien bitartean, udalak administrazio ekintzaleak direnez gero, haien jarduera administratiboak, eta haien hirigintz ordenantzek ere jarri beharko lukete eskubide hori onartzeko bidea.

## **7.5. EUSKAL AUTONOMI KOMUNITATEAN AGERIKO MEATEGI-LANETAN (HARROBIETAN) INGURUGIRO ETA GIZARTE MAILAKO INTERESAK ARAUBIDEZ BABESTEKO BEHARRA**

### **7.5.1. GOMENDIOAREN HELBURUA**

Gomendio honen bitartez, Euskal Autonomi Komunitateko Administrazio amankomunari oraingo eta geroko ageriko meategi-lanak (harrobiak, nagusiki) araupetzeko aholkua eman nahi zaio, jarduera horiek ingurugiro eta gizarte mailan eragiten dituzten ondorioak konpontzeko bidea jar dezan.

### **7.5.2. AGERIKO MEATEGI-LANEK ERAGITEN DITUZTEN ARAZO OROKORRAK**

Hemengo gomendio honen arrazoibide bezala, esan dezagun zer nolako eraginak izaten dituzten ageriko meategi-lanak, eta eragin horiek nola arindu daitezkeen ondoko lerrootan proposatzen den araupetzearen bitartez.

#### **7.5.2.1. Oraingo egoeraren nondik norakoak**

Meategi-lanak Euskal Herriko ekonomiarentzat aberastasun iturri izan dira aspaldidanik. Hala eta guztiz ere, jarduera horrek gure lurraldean izan dituen ondorioak nahiko nabariak dira. Gaur egun, Euskal Autonomi Komunitatearen mugen barruan 48 harrobi daude kareharria ateratzeko; berauek dira, gainera, gure Komunitatean egiten den ageriko meagintza-jar-

duera bakarria. Lurralde historikoetan nola banatzen den ikusi nahi badugu, esan beharra dago honelako ustiaketak Bizkaian eta Gipuzkoan biltzen direla nagusiki, Araba izanik meagintza-gaiak ateratzeko lanak gutxien jasaten dituen.

Era honetako jarduerak giza eta natur inguruan duten eragina askoz handiagoa da euskal Komunitatean, lurralde txikia eta biztanleria handikoa izanik, nahiko zaila delako aurkitzea herriren edo bizi-alderen bat zuzenean eta hurbitetik kaltetzen ez duen tankera honetako jarduerarik. Gure herrian are nabarriagoa da hemen azaltzen dugun arazoa, hiriz kanpoko esparruetan orografia gorabeheratsuaren eraginez, biztanleria nahiko sakabanatuta dagoelako.

Historiari begiratzen badiogu, edozein eratako meagaiak betidanik bilatu izan diren ondasunak dira, eta horiek lortzeko langintza ohizkoa izan da gure artean, ekonomiaren lehen sektorearen eta sektore aldarazlearen erdibidean kokatua. Nolanahi ere, meategi-lan horiek, ingurugiroan eta gizartean dauzkaten eraginekin, sustrai sendoak dauzkate gure historiaren iraganean; horrela, askotan gertatzen da gure lurretan dauden meategi edo harrobi asko beste errealitate juridiko eta sozialean hasi zirela lanean, oraingoaren aldean nahiko desberdina den errealitate batean alegia, eta horregatik, askotan ez direla gaur egungo arauetara eta gizartearen eskarrietara moldatuta egoten.

Horren guztiaren ondorioz, badago halako gatazka bat interes desberdin batzuen artean, askotan nekez batera daitezkeen bi beharrez kolektibo aurkitzen direlako aurrez aurre. Alde batetik, garapena bilatzen duen eredu ekonomiko batek era honetako jarduerak eskatzen dituela onartu beharra dago, neurri batean behintzat. Eta bestetik, biztanleria osoaren interesak babestu beharra ere badago, kontutan hartuz gizakiarentzat ingurugiro egokia ere behar dela eta, orobat, gizarteak onartu ezin dituen arriskuak galerazi behar direla.

Ezin esan daiteke gure gizartean konponbidea aurkitu zaionik interes-gatazka horri. Izan ere, Ararteko Erakunde honetan gure Autonomi Komunitateko zenbait harrobiren inguruko auziak mahairatu dira azken garaioan, eta, halaber, komunikabideek gero eta sarriagotan jasotzen dituzte meategi-lan horiek ingurugiro eta gizarte mailan eragiten dituzten arazoak. Gauzak horrela, argi dago garrantzitsua dela interes kontrajarri horiek behar bezala elkartzea eta gure lurraldeko harrobiei halako arauketa bat ezartzea. Gure antolabide politikoan, nagusiki aginte publikoak dira garapen ekonomikoaren beharra eta ingurugiroaren babesa, bere zentzurik zabalenean, bateratu behar dituztenak.

### 7.5.2.2. Harrobiek eragindako ondorioak

#### A) Ingurugiroan

Harrobietan egiten den lanak eragin nabariak ditu haien natur inguruan. Alde batetik, harria ateratzeak, harrobia kokatzen den lurraldearen funtsezko eral-

daketa eragiten du. Bestalde, meategi-lanari lotuta dauden zeregin osagarriek ere beren eragina daukate ustiaketa ren inguruko natur-osagai desberdinetan.

Harri-ateratze lanak ingurugiroan dituen eraginak, pentsatzekoa denez, ez dira mugatzen natur inguruak jasotzen dituen kalteetara, tokian tokiko giza geografia osatzen duten elementu guztiak ere jasotzen baitute eragin hori.

Azkenik, jarduera horrek ingurunean edo giza-giroan eraginak izan ohi dituela egia bada ere, horrek ez du esan nahi ustiaketa egiten den moduan aldaketak gertatuz gero, beste era bateko kalteak ere izango ez dituenik. Pentsatzekoa denez, kontutan harturik nolakoak diren jarduera horiek, bai eta denbora luze samarra irauten dutela ere, arrazoizkoa da jarduera hori aurrera eramateko baldintzak aldatu egingo direla aurrikustea, eta, orobat, tarteka eta banaka gerta litezkeen bestelako kalteak ere sailkatzea.

Ondoan ematen dugun zerrendan bilduko ditugu ageriko meagintzak ingurugiroan dituen eragin nagusiak:

a) lurraren aldaketa: harria ateratzeko lanen ondorioz, lurra galdu, paisaia aldatu, landaretza eta fauna desagertarazi, eta lur horretan zeuden giza elementuak ere suntsitu egiten dira.

b) lur-barnearen aldaketa: materialen egitura, tankera eta antolaketa aldatu, eta egonkortasuna eta eramangarritasuna murriztu egiten dira.

c) lur azaleko eta lurpeko uren aldaketa: txukatze-sarea apurtu eta aldatu, lurraren ezaugarri hidrológicoak aldatu, eta urak fisikoki eta kimikoki kutsatu egiten dira.

d) Eguratsaren kutsaketa: hautsa harrotu, eta zarata-kutsadura eragiten da.

e) Bestelako ondorioak: dardarizoak, haize-aldaketa, isurketak, hondakin-pilaketak, komunikabideen kutsadura, eta zehaztu gabeko arriskuak.

## B) Lan faktorean

Erraz froga daiteke meategi-lanetan, agerikoak izan ala ez izan, lanpostuen segurtasuna ziurtatu gabe dagoela oraindik ere. Jarduera hauen ezaugarriak kontutan izanda, ingurunea eta giza giroa ez ezik, harrobietako lana egiten duten pertsonak ere arriskuan egoten dira, une oro gainera. Gure Autonomi Komunitateko harrobietan zenbat istripu larri gertatu den ikusirik, argi dago arreta berezia eman behar zaiela kasu horiei.

Beste alde batetik, badira beste faktore batzuk alor honetako lana kolokan jartzen dutenak: hots, meategi-lanetan aritzen diren langileak trebakuntza eskasekoak izatea, lantokiak sakabanatuta egotea, ustiaketa askotan langile gutxi egotea, eta langile horiek antolatuta ez egotea. Horretaz gainera, harrobien lanaren ondorioz sortzen den kanpoko enplegua ere zabala da, alor horren bilakaeraren menpe dago, eta erraz ordezkari daitekeena da; horregatik guztiagatik, gizarateak ere ondorio garrantzitsuak jasan behar izaten ditu, jarduera horiek aldatu edo moldatu beharra gertatzen denean.

## C) Enpresa faktorean

Neurri batean, errealitate berriak kapital faktorean dituen ondorioetan bilatu behar dugu hargintza alorra koordenada juridiko eta sozial berrietara behar bezain ongi moldatuta ez egotearen arrazoia. Ondorio horietako bat aipatzearen, hor dago ingurugiroa babestu beharrak eragindako kostua, dagoeneko lanean ari diren ustiaketat, baina, batez ere, lanean hasteko dauden ustiaketat garrantzi handiko finantz arazoak eragin ditzakeena.

Beste alde batetik, inguru ustiagarriak gero eta mugatuagoak egonda, eta baliabideak ere murrizak izanik, etorkizunean ustiatzekoak izan litezkeen lursailen balioa handitu egiten da, eta horren guztiaren ondorioz, kostuak igo egiten dira.

Azkenik, gure Autonomi Komunitatearen hargintza alorraren ezaugarrietako bat ustiaketak txikiak izatea eta enpresak gestionatzeko gaur egungo tekniketara moldatu gabe egotea da. Ildo honetatik, harria ateratzeko lanetan diharduten enpresak koordenada ekonomiko berrietara moldatzearen, enpresa horiek batu beharko dute, eskala-ekonomiak sortu ahal izateko eta ustiaketak egiteko teknika baliabideak hobetu ahal izateko.

### 7.5.3. **AGERIKO MEATEGI-LANEK INGURUGIROAN ETA GIZARTEAN DAUZKATEN ERAGINEI GAUR EGUN EMATEN ZAIZKIEN ERANTZUN JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAK**

#### 7.5.3.1. **Zuzenbideak ematen dituen erantzunak**

Gure antolabidean meategi-zuzenbidea nagusiki zuzentzen duen arau publikoa, zalantzarik gabe, 1973ko Meategi Legea da, eta hori osatzeko arautegia abuztuaren 25eko 2.857/1978 Erret Dekretuaren bidez onartu zen. Lege horren barruan, harrobietan egiten den jarduera A ataleko meagaien ustiaketarako ekintzen artean kokatuta dago, bertan biltzen baitira berezko baliorik gutxieneko meagaiak.

Arau horrek badu naturgunearekiko halako kezka bat, eta hori benetan aipagarria da, kontutan hartzen badugu gizarteak gaur egun duen ekologiaren aldeko jarrera ezin dela konparatu orain dela hogeiturokoarekin. Dena dela, tamalez, lege hau atera zeneko zertzeladak berehala aldatu ziren, handik gutxira lehen petrolio krisia gertatu baitzen, jarduera ekonomikoek gizarte eta ingurugiro mailan dauzkaten kostuen trataeran ondorio latzak izan zituelarik.

Halaz guztiz, 1973ko Meategi Legea da ageriko meategi-lanei zuzenean ezar dakiekeen lege mailako arau bakarra, baina egia da, orobat, lege horren edukiak neurri txikian baino ez duela jasotzen gure arteko harrobiek gizarte eta ingurugiro mailan dauzkaten eragin kaltegarriak konpontzeko beharra.

Meategi Lege horren 5.3. artikulua dioena osatzearen, urriaren 15eko 2.994/1982 Erret Dekretua eman zen, meategi-lanek kaltetutako naturgu-

neak bereoneratzeari buruzkoa, hain zuzen ere. Arau hori Estatu mailakoa eta meategi-lan mota guztiei ezarri beharrekoa da, eta haren arabera lanek kaltetutako naturgunea Bereoneratzeko Egitarau bat aurkeztu eta burutzeko beharra ezartzen dio ustiatzaileari.

Hortaz, dekretu honek kalteak konpontzearen aldeko jarrera du, ez du meategi-lana auzitan jartzen, eta bilatzen duen helburua ustiaketak kaltetutako gunea, ahal den neurrian, lehenagoko egoerara itzultzea da. Bereoneratzeko behar hori, nolana ere, ageriko ustiaketei ezartzen zaie, eta ahalmena duen Administrazioari aukera ematen zaio dagokion ustiatzaileari bereoneratzeko egitarau hori betearazteko. Halaber, argi adierazita dago ustiatzaileak bereoneratze hori bere kabuz egitea edo Administrazioaren esku uztea erabaki dezakeela, baina, beti ere, ustiatzailea bera izanik bereoneratze hori ordaindu behar duena.

Hitz gutxitan esanda, 1982ko dekretua aurrerapausu garrantzitsua da ageriko meategi-lanek ingurugiroan dituzten eraginei aurre egiteko orduan; dena dela, arau horren oinarrian dagoen ideia ustiaketak kaltetutako luraren paisai eta natur balioa, ahal den neurrian, *a posteriori* berreskuratzea da. Hori horrela izanik ere, esan beharra dago estatu mailako lege hori oso gutxitan aplikatzen dela gure Autonomi Komunitatean, eta horrek harrobi askok naturgunean duten eragina kontrolatu gabe dagoela erakusten digu berriro.

Gure Komunitatean egiten diren meategi-lanei aplikatzekoak izan daitezkeen beste araei dagokienez, funtsean Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegia, 1961ean onartua, eta haren osagarri den arautegia aurkitzen dugu. Ildo honetatik, jurisprudenziak jarduera gogaikarri eta arriskutsutzat jo ohi ditu harrobietako lanak, batez ere udalek haiek zaintzapean edukitzeko hartu behar duten arduraren ondorioetarako.

Azkenik, aipatzekoa da meagintzari oro har ezartzekoak direnez gain, laneko segurtasun eta osasunbiderako baldintzen artean ez dagoela harrobianari buruzko xedapen berezirik.

Estatuko beste autonomi komunitateetan indarrean dagoen, baina Euskal Komunitatean aplikatzekoa ez den arautegiari begiratzen badiogu, ezer baino lehen Kataluniako 12/81 Legea, abenduaren 24koa aipatu behar da; lege horren bitartez, meategi-lanek kaltetu dituzten natur balio bereziko lekuak babesteko neurri osagarriak finkatu ziren. Arau hori osatzearen, uztailearen 15eko 343/1983 Dekretua eman zen, ingurugiroa babesteko meategi-lanei ezarri beharreko araei buruzkoa, non aditzera ematen baita meagai-ustiaketen titularrak Bereoneratze-Egitarau bat aurkeztera eta, berme baten bidez hori garantizatzen behartuta daudela. Orobat, 1988ko ekainaren 6ko Aginduak dekretu hori garatu berri du, kaltetutako ingurugiroa bere onera itzultzeko behar horren epeak ezarriz.

Aipagarria da Asturias Printzerrian indarrean dagoen arautegia ere, martxoaren 21eko 51/1989 Dekretua batez ere, zeinetan arautzen baita Printzerriaren eskumendeko mendietako lurak betetzeko baimena eta meagaiak ustiatzeko emakida jasotzeko jarraitu behar den bidea.

Nolanahi ere, dekretu horretan jasotako eragin-tratamendua ez da nahikoa egiaz ingurunearekiko kalteak gutxitzea lortzeko.

Azkenik, hona iritsi ondoren, aipa dezagun maiatzaren 9ko 1.116/1984 Erret Dekretua, ageriko ikatz meategiak ustiatzeko eta bereoneratzeko plangintzak gutxienez izan behar duen edukia arautzen duena. Gure Autonomi Komunitatean aplikatu ezinezkoa den arren, interesgarria da jakitea, haren arabera, bereoneratzeko plangintza horren barruko puntu batzuk ustiatzaileak derrigorrez aurkeztu eta finantziatu behar dituela. Nolanahi izanda ere, 2.994/1982 Dekretuak ikuspegi hori bera hartu du bere xedapenetan, ordezko zuzenbide balioa dutelarik ageriko ikatz meategietarako.

Harrobiei ezartzen zaien arautegiari buruzko atal hau osatzearren, azaletik aipatu beharko dugu zer esaten duen Zuzenbide pribatuak meategi-lanek eragindako kalteen erantzukizunari buruz, Kode Zibilean dagozkion aginduetan araututa dagoenari jarraiki.

### 7.5.3.2. **Administrazioak ematen dituen erantzunak**

Administrazioaren alorrean, aipatzekoa da, beste ezer baino lehen, oso ugariak direla ageriko meategi-lanen arloan nola edo hala eragina daukaten ahalmen-tituluak. Zehazkiago esatearren, honako hauek dira jarduera horien gainean Administrazioari ekiteko aukera eman diezaioketen tituluak:

- lurralde antolakuntza
- hirigintza
- ingurugiroa
- meategiak
- nekazaritza
- mendiak

Aldi berean, ahalmen-titulu horiek guztiak batera gertatzen direnez gero, azkenik administrazio bat baino gehiago dira meategi-lanen alorrari buruzko nolabaiteko ardua daukatenak; horren ondorioz, hainbat eratako baimen, lizentzia eta prozedura pilatzen dira, kostu handiz gainera; horrek ez dio inolako mesederik ekartzen interes orokorren babesari, eta, gainera, traba handi samarrak jartzen dizkio baliabide horiek ustiatu nahi dituen ekimen pribatuari.

Adibide bezala, har dezagun Euskal Autonomi Komunitatean onura publikotzat jotako mendi batean kokatuta dagoen harrobiaren kasua. Ustiatzaileak, ustiatzeko diren lurren jabearekin eduki beharko dituen harremanez gain, honako administrazio sail hauen jarduerarekin topo egingo du:

- Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailordetza.
- Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolakuntzarako Sailordetza.
- Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailsa.



- Dagokion Foru Aldundiaren Nekazaritza Saila.
- Dagokion udala.

Puntu honetan gaudela, adierazi behar da gure Autonomi Komunitatean meategi-lan bati ekitekoan edo arautzerakoan, hainbat biderapen egin behar izaten direla: lehendabizi, dagokion udalaren jarduteko baimena lortu behar da; ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailordetzak Ingurugiro-Eraginei buruzko lkerketa onartu behar du; gero, Gobernu autonomoko Industria Sailari aurkeztutako ustiaketa eta bereoneratze plangintzak baimena jaso behar du; eta, gainera, azken sail honek dagozkion leherketak egiteko baimena ere eman behar du.

Nolanahi ere, gure Autonomi Komunitateko harrobien gaurko egoera administratiboa arauz kanpokoa da hainbat kasutan, haietako askori ez baitzaizkie beharrezko baimen administratiboak eman. Gauzak horrela, bai eragingarritasun administratibo handiagoa lortzeko, bai alor honi segurtasun juridikoa emateko ere, behar-beharrezkoa da meategi-alorra orokorki tratatzea, gaur egungo arauetara moldatzen ez diren ustiaketen egoera araupetzeko eta jarduera horien ondorio kaltegarriak murrizteko gizarteak egiten duen eskariari aurre egin ahal izateko.

#### **7.5.4. AGERIKO MEATEGI-LANEN ERAGINARI AURRE EGITEKO ARAU PROPOSAMENA**

Aurreko puntuetan azaldu dugun egoera aldatu beharra dago, ikusi den bezala Euskal Autonomi Komunitatean dauden ageriko meategiak ez baitute betetzen indarrean dauden arauak eta gizarteak berak eskatzen dutena; horretarako, arau autonomiko bat eman beharko litzateke, jarduera horiek inguru-nean eta gizartean dauzkaten eragin kaltegarriak konpontzeko, beti ere gaurko egoera kontutan hartuz, horrela arau hori denbora tarte laburrean aplikagarria izan dadin. Ondoko lerrootan ematen dugu aditzera nolakoak izan beharko luketen gomendio honen arabera proposatzen den arauaren edukiek.

##### **7.5.4.1. Helburua**

Arau horren helburu nagusia, Euskal Autonomi Komunitatean dauden ageriko meategiek, harrobiek batez ere, gizartean zein ingurugiroan eragiten dituzten ondorio kaltegarriak konpontzeko sistema bat sortu eta arautzea izango da.

#### 7.5.4.2. **Edukia**

Gizarteak eta ingurugiroak jasaten dituzten ondorio horiek gomendio honen bigarren puntuan aipatu ditugunak dira, eta badirudi gaur egungo gure gizarte osoak nahi duela ondorio horiek konpontzeko bidea jartzea.

Ingurugiroa esaten dugunean, ordea, ez ditugu natur gaiak soilik aipatzen, ustiaketa bakoitzak eragindako lekuko giza geografia osatzen duten elementuak ere hartzen baititugu aintzat; haien artean, gizakiak materialki egindako guztia ez ezik, gizakiaren arrasto fisikorik ez duten halako inguru batzuetan gorderik egon daitezkeen ohizko edo izpirituzko baloreak ere aurkitzen dira.

Proposatzen dugun arau horrek ingurugiroak jasaten dituen kalteei eman beharreko trataera jorratuko luke zuzenean; eragin sozialak, aldiz, zeharka gutxituko lirateke harrobien ustiaketa kostuak murrizteko aurrakusten diren tresnen bitartez.

Parametro horien arabera, proposatzen den arau hori Euskal Autonomi Komunitateko lur azaleko edo lurpeko meagaiak ustiatzeko erabat edo zati batez agerian egiten diren atera-lan guztiei ezarriko litzaieke.

#### 7.5.4.3. **Aginpidea**

Gomendio honetan proposatzen den araua emateko aginpidea Euskal Autonomi Komunitateko aginteei dagokie, Euskal Herriko Autonomi Estatuaren 11. artikuluko 1. a) eta 2. c) zatietan ebatzitakoari jarraituz.

Gure Autonomi Komunitateko oinarritzko arau instituzionalaren arabera, Komunitatearen betekizuna da Estatuak ingurugiro gaietan duen funtsezko legeria garatu eta exekutatzea, eta, beraz, titulu horri jarraituz eman beharko litzateke lerro hauetan proposatzen den araua. Ildo honetatik, gogoratu behar da ingurugiro kontzeptua, Konstituzioaren 45. artikuluan erabilia, oro har ingurunea osatzen duten natur eta giza osagaiak biltzen dituen dela.

Gomendio honetako bigarren puntuan ingurune kontzeptuan sartu ezi-nezkotzat jotako eragin sozialei eman behar zaien erantzunari dagokienez, Euskal Autonomi Komunitateak aginpidea du Estatuak meagintza gaietarako ematen dituen arauak lege bidez garatzeko, bai eta legeria hori betearazteko Autonomi Komunitatearen mugen barruan.

Azkenik, Euskal Autonomi Komunitatean indarrean dagoen boterea banatzeko egitura kontutan harturik, hemen aipatutako aginpidea Komunitateko erakunde amankomunaren esku dago; horregatik, ondorioz aditzera ematen dugu gomendatzen den arau hori azkenik Eusko Jaurlaritzak onartu beharko duela.

#### 7.5.4.4. Izaera juridikoa

Lehenago esandako helburua duen arau bat emateko aginpidea Euskal Autonomi Komunitateak duela adieraziz erabaki horrek dekretu izaera izan behar duela esan nahi dugu.

Autonomi Komunitateak horri buruzko lege bat emateko ahalmena duen arren, arauaren gaiari begira, ez da komenigarria hain garrantzi juridiko pasibo handiko indarraz hornitzea; era berean, bere edukia erantzat ez litzateke egoia izango lege mailako arauentzat finkatuta dagoen onartzeko bide hain zorrotza hartu behar izatea.

Beste alde batetik, proposatutako arauak orokorra izan nahi duenez gero, ez da komeni dekretuaren azpiko maila ematea; gainera, Gobernu-Kontseilutik kanpo nekez onartuko litzateke, zeren eta, lehenago esan den bezala, arau horretan bi aginpide-titulu desberdin biltzen baitira.

Orobat, lerrootan gomendatzen den arauak etorkizunean Euskal Autonomi Komunitateko meagintza Antolatze Plangintza baten aurre-lana izan beharko luke; plangintza horrek zehaztuko luke, azkenik, jarduera horiek non kokatu behar diren, eta, gainera, Arartekoak gomendio honetan eragin horientzat proposatzen duen erantzuna arautzeko filosofia ere jasoko luke.

#### 7.5.4.5. Edukia

Proposatzen den arauaren edukia azaltzeko, araupetze horren funtsezko abiapuntuak zeintzuk izango diren azalduko dugu ondoren, bai eta argitu ere zer-nolako ondorio eta xedapen eratorriko diren haietako bakoitzetik.

##### A) Lehen abiapuntua: ahalik eta eraginik txikiena

Abiapuntu bezala, arauak kaltegarritzat joko ditu ingurugiro edo gizarte mailako eragin guztiak eta, beraz, meategi-lanak egiteko ezinbestez jasan beharrekoak diren eraginak bakarrik onartuko ditu.

Ezinbesteko eragin horiei eta, orobat, hasieran ustez gertatu beharko dutenei dagokienez, horiek neurri zuzentzaileen bidez konpontzeko bideak jarriko ditu arauak. Neurriak hiru mailatakoak izango dira:

a) Aurre-neurriak: meategi-lanaren fase bakoitzaren aurretik hartzen diren zuzenketak dira; ezinbestekoak ez diren ingurugiro eta gizarte mailako eraginak eragozte da haien helburua.

b) Bereoneratzeko neurriak: meategi-lanaren fase bakoitzean bertan hartzen diren zuzenketak dira; jarduera hori ohi den bezala gauzatzean gertatzen diren eta aurrikusita dauden ezinbesteko eraginaren kalteak gutxitzea da haien helburua.

c) Konpontzeko neurriak: meategi-lanaren fase bakoitzaren ondoren hartzen diren zuzenketak dira; jarduera horri ekin aurretik, ezinbestekotzat jo ez zirelako aurrikusi ez diren eraginen kalteak gutxitzea da haien helburua. Eragin kaltegarri horiek jardueraren garapenak dituen nahitaezko eraginak kalkulatzeko izandako okerrenngatik, edota jarduera hori ohi den ez bezala garatzeagatik gerta daitezkeenak dira.

## **B) Bigarren abiapuntua: aurre hartu beharra**

Ahalik eta eraginik txikiena izateko abiapuntuak duen burubide horren ildo beretik, arau horrek aurre-neurriak jarriko ditu bereoneratzeko edo konpontzeko neurrien gainetik. Horretarako, konpontzeko errazak diren kalteak ere eragozteko neurriak azpimarratuko ditu. Aurre hartzearen aldeko burubide horri jarraituz, araua bai jarduera berriei, bai lehendik ari direnei ere ezarriko zaie, ondoko irizpide hauekin:

a) Jarduera berriak: eraginei eman beharreko erantzuna antolatzen duen araua indar osoz ezarriko zaie jarduera berriei. Arau honek aurre hartzearen aldeko jarrera bultzatzen duenez gero, neurri zuzentzaile batzuk finkatuko dira, ustiaketari ekin baino lehen, hau da, lehen ateraketa egin aurreko lanak, ikerketak eta ustiaketak burutu aurretik hartu beharrekoak.

b) Lehendik ari diren jarduerak: araua ezartzerakoan, hiru ekintza-konzeptu bereiztuko dira:

a') Iraganeko ekintzak: araua indarrean jarri baino lehenagoko ekintzek eragin dituzten kalteak ez ditu jardueraren ustiatzaileak konpondu beharko. Nolanahi ere, konponketa horiek behar den malgutasunaz negoziatu ahal izango dituzte ustiatzaileak eta aginte publikoek.

Puntu honi dagokionez, proposatzen den arauak, klausula orokor baten bitartez, Euskal Autonomi Komunitateko aginte publikoek kalte horien konponketan parte hartu beharko dutela finkatuko du.

b') Oraingo ekintzak: kalteak konpondu beharra ez zaie ekintza hauei zuzenean ezarriko. Oraingo ekintzat jotzen da zentzu zabalean jadanik hasita dagoena, hots, egiaz hasi gabe egon arren, ustiatzaileari kostu batzuk ekarri dizkietenak. Hemengo araua indarrean jarri aurreko legeriaren arabera sortutako itxarokizunei erantzuten diotenak izango dira oraingo ekintzak. Denbora igaro ahala, araua indarrean jarri ondorengo ekintzek arrazoi gutxiago izango dute itxarokizun horiei erantzuten dietela argudiatzeko; horregatik, zaila gertatuko da oraingo eta geroko ekintzak argi bereizteko irizpide bat hartzea. Nolanahi ere, irizpide horren arabera, epe jakin bat ezarriko da, araua onartu ondoko denbora tarte mugatu batean, lehendik ari diren meategi jarduerak oraingo ekintzat hartzeko.

c) Geroko ekintzak: azpisail honetan sartuko dira aurrekoan aipatutako denbora tarte mugatu hori bukatu ondoren hasita dauden ustiaketetan egingo diren ekintzak. Ekintza berri horiek jarduera berritzat joko lirateke, proposatutako araua ezartzearen ondorioetarako.

Azkenik, eraginei eman beharreko erantzuna antolatzen duen arauak, harrobia ustiatzeko lanetan, alde batetik atera-lanak, eta, bestetik, meagaiaren bilketa eta trataera lanak bereiztuko ditu, kasu bakoitzerako neurri zuzentzaileak finkatzeko orduan.

### C) Hirugarren abiapuntua: programazioa

Jarduera berriek ondoko dokumentuak egin eta aurkeztu beharko dituzte beraien etorkizuneko garapena programatzeko:

a) Ustiaketa-Plangintza: bertan, ustiatzaileak, atera-lanak edo beste era batekoak egitean, ezartzekoak diren arau teknikoaren arabera eta meagaiaren arazoizko probetxamendua lortzearen egiten dituen ekintzak sartuko dira.

b) Eraginei Erantzuna Emateko Egitaraua: egindako plangintzaren arabera jardueraren ustiaketan sortuko diren eraginak gutxitzeko ahaleginak antolatzeari izango da egitarau honen helburua.

Haren edukien artean, honako puntu hauek jasoko dira:

1. Inguruaren hasierako egoera.
2. Ingurugiro eta gizarte mailako eraginaren zerrenda.
3. Inguruaren bukaerako egoera.
4. Aurre-neurriak.
5. Bereoneratzeko neurriak.
6. Eraginei eman beharreko erantzunak, denboraren arabera sailkatuak.
7. Eraginei eman beharreko erantzunen finantziaketa.
8. Aurrikusitako Ustiaketa-Plangintzako trataeraren alternatibei buruzko azalpena.

Eraginei Erantzuna Emateko Egitaraua eratzeko, arau orokortasun printzipioan oinarrituko da; bestela esanda, arauaren kontutan hartuko dira inguruko natur eta giza mailako elementuetan zalantzarik gabe gertatuko diren eraginak, baina, baita ere, ustiaketaren ohizko zertzeladak aldatuz gero, halako arazoizko muga batzuen barruan, seguraski gertatuko liratekeen eraginak; hauek zalantzazko eragintzat joko dira.

#### **D) Laugarren abiapuntua: Ustiaketa-Plangintza eta Eraginei Erantzuna Emateko Egitaraua batera bideratuko dira**

Proposatzen den arauak Ustiaketa-Plangintza eta Eraginei Erantzuna Emateko Egitaraua, bai onartzen direnean, bai indarrean dauden bitartean, nahitaez batera bideratzeko agindua jarriko du. Betebehar hori ondoko xedapenen arabera antolatuko da:

a) Behin bakarrik onartu ahal izango dira bi plangintzak batera, ezinezkoa izango delarik bata onartzea bestea onartu gabe.

b) Jarduera aurrera eramatean Ustiaketa-Plangintzan aldaketaren bat sartu beharra baldin badago, Eraginei Erantzuna Emateko Egitarauetan ere derrigorrez sartu beharko da dagokion aldaketa.

#### **E) Bostgarren abiapuntua: onuraduna da ordaintzen duena**

Abiapuntu honen arabera, meategia ustiatzetik etekina ateratzen duenak ordaindu beharko ditu egitarauak jasotzen duen eraginei eman beharreko trataera gastuak eta, behar izanez gero, hartu beharko liratekeen konpontzeko neurrienak.

Jarduera ustiatzen duena emakidaduna bada edota ustiaketa lekuaren jabea ez den beste norbait, bera izango da onuraduna, baina jabea trataeraren kostu osoa ordaintzeko ordezkotza arduraduna izango da, bai behintzat bere jabetzako lurrari dagokion zatian.

Lurjabeak ere ingurugiroak jasaten dituen eraginen trataeran parte hartuko duela ziurtatzeko, oro har, ezingo da lur horretan beste ustiaketarik hasteko baimenik eman, Trataera-Egitarauak lursail horretarako ezarritako neurriak betetzen ez diren bitartean.

#### **F) Seigarren abiapuntua: onuraduna da bereoneratzen duena**

Proposatzen den arauari jarraiki, onuradunak burutu beharko ditu hartu beharreko aurre-neurriak, bereoneratzekoak eta konpontzekoak.

Beti nahiago izango da interesatuak berak burutzea Administrazioaren ekintzaz burutzea baino, hau, nolana ere, ordezkotza izango delarik.

Jarduera ustiatzen duena emakidaduna bada edota ustiaketa lekuaren jabea ez den beste norbait, bera izango da neurri horiek burutu beharko dituenak, baina jabea eraginen trataera burutzeko ordezkotza arduraduna izango da, bai behintzat bere jabetzako lurrari dagokion zatian.

### **G) Zazpigarren abiapuntua: errentagarritasuna**

Dagokion harrobiaren ustiaketak ekonomikoki errentagarria izan beharko du Eraginei Erantzuna Emateko Egitaraua martxan jartzearen kostuak zenbatu ondoren eta, ustiaketaren zertzeladak aldatzekotan, halako neurri berezi batzuen bitartez konpondu beharko diren zalantzazko eraginak kontutan hartu ondoren.

Ondorioz, eraginei eman beharreko erantzunaren ardatza honako hau izango da: onuradunak jarduera hori ustiatzetik ateratzen duen etekinaren arrazoizko zati bat erantzun edo trataera horri eskaini beharko dio; hortaz, errentagarritasun eskaseko ustiaketak bertan behera utzi beharko lirатеke, gertatzen diren edo gerta litezkeen eragin kaltegarriari eman beharreko erantzuna ziurtatzen ez badute. Nolanahi izanik ere, kontutan eduki behar da erantzunaren kostua produktuaren azken salneurrian isladatzeko aukera.

### **H) Zortzigarren abiapuntua: administrazio sustapena**

Gomendio honetan proposatzen den arauak industria garatzeko eta ingurugiroa konpontzeko neurritzat joko ditu hemen azaltzen diren aurre-neurriak eta bereoneratzeko neurriak; horrela, Euskal Autonomi Komunitateko aginte publikoek beren suspertze ahaleginetan eskaintzen dituzten egitarau edo dirulaguntzez baliatu ahal izango dira.

Era berean, oro har, behar den araeuan jasota geratuko da dagokion administrazio eskudunak laguntzak eta dirulaguntzak eman ahal izango dituela ageriko meategi-lanek eragin kalteak konpontzeko egitarauak ordaintzearren. Horri begira, kontutan hartu behar da eragindako kalteak konpontzeko zeregin horrek ustiaketetan dauden lanpostuei gaineratuko zaizkien lanpostu berriak sortaraziko dituela.

### **I) Bederatzigarren abiapuntua: ustiaketa eta konponketa, biak batera**

Ageriko ustiaketak dirauen bitartean ingurugiroari eragindako ondorio txarrak, bai eta konponketa lanak ustiaketa aurreratuta dagoen arte luzatzeak dakartzakeen arriskuak ere ahalik eta gutxien izan daitezzen, ahal den neurrian konponketa lanak ustiaketarekin batera egin beharko dira, edo, bestela, ahal den bezala aurreratu.

Orobat, ez da inolako ustiaketa lanik egiteko baimenik emango, lehenago aurre-neurriak hartzen ez badira, eta ustiaketarekin batera konpontzeko neurriak bideratzen ez badira. Era berean, ez da ustiatzeko baimenik emango aurre-neurriak eta konpontzeko neurriak hartzea teknikoki ezinezkoa baldin bada.

## **J) Hamargarren abiapuntua: eragineen trataera bermatzea**

Proposatzen den arauak honako bide hauek jarriko ditu ustiatzaileak eraginei erantzuna emateko beharra betetzen duela bermatzeko:

- a) Bahiak
- b) Isun behartzaileak
- c) Ordezko egiterapenak

Beste alde batetik, Eraginei Erantzuna Emateko Egitaraua osorik edo zati batez, edota behar denean hartu behar diren konpontze neurriak betetzen ez badira, jarduera denbora-tarte batez etenarazi egingo da, eta eten horretarako gehienezko epea igaro ondoren bete gabe jarraituz gero, orduan bertan behera utziko da dagokion baimena.

## **K) Hamaikargarren abiapuntua: neurriak hartzeko epeak**

Ustiaketak eragindako kalteak konpontzeko beharra denboraren arabera zehazteko, eta beharkizun hori betetzeko modukoa izan dadin, bai Ustiaketa-Plangintzak, bai Eraginei Erantzuna Emateko Egitarauak ere epeka banatuta edukiko dituzte beren edukiak.

Era berean, trataera emateko beharraren berme nagusia ere epeka banatuko da. Horrela, epe bakoitzerako finkatzen den bahiak dagokion denbora-tartean izandako etekinetatik zalantzarik gabe gertatuko diren kalteak konpontzeko erabiliko den portzentaia ziurtatzeko helburua izango du. Horrekin ustiatzaileak finantz arazorik ez izatea bilatuko da, horrela ez baitu jardueraren hasieran bahi orokorra jarri beharra izango.

Azkenik, neurriak epeka hartzeko abiapuntu honen arabera, ezinezkoa izango da geroagoko fase batera igaro, aurreko faseko ustiaketaren kalteak konpontzeko lanak bukatuta ez badaude.

## **L) Hamabigarren abiapuntua: erakundeen arteko koordinazioa**

Proposatzen den arauak Administrazioaren lana koordinatu eta errazteko beharko diren bide egokiak jarriko ditu, bai ustiaketari baimena emateko prozeduran, bai Ustiaketa-Plangintza eta Eraginei Eman Beharreko Erantzunen Egitaraua betetzen direla ziurtatu behar denean; horrela, ustiatzaileak izango dituen kostuak murriztu egingo dira.

Ildo honetatik, arauak aditzera emango du Ingurugiro-Eraginei buruzko Ikerketa bat sartu beharko dela Eraginei Erantzuna Emateko Egitarauaren barruan; horrela, jarduerari baimena emateko prozedura administratiboa erraztu egingo da, ingurugiroaz arduratzen den administrazio-saila izango baita



egitarau hori aztertu eta onartu beharko duena. Era berean, Eraginei Erantzuna Emateko Egitarauari, Ingurugiro-Eraginei buruzko Ikerketa maila emango zaio, ingurugiro-eraginaren ebaluaziorako Erret Legegintza-Dekretua egiteratzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1.131/1988 Erret Dekretuko 15. artikulua eta ondokoek diotena beteaz; horrela, dagokion meategi-lanei baimena emateko prozedura erraztu egingo da.

Halaber, meategi-lanak onura publikotzat jotako mendietan egiten badira, komenigarria litzateke lan horiek mendiak erabiltzeko baimena emateko prozedurara moldatzea, ustiaketari ekin baino lehenagoko biderapen administrati- boak erraztearren. Beti ere ulertutzat emanez Eraginei Erantzuna Emateko Egitarauaren barruan baimen horiek emateari dagozkion puntu garrantzitsu guztiak biltzen direla.

Beti ere, hemengo arau honek aipatzen dituen egitarauak onartzeko administrazio-prozedura berriak antolatzea eragotzi beharko da.

Ingurugiroaz arduratzen den sailak, aurkeztutako Eraginei Erantzuna Emateko Egitarauaren barruan, erakunde publiko zein pribatuen behartze- indarrak gabeko txostenak eginarazi ahal izango ditu halako epe labur jakin batean.

Arauk argi azalduko du zein epe izango duen ingurugiroaz arduratzen den sailak Trataera-Egitarauari buruzko erabakia hartzeko; kasu honetan, Administrazioaren isiltasuna baiezkotzat hartuko da, baina, nolahi ere, ez erabiltzea komeni da.

Ustiaketaren fase bakoitza amaitu ondoren, ingurugiro gaitan ahalmena duen administrazio-sailak zehaztu beharko du behar denean hartu beharko diren konpontzeko neurriak, bai eta neurri horiek betetzeko baldintzak ere.

#### 7.5.5. ONDORIOAK

**Lehenengoa.** Kareharria ateratzeko lanak ingurugiro eta gizarte mailan eragin larriak ditu gaur egun Euskal Autonomi Komunitatean; eragin horiek murriztea biztanleria osoaren nahia ez ezik, alorraren beraren benetako beha- ra ere bada.

**Bigarrena.** Gaur egungo arauak eragin kaltegarri horiek konpontzeko ematen dituen erantzunak argi eta garbi ez dira nahikoak, eta, gainera, admi- nistrazio batek baino gehiagok parte hartzen dute arazo honetan, eta ez beti behar den bezala koordinaturik.

**Hirugarrena.** Euskal Autonomi Komunitateko harrobiek ingurugiroan eta gizartean eragiten dituzten kalteak gutxitzeko beharra bete daiteke gure Komunitatean eragin horiek konpontzeko sistema egokia ezartzen duen arau bat onartuz.

**Laugarrena.** Harrobiek eragindako kalteak konpontzeko arau erregulatzaileria emateko aginpidea Autonomi Komunitateak du, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako dekretu forma izan beharko luke.

**Bosgarrena.** Arau horrek jarduerak sortutako kalteak konpontzeko lanak egin eta ordaintzeko beharra ezarri beharko lioke ustiaketaren onuradunari, dagokion ahalmena duen ingurugiro-sailak alde aurretik onartu beharko lukeen Ustiaketa-Plangintzarekin batera garatu beharko litzatekeen egitarauari jarraituz.

**Seigarrena.** Eragindako kalteen konponketa ordaintzeko, ustiaketak sortutako etekinen arazoizko zati bat erabili beharko da, ustiaketaren errentagarritasuna kolokan jarri gabe konponketa hori egin ahal izango dela ziurtatzearen.

**Zazpigarrena.** Eragin kaltegarriari buruzko arauak behar den erakundearen arteko koordinazioa lortzeko neurri egokiak jarriko ditu, ustiatzaileak egin behar dituen biderapen administratiboak errazteko eta jarduera-aldi bakoitza martxan jartzeak dituen kostuak murrizteko.

**Zortzigarrena.** Nolanahi ere, ingurugiroak jasaten dituen kalteak konpontzeko beharra arautzeaz gainera, beste neurri batzuk ere hartu beharko dira sistema horren bideragarritasuna ziurtatzeko; neurri horiek Euskal Autonomi Komunitateko hargintza alorraren plangintza orokorraren barruan egongo dira. Ildo honetatik, erdi epean, gobernu autonomoak Meategi-Lanen Alorreko Lurralde-Plangintza onartzeaz gainera, proposatzen da beste neurri batzuk ere hartzea enpresak batzeko behar den prozesua suspertzeko, bai eta finantz eta lan mailako beste hainbat neurri ere, alor honen moldaketak sor litzakeen unean uneko krisialdiak arintzeko.

VIII. ATALA

**AZKEN ONDORIOAK**

Jakina denez, Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 32.2. artikulua agintzen du Euskal Herriko Autonomi Komunitatean eskubideen babesa zein egoeratan dagoen adierazten duen balorazio orokorra sartu behar dela urteroko Txostenean.

Hortaz, besterik gabe, Eusko Legebiltzarrari aurkezturiko laugarren Txosten hau amaitzeko, joan den urtealdian herritarren eskubideen bermeari buruz ateratako ondorioak ezagutarazteari ekingo diogu.

Lehenik eta behin, 1992. urtean aurreko urteetan somatzen ziren joerak sendotzen direla esan behar dugu.

Berriro ere, alde batetik talde ezberdinek azaldutako kexak, gaiak modu orokorragoan tratatzera garamatzatenak azaltzen direla ikus daiteke, eta bestetik, pertsona anitzi eragiten dioten neurrian, arazo konkretuaz gaindikoak diren banakako kexak.

Orobat, azpimarratu nahi dugu aurkezturiko kexen biderapena ez dela eskubideen babesaren egoera euskal gizartean nolakoa den ezagutzeko Arartekoak izan duen informazio-iturri bakarra, horretaz gain, ofiziozko zenbait jarduera burutu baitira, eta horiei esker atentzio berezia merezi duten giza talde batzuen egoera zehatzaz jabetu ahal izan gara.

Eta Erakunde honek erabili duen zuzen-zuzeneko ezagupide horretatik abiatuta egingo dugu aginduz eskatu diguten balorazioa. Oraingoan ere adierazi behar dugu gutxi izan direla Konstituzioko I. idazpuruaren bigarren kapitulu-ko lehen zatian jasotako eskubideren bati zuzenean eragiten dioten euskal administrazio publikoen jardueri buruzko kexak, gehientsuenak oro har berdintasunaren printzipioa ustez urratzeari edo, beste zentzu batean, funtzio eta kargu publikoetara iristeko bideetan berdintasuna kontutan hartzeari dagozkio, hurrenez hurren Espainiako Konstituzioaren 14. eta 23.2. artikuluetan sendesten direnak.

Zuzenbidezko Estatu batean zentzuzkoa dirudi oinarrizko eskubideen eta herri-askatasunen alorrean Administrazioak burututako jardueri buruzko kexa gutxi egoteak. Ildo honetatik, esan daiteke ez dela jaso eskubideen ustezko urratzei, hala nola bizitzarako eskubideari, gizakien gorputz-osotasunari, pentsamolde, elkarbide edo partehartze-askatasunari dagokion kexarik. Gai honi dagokionez, esan behar da eskubide horietako batzuek, Estatuko Administrazioaren ustezko jardueri eragiten dietelako, Arartekoaren jardueraremutik kanpo geratzen direla eta berorietaz Estatuko Herri Defendatzaileak arduratu behar duela.

Beraz, 1992ko urtealdi honetan ere, aurrekoetan bezalaxe, kexa gehienak giza eskubideen ustezko urratzeei dagozkie, edo Espainiako Konstituzioaren 103.1. artikulua agintzen duena -hots, administrazio publikoek zuzentasunez interes orokorren alde jokatu behar dutela, eraginkortasunez eta Legeari eta Zuzenbideari men eginez- ez dela betetzen salatzen dute.

Txosten honen aurreko kapituluetan aditzera eman dugunez, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza sailak eragin ditu kexa gehienak 1992 urtean.

Harrigarria bada ere, kexa ugari sorrerazi dituzte *ad intra* eragina duten administrazio publikoen beraien jarduerak, funtzionari izaerazko gaiak buruzkoek; jarduera horiek funtzionariei dagozkie, Administrazioaren menpean baitaude nagusitasun edo menpekotasun bereziko egoeran. Ezin ahaz dezakegu langilegoaren kudeaketa aproposari esker, zerbitzu publikoa egokiago egiteratzen dela eta, zalantzarik gabe, azken finean horrexek duela eragina herritarrengan.

Gainera, bere baitarik edo alde batekoek hala eskaturik, Arartekoak funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuak ikuskatu ditu, bere iritziz, Herri-agintaritzak zuzen-zuzen errespetatu behar baitu lanpostu publikoa lortzeko eskubidea, denei aukera berak emanez, gaur egungo langabezi egoera kon-tuan harturik.

Toki-administrazio batzuek antolatzen dituzten hautaketa probetan, oraindik ere Espainiako Konstituzioaren 23.2. artikuluan xedatutakoa urratzen duten atal baztertzailak ipintzen dituztela dakusagu, izan ere, proba horietan esku hartu ahal izateko, soldaduska egina izatea edo udalerrri jakin batean gu-txienez urte batzuetan bizi izana ziurtagiri bidez egiaztatu behar da.

Administrazioak hauta-probetan parte hartu duten lehiatzaileei beren azterketa ikusteko eskaria ukatzea ere maiz samar gertatu da, horrela beren interesen alde egiteko arrazoizko defentsa paratzea galerazi dielarik; honek argiro babes gabe uzten du herritarra eta Konstituzioko 105. b) eta horrekin lotura duen 24.1. artikuluan ezarritakoa hausten du.

Bestalde, etengabe gauza bera esateak aspergarri egiten bagaitu ere, berriro ere isiltasun administratibo ukakorra gehiegikeriaz erabiltzea eta horrek herritarrengan eragiten duen babesik eza salatu beharrean gaude.

